



2011
56, 1-2

EUSKERA

2011
56, 1-2

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca

Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSKERA



Euskera 2011, 56, 1-2, 1 - 508, Bilbo. ISSN 0210-1564

E U S K E R A



2011
56, 1-2
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Telefona: 94 415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44

e.posta: info@euskaltzaindia.net • web gunea: www.euskaltzaindia.net

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones
Cette revue s'échange avec d'autres publications
This journal can be exchanged for others by agreement

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikedex.es

Preimpresioa: Composiciones Rali, S.A.

Particular de Costa, 8-10. 48010 Bilbo

Inprimategia: Baster, Talleres Gráficos, S.L.L.

Pol. Atxukarro, 2, 48480 Arrigorriaga (Bizkaia)



Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da, 1920. urtetik argitaratzen dena. Urtean hiru zenbaki argitaratzen ditu, lehena eta hirugarrena, Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen dituztenak (sarrera-hitzaldiak, hizkuntza-arauak, jardunaldiak...), eta bigarrena, Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen dituena.

Euskerako artikuluak banan-banan katalogatzen eta indexatzen dira *Azkue Bibliotekaren* katalogoan (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) eta erakundearen web guneko bilatzaile berezi batean (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), aldi berean formatu digitalean eskainiz. Orobat, *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) datu-baseetan eta *Latindex* katalogoan (<http://www.latindex.unam.mx/>) jasotzen dira.

La revista **Euskera** es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. Publica tres números al año, de los cuales el primero y el tercero recogen los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia (discursos de ingreso, normas lingüísticas, coloquios...), mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales en los varios ámbitos de trabajo de la Academia, reseñas de libros y similares.

Los artículos de *Euskera* son catalogados e indexados en el catálogo de *Azkue Biblioteka*, la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) así como en un buscador específico disponible en su página web : (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>) donde además se ofrecen en formato digital. Asimismo se recogen en las bases de datos *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) y en el catálogo *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

La revue **Euskera** est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia, elle paraît depuis 1920. Trois numéros sont publiés par an, dont le premier et le troisième rassemblent les travaux et activités académiques d'Euskaltzaindia (discours d'intronisation, normes linguistiques, colloques, etc.), tandis que dans le deuxième sont publiés des articles originaux de recherche portant sur l'un des différents domaines de travail de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications.

Chaque article d'*Euskera* est répertorié et indexé dans le catalogue de la *Bibliothèque Azkue*, la bibliothèque de l'Académie de la langue basque (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) ainsi que dans un moteur de recherche spécifique disponible sur son site Web : (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), où ils sont également proposés au format numérique. Par ailleurs, ils sont enregistrés dans les bases de données *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) et dans le catalogue *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

Euskera is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia and has been published since 1920. Issues are published three times a year: the first and third contain the work and academic activity of Euskaltzaindia (induction speeches, language rules, symposia...), while the second is dedicated to publishing original research articles in the various areas of the Academy's work, book reviews and the like.

Euskera articles are catalogued and indexed in the Royal Academy of the Basque Language's *Azkue Library*, (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) as well as on a specific search engine available on its website (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), where they are also provided in digital format. They are also held on the *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) data-bases and on the catalogue *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

Idazkari teknikoa: RICARDO BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS.
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA.
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA.
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI.
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE.
Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza Saila. Gasteiz

AHOLKU BATZORDEA

MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

XARLES BIDEGAIN
Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona

JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. Coruña

JEAN HARITXELHAR
Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitatea. Baiona

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

JOSEBA INTXAUSTI
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JAZINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona

ENEKO OREGI
Eusko Jaurlaritz. IZOko burua. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Batzorde teknikoa: JON ARTZA eta PRUDEN GARTZIA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

E U S K E R A

AURKIBIDEA

EKITALDIAK:

- **Jean-Baptiste Coyos-en sarrera-ekitaldia**

- [13-14] *Ongietorria*
ETCHEBEST, Mixel
- [15-16] *Agurra*
URRUTIA, Andres
- [17-36] *Eüskararen bi dikotomia*
COYOS, Jean-Baptiste
- [37-46] *Mintzo haren ohoreagatik*
PEILLEN, Txomin

- **Euskaltzaindiaren ageriko ekitaldia Tafallan.
Nafarroa Oinez 2011**

- [49-52] *Ongietorria*
URRUTIA, Rexu
- [53-72] «*Tafallako Garcés de los Fayos Ikastolaren historia*»
IRISO, Angel «Zaki»
- [73-82] *El euskera en Tafalla*
ESPARZA ZABALEGI, Jose Mari

Euskera. 2011, 56, 1-2. 5-8. Bilbo
ISSN 0210-1564

- [83-84] *Euskaltzaindia eta Nafarroa*
IÑIGO, Andres
- [85-88] *Euskaltzaindia y Navarra*
IÑIGO, Andres
- [89-90] *Azken hitzak*
URRUTIA, Andres

AGIRIAK:

- [95-174] *Euskaltzaindia. Batzar Agiriak*

- **Euskaltzaindiaren arauak**

- [177-182] *Euskaltzaindiak 2011. urtean onartutako arauak*

- **Onomastika**

- Irizpenak eta txostenak

- [187-274] A) *Galipentzuberri, Berazkuren, Irabia, Orbaizetako ola / Fábrica de Orbaizeta, Zia, Eltzaurdia, Ontsoño, Kanpanzar, Otobarren, Matauku, Lizoainibar-Arriasgoiti, Arkauti, Leatxe, Erriberri, Gamarra, Mendixur, Arrizala*
- [277-296] B) **Odieta:** *Anotzibar, Erriña, Gaskue, Gelbentzu, Ziaurritz*
- [299-330] C) **Oltza** *Zendea: Aratzuri, Artazkotz, Asiain, Ibero, Izkue, Izu, Lizasoain, Oltza, Ororbia*
- [331-376] D) **Atetz:** *Amalain, Aroztegi, Beratsain, Beuntza, Beuntzalarrea, Egillor, Eguarats, Eritzegoiti, Hiriberri, Labaso, Ziganda*

- Txostenak

- [379-384] *Sobre los topónimos Gamarra y Gamarragutxia*
MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, Elena

[385-394] *Markixa / Marquijana*
MUGURUTZA MONTALBÁN, Felix

[395-398] *Luzuero edo Lucero izenaz*
GORROTXATEGI NIETO, Mikel

HITZARMENAK:

[401-410] *Euskaltzaindiak 2011. urtean zehar hainbat lankidetzat hitzarmen
izenpetu ditu*

BERRIAK:

[413-416] *2011ko albisteen kronika*

OMENALDIAK:

[419-424] *2011n omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak*

HIL BERRIAK:

[427-434] *Jose Antonio Arana (1931-2011) eta Euskaltzaindia*
LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis

[435-444] *Jose Antonio Arana (1931-2011) bibliografoa*
TORREALDAI, Joan Mari

[445-450] *Jose Antonio Arana Martijaren (1931-2011) omenez...*
ARANA, Begoña

[451-462] *Vahan Sarkisian (1954-2011) armeniar hizkuntzalariaren
oroitzapenez*
KINTANA, Xabier

- [463-466] *Xabier Gereño (1924-2011) eta Euskaltzaindia*
LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis
- [467-474] *Xabier Gereño Arrarte (1924-2011): euskaltzalea, ekintzailea, adiskidea.*
In memoriam
KINTANA, Xabier
- [475-484] *Fernando Mendizabal Mujika (1934-2011)*
INTXAUSTI, Joseba

* * *

- [487-490] *Euskera* agerkariaren idazketa arauak
- [491-494] Normas de redacción de la revista *Euskera*
- [495-498] Normes de rédaction de la revue *Euskera*
- [499-502] Writing guidelines for the journal *Euskera*

Ekitaldiak

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Jean-Baptiste Coyos-en sarrera-ekitaldia

2011/06/25 Maule (Zuberoa)

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Ongietorria

ETCHEBEST, Mixel
Mauleko aüzapeza

Eüskaltzaindiako eüskaltzainbürü den Andres Urrtia jaunari eta heben diren Eüskaltzain güzier (eta memento egiazki ahalkegarria (lotsagarria) da enetako), honki jin beroa Xiberoan eta Maulen. Maulerako bidea lüze izan da züentako zonbaiten goiz hontan, eta eskertzen zütüet ere horregatik.

Nolaz ez keinü berheizi bat egin bi Eüskaltzain xiberotarrer direnak Txomin Peillen eta Jean-Louis Davant!

Bai eta ere, heben diren haütetsi, ardüradün, kargüdün, eüskaldün oroer, honki jin Xiberoan eta bereziki heben Mauleko Maule Baitha zinegela hontan.

Xiberoa eta Mauleko herriek gozatzen düe egün, Eüskaltzaindiari batzarri egitearekila emanik izan zaien parada. Lehenik Battittu Coyos eta gero Aurelia Arkotxa, Maulerat jin dira egünaldi honen gureki prestatzeko. Eta ontsa ohartü gira zer gertakari ezohizkoa zatekean gure herriarentako.

Beste gertakari bat ere badügü Maulen egün berean, hau da Xiberoan Eüskaraz Bai Egüna. Bi gertakarien üztartzea honartü dü Eüskaltzaindiak, eta uste düt bi gertakariak bata bestea hazten düela. Alde batetik, Xiberoan Eüskaraz Bai Egünak, Eüskaltzaindiak ekarten beiteio beharrezkoa den ofizialtarzün marka, eta bestalde, Eüskaltzaindiak xiberotar gizarteari edo jentarteari, bere lanen eta ebilmoldearen hobeki erakusteko parada beitü, heben izatez.

Izena badakigü, bena züen ikustea eta entzütea beharra badügü eta hortaz zinez egarri gira.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 13-14. Bilbo
ISSN 0210-1564

Eta denek dakigü holaxe ofizializatü eta indartü beharra düan eüskarak Iparralde hontan, eta bereziki Xiberoan. Damürik, aski seinala badügü erraiten deiküena zer egoeretan den xiberotar eüskalkia, ohartzen girelarik zonbat gaitz den maskarada elibaten antolatzea eüskaradün gazte eskazagatik, bena bai eta ere, zer problema baden pastoralak folklorealat lerratzetik etxekitzeko!

Eüskaltzaindia berme azkarra eta beharrezkoa da ofizializatze bide hortan.

Ürrentzen düt batzarri hau agur bero bat lüzatzez mementoan gordatzen deiküzüen gizon bati, erran nahi düt Battittu Coyosi, Mauleri, bere sorterriri, pentsatü beitü bere kargü-hartze ofizialarentzat, eta gisa horrez Eüskaltzaindiaren errezebitzeko parada eman beiteikü. Gehit niro erranez ohore handia dela Mauleko herriarentako ere, Eüskaltzain baten kontatzea bere semeetan orai! Eskerrik hanitx Mauletar semea den Battittu Coyos jaunari!

Ordüan, bihotz zolatik, ene baitatik eta Xiberoaren izenenan, batzarri hon eta ohore Eüskaltzaindiari, eskerrik hanitx eta egünaldi hon eta beroa oroer.

Agurra

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Agintariok,
Euskaltzainok,
Mauleko auzapeza eta zinegotziok,
«Battittu» Coyosen etxekook,
Jaun-andreok,
Egun on,

Berrikitan etorri zait eskura Paben 1692. urtean argitaraturiko testua. Zuetariko askok aspalditk ezagutzen duzue. Titulua: Zuberoako ohitura edo lege nagusia. Testuaren hizkuntza nagusia biarnesa. Hasierako oharra frantsesez egina eta tartean martean, euskarazko hitzak, hainbat artikulutan ageriko direnak, garai bateko zuberoako erakundeak zirenak: kaiolar, zaingoa...

Testuaren argitarazleak honetara zehazten zuen euskararen estatua: herriaren hizkuntza zela esaten zuen, esan ere. Horrek beste galdera bat egitera eramaten gaitu, hain zuzen ere, hiru mende geroago, kontuek hala jarraitzen duten ala ez galdetzeraz.

Orduko hartan biarnesa zen goi mailako hizkuntza, legeetan erabiltzen zena. Euskara, aldiz, gizarte osora hedatua eta zabaldua, hizkera mintzatua-ren gisan.

Galdetu diezigun , bada, geure buruari, hiru mende geroago, ia gauza bera gertatzen den. Biarnesaren ordeztu, egun frantsesa da nagusi legeetan eta goi

mailako erabileran, euskara, berriz, lehen oro mintzatua zena, eskas eta urri dabil gure ezpainetan.

Bazen garai hartako zuberoarren artean lege hori maisuki aztertu zuena. Jakes Belakoa legelaria protestanta. Jakitura handiko gizona izanik, berak idatziriko tabletak eta iruzkinak egoki erakusten dute orduko zuberoaren giroa.

Lehen hala, orain hula, gero, ez dakit nola, halakoa izan zen belatarren goiburua. Halakoa ere geurea, lehengoa aintzakotzat hartzen duena, oraingoa lantzen duena eta gerokoa eskuratu behar duena, asmoz eta gogoz.

Gerogarren horren esperantzan, fermuki hartzen dugu egun Euskaltzaindian, euskararen akademian, Battittu Coyos zuberoarra, jakin badakigulako geure zeregina ez ezik, euskalgintza osoaren egitekoak ere berrindatzera datorrela.

Berrindartze horren barruan, aspalditik erakutsi du Coyosek kezka bizia euskararen baitan, nahiz hizkuntzalaritzan nahiz soziolinguistikoan, hizkuntza bera eta hizkuntzaren gizarte arloa aintzat hartu dituelako bere ahaleginetan. Ezagunak dira, halaber, bere zuberoar erroak eta horretara, bi zuberoar adixkide kausituko ditu akademian, hain juxtu ere, berori gure artera ekarri dutenak, Txomin Peillen eta Jean Louis Davant.

Bai eurok eta bai beste euskaltzainok ere ongi etorria ematen diogu gurekin batera eguneroko lanean, akademiaren barruan, euskararen mesedetan arituko den euskaltzain oso berriari.

Goresmenak eta zorionak Coyosen etxekoei eta orain joan daitezela Xarles Bidegain azken euskaltzain oso izendatua eta Jean Louis Davant, euskaltzain oso berriaren proposatzailea, Battittu Coyosen bila eta ekar dezaten gure artera, sarrera-hitzaldia egin dezan.

Eüskararen bi dikotomia

COYOS, Jean-Baptiste

Euskaltzain osoa

Sarrera-hitzaldia

Euskera. 2011, 56, 1-2. 17-36. Bilbo
ISSN 0210-1564

Mintzaldi honetan euskarak eta euskaldunek bizi dituzten bi dikotomia aztertzen dira. Batetik, euskaldun berri eta euskaldun zahar dikotomia, bestetik, euskalkia eta euskara batua. Zergatik bi dikotomia horiek aztertzea? Gaur egun euskaldunen eta neurri batean euskaldun ez direnen euskararen ikusteko moldea egituratzen baitute. Euskara, euskaldunak eta euskal komunitatea iragazki horren bidez so egiten baititugu; gure ikusmoldea baldintzatzen du.

Dikotomia bakoitzaren bi osagaiak kontrajarten ohi baldin badira, txanpon bakar baten bi aldeak dira. Bata bestea gabe ezer ez da eta kontzeptua bere osotasunean ulertzeko bi osagaien arteko erlazioa aztertu behar da.

Zuberoako euskararen kasua eta bizitza propioaren adibideak baliatuz, hizlariak bi ohiko dikotomia horiek aztertzen ditu ohiko eskemetatik at joaten saiatuz.

Lehen dikotomiari dagokionez, euskaldun berriaren eta euskaldun zahararen arteko bereizketa hain zehatz ez denik agertzen da. Kontzeptua definitzeko irizpidea sinpleegi ote da? Hizkuntza-transmisioaren bilakaerak testuinguru berriak dakartza eta ikastolek, era batez, euskaldun kategoria berri bat sortu dute. Nola sailkatu bi urte betetzen dituenean Sohütako ama-eskolan sartu den frantsesdun gurasoen haurra, lizeora arte murgiltze ereduan euskaraz ikasiko duena?

Euskara dagoen egoera ez normalizatuan, dikotomia horren beste alderdietatik bat sufri-mendua daukagu. Sentimendu horren bi aldeak agertzen zaizkigu, lotsa eta gabezia. Batzuen-tzat, euskaldun zaharrentzat hain zuzen, lehena; besteentzat, euskaldun berrientzat, bigarre-na. Euskaldun zaharrak sufritu du bere ama-hizkuntza baliorik gabe zela ohartzen zelarik, besteak beste, eta euskaldun berria, aldiz, euskaldun zaharra ez dela sekula izanen ohartuz, euskara ikasteko indar asko eginik ere.

Euskararen transmisioa familian ala transmisioaren eza da dikotomia horren egilea. Zu-beroan ere gurasoek seme-alabei euskara eman ez izanaren arrazoiak ikertu behar dira, euskararen geroa segurtatu nahi baldin bada, hizkuntza gutxituentzat familia-transmisioa bizin-darraren eragile eraginkorra baita.

Bigarren dikotomiari dagokionez, argi da gaur egun euskara batua tresna beharrezkoa bali-ku dela, Zuberoan ere. Bistan da, lehen-lehenik, beste euskaldunekin elgar ulertzeko. Baina ere bearnesak eta ondotik frantsesak Zuberoan hartu zuten lekua hartzeko. Ingelesa kontuan ez hartuz, diglosia baino, triglosia ikusten da, orain batua euskalkia sendotzen ari baita frantse-saren aurre. Noski triglosia nozio hori ez da zentzu prototipikotzat hartu behar, esan nahi baita hiru hizkuntza edo hizkuntza barietaten arteko funtzioen eta erabilera eremuen banaketa ore-ku eta egonkorra litzakeela. Alderantziz, frantsesak, zubererak eta euskara batuak funtzio eta erabilera eremu ezberdinak daukate, etengabe aldatzen ari den prozesu batean.

Optimistegi ez izan nahiz, zubereraren atzerakako higidura gelditu dela iduri luke edo bederen posizio berri batzuk eskuratzen dituela, familia-transmisioa orain arte segurtatu ez baldin da ere.

Bi dikotomia ikertü nahi nuke¹. Bi dikotomia horik arren euskaldün berria eta euskaldün zaharra alde batetik, euskalkia eta euskara batua bestetik dira². Haatik hasteko ohar eli bat egin dezagün mintzagei horren argitzeko.

1. Lehenik ohar elibat mintzageiaren argitzeko

1.1. Zertako haüta bi dikotomia horik?

Zertako euskaldün berri / euskaldün zahar eta euskalkia / euskara batua dikotomiak haüta ene mintzageitako?

Zeren eta gure euskararen ikusteko moldea egituratzen beitüe, eta hanitx errepikatzen diren ohiko ikusmoldeetarik eta usteetarik at haiekin zer iker eta zer entelega badügüla uste beitüt. Bahe horren bidez euskara, euskaldünak ikusten eta epaiten dütügü. Horren bidez euskaldünek berek beren mintzajea, beren mintzatzeko moldea eta besteena epaiten dütüe, bena manera batez ere euskaldün ez den Euskal Herriko biztanleriaren parte batek euskara epaiten dü. Ikusmolde bat badüe euskara batuaz edo euskalkietzaz.

Ordüan bai inportanta da bi dikotomia horien erranahiaren eta pezüaren ontsa ezagützea. Prefosta ez dütüt hemen lüzez begistatüko eta barnatüko. Badakit soziolinguistikaren eta psikolinguistikaren alorretan horietzaz gaü-

¹ Sarrera-hitzaldi hau zubereraz da. Zergatik zubereraz eta ez euskara batuaz? Arrazoia argi-argia da. Euskaltzaindiaren 4.1. barne-erregelak erraten du: «*Euskaltzain osoek, sortzez edo jatorriz, Euskal Herri guztikoak izan behar dute, euskalki guztiek Euskaltzaindian beren ordezkaria izan dezaten*». 4.2. artikulua zubererak euskaltzain oso bat izan behar duela zehazten du: «*Euskaltzainak hautatzeko garaian euskalkien ordezkaritza kontuan hartuko da, banaketa honen arabera: Arabak, bat; Bizkaierak, hiru; Gipuzkerak, hiru; Nafarrerak, hiru; Behenafarrera-Lapurterak, hiru; Zubererak, bat*». Beraz Zuberoko euskaltzain berriak zubereraz idatz dezan harrigarria ez litzateke izan behar.

² Xiberotarrez nola deit ahozko bilakatü den euskara mota hori? *Euskara batüa ala euskara batua?* Ene ustez, bigarren erranmoldea hobe leite, izen berezi mota bat beita. Bestalde, mintzaje baten bateratzea aipatü nahi bada, hobe da *estandarra* hitzaren erabiltea edo holako zerbait. Euskara batua erranmoldea izen berezi bat dela erran dezakegü, euskara batua bakotxa beita, bena itxüra hanitxetako tresna bat erabilirik denean lürraldearen arabera, mintzatzen denaren arabera.

za hanitx erranik izan direla, eta, erran bezala, euskaldünek oroek bena ere Eüskal Herrian bizi diren erdaldünek zerbait erraitekorik badüe, aitziniritziak barne. Ikusmolde horiek üsüenik analisi serioz gabeko ustekerietan eraikirik dira, hots erran bezala aitziniritzietan.

Azken horik dira hitzaldi honen abiapüntüetarik bat, beste bat ene ebilbi-de propioa eüskal mundüan bizitzearen gainti dateke, haurtzarotik orai artino.

1.2. Dikotomia hitza zertako erabil?

Zertako erabil dikotomia hitza eziz eta pare edo binoma hitzak? Alkarreki joaiten diren bi nozioneak oposatzen beitütügü, pare hori moldatzen düen bi geiak, bi osagaiak. Gü ez bada, opinione püblikoa pürü. Eüskaldün berria eta eüskaldün zaharra oposatzen dira. Halaber eüskalkiak eta euskara batua bürüzbürü ezarten dira.

Logikan, halere, hau da dikotomiaren definizioa: kontzeptü baten partekatzea beste bitan, bere hedadüra osoa tapatzen düenetan. Dikotomia bi nozione ezbardinetan erdiratzen da, kontzeptü osoa argialatzeko. Bena gük heben bi dikotomia horik ez dütügü ikusiko bi kontrako izatezko eraikidü-rak bezala, eretzekoak diren bi nozionekilanko kontzeptüak. Aitzitik, ene ustez bakotxa sos baten bi aldeak bezala ikusi behar dütügü. Alde bat bestea gabe deüs izatez, batak besteareki kontzeptü hori bere osotarzünean entele-gatzen lagüntzen gütü. Hots, dikotomia horik kontzeptü bakoitx bat gisa gogoan hartü behar dütügü.

1.3. Sortzarozko eta iraganaren eraginaz

Hitzaldi honen beste abiapüntüetarik bat Pierre Bourdieuren gogoeta eli batetan hartüko düt, gogoetatze quadro bezala eta ez ihardesle, berme zientifika gisa. Mintzaldi honek ez beitü bere bürüa zientifika ikusten, teoria batetan eraikirik.

Sortzez gure aüzoa zen soziologa biarnes famatüak 2001eko *Science de la science et réflexivité* libürüan erraiten züan, ützültzen düt: «*Oharmenak, ikus-*

menak, sinesteak, egürükitzeak, esperantxak denak eta beste, sozialki egitiüratürrik eta sozialki balintzatiürrik dira» (185. or.).

Bourdieuaren arabera *lege sozial* bat indar düana badügü. Berriz aipatzen dü: «Sortzarozko güne geografika eta soziala joküleri erabakigarri da gure egitateetan», gure egün orozko pratiketan erran niro (*ibid.*: 211. or.). Bestelan erranik, gure iragan sozialak bizi orotan eragina badü, haur denborako güneek ere.

Ikerzaleaz hori emendatzen züan Bourdieuk, ützültzen dü berriz: «Iragan sozialari lotürrik den esperientzia erabili izaten ahal da ikertzean eta erabili behar da, aitzinetik begistatze kritika zorrotz bati emanik izan balin bada. Iraganarekilanko harremana oraialdian indar düana eta habitus gisa ari dena sozioanalisiatü izan behar da³. (...) Sozioanalisiak (...) joküaren entelegatzea ahalbideratzen dü, jokü hori egari edo sofritü orde, eta haboro ere, püntü batetara, erakaspen zombaiten ardiestea ahalbideratzen dü» erraiten dü (*ibid.*: 218. or.). Hots, eta argiago izateko nahian, erran dezagün gizarte zientzietan bere ikerketetan ikerzalearen esperientzia propioa baliagarri izan daitekeala.

Beste erregistra batetan eta hitz ezbardinetan eüskalzain bat aipa dezaket ere, Bernardo Atxaga idazlea. Beste ikusmolde bat ekarten deigü, Bourdieurenari lot dezakegüna. *Lekuak* libürüan hau izkiribatzen dü Atxagak: «eta gainera munduok ez dira izarrak edo planetak, asteroidak edo kometak, baizik eta lekuak, eta ez daude kanpoko hutsune infinitu ilunean bakarrik, gehienak gure barruan daude, oroimenean jiraka» (*Lekuak*: 25-26 or.). Ezagütü dütügün leküen eragipena agerrarazten deigü, molde batez Bourdieuren güne geografika eta sozialarena.

Filosofa edo soziologa izan gabe, ene baitan den mündü hori ere baliatzen dü hitzaldi hontan, ene sentimentüak, ene interpretazionea, sortzaroan eta iraganean eraikirik direnak.

Ohar horik kontüan hartzez, ikertü nahi dütüdan bi dikotomietarat joan gitean, ene iraganarekilanko harremanetarik mauletar, xiberotar, eüskaldün

³ Bourdieuren «habitus» kontzeptü hori barnatü gabe, erran dezagün *habitus*a gure norberako bizimoldeen sortzailea dela. Gure bizitzearen aldeak oro eragiten dütü (kültüra, lana, hezküntea, aizina, jateko moldea...). Bakoitxaren bizi-ebilbidearen, bakoitxaren iraganaren ondorioa lizate.

gisa abiatzez⁴. Holaxe, eabilbide pertsonal batetan bermatzez, gure alkarreki-lako abenturaren entelegatzen iseatüko niz, erran nahi beita oraiko eüskaldünen mintzajea, hots eüskara. Jakitüsek parka dizadaela, ez beitüe gaüza handirik ikasiko ene bizitzeko gertakari elibatetarik kanpo.

2. Lehen dikotomia - Hiztuna: Eüskaldün berri *versus* eüskaldün zahar

Eüskaldün berri / eüskaldün zahar dikotomia har dezagün lehenik.

2.1. Definizione irizpidea simple da, sinpleegi ?

Eüskaldün zaharra da ama-mintzaje gisa eüskara üken düana edo lehen mintzaje gisa eüskara ikasi düana; hau da soziolinguistikak erraiten deigüna⁵. Ez da hemen lehen mintzajearen eta ama-mintzajearen arteko ezbardintarzüna hizkatüko⁶. Halere, üdüri zait lehen edo ama-mintzajearen irizpide simple hori ez dela üdüri düan bezain argi. Hori erakutsiko düt sarri.

Eüskaldün berria, aldiz, beste lehen mintzaje edo ama-mintzaje üken ondoan eüskara ikasi düana da. Kriteria, irizpidea arren da lehen mintzajea zoin izan zen.

Errealitatearen ezbardintarzünaren deskribatzeko, lehen mintzajearen irizpide hori osotzeko, beste kategoria elibat sortü düe soziolinguistek. Eüskaldün horrek eüskara erabilten düanaren heinean ala ez, eüskaldün berri

⁴ Prefosta ene kasüa ez da ezarrunt, gizaldi baten edo biren planta izan zen, Maulen sortürik ziren gazteena bena bai ere ordüan edo ondotik kantüko kanpainan, bazterretan bizi zirenena, Pettarran bereziki.

⁵ Euskaldun zahar: «*Lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona*» (Eusko Jaurilaritza-IVAP, *Soziolinguistika Hiztegia*: 60. or.); euskaldun berri : «*Lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona*» (*ibidem*: 59. or.).

⁶ Ama-hizkuntza:Haurrak etxean gurasoengandik ikasitako lehen hizkuntza» (Eusko Jaurilaritza-IVAP, *Soziolinguistika Hiztegia*: 20. or.); lehen hizkuntza: «*Haurtzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza, gero erabiltzen jarraitu dena*» (*ibidem*: 22. or.).

aktiba, euskaldün berri pasiba, euskaldün zahar aktiba ala euskaldün zahar pasiba izan daiteke.

Lehen mintzajeak bi balira, euskara eta frantsesa ala espainola, hatsarreko elebidün aktiba (*jatorrizko elebidun aktibo*) günöke bi mintzajeak erabilten balütü; hatsarreko elebidün pasibak euskara entelaga lezake eta mintzatü ere, bena etxen frantsesa ala espainola erabilten dü. Eta holaxe euskaldün edo erdaldün mota ezbardinak sailkatzen dütüe. Ikus Eusko Jaur-laritzak eta IVAP-ek 2010ean argitaratü düen *Soziolinguistika Hiztegia* (43.-45. eta 58.-70. or.)⁷. Irizpideak mintzaje-geitarzüna eta, elebidün izanik, bi mintzajeen alkarren erabiltea dira.

Halerik ere, kategoria ezbardin horik emendatürük ere, ama mintzajearen edo lehen mintzajearen irizpidea bera ez da argi. Parka ezadazüe bena ene kasüa hartzen dü. Aitetamak bata besteari xiberotarrez ari ziren, beren sortxeetan eta askazieki ere. Bena gure aintzinean seküla, gü haurrak, edo bai, testüngürü bakoitx batetan, aharratzeko. Behar ere ez zen üsü agitzen! Noiztenka, aita zena kexatzen zelarik, *zer telepete!*, *gaixo tipula!* edo *zurzüil!* ozen bat igorten züan, eta ontsa konprenitzen günüan zerbait oker egin günüala. Halere, ene bi anaie gehienentzat ez bazen ere, euskara mintzaje arrotz bat zeitan ordüan, soinü harrigarrieki. Zentzügabeko erranaldi horietan, *hafla hafla*, *züta-zarta*, *truku-truku*, *züntaz*, *hapatakaz*, *ala jinjin txoria* edo holakorik entzüten nüanean senditzen nüan nola euskara aberatsa zen, bizi, indartsü...⁸. Bena eneki beti frantsesez ari ziren, frantsesa ontsa ikasi behar nüala pentsatzez ikasketen kaüsitzeko, lan hon baten ükeiteko, eta beste.

Haatik bada zerbait xüxentü behar düdala, lehen mintzajearen irizpidearen müga agertaraziko düana. Ama zenak erran zeitan ni eskolalat joan beno lehen euskaraz mintzatzen zela eneki. Bena errejentsa zen eta bi urtetan eskolalat joan nintzan. Alta, bi urte altexean hasten gira mintzatzen. Eta enetzat hoik dira erantzünik gabeko galtoak: zoin izan ziren ene lehen

⁷ Saillkapena hanitxez konplika daiteke: «euskaldun berri bietan aktibo (63. or.), partzialki erdaldundu bietan aktibo (68. or.), partzialki euskaldun berri bietan aktibo / pasibo (69.-70. or.)», etab.

⁸ 2000an xiberotarraren onomatopeia horietaz ikerketa zientifika бүрүтү nüan: Les onomatopées rédupliquées en basque souletin, *Lapurdum*, V: 13-97.

hitzak? Eta eüskaraz ala frantsesez? Erantzünik gabe izanik ere, honartü behar da lehen mintzajearen irizpide hori ez dela lehen begikaldüan uste genezan bezain zorrotz, uste genezan bezain xüxen. Eüskara izan zen entzün nüan lehen mintzajea, bena heltü bada frantsesa lehen eman nüana. Ene bigerren urtean mintzaje ordarikatzea ezagütü düt. Ordüan, noiztenka, lehen mintzaje entzüna eta lehen mintzaje mintzatüa berezi behar günütüke, mintzazü beno lehen entzüten beitügü. Kronologiak bi lehen mintzaje ezbardin sor dezake, entelegatzeari eta mintzamenari lotürik direnak.

Holatan kontüan hartzeko den beste irizpide bat agertzen da eüskaldün berri / eüskaldün zahar dikotomia aztertü nahi denean, haur denborako mintzaje ikaste prozesüaren kronologia.

Beste gogoeta bat. Egün beste eüskaldün mota bat badügüla üdüri lüke, eüskara eskolan ikasi düen gazteak, etxen errezebitü ez düenak. Katategoria horrek ere molde batez eüskaldün berria / eüskaldün zaharra dikotomia eztabadan jarten dü. Nola sailkatü bi urte betatzen düenean Sohütako ama-eskolan sartü diren frantsesdün aitetamen haurrak, lizeoalat artino murgiltze eredüan eüskaraz ikasiko düenak?

Ikastolako eüskaldün gazte horik berri ala zahar dira? Zentzü hersian eüskaldün berriak dira entzün düen lehen mintzajea frantsesa izan beitzen, Xiberoko kasüan. Bena gero ama-eskolan eüskara entzün eta eman düe eta etxen frantsesa. Oro har, zer dira?

2.2. Sosaren bi aldeak: kutx ala pil - Ahalkea ala gabezia

Orai beste gogoeta elibat egin nahi nüke, eüskaldün berri / eüskaldün zahar dikotomia horri lotürik. Sofrimentüaren bi aldeak deitüko dütüt: ahalkea ala gabezia. Zonbaitentzat lehena, besteentzat bigerrena.

Ahalkea

Nola ez aipa eüskaldün zaharren sofrimentüa, beren mintzajea baliorik gabe zela ikusten züelarik, eskolan sartzeko tenorean baztertzeke zela ikus-

tean. Hareki zoan ahalke gorria aski aipatü izan da, haurtzaroan sortzen da eta bizi osoan бүрүкo xoko batetan egoiten da үсүенik.

Ama zenak kontatzen зүан nola eskolalat joan beno lehen bere ahizpa gehienak frantses hitz elibat erakasten зүтүан aurrideer, eskolalat joaiteko haien aldia jiten zelarik bospasei urteko anaiak edo ahizpak osoki galdүrik ez izan zitean Idauze-Mendiko eskolan.

Kontatzen зүан ere nola gero errejentsa izan ondoan, bigerren Mүndүko gerla beno lehen zen ordүan, haurrak eүskaraz errezebitzen зүтүан, frantse-
sa ez beitzakiaen. Haurren lehen lana zen үкүзtea, noiztenka ere zorrien elkitzea, eta gero bai eskola has zitekean. Bena batbatetan ikasgela eүska-
rak bere lekүa galtzen зүан. Akademiako gomendioaren betatzez, amak, egүnaren бүрүtik бүрү, txotx ttipiñi bat, *bүxeta* deitzen zena, iganarazten зүан ikasleengan. Istorioa ezagүna da. Eүskaraz mintzatzen zenak *bүxeta* errezebitzen зүан eta norbait eүskaraz mintzatzen entзүten bazүан *bүxeta* hori emaiten zeion, пүнитүrik ez izateko. Egүnaren үрrentzean *bүxeta* зүан azken hori пүнитү behar зүан amak.

Zer sentimentү nahasirik үken behar зүтүан ber egүnean ikasleeki ama-
-mintzajearen baliatzez eta gero horrengatik пүнитzez! Behar ere egүnko egүnetan eүskara eskoletan sartүrik da eta haboro sartүko da, hain segүr. Ildo hontan, Xiberoko ikastoletako oraiko arrakasta bozgarri da.

Gabexia

Bena nola ez aipa ere, sosaren, mirailaren beste aldetik, eүskara ez za-
kien edo ez dakien herritar gazteen edo zaharragoen gabezia. Ikasi nahi
edo ikasten дүенentzat gaizki mintzatzeko ahalkea. Edo sordei, eүskara-
ren ez jakitea. Aitetamen mintzajeaz, erran nahi beita eүskaraz, gabetүrik.
Nork ez дү entзүн eүskaldүн zahar zonbaiten galto hau gazte bati: «*Ba-
dakika eүskara?*», edo «*Eүskara etxen ikasi дүika?*». Eta arrapostүa, ahape-
tik, frantsesez da: «Non, malheureusement, mes parents voulaient que
j'apprenne bien le français pour faire quelque chose dans la vie» «*Eз зori-
txarrez, aitetamek nahi зizүen frantsesa ontsa ikas nezan бизitzean zerbaiten
egiteko*».

Aspaldiko istorioa erranen düzüe, bai bena Xiberoan beste Eüskal Herriko lürraldeetan bezala gizaldi batez edo biz eüskararen transmisioea ükü-ratü züana. Eta bere ondorioak hor dira orano iraüten düenak. Geroa frantsesean zen eta ez eüskaran eta hori, ene ustez, ez da osoki kanbiatü, kanbiatzen hasten balin bada ere. Hortakoz izagarri inportanta da fenomeno horren entelegatzea, erran nahi beita familian haurrer eüskararen ez emaita, bere osotarzünean entelegatzea, gogoeta motz elibaten haratago.

Halere, beste gabezia mota izan daitekeala ere ohart gitean, eüskaldün zahar zonbaitentzat. Euskara batuaren ez ezagützea. Holaxe, ama zenak ez züan deus konprenitzen Euskal Telebistako eüskal katean. Eüskara ez ika-sirik eskolan, beren eüskara hon ez dela pentsa dezakee eüskaldün zahar horiek.

Ezkiribatzearen ez jakitea ere gabezia mingarri izan daiteke adineko eüskaldün zaharrentako. Eskolalat frantsesa jakin gabe joanik, eüskararen baztertzer a bortxatürik, eta orai eüskararen izkiribatzen ez jakiten, edo frantse-saren ortografiaz baizik.

Eüskaltzaindia hortaz ohartü da, aspaldidanik. «*Hala ere, hixtun batzuek, noizean behin eta okerretara, baztertuta ikusten dute euren burua, bizi duten euskalkia euskara batutik urrun dagoelako; baina ez dute baztertutik sentitu behar. Eüskaltzaindiak, behintzat, ez du horrelako bazterkeriarik nahi; baizik eta nahi du eüskaldün bakoitzak bere euskararekin bat egitea eta, era berean, euskara batuarekin bat egitea, batua harturik goi mailako erregistrotzat gainerako eüskaldün guztiekin harremanak izateko*» erraiten züan (Adierazpena - Euskalkien erabileraz...: 2). Eta hau da helbüria: eüskaldünek oroek, batua ezagütü ez ükenik ere, ala bestalde eüskalkirik ezagütü ez ükenik, beren leküa ediren behar düe üngürüan diren mintzaje indartsüen eretzean. Eüskarak eüskaldün oroen beharra badü!

2.3. «Berri» ala «zahar» irizpide horren izatea

Hona orai eüskaldün berria / eüskaldün zaharra ezbardintarzün horri бүрүз beste gogoeta bat. Eüskaldün zaharra zira, nahi ala ez, halaber eüskaldün berria. Eüskaldün berriak eüskara ikasi dü. Kalitate horrez, izate

horrez jabetü da; frantsesez erran ginirio *acquis* dela. Bena nahitaez euskaldün berria ez da seküla euskaldün zaharra izanen. Ordüan izate hori, euskaldün berri izate hori, azkenean berezko da ere, frantsesez *inné*. Sortzez, berez, bata ala bestea ziradee. Eta gero marka hori ez düzüe elkitzen ahal, zueki badoa sekülakoz, sexüa bezala, larrüaren kolorea bezala...

Zentzü batetan izentatze hortan arrazisma mota bat ediren ginirio, hitz hori ontsa joaiten ez bada ere. Euskaldün berri erranmoldearen giblean hierarkia bat leite zonbaiten gogoan, ideologia herexa bat pürü. Euskaldün berria egiazko euskaldün ez lizateala, euskaldün ez oso lizateala, euskaraz ez beita ontsa mintzatzen, bere euskarak haurtzaroareki edo herri, güne bateki estekarik ez beitü.

Ordüan bai, ikusmoldea hau balin bada, estigmatizazionea balin bada, kontüan har dezagün euskaldün berriek indar handiak egin dütüela euskararen ikasteko, euskaldün zaharrek egin ez düena. Behar ere euskaldün zaharretarik haboroena ez da gaitzeste hortan erorten.

2.4. Euskararen familia transmisione baratzea – Ikerketa zabal baten beharra

Ama mintzajea haurrer ez emaita euskaldün berri / euskaldün zahar dikotomia horri güziz lotürik da. Ama mintzajearen transmisioneak ala transmisione eskasak dikotomiaren egilea da. Fenomeno horren arrazuen entelegatzea zinez inportanta da, ene ustez, euskararen geroa segürtatü nahi balin badügü. Ontsa konprenitzen balin badügü zertako gure aitetametarik gehiengoak bere ama-mintzajea ez düan eman, euskara transmititzeko zoin balintzak, zoin alteko testüngürüa indarrean eman beharko dütügün argiagoko zaizkegü.

Prefosta fenomeno hori familia batetan ez da baizik gertatü. Euskal Herri osoan ezagütü da. Halere uste düüt Ipar Euskal Herrian bere zernolakoak badütüala Frantziako estatüko ordünko politika- eta gizarte-egoerari lotürik beitzen. Ez emaita hori gizaldi bakotx batez igaran da, prefosta bazter orotan ez ber heinean. Maulen pürü ageri zen, Basabürüan berantago.

Badakigü Frantziako herrialde ezbardinetan bigerren mündüko gerlatik landako urteetan gaüzatü dela, molde ezbardinetan bada ere. Britainian ber fenomeno, erran nahi beita mintzaje propioaren ez emaita, bretua hots, ezagütü da ere eta ber denboran apür edo hanitx, bigerren mündüko gerlatik landa, bietan hogeita hamargerren urteetan. Ordüan, Frantziako ordünko gizarte, ekonomia eta politika-balintzei lotürik zela erran dezakegü.

Fenomeno hori ontsa entelegatzeko, talde langei baten beharra badügü. Ikergei inportanta badügu konprenitzeko nola Frantzian esküaldeetako mintzajeak ordüan oroz gainti eta ez lehenago edo berantago ütirik izan zirela. Erran gabe doa lan talde zabal bat izan behar lizateala, soziolinguistik, psikolinguistik, bena bai ere ekonomian, soziologian jakintsüak ütartü behar lütükeana. Ikerketa hori beharrezko da orai kontrako bidea hartü nahi beitätü, eskolan xiberotarraren ikasteaz gain familian mintzajea emanik izan dadin nahi beitätü, transmisionearen arrapiztea hots.

Hau da desafio berria, eskolako ikastearen indartzeaz gain xiberotarra familiako mintzajea izan dadin Xiberoan, lehen izan zen bezala.

Ildo hontan, Joseba Intxaustiren züzendaritzaren pean Euskaltzaindiaren *Joanes Etxeberri* egitasmoa eramaiten düan lan taldeak datü inportantak ekarriko deizgüla pentsa dezakegü. Mintzajeen Historia Sozialak «*hizkuntzen denboran zeharreko gizarteko izaera-bizierak aztertu nahi ditu; iraganaren jarriotan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, jarrerak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu (...) gizarteko gertakari bezala hartzen ditu hizkuntzak; komunitate linguistikoa du gogoan, bere baitan eta inguruko beste komunitate linguistikoekin harremanetan*» (2007, *Joanes Etxeberri* egitasmoa: 241. or.). Epe lüzeko ikerketa handi horrek eüskararen historia sozial osoa begistatü nahi dü, bena, nork daki, Iparraldeko eüskararentako bigerren mündüko gerlatik landako aldi berezi horren entelegatzen lagüntüko gütü.

3. Bigerren dikotomia - alkarte linguistika: Eüskalkia, xiberotarra *versus* euskara batua

Orai arte hiztünari interesatü ginen, eüskaldün bi mota horier. Oraidanik kuadroa alkarte linguistika dateke, komünitate linguistika, eta horrek era-

bilten düan mintzaje mota. Hau da eüskalkia eta euskara batua dikotomia. Eüskalkia, gure kasüan xiberotarra, komünitate linguistika bati lotürik da eta Xiberoko eüskaldünen eüskara mota da.

Bigerren dikotomia hori hanitx eztabadatü izan beita, llabürrago nizate. Berriz ere, analisi zientifika eta kontzeptü teoriken bazter üztez, anekdota bat baliatüko düt hasteko.

3.1. Euskara batuaren beharraz

Züen artean balin bada orano deitzen den euskara batuaren beharra ikusten ez düana, hona istorio ttipi bat. Hiruretan hogeigerren urteak dira. Gipuzkoan gira, Azkoitian edo Azpeitian, bigerrenean segürrago. Xiberotar espartüña salerosle batek mila bat erosi behar deio hanko espartüñegile bati. Eüskaldün zela jakitez xiberotarra, aita zena egia erran, eüskaraz hasten da. Besteak, gipuzkoarrak, ez dü deüs entelegatzen, bena eüskara zela konprenitzez hura ere bere eüskaran ari zaio, giputzez. Ordüan xiberotarra, hura ere ezin entelegatüz, espainolez hasten da mintzatzen, gaizki prefosta, Mauleko arrüetan ikasi beitzüan gehienik. Eta holaxe tratüa egin züen.

Zer erakusten deigü anekdota honek? Lehenik, hain hürrün ez diren bi eüskalkidünek ez züela alkar konprenitzen. Ber mintzajea ükenik ere, beste baten beharra üken züela, komünikatzeko mintzajea.

Bigerrenik, alkar konprenitzeko eüskaldünen beharra hau dela, alkarrekilako eüskalki bat edo hobe erranik eüskara mota bat, lürralde, lekü bati lotürik ez dena. Hau da orai euskara batuak betatzen düan egitekoa. Hatsarrean eüskararen idazteko sortü züen eta ondotik gero eta haboro ahozko eüskara gisa erabili izan da.

Deitzen güntüan espainolak gü bezalako eüskaldünak zirela agertü zen, manexak ziren bezala. Ondotik, eta behar ere, hegoaldekoak erranmoldeak espainolak ordaritü dü, Atharratze Donostia edo Bilbo beno hegoan haboro balin bada ere. Izen ordarikatze hortan euskara batuak ere bere eragina üken dü.

Gaüza hanitx erraiteko lizate euskara batuaz eta erranik izan dira. Hau da nik aitzinatüko düdan bat. Deitzen dügün euskara batua, ahozkatürik denean, bakotxa ez dela, ütxüra hanitxeko dela. Tresna bat da alkar konprenitzeko, eüskaldünek moldatzen düena beren eüskalkiaren arabera bat balin badüe, solaskidearen, testüngürüaren arabera. Haütüa simple da, euskara batua ala eüskararik ez. Bestelan, beste eüskalkiak oro ikasi beharko güntüke. Hori ezinezko da, dilektologa edo eüskalzale errabiatü elibatentzat salbü.

3.2. Euskara batuaren lehen ürratsak (1964) – Eüskaltzaindia eta eüskalkiak

Parada da zuetarik ez dakiener jakinarazteko, besteer oritarazteko, xiberotar baten partehartzea euskara batuaren abentüra hortan, Jean-Louis Davantena. 1963-1964 ikasturteko Baionako bilküretan izan zen. Aste oroz beste zonbaiteki lan egiten züan eta han ordüan ezagützen dügün euskara batuaren lehen ürratsak egin ziren, Txillardegiren бүрүzagigoan, 1964ko agorrilaren 29-30eko biltzarrean ürrentüz. «*Euskara batuari бүрүzko lehen ürratsak hor finkatü güntüan, bereziki ortografiako lege orokorrak. Proposamen bezala Euskaltzaindiari eskeini ginitzon, eta honek bere gain hartü zütüan, 1968ko üdan, Arantzazuko Biltzarrean*» erraiten deigü (Davant, 2011: 172.or.).

Eüskaltzaindiak 2005ean Nirekin yaio nun - Txillardegiri omenaldia argitaratü düan libürüan, Jean-Louis Davantek ordüko erabakiak emaiten deizgü (210-216. or.). Aitzinsolasean partaideek hori galtatzen züen: «*Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan*».

Ordüan bai, Xiberoak ere Jean-Louis Davanti esker euskara batuaren lehen hatsartzea lagüntü züala erran dezakegü. Ondotik, batarzün helbüri hori xiberotarrari aitzü eginik ez zela argiki agertü zaigü, gero eta argikiago. Batak bestearen beharra badü eta ükenen dü, batak bestea osotzen dü. Lana da mintzaje bakoitxaren leküaren definitzea eta plantan ezartea, Xiberoan

beste euskalkien lüraldeetan bezala. Hau da euskalzaleen, agintarien, haütetsien lana eta azkenenean oroz gainti euskaldüna. Horiek noiz, nola, noreki, zertaz euskara erabilten düen deliberatzen beitüe⁹.

Argi izan behar da hori ez dela igaranezina, euskararen bi moten arteko egoera dinamika beita. Molde batez egünoroz aldatzen da, mintzaje barietate bakoitxaren erabileraren arabera. Prefosta, xiberotarraren aldeko mintzaje politika públiko ausarta lagüngarri dateke, ez xiberotarra batutik zaintzeko bena bai, oroz gainetik, frantsesetik zaintzeko.

Oritaraz dezadan Euskaltzaindiaren xede eta egitateetan euskalkiek beren lekü osoa bazüela eta badüela. VIII. Euskaltzaindiaren Biltzarreko Adierazpenak 5. puntuan hau zioan: «*Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpegitura zainduz*» (Euskera, XXIV-2: 103). Idatzian, *ortografia bakarra onartuko da batuan nahiz euskalkietan; izan ere, euskara hizkuntza bakarra baita, ez hizkuntza asko*» (Adierazpena - Euskalkien erabileraz...: 1). Eta hau da Xiberoan egiten dügüna alkarrekilanko ortografiaren erabiltze, Euskaltzaindiarena, orai euskaldün oroena, püntü bakant eli bat orano argitürik ez balin badira ere. Mintzajearen azpiegitüra begiratzen dügü ere, *bürüa* idaztez adibidez eta ez *bürüa* edo *büia*, izen hau *bürü* (*buru*) beita.

«*Euskalkiak baino lehen hor da euskara*» argitzen dü Euskaltzaindiak (Euskera, XXIV-2: 105). Hau da: euskara Xiberoan xiberotarraren bidez gaüzatzen da, bena xiberotarra euskara da, euskararen Xiberoko itxüra. «*Zuhaitzek ez diezagutela basoaren ikusbidea galeraz, otoi*» (*ibidem*: 105). Xiberotarra zühaitz bat da, besteen artean; alkarreki euskararen oihana egiten düe.

⁹ 2001ean, Souletin et batua: pour un duo plutôt qu'un duel artikuluan, xiberotarraren eta euskara batuaren arteko funtzioer eta erabilte alorrek gogoemaiten hasi nintzan (*Madeleine de Jauréguiberry Omenaldia – Hommage*, Donostia, Eusko Ikaskuntza: 77-84).

3.3. Diglosia eta triglosia nozioneetaz Xiberoan - Xiberoko mintzajeetaz¹⁰

Azkenean, orai, Xiberoan, gure herrialak jileen mintzajeen kontuan ez hartzez (gaztelania eta portugesa bereziki), bi, hiru edo lau mintzaje ginirio. Zoin dira?

Lehenik xiberotarra, euskararen hebenko forma mentez mente moldatutako zena. Ondoan edo gainen, frantsesa, euskara abantxutatu eta diana. Behar ere ihardokitzea adierazten eta indartzen da euskalzaleer, ikastoler, euskal irratier esker, besteak beste. Ondotik, jin berri den bat badugu, batu famatutako hori, gero eta haboro sartzen dena ez Xiberoko frantsimenter frantsesean, baina bai euskaldun zontaiten euskararen, gazteen eta euskalzaleenean bereziki. Halere, batuak ez dute xiberotarra ordarikatzen. Ezagutzen duenak baliatzen dute xiberotar ez diren euskaldeneki mintzatzeko.

Batuaren eragina da nola xiberotar lexikan sartzen den gero eta haboro. Berri txarra dea hori? Ene ustez, ez, frantsesak hartutako zian lekua hartzen baita apur edo hanitx frantses hitzen ordarikatzen. Eta hari esker beste euskaldunekin euskaraz elesta gaiteke.

Azkenean jokian sartzen ari lizatean laugerren aztaparluzeko bat guntuko, Xiberoan mementoko lekuko zinez tipika diana, inglesa, komunikatzeko nazioarteko mintzajea. Xiberoan bizi direnen artean, enpresa elibatetan baizik edo bigarren mailako edo unibertsitateko ikasle zontaitentzat eraginik baizik ez dute.

Hots Xiberoan, oro har, triglosia mota bat ginirio, xiberotarra Xiberoko mintzajea, ezagututako beharko dugu batua, entelegatutako puru, eta nahitaez indartsu den frantsesa.

Prefosta triglosia nozio hori ez da zentzu prototipikotzat hartu behar, erran nahi baita hiru mintzaje edo mintzaje barietaten arteko funtzioen eta

¹⁰ Hortaz ikus adibidez Txomin Peillenen Les langues de la Soule artikulua (*Le Pays de Soule*, 1994, Pierre Bidartek bildutako testuak, Baigorri, Izpegi: 259-274).

erabilte alorren banaketa orekatü eta egonkorra lizatekeala. Aitzitik, frantsesak, xiberotarrak eta euskara batuak funtzio eta erabilte sail ezbardinak badütüe, etengabe kanbiatzen ari den prozesü batetan.

Xiberotarren artean batua erabilirik ez da; lehen mailako erakaskuntzan ez da erabili, ikasleer amiñi bat erakusten balin badeiee ere. Orai artino bere eragina hiztegian borogatzen baizik ez da eta errezebitzen diren Xiberotik kanpoko euskal ikus-entzünezko medietan. Batua ez da Fergusonen 1959ko diglosia kontzeptü klasikan bezala goi mailako mintzajea, Euskadin den bezala. Xiberoan administrazioko mintzajea frantsesa da, ez batua. Bena frantses-xiberotar diglosia hori ez da ere Fishmanena, lehen heltü bada izan zen bezala. Xiberotarra erakaskuntzan sartürrik da eta bere leküa handitzen ari da, herriko etxeetan bere lehen ürratsak egiten dütü. Mintzajeen eta eüskararen bariatateen arteko zatikatzea ez da iraüñkor. Hots, Xiberoan *stricto sensu* diglosiarik ez dügü, ez ere triglosiarik¹¹.

4. Ürrentzeko. Eta gero?

Ene mintzaldia ürrentzen da. Parka ezadazüe, nitzaz sobera mintzatü niz, uste beinüan eüskaldünen denen ebillbidea bezala, enea ere baliagarri zela aipatü nahi nütüan bi dikotomia horien amiñi bat argitzeko. Azpimarra dezadan dikotomia horik ez direla eüskararenak baizik. Mintzaje gütitü dene-nak dira, molde batez edo bestez, eta Mündüko beste mintzajeen salbatzeko eta indarberritzeko esperientzietarik hanitx ikastera badügü.

Mintzaldi honetan deitzen den *corpusa* ez düt aipatü, Xiberoko eüskalkiaren forma bera. Halere, bi hitzez erran dezakegü xiberotarra gero eta haboro batuari hüilantzen zaiola, nahitaez.

Eüskal Herri osoan gazteen hizkera gero eta nahasirik dela ohartzen da: batua, eüskalkia, ezagützen balin badüe, eta deitzen diren *erderakadak* nahasten dira. Xiberoan ere holako zerbait gertatzen dela uste düt, ikertü

¹¹ 2011an, *Bat* aldizkariak Mikel Zalbideren diglosia kontzeptüaren ikerketa kritika lüzearen baliatzez diglosiari бүрүzko dozier monografika argitaratü dü: *Diglosiaren inguruan*.

ez badüt ere, zerbait legezko dena lingüistikaren ikuspüntütik. Euskaldün gazteek xiberotarra etxen edo ikastolan üsüago ikasi düe, gero euskara üz-ten ez badüe batua ikasten düe eta nahi ala ez frantsesa esküko badüe, azken hau bazter orotan entzüten eta irakurtzen baita. Arren gure euskaldün gazteek hiru ütürri ezbardin badüe mintzatzeko; hiruak baliatzen dütüe. Ondorioz, xiberotarra batuari gero eta haboro hüilantüko zaiola pentsa dezakegü. Gure lana da xiberotarraren berezitarzünen begiratzea.

Hatsarrean Xiberoak eta xiberotarrak bat egiten züela erran düt. Bai hau da, bata bestea gabe deus ez da, lürraldea mintzajea gabe. Egia hori beste manerala eta nik beno hanitxez hobeki erran züan Jean-Louis Davantek. Aipatzen düt: «...*Euskal Herria da hau, bere nortasun berezia daukana zalantzaz barik: euskara dugu hemen lehenbiziko hizkuntza, herriko tontor eta erreka guziek mintzo dutena toponomia guzian. Ez da zuzen ez egoki euskara bere kabiatik bota dezan bigarren hizkuntza dugun erdarak, kukuak egin ohi duen bezala*» (Euskera, 2002: 648. or.)

Behar ere, erran bezala, xiberotarraren itzaltzeari ihardokitzearen adela-tzen eta azkartzen ari da eüskalzaleer, eüskal alkarteer, ikastoler, gaü eskolari, Xiberoko Botzari esker, bena ere haütetsier esker Herri elkargoak erakusten düan bezala. Düala güti Ziurtagiriaren elkarteak Xiberoko Herri elkargoari «Bai Euskarari» ziurtagaria eman deio «Bidean» labelareki. Ziurtagari hori esküratzen düan Iparraldeko lehen herri alkargoa da. Eskolak, ikastolak bereziki, gero eta pezü handiago dü xiberotarraren transmisio-nean, familia-transmisionea arrapitz dadin anartean¹².

Euskaltzaindiak bere aldetik ere hortan partehartzen dü eta partehartü nahi dü, erran gabe doa bere jakitate alorretan. Aurten Jüje Etxebarnek Xiberoko Gaü Eskolarekin izkiribatü düan *Gramatika Emendakinak*. *Zube-roako euskaraz* libürüa argitaratü dü eta Txomin Peillenek adelatü düan *Egiategiren filosofo huskaldunaren ekheia (bigarren liburukia)*, azken hau XVIII. mentekoa. Euskaltzaindia lehen xiberotarrezko argitaletxea dela erran dezakegü. Sü Azia alkarte lagündüko dü haren toponimia biltze la-

¹² 2011-2012 ikasturteko sartzean lehen aldikotz ehün ikasle beno haboro hartü düe Sohütako ikastolan.

netan Euskaltzaindiak; halaber Ikas pedagogia zerbitzuarekin lan egiten dü, dokumentüen xiberotarrezko bertsioen moldatzen.

Egün berean ere *Eüskararen egüna* ospatzen da Maulen, eta hori lehen aldikotz. Zonbaitek erranen düe marka hona ez dela, norbait edo zerbait trenpü txarrean denean edo iraganeko ala hil denean ospatzen dügüla, lagüntzeko edo oritarazteko. Bena esperantxa keinü gisa ere ikus genezake. Eta hori dateke ene ikusmoldea.

Hots, xiberotarraren geroa gure esküetan eta, hobe, gure ahoetan da. Nik lüzez biziko dela sinesten dü, zinez. Nola, zer plantan? Beste galto bat da.

Bibliografia

ATXAGA, Bernardo, 2005, *Lekuak*, Iruñea, Pamiela.

BOURDIEU, Pierre, 2001, Esquisse pour une auto-analyse, *Science de la science et réflexivité*, Paris, éditions Raisons d'agir, 184-222.

DAVANT, Jean-Louis, 2002, Euskarak Iparraldeko elizkizunetan duen presentzia-rean aurrean zer?, *Euskera*, 47-2, Bilbo, Euskaltzaindia: 643-648.

———, 2005, Baionako biltzarra (1964), *Nirekin yaio nun - Txillardegiri omenaldia*, Iker 17, Bilbo, Euskaltzaindia: 207-216.

———, 2011, Monzon, kültüra gizona, *Monzon pastoral*, JohaÑe Bordaxar idazlea, Larraine: 172-173.

EGIATEGI, Jüsef, 2011 [1796-1797], *Egiategiren filosofo huskaldunaren ekheia*, bigarren liburuki, Txomin Peillenek paratua, Bilbo, Euskaltzaindia.

ETXEBARNE, Jüje, 2010, *Gramatika emendakinak Zuberoako euskaraz*, Bilbo, Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA, 1979, Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. Euskaltzaindiaren agiriak, *Euskera*, XXIV (2. aldia) - 1, Bilbo: 101-106.

———, 1999, Zuberoako herri eta herritarren izendegia, *Euskera*, separata, Bilbo / Bilbao, Euskaltzaindia.

———, 2004/03/26, Adierazpena - Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan, www.euskaltzaindia.net.

EUSKO JAURLARITZA-IVAP, 2010, *Soziolinguistika Hiztegia - Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

FERGUSON, Charles A., 1959, Diglossia, *Word*, 15, New York: 325-340.

FISHMAN, Joshua A. 1967. Bilingualism with and without diglossia: Diglossia with and without bilingualism, *Journal of Social Issues*, 23-2, Malden (USA): 29-38.

INTXAUSTI REKONDO, Joseba, 2007, *Joanes Etxeberri egitasmoa (2007-2008)*, *Euskera*, 52-1, Bilbo, Euskaltzaindia: 239-267.

ZALBIDE, Mikel eta beste, 2011, *Diglosiaren inguruan. Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 79/80, Andoain, Euskaltzaindia-Soziolinguistika Klusterra.

Mintzo haren ohoreagatik

PEILLEN, Txomin
Euskaltzain emeritua

Jusef Egiategik düala berrehün eta hogeï ta zazpi hala idatzi züan. Begietarik hürrün bihotzetik hürrün hala ziozüe hanitxek, halere, Frantzian Behera lanak edo sortzeak bizitzera bortxatüak izan giren frankok eüskaren ikasteak eta ikertzeak Kartielean egoiteak bezainbeste berotü gütü. Püntü batez, eüskaraz ezkiribazale zuberotarren erdiak paristarrak ginen erran nahi beita lauetaarik biga.

Alta gure gazte denboran eüskara mintzatüa bizi bizirik zen eta gerla aitzinean züberotar ezkiribazale zonbait izan zen. Geroago, pastoralak ezkiribazaleak berriz sortüko dütü eta hortan eseiätü direnak hamarna bat dira. Halaber, eüskaltzale sühar zonbaitez medioz eüskara irakasten hasi da, gure mintzajea gibel ari zelarik.

Halere gure, mintzaje arraro eta txipia, gure üskara, manex mintzajeak beno haboro estüdiatürik izan da. Leizarragak düala lauehün eta berrogeï ta bat urteetan, 1571.urtean bere ützülpenen ondotik bildü eta eman zütian hitzak badütügü ; Oihenartek 1638.an hantik 67 urte gure mintzaje sübertea aipatzen dü; *Notitia Utriusque Uasconiae* delakoan.

Artean, hamazortzigerren mentean Egiategik gure euskalkian idatzi badü ere ez dü gramatkarik ez eta hiztegirik egin Larramendirenak baizik erabili. Haleikere, hamazortzigerren mente hortan Jean Philippe de Bela sohütar generalak Zuberoako üskararen aipamen lüzea egin züan, hiztegi txipi batetan lau ehün hitz eman zütian herrokatürik: herroka bat ziberotarrez, beste herroka bat Larramendiren Diccionario trilingüetik hartürik eta beste biga

espainolez eta latinez. Lista hori Iruineako *Fontes Linguae Vasconum* delakoan agerrarazi nūan.

Oihenarteren ondotik, hantik berrehūn bat urte geroago Intxauspe zūberotar kalonjeak, Zūberoako aditzaren lehen estūdio handia egin zūan. Emmanuel Inchauspek 1858 Baionako Lamaignèrenean, *Le Verbe basque* ederra agerrarazi zūan, bena ez bilha *Lur* entziklopedian haren izena nahiz urteetan lapurtarrez eta zuberotarrez idazten ibili den, hamabost aldiz agertū den *Eūskaldūnaren gūtūna* Napoleon III.aren denboran, 1855.an idatzi.

Denbora berean 1856.urtean Agosti Xahok eta Urrūstoiko Antoine d'Abbadie jaunek argitaratū *Dictionnaire basque français, espagnol et latin* delakoan zūberotarra aipatzen delarik, azitzin solazean, bearnesa eta gaskua ontsa ezagūtzen zūtialako lehentze erakusten dū ez dela eūskara suberterik xahū edo garbi denik.

Hemeretzūgerren mentean, Berboaz, aditzaz baliatūz, agertū ziren edo agertū gabe ziren Intxausperen lanez baliatzez, Louis Gèzek *Eléments de grammaire basque (Dialecte souletin)* izenarekin Zūberoako mintzajea nola ahoskatzen den eta zer ortografiarekin, gero zer gramatika dūan eta azkenik *Vocabulaire Basque-français*, eta *vocabulaire français-basque*. Baionan Lamaignèrenean 1875. urtean agertū zena. Mintzajea osoki esplikatzen zaikū ben, bena txikana gūzietan sartū gabe denek egiten dūtūgūn hūts zonbait badutū, bena familiaz eūskaldūn ez zen horrek merezimentū izigarria badū.

Hogeigerren mentean de Jaureguiberryk jauna atzinekoen bien aditz bilketa berritūko dū bena lana lo egonen da. Hogeigerren mentean ere bospasei hiztegi aski hunak agertū edo bildū ziren, denak apezek eginak Foix larraintarrarena, Mizpiratzegirena; Erbinena eta Larrasquetena. Azken honek zūan berriz zūberotarraren ikertzea gorenik eraman *Le Basque souletin nord-oriental* 1934, *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*, Klincksieck, Paris 1939 direlakoak agertūz, baita Larrasquet mintzaje horren fonetika, mintzoa metoda berrienekin bildū.

Orhit gitean ere aita Junes Casenave Harigilek zūberotarraren gramatika oso bat ezkiribatū dūala, gūti ezaguna Sū Aziak Maulen agerrarazi zūana *Ziberotar gramatika* Zūberoatik kanpo eta hobeki ezagūtūrik izan zedin. Bes-

tainez, bi hiztegi egin zütian *HIZTEGIA I, Français-euskara züberotar eüskalkitik abiatzez* 1989.an Ozazeko Hitza argitaletxeak emana eta *HIZTEGIA II, Euskara-français* Hitza, Ozazekoak, 1993. Azken hontan zuberotar aditz normalizatüa emaiten deikü eta ürrentzean erran zahar parrasta bat.

Gure mintzajearen ikasteko eman züan *Züberoan eüskaraz*, Sü Aziak Maulen 2000.urtean argitaratüa. Gure Junesek gure mintzajea ohoratü eta dinitatea handia eman dio, bai eta eüskaldün gazte hanitx eüskara ikastera eta hobetzera eraman, haren ondotik, xiberotar libürü eta gramatika oroek Eüskaltzaindiaren ortografia jarraitzen düe.

Aditza dela-eta beharbada herri batetik besteala bildü diferentziekin zuberotar izan eta üken aditzeen biltze handiena Pedro de Yrizar jaunak egin züan, *Morfologia del verbo auxiliar suletino (estudio dialectológico)* Euskaltzaindiak Bilbon, 2002.an agertua.

Urte luzeetan züberotarra irakasten ebili zaikün Jüsef Etxebarne, beregainti gramatika simple eta argi bat eman deikü, aurtan Euskaltzaindiak Sarako idazleen feidan erakutsi düana. AEK-ko eta gaüeskoletako esperientziatik ikasia. Libürüaren izena *Gramatika emendakinak Züberoako eüskaraz*. Etsenplü hanitxekin bere praktikotarzüna erakusten dü.

Horrez kanpo Etxebarnekin barnetik izigarri ontsa ikasi beitü eüskara, frantsetik eüskara ützültzale haitü agertü zaikü.

Berriki, eta Coyosen ondotik Michel Etchebarne frantzimant ikertzaleak lan sabanta eman deikü: *Dynamique historique de la langue basque, variation dans l'espace et changement dans le temps*.

Orai Batista Coyosen aldia

Batista Coyosek, bere tesiarekin Züberoako mintzajearen ezagützeari beriz, aspaldiko partez, unibertsitateko borta zabaltü deio eta libürü batetan «*Le parler souletin des Arbailles*» (Une approche de l'ergativité) Pariseko L'Harmattan etxean 1999.urtean eman. Badakit bati edo besteari entzünik Eüskaltzaindian unibertsitateko jente sobera badela, eta sabantegi girela, bena ez dü ezigützen mintzaje bat estüdiatzen ez denik non eta mintzaza-

liek ezpadakie ezkiribatzen. Barnetik jakiteak ez dio ihuri ere minik egiten, idazle denari gütiago.

Bestalte, Batista Coyosek züberotar ez diren eta espezialista ez diren euskaldunentako, gure mintzaje txipia zertan den ezagutarazteko beste libürü bat bi mintzajetan eman deikü *Xiberotarra-Zuberera* (Le dialecte basque souletin). Hortarako bere jakitatea egin düan lan batetik horra zaio. Kontseilü Generaleko zerbütxü bat abiatü züan euskararen eta bearnesaren althe, bena euskaldünak baizik ezpeitziren aski zotükatzen Batistak proposatü züan Mintzaje Politikaren zerbütxü bat, haren, ondotik *Office publique de la Langue Basque*, Euskararen Erakunde Publikoa Baionan Konseilü Orokorrean sortü dena.

Ez deiziet Batista Coyosen bigerren libürü aberatsean irakurten direnak oro aipatüko. Coyosen hitzetan:

«Liburu hau zuberotarrentzat, beste euskaldunentzat eta bai ere zuberera ezagutu nahi duen publiko zabalagoarentzat egina da. Euskalkiaren historia, literatura bere ezaugarri linguistikoak bere egoera soziolinguistikoa aurkeztuko ditugu, besteak beste. Aurreiritziei, klixeei nagusitzea da helburuetarik bat hori datu sakonen bidez...»

Bigerren kapitülüan xiberotarra historian gainti, Jakilegoa zaharrak emaiten deizkü, Hirurgerren kapitülüan Oraiko zubereraren egoera. Zertan den gure mintzajea eta gure jentea zeren errepublika hasiz geroztik Ziberoak jenteen erdia beno haboro galdü beitü, eta mintzajeak min hartü. Ondotik, aipatzen deikü Institut de Sondagek eta besteek egin inkestak jakiteko nor eta zonbat euskaraz mintzatzen zen Ziberoan, 89.an hasirik 2001 artino, hortik idoki da hiru zuberotarretarik bigek zerbait badakitela, erdiek mintzatzen bena oroz gain zaharren artean. Mila bizizaletik goitiko herrietan karrikan, arrüan % 6 baizik ez dü euskara mintzatzen.

Laugerren kapitülüan. Beste euskalkiekin zer diferentzia düan? Beste hanitxek galdü düen akzent edo azentua kontserbatü dü züberotarrak eta ü-rekin bearnesetik hüllantzen bada, beste zonbait aldiz, manexa da gaskoinetik hurbilago. Hitzetan badütü züberotarrak besteetan galdü diren hitz zaharrak *igaran* eta ez pasatu, *heltü* ez arribatu edo alleatu, eta beste hanitx haleikere manexek bezainbeste hitz, okzitanoari hartü deitzogü bena ez be-

rak. Aditzean, geroaldi zaharra erabilten dügü (*nizate* ez izanen niz, *düiket* ez ukenen düit), eta hika, noka besteen gisa üsatzen badügü garaztar zonbaitek ezagützen düen zuka/ xüka zaharrak ere bai begiratü. Mintzatzean Europa aldi hontan entzuten ez direnak hanitx ontsa begiratü dira Ziberoan «ph» apho, «th» athe, «ph» phakatü, «kh» akherra orano erraiten beitaügü.

Bosgerren kapitülüan. Aüzoko mintzajetan züberotarrek hartü hitzak: bearnesa, espainola, frantsesa eta euskara batua. Zeren erraiteko hartzen den espainoletik edo frantsesetik eta lehen bearnesetik sailka emaiten da, sail zonbaitetan güti, lehen espainolari orai euskara batuari. Hedabideetan euskara batuari irratietan hala nola Xiberoko Botzean telebisten eta kazeten bidez; euskal eskoletan euskara batuaren hitzak erabilten dira. Teknikan, berriki mekanikak hantik heltü beitera amerikano hitzak sartzen dira, lehen bearnesetik hartzen ziren bezala. Amministrasione hiztegian frantsesa nahastent da euskararekilan.

Argi da Batista Coyosentako gure zokoko mintzajea eta euskara batua ez direla etsai bena bakotxak bere eremüa badiala, kartielekoan, eüskalkian pastoralara, khantorea, poesia eta euskara batuak eskola liburuak eta beste euskaldunekin erabilteko.

Seigarren kapitülüan. Zer emaiten den ikusteko eta entzüteko euskaraz biltzen dü pastoralak, maskaradak, komediak, kantorea, bertsolarien formatzea.

Euskararen irakastea eskoletan, 1972, düala berrogei urte Margaita Etxartekin abiatü ikastolak orai bi lekü badütü bata Sohütan Epherre ikastola (historia zerbait ikertü dugünek badakigü Belako jaunen jauregia izan dela eta kasi segür gira Erreboluzione handia beno lehen Egiategi eüskal filosofoa hor lan egin züala, hor baitzegoen errabili züan Larramendiren hiztegia), AEK-k badü Ziberoan *Lamiña Gaiü eskola* eta üdan ikastaldi luzeak egiten.

Hatsarrean txipiekin züberotarra beita erabilten *Ikas*-ek badü pedagogia lekü bat Maulen. Lan hortan dabila ützültzen edo eüskaraz züenki idazten *Sü Azia* izeneko elkarte. Ikusgarrien, komedien eta eüskarazko programak sortzen Maulen *Hebentik* elkarteak lan emankorra egiten dü.

Komunikazio hedabideak

Ahozkoak dira bi irrati, bata *Ziberoko Botza* abantxü osoki eüskaraz Züberoan edo Manexekoan Euskal Irratien elkargoan sartürik Zuberotarren erdiek entzüten omen düe. *Radio Mendililia*, frantses irratia da, berriak Radio France Internationaletik emaiten dütü, eüskal müsika hanitx eta egünean Marzel Bedexagarrek euskarazko ezkiribü zenbait irakurtzen dütü. Euskal telebistan batzük Iparraldeko emankizunari so egiten düe, bai eta futbolari, gure zokoko mintzajea pastoralen errepikapenak badütügü. Frantses telebistan abantxü deus ere ez.

Kazetak dakizüen bezala *Le miroir de la Soule* da frantses ortografia eüskaldünarekin nahasirik kronika bat aldi oroz agertzen züan. Elizaren *Autour du clocher Zeinu ützülian* J.L. Davanten kronikaz kanpo deus ez da. Batzutan *Herrian* zer bait bada zubereraz.

Eta zer egiten düe administrazionek eta herriek?

Euskal herriko historia irakurten bada urte hanitxez Elizak züan Eüskara irakasten hurrek katixima ikas zeken, gero Artxu errejentak frantsesaren irakasteko *Uskara eta franzes gramatika*, haurrentako 1852. an ezkiribatü züan Amiküzeko eta Züberoako mintzajeak botitüz. Altzaiko eskolan 1950-1960 artino Maddalen de Jaureguiberry Artxuren alegiak irakurtzera jiten zen, gero deusere 1972.an ikastola sortü arte, bena ordüan non zen gobernüa ?

Eskola publikean ez da aisa sartü bi mintzajen irakastea. Enseignement primaire edo Lehen mailan Mauleko kantonamentüan haurren %22ek kate hori jerraikitzen züen eta bizpahiru oren %47. 2005ean, orai Atharratzekoan %18 baizik, bena %60ek bizpahiru oren astean.

Bigerren mailan, kolejioan Maulen %11 bi mintzajetan, eüskara mintzaje bezala %20 Mauleko, %60 Atharratzekoan kantonamentüan.

Erran behar da maila güzietan jenteez hanitxez haboro galthatzen düela hala nola %92 etxeko Urdinarben eta %100 Idauze Mendin. Haurrentako euskara galthatzen denen artean betikoa entzüten da hobe lükie anglesa

ikasi eta haboroenak, norekin mintzatüko dira anglesez Maulen, Atharrazten edo Urdiñarben? Eskola pribatuek ez düe bi mintzajen erakastea, elebidun erraiten dena eskentzen.

Euskara zerbaitetarako ager dadin lehen ürrats txipia herri eta bide seinaleak eüskaraz ezartea izan zen. Gero *Xiberoa herri elkargoak*, herriak oro biltzen dütianak hortarako politika bat abiatü dü: lehenik Eüskararen libürü xuriak bi mintzajetan argitaratü. Herri elkargoak Alozeko eskola bat erosi dü ikastolarentako eta egoitza zaharren leküan ikas gela bat, haurzaintegi bat, haurren txostakagia bat, lo egiteko günea eraikitzen ari.

Seinale elebidünak pakatzen dizkie herrier *Xiberoa* herri güzien elkargoak Maulen osoki eginik da eta mera sozialistak Barbe-Labarthek eüskararen hedapenerako politika bat abiatü, Atharretzen ere handixena, bena Santa Grazin bortxatürrik egin düe, alegia turismari ogen eginen züala. Elkargoa horrek 2005.an ikastolen alteko DVD bat, AEK-ren irakas material bat eta Ikasek züberotar haurrentako egiten dütüen libürüak sosez lagüntü.

Hau da Batista Coyosen libürü horrek pentsarazten deiküna.

Batista Coyosen libürüen artean lan sabant hau aipatüko deiziet *.Le parler basque souletin des Arbailles*, Parisen René Descartes unibertsitatean irakurri züan tesia da. Hatsarrean besteek zer dioen ergatibitate forma bere xiaz, eüskararen originaltarzüna egiten düana, bena ihuren alte jarri gabe eta hola dio :

On évitera au lecteur les querelles entre courants, les divergences théoriques de point de vue et d'objets d'étude, qui règnent dans la communauté des linguistes (Avant-Propos aipatü libürüan 11.or.)

Eta berak haala labürtü züan bere lana:

Lan honen xedea bikoitza da, nahiz bereziki, Frantzian mintzo den zuberera izeneko euskal dialekto ahularen aldaera baten azalpen sinkronikoa izan. Euskalki edo dialektoarekiko hizkuntza ikerketaz urriak dira, sarri labur eta zaharrak. Lan hau, haren oraingo lekukotasun bat da.

Honela bada, eta elkarren ondozka, hala fonetika eta fonologia nola izen – eta aditz sintagmaren egitura aurkezten zaigu. Ikertzen

dira halaber, sintaxi harremanen adierazgailuak, perpausaren baita korreferentzi harreman batzuk, aditzen baliotasuna (argudiozko moduloa) aditzera emaniko eginkizun semantikoei dagokionez - eta baita ibilbide diatetikoa ere. Azkenik, hizkuntzaren dinamikari buruzko argitasun batzuk proposatzen dira.

Euskal hizkuntzak kasu-adierazle ergatibo nagusi bat du. Ikertzen da zein eratako motari dagokion honako esparruetatik bakoitza: sintatikoa, semantikoa, eta hein ttipagoan enuntziatiziozkoa «Joskera edo sintaxi akusatibo» dun hizkuntza baino areago, egiazko «ardatzik» gabeko mintzaira bat dugu R.M. W. Dixonek darabilen terminoaren arabera, edo urriki markaturik ardatzarekin.

Kasuzko funtzionalen eta eginkizun semantikoen arteko korrespondentziek, hala nola aditzera emaniko aldaketek, pentsarazten digute ezen kasu-adierazleak, plano semantikoen duen izaera gutiz -gehiago motibatua ahultzerat jotzen duela.

Ene oharrak

Coyos irakurritz gük hanitxez egari dütügün gora beherak esperantxak eta etsipenak xeheki lanthü dütü. Jakin dü Coyosek bere sabant zelütik behar zenean jaisten zeren bethi gogoan izan dü zer igaraiten da? Zer gertatzen da Züberoan. Aitor dezagün ez dela aski gure mintzajearen eritarzünak ezagützea ezagütarazi behar direla erremedio zonbait ere badirela. Orhitzen zait eüskara ikasi eta hobetü nahi üken nüanean Salaberryren kantore libürüa erabili nüala, eta mintzatzen, Artxuren gramatikarekin ikasi nüala. Libürürik ezin edirenez hanitx ikasi düt osaba, izebekin, kosiakin eüskara baizik entzüten ez zen Basabürü batetan.

Orai, entzün eta mintzatü behar da bena gazte bat noiz agitüko da Züberoan lagünen artean frantzimantik gabe, bai badira eüskaraz mintzatzen diren elkarte zonbait hala nola *Sü Azia* edo *Hebentik*, edo *AEK laminak* edo ikastolakoak. Orhit niz zer bihotzeko tinkadüra eman zeitan behin düala berrogeitahamar urte Atharratzeko kolejiotik arrajiten zirelarik, kosiaren autobusean, denak frantsesez ari zirela, eta orhitzen nintzan Andozeko eskolan hogeitaz urte lehenago bi urteez egon nintzanean haurrak abantxü oro

euskaraz mintzatzen zirela. Andozeko eskola hartan hogeitahamabostetarik hiru frantzimant eta horien artean ni, bai eskola hamahiru-hamalau urtekin ürrentzen zenean frantsesak ez züan euskararen itozeko aizararik, bena orai hamasei urteez frantses eskolan ibilten direnak nekez mintzatzen düe, nahiz entelegatzen düen.

Mintzajeak beste etsai bat badü euskaldün direnek üsü frantzimantek beno haur gütiago düela eta hanitxek, nahiz euskara badakien ez düe haurrer irakasten.

Lehen senaremazte gazteak zaharrekin bizi ziren eta haur hanitxek aitita eta amamarekin euskara ikasten züen. Orai, zaharrak karriketara edo zahar-etxetara igorten dütüe eta haurrek etxen euskararik ez entzüten.

Euskara orai beno gaizkiago ikusirik zen lehen nahiz orai beno haboro mintzatzen zen, bena orhit nola erraiten zeitan aitak erdi etsitürik «Tu perds ton temps avec ton basque, tu ne retourneras pas au pays» eta Ligin ere erran zeitadena «zertako behar dük apez mintzaje hori ikasi?»; gorago erran dügü nola, orai, gure mintzajea ez dela baratzen diren zuberotar apezan arrenküra handiena.

Aitor dezagün harrokeriak badüala khinberra. Lehen erraiten bazen Xar-rako zübütik landa Euskarak ez züala deuse balio, bena lehenago frantsesak ez züan deuse balio, euskaldünentako Argentinara eta Uruguaila joaiten zirenentako. Orai, Iruneko zübiak, bentetarik kanpo, igaran ondoan zertako baliatüko zaio frantsesa? Bidasoatik haraintian anglesa ikasten omen düe bena ez dütelako egün oroz entzüten izigarri gaizki, musurkatzen, eta frantsesek beno gaizkiago emaiten. Zer ele ta ahopide txarrak. Nik uste eta hor Jüsef Egiategi gure hamazortzigerren menteko filosofoak arrazu züan ziolarik:

Aspaldian dago errana gizona dela hanbatetan gizon nola mintzo süberte beitaki: topa heuskaldün menditarrak dakian espainola delako heen aüzo, topa ere ordokitarrak dakian biarnesa edo zerbait frantsesetik, hantik; biek dütükien abantailla gatik, bena beren artean ta etsaien eretzian, heuskara xahia dezen mintza, da ene egarria.

Errelijioneak abantxü ützi dü katixima euskaraz irakastea, apez euskaldünak frantsesaren alte jokatü dira eta laiko zonbait dira katixima euskaraz

irakasten bermatü; meza bi mintzajetan emaiten da, khantoreak eüskaraz edo batere ez, prediküak frantsesez beita beti norbait gure mintzajea ez dakiana. Azken indarrak eman zütian Junes Casenavek alde batetik bizpahiru libürü sabantak Züberoako eüskaran ezarriz, bai eta lüzaz eüskarazko meza emaitez, bena erretreta hartü düanean Betarramitek frantsesezko meza eskentü diote eta han ez da kantore bat ere eüskaraz entzün.

Orain arte eta etengabe Züberoako eüskalkia ikertü da eta güti edo hanitx erakatsi. Badakigü badela lan handiagoa dakienen mintzarazteko eta ez dakienen eüskaldüntzeko, bena üngürüan badütügü gure zokoko mintzajea deusetik abiatüz ikasi düenak eta beste zonbait hatsarretik ere badakienak. Zer agit ere, zer gerta ere ihork ez dü erranen mintzaje eder bat bazüen eta salbatzeko ez die deus ere egin.

Ezpeiniz ez azti ez profeta ez dakit zer izanen den eüskara hebentik ehün urte. Aspaldian eri eta ezin hilez dela gure mintzajea? Bai, Vinsonek uste züan Euskal Herri osoan hogeigerren mentean 200.000 gibeloi zonbait, eüskaraz mintzatüko zela, eta Onésime Réclusek ez züala hogeigerren mentea ikusiko. Mementoko ehün urte irabazi dügü.

Euskaltzaindiaren ageriko ekitaldia Tafallan. Nafarroa Oinez 2011

Tafalla, 2011-IX-30

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Ongietorria

URRUTIA, Rexu

Garcés de los Fayos ikastolako zuzendaria

Arratsaldeon guztioi,

Gure ikastolak Euskaltzaindiarekin batera antolatzen duen ekitaldi honetara ongi etorriak izan zaitezte.

Hamabost egun besterik ez direnean falta Nafarroa Oinez 2011 ospatzeko, atsegin handiz hartzen ditugu gaurko gonbidatuak. Ohore handia da guretzat Euskaltzaindiko ordezkariak gurekin izatea eta baita ere ikastolako ordezkariak, familiak eta bestelakoak, ongietorriak denak.

Nafarroa Oinez-ek aurten helburu bikoitza duela esan daiteke, asko laburbilduz. Ikastolak, iazko ikasturtean 40 urte bete zituen. Gure ikastola asko hazi da eta nahi eta nahiez Bigarren Hezkuntzarako eraikuntza berria behar dugu. Horretarako laguntza jasotzea da helburu nagusietako bat.

Bigarrenik, proiektu zehatz honetatik haratago doan helburua du Nafarroa Oinez festak: gizartean eragin nahi du, euskararen alde.

Gure aurtengo leloak, hamaika 11n, ederki esaten duen bezala, asko, aunitz gara Tafallaldean euskaraz bizi nahi dugunak.

Testuinguru honetan kokatzen dugu gaurko ekitaldia.

Hizlariak aurkeztuko dizkizuet:

- Angel Iriso, «Zaki», irakaslea, gure ikastolaren historiari buruz ariko da.
- Jose Mari Esparza, idazlea eta ikastolako guraso ohia. Tafallaldeko euskararen inguruko historiaz arituko zaigu.

Momentu honetan, ikastolako ikasle talde batek **Aitorren Hizkuntza zaharra** abestuko digu.

Ondoren,

- Iñaki Etxezarreta, Euskal Herriko kooperatibako materialgintzaren arduradunak, **Ikastolen mugimendua, dabilen herria** aurkeztuko digu.
- Andres Iñigo, Euskaltzaindiako Nafarroako ordezkariak «**Euskaltzaindia eta Nafarroa**» liburuxa aurkeztuko digu.

Jarraian, beste ikasle talde batek **Hamaika 11n** eskainiko digu.

Azkenik, Andres Urrutia euskaltzainburuak agurra eskainiko dugu.

Bukatzean, ondoko gelan, Nafarroa Oinez 11ko azken ekitaldia izango dugu, Artea Oinez erakusketa bikaina inauguratuko dugu denon gozameneko.

Konbidatuak zaudete.

* * *

Bienvenidos todos a este acto organizado junto a Euskaltzaindia.

Cuando faltan solamente 15 días para la celebración del Nafarroa Oinez 2011, acogemos con gran satisfacción a nuestros invitados de hoy. Es un gran honor para nosotros contar con la presencia de los miembros de Euskaltzaindia, la Real Academia de la Lengua Vasca. Bienvenidos también los representantes de las ikastolas así como las familias que os habéis acercado.

Nafarroa Oinez 2011 tiene como mínimo un doble objetivo.

Nuestra ikastola cumplió el curso pasado 40 años. Hemos crecido, ya no cabemos en nuestro actual centro. Necesitamos urgentemente un nuevo edificio que albergue la Educación Secundaria Obligatoria y necesitamos ayuda económica para construirlo.

Por otro lado, esta fiesta quiere tener influencia a favor del euskara. Como bien refleja nuestro lema, hamaika 11n, somos muchos en Tafalla los que queremos vivir en euskara.

Situamos nuestro acto de hoy en este contexto.

A continuación os presento a los ponentes de hoy:

- Jose Mari Esparza, escritor, expadre de la ikastola. Nos hablará de la historia del euskara en Tafalla.
- Angel Iriso, «Zaki», profesor de la ikastola, nos hablará de la historia de la ikastola.

En este momento, un grupo de alumnas nos cantará *Aitorren hizkuntz zaharra*.

Seguidamente,

- Iñaki Etxezarreta nos presentará el libro *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha*.
- Andres Iñigo nos presentará el librito «*Euskaltzaindia y Navarra*».

Otro grupo de alumnos nos cantará *Hamaika 11n*.

- Andres Urrutia, el presidente de la Academia cerrará el acto.

Quiero acabar recordando e invitando a todos a la última actividad organizada antes del día de la fiesta; la inauguración de la exposición Artea Oinez que hemos organizado este año que tendrá lugar al finalizar este acto en la sala contigua.

ESKERRIK ASKO ETA
URRIAREN 16AN, EUSKARAREN ALDE DENOK TAFALLARA!



«Tafallako Garcés de los Fayos Ikastolaren historia»

IRISO, Angel «Zaki»

Garcés de los Fayos ikastolako irakaslea

0. Agurra

- Arratsalde on, entzuleok, eta, bereziki, arratsalde on, Euskaltzaindiko kideak. Eskerrik asko gure hirira etortzeagatik eta ikastolari holako opari ederra egiteagatik.
- La ponencia va a ser integramente en euskera. De todas formas, vamos a proyectar una serie de fotografías mientras se desarrolla la charla.
- Nik ez dut esperientziarik honelako ekitaldietan, nire lehenengo mintzaldia da. Saiatuko naiz ahalik eta hobekien egiten.
- Ikastolak 41 urte bete ditu, urte mamitsuak. Ez da erraza dena laburtzea eta are eta gutxiago denbora laburrean. Horregatik nolabaiteko saski-naskia atera zaidalakoan nago. Espero dut gustukoa izatea.

1. Juan de Amenduxen olerkia

1. Mintzaldia olerki batekin hasi eta beste batekin amaituko dut.
2. Juan de Amendux Iruñekoa zen. Euskaraz idatzi den olerkirik zaharrenetakoa izkiriatu zuen, non eta Tafallan, erregearen espetxeetan preso zegoelarik, 1567ko udaberrian, Jose Maria Jimeno Juriok aditzez eman zuenez.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 53-72. Bilbo
ISSN 0210-1564

3. Patxi Salaberrik proposatzen duen irakurketa eta itzulpenean oinarritu naiz.

Emen natza ortzirik nozbait gozoeritzirik
 erioak uste gabe doloroski egotzirik
 ene arima Jaungoikoagana beldurriki partiturik
 lagungabe bide lusean peril asko pasaturik
 onak eta orrak bertan munduan ideririk
 plazarak azkeno atsegabe biurturik
 ikusten (n)tul isusirik arreze gusia desegirik
 argi gabe illumbitan hustel eta kirasturik
 nigar begi bapederak bere aldias oroiturik
 niorkore esanen estu ni estudan partidurik
 ene arima duzuen gomendatu garitates mobiturik
 Josafate baturen gara judision elkarreki
 bitartea lodagigun bakea de gusieki.

Juan de Amendux (1540-1580)

4. «Aquí yazgo enterrado, derribado inesperadamente y con dolor por la muerte, cuando en otro tiempo me complacía en la vida. Mi alma ha partido con temor hacia Dios, pasando muchos peligros, sin compañero en el largo camino. El mundo me ha quitado súbitamente las idas y venidas (?); los placeres se han convertido al final en pesares. Los amigos y parientes se han olvidado de mí en poco tiempo. Los veo dispersos, deshecha toda la casa (??), sin luz, a oscuras envueltos en la podredumbre y el hedor. Llore cada cual al acordarse de su turno: nadie tendrá enemigo que yo no tenga. Encomendad mi alma movidos de caridad; seguidme enseguida anotando bien estas palabras. Nos reuniremos en juicio en valle de Josafat. Mientras tanto durmamos, que la paz sea con todos»

2. Ikastolaren hasiera

1. Testuingurua:

- a) Frankismoaren azken urteak dira eta belaunaldi berriek mota askotako aldaketak nahi dituzte. Agintariei beldurra galtzen ari zaie eta hamaika aldarrikapen entzuten dira karriketan.
 - b) Euskara eta euskal kultura berreskuratzeko gogoia pizten ari da eta, gutxika-gutxika, indar ikaragarria hartuko du Euskal Herri osoan, baita Tafallan ere.
 - c) Guraso batzuek bestelako eskola nahi dute, apaiz eta mojarik gabe, makilarik gabe, pedagogia guztiz diferentearekin.
 - d) Ikastolek herri batek eraiki nahi duen berezko eskolari erantzungo diote.
2. 1969an Gipuzkoatik etorritako Luzuriagako langile batzuk bertako herritar batzuekin elkartu ziren eta Tafallan ikastola bat sortzeko lehenengo urratsak eman zituzten.
 3. Jorge Cortes Izalen laguntza paregabea izan zuten garai haietan, Nafarroako beste ikastolek bezala.
 4. 1970eko otsailean, baimena jaso eta ikastola abian jarri zen, German Kabarbaien lehenengo presidentea izanik, mojek utzitako gelaxka batean San Severino asiloan. Lehenengo andereñoa Gartzaingo Nekane Zelaieta izan zen eta zortzi ume hasi ziren:
 - Enrique Izaguirre
 - Jose Ramon Izaguirre
 - Mirentxu Zubiri
 - Itziar Etxebarria
 - Arantza Ilundain
 - Almudena Kareaga
 - Elizabeth Kabarbaien
 - Daniel Etxebarria
 5. Ikastolari «Garcés de Los Fayos» izena jarri zitzaion. Izena Tafallako andre bati zor zaio. Emakume hau hil zenean, dirua eta bestelako ondasunak herriko kultur eginkizunetarako utzi zituen eta, hori zela kausa, kultur patronatu bat sortu zen ondare hori kudeatzeko. Ikastolak 10.000 pezeta jaso omen zuen eta, eskerronez, andre aberatsa-

ren abizena ipini zitzaion ikastetxeari. Esan behar da izen hau sarritan izan dela eztabaidatua eta batzuetan «Tafalla Ikastola» deitzea ere proposatu zen; baina horrek suposatzen zuen burokrazia zela eta, gaur arte iraun du. Egia esan, «Tafallako Ikastola» erabiltzen da eskuarki, baina anekdota politak ere baditugu izen ofizialarengatik; adibidez, «Garcés de los Payos» deitu zigutenean.

3. Gurasoak

1. Egia da hasieran bereziki, baita bere historian zehar ere, asko izan direla Ikastola lagundu dutenak guraso nahiz irakasle izan gabe (bitxia da, baina Nafarroako Ikastolen Elkarte sortu zenean, 1977an, Ikastolako ordezkaria ez zen guraso bat, Pili Berrio laguntzailea baizik), dena dela, gurasoak izan dira eta dira, ezbairik gabe, gurdi honetatik gogorren tira egin dutenak. Bigarren Oinezarako aukeratu genuen leloak, «Lan ta lan auzolan», primeran laburbiltzen du zer suposatu duen ikastola egitea.
2. Haiek probatu dute posible zela eta dela eskola bat zuzenean kudeatzea eta, horrexegatik, bete-betean inplikatzeko. Denetatik egin behar izan dute: hamaika paper hamaika gestio aurrera eramateko (legalizazioak, subentzioak, baimenak...); irakasleen kontratazioan eta ebaluazioan parte hartu; gelak pintatu; patioak atondu; etengabeko konponketak egin; barraka muntatu eta desmuntatu; proiektu berriak proposatu... baita irakasleekin soldata negoziatu ere. Gaur egun anekdotak dira, baina guraso eta irakasle askok gogoratzen dugu nolako tirabirak izaten genituen urtero lan hitzarmena sinatzeko. Goizean borroka bizian aritzen ziren sindikalistak Luzuriagako jabeekin; arratsaldean patroï bihurtzen ziren eta, egia esan, nahiko gogorrak ziren, irakasle on ustetan, behintzat.
3. Hastapenak izan ziren bereziki gogorrak eta horrek eragin zuen hamaika arazo. Adibidez, 1974-1975 ikasturtean zatiketa gertatu zen eta batzordekide batzuk dimititu eta beren seme-alabak ikastolatik atera zituzten. Berdintsu gertatu zen urte batzuk geroago. Ikastola urterik urte eraikitzen ari zen egitasmoa zen eta, jakina, tartean gora-behera asko: irakasleen pedagogia, erlijioa, politika...

Edozein modutan, beti izan dira gurasoak aurrera egin dutenak oztopoak oztopo; nahiz eta beldur eta aurreiritziei aurre egin behar izan zieten. Nik OHOrako urratsa eman zutenak aipatu, edo, hobeki esanda, goraipatu nahiko nituzke. Ikastola sortu, baina haur eskola gisa aritzen zen, inor ez zen ausartzen, lokalen arazoa tarteko, besteak beste, OHOrako (Oinarrizko Hezkuntza Orokorra) pausoa ematera. Hala ere, 1979-1980an, sorreratik hamar urte pasa eta gero, guraso batzuek erabaki zuten beren seme-alabek derrigorrezko ikasketak euskara hutsean egingo zituztela. Haien erabakia funtsezkoa izan zen ikastolaren etorkizunerako. Ingurukoen kritikei eta barneko zalantzei aurre egin zieten (emaitzak, material falta, instalazio egokirik ez, irakasleria esperientziarik gabe...), garai haietan ausardia ikaragarria erakutsiz.

Haietako bi gurasok anekdota polita ere badute. Behin batean, ikasurtea hastear zegoela, andereño batek esan zien ez zuela lan egingo. Ba, Jesus Baztan eta Maximo Fernandez, ez bat ez bi, Beasainera joan ziren irakasle baten bila, nahiz eta bertan inor ez ezagutu; poteatzera joango bailiran. Galdezka ibili ziren arren, esku hutsik itzuli behar izan zuten. Eskerrak Jesus Atxaren, San Fermin ikastolako zuzendariaren laguntza aurkitu zuten.

4. Hauek izan ziren lehenengo promozioiko ikasleak:

- Iñigo Baztan
- Angel Cortés
- Carolina Arizmendi
- Fernando Sanchez
- Inma Perez
- Idoia Pelarda
- Leles Jimeno
- Gorka Amado
- Rakel Garcia
- Nekane Nielfa
- Rakel Baigorri
- Nerea Velez

5. Baina dena ez da lana izan. Hasieratik bertatik antolatu zituzten gurasoek txangoak, hamaiketakoak, bazkariak eta abar: Urbasara, Sa-baizara, Untzuera, Planora... eta haiek izan ziren lehenak ikasturte amaierako festa antolatzen, ondoren beste eskola guztiek imitatuko dutena, beste ekintza asko bezala.
6. Gurasoak, urtez urte, Gurasoen Batzordean, Asanbladan eta hainbat komisiotan parte hartuz, ikastola aurrera eraman dute. Asko dira oso harro sentitu behar dutenak ikastolan egindako lanaz eta lortutako emaitzez. Hau ez da tokia izenak esateko eta, gainera, ikastolaren aldeko lana beti anonimoa izan da, baina agur eta ohorea denontzat.

4. Eraikinak

4.1. Pikondo etxea

1. Asiloko gela bi urterako utzi zuten, beraz, beste toki bat aurkitu behar zen.
2. Eskolapiokoei laguntza eskatu zitzaien, baina hauek bakarrik gela bat utzi zuten gau-eskola jartzeko. Beranduago, 1974an, Jesús Antonio Zufiaurre ikastolako presidente zelarik, eta Garaikoetxearen bitartekari lanaz, berriro gela batzuk eskatu zitzaizkien OHO eman ahal izateko, baina erantzuna ere ezezkoa izan zen.
3. Azkenean, ekin eta ekin, Udalak Pikondo etxean deritzanean zeuden «Escuelas Maria» zaharrak utzi zizkien ikastolakoei. Udalak ere mahai eta aulki batzuk eman zizkien, baina, hura miseria, beste zeregin batzuetarako behar zituztela eta kendu zizkien. Azkenean Erriberriko Frantziskotarrak izan ziren sei mahai eta hamabi aulki utzi zituztenak. (Esan behar da, duela hamabost bat urte arte, ikastolak erabiltzen zituela Eskola Publikokoek bazterten zituzten mahai eta aulkiak).
4. Konponketa lan handiak egin behar izan ziren eta garai haietan 300 laguntzaile ziren hilero kuota bat jartzen zutenak ikastola laguntzeko. Aipatzekoa da eskailera batzuk behar zirela, 7000 pezeta balio zute-

nak, eta Santiago Doxandabarantzek, Tafallako euskaltzale ezagunak, pagatu zituela.

5. 1971n inaugurazioa izan zen.

4.2. «Escuelas de la Real Defensa»

Lokal berriak behar ziren, besteak beste, legalizazioa eskuratzeko eta 1979-80. ikasturtean «Real Defensa» izeneko eskola publiko zaharrak husten ari zirenez, nahiz eta oraindik gelaren bat erabili, hara joan ziren ikastolakoak. Hasieran gela bat hartu zuten, baina, hustu ahala, dena haientzat geratu zen. Azkenean Udalak 1985ean baimen legala sinatu zuen han gera zitezen.

4.3. Lehenengo handitze lanak

1. Hurrengo urteetan gurasoak jo eta ke arituko ziren eskola zaharrak txukuntzen, baina tokia ez zen aski legalizazioa lortzeko. Baten batek beste tokiren batean ikastola berria eraikitzea proposatu zuen, esate baterako, «Chera» barrutian eta urte batzuk beranduago Pasionistek utzi behar zuten eremuan, baina hainbat arrazoiengatik asmoa ez zen gauzatu. Gainera, ikastolako gurasoek beti garbi utzi zuten haiek eskola publikoa izan nahi zutela. Horregatik behin eta berriro eskatuko diote udalari munizipalizatzea, Iruñean edo Elizondon bezala, baina honek ezetz erantzun zuen. Hala ere, mantenu gastuak bere gain hartu zituen.
2. 1983an ikastolak ultimatumak jaso zuen: ezinbestean legalizazioa lortu behar zuen ala diru laguntzak galduko zituen. Esan behar da garai haietan ikasleen Eskola Liburu ofizialak Eskola Publikoan zeudela eta han betetzen ziren paperak, hango ikasleak izango balira bezala. 1983an Nafarroa Oinez Tafallan egitea eskatu zuten 1986rako eta eskolak handitzeko proiektua prestatu zuten. Tafallako «Real Defensa» markesari ikastola ondoan zuen lur zati bat eskatu zitzaion hor

gimnasioa egin ahal izateko eta honek, Udalarekin hitz egin ondoren, ez zuen eragozpenik jarri. Asko negoziatu ondoren lortu zuten Diputazioak %50a ordaintzea; Udalak, %25a; eta gurasoek beste %25a. Dena den, udalak, horren truke, aurrerantzean mantenu gastuak pagatzeari uko egin zion. 1985ean hasi ziren lanak eta 1986an, Nafarroa Oinez egunean, inaugurazioa izan zen.

4.4. Bigarren handitze lanak

1. Matrikulazioa gora zihoan, eta urte gutxiren buruan, berriro ere, ikastola txikia geratzen ari zen. Gainera, LOGSE abian jarri zuten eta guraso nahiz irakasleen asmo trinkoa beti izan zen 16 urte arteko irakaskuntza eskaintzea, nahiz eta hamaika oztopo jarriko zizkieten. Hortaz, berriro eraikina handitu behar zen.
2. Udalari ondoan zeuden maisu-maistren etxeak (dagoeneko gehienak hutsik. Batean, hain zuzen ere, ikastolako jantoki txikia zegoen), uztea eskatu zitzaion, hor DBHrako eraikin berria eraikitzeko. Beti bezala, ez zen erreza izan, baina, azkenean lortu ziren.
3. Beste Nafarroa Oinez antolatzea eskatu zen 1997rako (lehenago egiteko saio batzuk egin baziren ere). Eraikin dotorea eta ongi hornitua egin zen: laborategia, tailerra, irakasle gela, bideo gela, informatika gela, areto nagusi bat eszenatoki eta guzti, frontoia... 1997an erabiltzen hasi zen.
4. Oraingo honetan Nafarroako Gobernuak subentzio eskas bat besterik ez zuen eman eta udalak ezer gutxi, beraz, gurasoek aurre egin behar izan zioten ia-ia presupuesto osoari. Jakina, maileguen bidez; baina abalatzeko ezer ez zegoenez, guraso eta irakasle batzuek notarioarengana joan behar izan zuten beren ondasunak abal gisa har zitezten. Gaur egun, mailegu hauek oraindik ez dira erabat amortizatu.
5. Ikastolaren asmoa beti izan da publikoa izatea; hori dela eta, Udalak bere lurra uztea eta batzuetan diruz laguntzea lorpen handizat hartu izan da; baina bitartean, Nafarroako ikastola askok lurak erosi zituz-

ten eta bertan eraikinak jaso, batez ere, Euskal Herriko ikastola guztiek duten Elkartasun Kutxatik zetorren diruari esker. Egun Tafallako ikastolak ez du deus, dena Udalarena da, nahiz eta obra gehienak gurasoek pagatu behar izan dituzten. 1997an 25 urterako hitzarmena sinatu zen Udalarekin eta ondoren berrituko da, berak nahi badu.

4.5. DBHrako eraikin berria

1. Azkeneko hamar urteetan, matrikulazioak gora egin du nabarmenki, HH eta LHn talde guztiak bikoiztuta daude, eta berriro ere ikastola txikia geratu da. Laborategia, tailerra, irakasle gela, bideo gela, informatika gela baita areto nagusia ere ikasgela bihurtu dira. Biltegia ere egokitu behar izan dugu gela bat prestatzeko.
2. Inguruan ez zegoen tokirik eta Udalari gertu dagoen orube bat eskatu zitzaion. Luzaroan negoziatu ondoren, aho batez onartu zuten uztea, baina arazo administratiboak direla medio, oraindik ez dugu, eta ezin ditugu obrak hasi, planoak prest egon arren.
3. Eraikin dotorea, polita eta handia izanen da. Aurrekoak bezala, hau ere Amaia Jaurrieta arkitekto euskaltzaleak eta ikastolako lagunak proiektatu du. Badaezpada ere, egunen batean Batxilergoa eman ahal izateko prestuko dugu. Hau ere gurasoek ordaindu beharko dute eta horretarako aurtengo Oinez antolatu dugu.

5. Pedagogia

1. Hasieratik bertatik, ikastolak bestelako pedagogia egin nahi izan zuen. Garai haietako autoritarismoa eta zigor gogorrak baztertu ziren. «La letra con sangre entra», «La letra con alegría entra» izatera pasatu zen. Ikastola hasi berrian ez zegoen ez mahairik, ez aulkirik. Umeei ongi pasatzen zuten, kantatzen eta dantzatzen zuten, plastilinarekin jostatzen zuten, andereñoek aurpegia margotzen zieten... eta, gainera, dena euskaraz. Ikastola laikoa izan da sortu zenetik, erlijio guztiak

errespetatu dira, baina inoiz ez da eman erlijio arloa. Aldaketa asko batera eta, noski, kritikak handik eta hemendik aditu ziren, baita guraso batzuen ezadostasuna ere. Hala ere, denborak erakutsi du kritikagarria zena gehienok imitatzen bukatu dutela. Laster hasi ziren beste eskoletan ere aurpegia margotzen, plastilinarekin jolasten, zigor fisikoak baztertzen... baita euskara ematen ere (gaur egun Tafallako eskola guztietan ematen da, A ereduia izan arren).

2. Ikastolako irakasleok beti prest egon dira proiektu eta esperientzia berriak aurrera eramateko ikasleen onerako baldin baziren. Gainera, duela askotik, EHko beste ikastolekin koordinatuz. Hamaika izan dira aurrera eraman eta eramaten diren egitasmoak: laster hasi ginen idazketa eta irakurketa goiztiarrarekin; eleaniztasunaren alde apustu nabarmena egin genuen: lehenak izan ginen Tafallan ingelesa Haur Hezkuntzan jartzen; frantsesa ere eskolaz kanpo eskaini genuen zortzi urteko ikasleentzat; informatika ematen ere laster hasi ginen; sexualitatea geletan landu dugu konplexurik gabe; Tafallan antolatu eta antolatzen diren ekimen guztietan gaude; mota askotako txango eta bidaiak egiten ditugu; lehenak ere izan gara Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskolarekin hitzarmena sinatzen (Gaur egun beste eskolek ere sinatu dute); Euskaraz Bizi, «Eleanitz» eta «Bizikidetza» proiektuak, eta abar, eta abar, eta abar...
3. Baina gure ikasleak, ikasteaz gain, gustura egon daitezen saiatu gara, ahal den neurrian behintzat: Olentzero Eguna, inauteriak, kalejirak, Azoka Eguna, Jaialdiak, ziza bilketa, ikasbidaia eta beste hainbat «abar» antolatu ditugu. Eta hor daude erraldoi konpartsa (Nafarroako lehenengo konpartsa txiki), dantza taldea, abesbatza...
4. Mundu guztiak daki ikastolak ezberdinak direla, berrikuntza asko ekarri dituztela eta beren ikasmoldea eredu bihurtu dela askorentzat. Eleaniztasuna, ikasleekiko hurbiltasuna, elkarlana gurasoekin, laizismoa (ikastola aunitzetan, behintzat), oztopoak gainditzeko kemena, irakasleen motibazioa, proiektu berrietan parte hartzeko beldur eza, hobetzen jarraitzeko gogoia... present egon dira eta daude gure eguneroko jardunean.

6. Irakasleak

1. Gaur egun 35 irakasle gaude ikastolan; dezente gara 20 urte baino gehiago daramagunok; espezialistak daude, pedagogoak, logopeda, zuzendari liberatua... bestelako langileak ere badira: idazkaria, mantenamendukoa, jantokikoak... Nafarroako ikastolen lan hitzarmena dugu; lan egiteko instalazio egokiak, nahiz eta azkeneko urteetan dena txikia geratu den; emaitza onak lortzen ditugulakoan gaude... baina lehen gauzak oso bestelakoak ziren. Irakasleak ere ez ginen; izan ere, neskak nahiz mutilak izan, gurasoek «los andereños» deitzen baitziguten.
2. Irakasleok erronka askori aurre egin behar izan diegu eta, neurri handi batean, ikastolaren hezkuntza proiektuaren militanteak izan gara. Normalean irakasleak, ikastolan sartzerakoan, oso gazteak izan gara eta, ezinbestean, esperientziarik gabekoak. Arazoa zen garai batean denak gazteak ginela. Gainera, OHO hasterakoan, urtero beste maila berri bat gehitzen zen eta horrek guretzat mundu ezezagun batean sartzea suposatzen zuen. Esan behar da, bestalde, urte haietan ez zegoela koordinaziorik ikastolen artean eta gu, sarritan, irla batean baigeunde bezala sentitzen ginen.
3. Beste arazo garrantzitsua izan zen, eta gaur egun ere bada, neurri batean, irakasle mugimendu handia zegoela. Asko ziren urrunetik zetozenak eta urte bat, bi edo hiru, egin ondoren, alde egiten zuten. Garai batean 29 ordu lektibo ematen genituen eta arlo guztiak: Natura, Gizarte, Euskara, Gaztelera, Plastika, Heziketa Fisikoa... normalean instalazio desegokietan eta material gutxirekin (fotokopiagailu bat izan genuenean, zeruko zati bat etorri izan balitzaigu bezala sentitu ginen, multikopista zaharra behin betiko baztertuko genuelako).
4. Kanpo arazoei aurre egin behar izan diegu: ikastolaren afera eta gatazka guztietan egon gara gurasoekin batera, askotan gu abangoardia izanik. Etiketa politikoak ere jarri nahi izan dizkigute, nolabait desprestigiatzeko (oraindik gogoratzen dut, zuzendaria nintzela, behin batean guraso batek, matrikulatzeko zalantzan zegoenak, serio-serio galdetu zidala ea «koktel molotov»-ak egiten erakusten genuen). Bai-

na guk beti argi izan dugu nor garen eta non gauden: gure norabidea gauzak ongi egitea izan da eta erakustea ikastola anitza dela. Horiek izan dira gure tresnak guraso berriak konbentzitzeko eta lortzen ari garela uste dut.

5. Barne arazoak ere ez dira makalak izan: hasieran lan hitzarmena gurasoekin egiten genuenean; barne funtzionamendua, zuzendaririk nahi ez genuenean; guraso batzuek beti militanteago ikusi nahi izan gaituzte, batez ere haiek dena musutruk egiten zutelako; gurasoen mesfidantza: elebitasunak, murgiltze ereduak, funtzionatuko zuen? Umeek ongi pasatzen zuten, oro har, baina ongi prestaturik bukatuko zuten? Sarritan ere gurasoen arteko eztabaiden erdian egon gara: etxeko lana bai ala ez, norainoko zigorrek jarri behar ziren, eta abar.
6. Dena den, ene ustez, bi izan dira gehien kezkatu gaituzten gaiak: matrikula eta emaitzak. Nolako estutasunak pasa ditugun matrikulazioa jaisten zenean ala gutxi igotzean, edo familiaren batek bere seme-alaba ateratzea erabakitzen zuenean, pozik ez zegoelako. Gainera, lehen Tafallan bost eskola zeuden eta konpetentzia latza. Aurten, lehenengo aldiz, gure ikastetxea izan da herrian matrikula gehien lortu duena eta hori guretzat ikaragarria izan da. Bestalde lan izugarria egin dugu ikasleak ongi prestaturik atera zitezen. Bidean gorabeherak izan dira, baina, urtero ikasle ohiekin biltzerakoan, gauzak nahiko ongi doazela esaten digute. Gu pozik gaude eta kanpoko ebaluazio probek ere ala diote.
7. Ez nuke ataltxo hau bukatzerik nahi, hiru irakasle aipatu gabe: Matxalen, lehenengo urteetako ikastolaren arima; Mikel Fraile, urte askotan gure proiektuan buru-belarri lanean aritu zena eta erraldoi konpartsaren sortzailea bere anai-arrebekin batera; eta Kontxa, lehen irakasle aurre jubilatua.

7. Oztopoak

1. Sortu ginenetik gure patua oztopoak gainditzea izan da aurrera jarraitzeko. Batzuetan txikiak eta, beste batzuetan, erraldoiak. Hori hobeki ulertzeko aski da esatea Nafarroan ez dela sekula izan ikastolen

aldeko gobernua, ezta Tafallako Udalean gure ikastolaren aldeko gehiengoa. Dena negoziatu egin behar izan dugu jokoan behin ere «eskua izan gabe eta 31 eduki gabe». Batzuetan ere mahai gainean ukabilkada bat jo behar izan dugu «aski da» esanez.

2. Arazo latzenak kanpokoak izan dira: eraikinak eraiki ahal izateko eta ordaintzeko gorriak ikusi ditugu. Adibide garbia da oraintxe gertatzen ari dena: nahiz eta udalak esan lurra utziko digula DBHko eraikinerako, bide burokratikoan mila eta bat buruhauste aurkitzen ari gara. Jakina, eta gero pagatzearen kezka: zenbat diru aterako dugu Oinez-ean? Zenbat geratuko zaigu maileguen bidez ordaintzeko? Legalizazioarena ere latza izan zen, hil ala biziko afera bere garaian. 17 urte pasatu behar izan ziren lortu arte, 1987ko irailaren 23an, hain zuzen ere, eman ziguten OHOkoa eta hiru urte beranduago, Eskolaurrekoa. Dena den, ziur aski, izan dugun erasorik gogorrera LOGSEekin etorri zen. Ikastolak LH (Lehenengo Hezkuntza), alegia, 12 urte arte bakarrik, emango zuela erabaki zuten eta gero ikasleek euskaraz ikasten jarraitu nahi bazuten Iruñera joan beharko zuten. Hura ezpata bihotzaren erdi-erdian sartzea bezalakoa izan zen. Izugarrizko mobilizazioak izan ziren, 4000 sinadura lortu ziren, Tafallako ia kirol eta kultur talde guztiek gurekin bat egin zuten; Udala, ezinbestean, nola edo hala, gure alde ere atera zen eta, azkenean, Nafarroako UPNko Gobernuak atzera egin behar izan zuen. Hauteskunde garaia zenez, 14 urte arte (DBHko lehenengo zikloa) eman ziguten behin-behinekoz; eta, hauteskundeak pasa eta gero, berriro hitz egingo genuela esan zuten. Ondoren gobernu aldaketa izan zen (PSN+CDN+EA) eta 16 urte arte (DBH osoa) ematea lortu genuen, **GARAIPEN** itzela.
3. Kanpokoak aski ez, nonbait, eta barnean ere arazo gogorrek suertatu dira: pedagogi ala kudeaketa eztabaidak eta, ondorioz, guraso batzuk ikastolatik joatea; lan hitzarmenen negoziatioak guraso eta irakasleen artean (eskerrak 1991n Nafarroako ikastola guztiak batera joatea erabaki zen eta NIEn -Nafarroako Ikastolen Elkartean- negoziatuko zela sindikatuekin. Onartu zen lehenengo lan hitzarmenean irakasleek %11ko igoera lortu zuten, haiek garaiak haiek!) Agian barruan izan dugun aferarik itsusiena zuzendaria jartzearena izan zen. Gurasoek bat jarri nahi

zuten eta guk, irakasleok, ez genuen onartzen, gutxi izanik, dena batera eginda ongi funtzionatzen genuelako. Oso tirabira gogorrak suertatu ziren eta, azkenik, 1989an, irakasle batzuek proposatuta, funtzionamendua aldatzea onartu eta lehenengo zuzendaria aukeratu zen.

8. MATRIKULAZIOA

1. Lehen esan bezala, kezka gehien eragin duen kontuetako bat izan da. Lehenengo urteetan taldeak txikiak ziren, gutxi ziren hamabostetik pasatzen zirenak. Hurrengo urteetan, hogeitaz inguruan ibili ginen. 1999-2000. ikasturtean 35 matrikula izan ziren eta aurreneko aldiz ikastolaren historian taldea bikoiztu zen. Baina salbuespena zirudien; izan ere, hurrengo ikasturtean 25era jaitsi baikin. Baina 2001-2002tik aurrera talde guztiak bikoiztu dira, hots, 30 ikasletik pasatu dira; eta, arestian aipatu dudana bezala, aurten lehendabiziko aldiz matrikula gehien eduki duen eskola izan gara 39 matrikulekin.
2. 1986ko Euskararen Legeak Tafallaldea eremu ez euskaldunean utzi zuen. Ikastola izango zen D ereduko ikastetxe bakarra, nahitaez. Baina inguruko herri gehienetan A eredua jarri zuten eta lehendabiziko urteetan freno handia izan zen herrietako guraso euskaltzaleek beren seme-alabak ekartzeko. Gaur egun, guraso asko konturatu da A ereduarekin ez dela euskara ikasten eta, pixkanaka-pixkanaka, garraio nahiz bestelako arazoak gaindituz, ekartzen ari dira. Gero eta herri gehiagotatik datoz eta, hein handi batean, horrexegatik igo da matrikula. 1991n ia-ia Erriberrin ikastola bat sortu zen bertan eskolaurrea emateko, Tafallara etorri aurretik, baina azken momentuan guraso batzuek atzera egin eta dena bertan behera geratu zen. Beranduxeago Zarrakatzelun lortu egin zen, dena dela, bizitza motza izan zuen.
3. Datu batzuk emango ditut:
 - 1969-1970: 8 ikasle
 - 1973-1974: 40 ikasle
 - 1974-1975: 80 ikasle
 - 1987-1988: 177 ikasle

- 1996-1997: 256 ikasle
- 2000-2001: 305 ikasle
- 2008-2009: 376 ikasle
- 2011-2012: 396 ikasle

Datorren ikasturtean, inolako zalantzarik gabe, 400 ikasle baino gehiago izango ditugu, DBHko 4. mailan talde txikia dugulako. Zer pentsatuko dute lehenengo 8 ikasle haien gurasoek? Eta OHOrako urratsa eman zutenek? **PENTSAEZINA!**

9. Nafarroa Oinez

1. Lehenengo Nafarroa Oinez 1986ko urriaren 12an ospatu genuen. Egun gogoangarria izan zen eta ordura arteko errekorra gainditu genuen, parte hartzaileei dagokienez: 30.000 pertsona eguerdirako eta egunean zehar beste 15.000-20.000 hurbildu ziren. Leloa: «**OINEZ EDO HEGAZ BETI EUSKERAZ**». Logotipoa Benito Goñik egin zuen; abestiaren letra, irakasleek; eta doinua, Karlos Etxeberriak. Uxo abesbatzak eta Koldo Indartek interpretatu zuten, gaiteroek eta Musika Eskolako Taldeak lagunduta. Eusko Jaurlaritzako Jose Antonio Ardanza lehendakaria etorri zen eta Nafar Gobernuak Román Felones Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria bidali zuen. Zinta German Kabarbaienek moztu zuen. Lehendabiziko aldiz ikastolako Erraldoi Konpartsak dantzatu zuen. Anekdotak asko izan ziren, baina agian aipagarriena hauxe: Kotxe baten zozketa egin zen eta irabazleak ikastolarako utzi zuen; 1.000.000 bat pezeta balio zuen! Guk ere eskuzabalak izan nahi eta Tuterako ikastolari 750.000 pezeta eman genizkion.
2. Bigarrena 1997ko urriaren 19an izan zen eta hau ere errekorretik hurbil egongo zen: 110.000 pertsona, Polizia Foralak esanda. Leloa Jaione Izuriagak egin zuen: «**LAN TA LAN AUZOLAN**»; logotipoa, Koldobike Pérez de Iriartek; letra, Angel Irisok eta doinua, Iñigo Agerrik. Zinta Bettina Gomez eta Xabier Flamarike ikasleek moztu zuten. Aipagarriena izan zen ibili zen «Castellano» hego haize zitala. Bideak hautsez beteta zeuden eta jendea ere halaxe bueltatu zen etxera.

3. Hirugarrena hilaren 16an ospatuko dugu eta horrexegatik, hain zuzen ere, bildu gara hemen. Lelo a Endika Irisok egin du: «**HAMAIIKA HAMAIIKAN**»; logotipoa, «Lafranziska» enpresak; letra eta doinua, Amaia Dominguez eta Edurne Samaniego irakasleek. Interpretazioan besteak beste, honako hauek parte hartu dute: Sorkunek, Xabi Banninik, ikastolako haurrak eta instrumentuak jotzen: ikasleak, gurasoak eta ikasle ohiak. Ziur gaude, urriaren 17an, denok komentatuko dugula, eguraldiak lagun, dena bikain atera zela eta ikastolak diru puska polita lortu zuela DBHko eraikin berria egiten hasteko.

10. Barraka

1. Jesus Atxa gizon prestuak, Ikastolaren historia liburu batean bildu zue-nean, duela 20 bat urte, harrituta geratu zen festetako barrakarekin; izan ere, berau baitzen gurasoen batzordearen bileren aktetan gehien errepikatzen zen gaietako bat. 1975ean jarri zen lehena eta urtero, huts egin gabe, hor jarraitzen du, 37 urte bete ditu, aurtengoa kontatuz. Diru laguntza nabarmena izan da ikastolarako eta festetako txoko alai, euskaldun eta maitagarria tafallar askorentzat, ideologiaren gainetik.
2. Ikastolaren arrakastak beti erremindu ditu bere etsaiak eta 1982an norbaitek su eman zion, erabat kiskalita utziz. Baina poxpolu hark ez zuen bakarrik gasolina piztu, mota guztietako elkartasuna ere bai: Udalak gogorki gaitzetsi zuen atentatua eta banketxe batean kontu bat ireki zuen, lehenengo 100.000 pezetak jarritz; Erriberriko gazteriak bere barraka utzi zuen; jaiak amaitu ondoren jaialdi bat ospatu zen ikastolaren alde zezen plazan eta 1200 pertsona bildu ziren... Hurrengo urterako barraka berria eta dotorea eginga zegoen. Horixe da egun jartzen duguna, duela urte batzuk handitze lan batzuk eginda.

11. Ikasle ohiak

1. 389 dira beren ikasketak ikastolan amaitu dituztenak. 1986-1987. ikasturtean lehenengo promozioak bukatu zuenetik, 23 atera dira.

Bakoitzak bere bidea egin du eta bakoitzak bere oroitzapenak izango ditu. Denok azkeneko aldiz ikastolatik atera zirenean, motxilan zerbait oso baliotsua zeramaten: euskara. Askok primeran gorde dute altxor hori eta batzuk irakasle eta guzti bihurtu dira; beste batzuek ahaztuxeago dute. Lanbideei dagokienez denetatik aurkituko dugu, logikoa den bezala: arkitektoak, sukaldariak, enpresariak, tabernariak, erizainak, musikariak, lantegietako langileak, kazetariak, informatikoak, ekonomialariak, garbitzaileak, politikoak, irakasleak, ingeniariak, odontologoak, elektrikariak, harakinak, filosofoak, kamioilariak, enologoak, artistak, dendariak, itzultzaileak, langabe-tuak, jakina, eta oraindik asko ikasten ari dira.

2. Iaz, ikastolaren 40. urteurrenean, lehenengo aldiz, Ikasle Ohien Eguna ospatu genuen. Uste baino askoz gehiago joan ziren, ikasle ohi gehienak. Egun zoragarria izan zen eta giroa, bikaina. Bejondeiela guztiei!

12. Gaur egun

1. Eta gaur egun zer? Ba, lehengo lepotik burua. Bidean hamaika oztopo, beti bezala: eraikin berria altxatu eta ordaindu behar dugu; DBHn 36ko talde bat dugu eta ez digute bikoiztu nahi; DBH amaitzerakoan, ikasleek euskaraz jarraitu nahi badute, Iruñera joan eta gainera lau ordu gehiago eman behar dute, eta hori gutxi balitz, azken urteetan arazoak izaten ari dira eskura duten institutu bakarrean matrikulatzeko; herrietakoei bekak kendu dizkiete; ETB etxe askotan ez da ikusten, eta abar, eta abar.
2. Erronka garrantzitsuak ere baditugu: Ingelesaren «lasterketan» ez dugu atzean geratu nahi eta horretarako «Eleanitz» metodologia aplikatzen ari gara, oso emaitza onekin; euskararen erabilerak kezkutzen gaitu; Bizikidetzatza proiektuan bete-betean sartuta gaude; biharko egunean Batxilergoa eskaintzea gustatuko litzaiguke...
3. Oztopo eta erronkei aurre egiteko betikoa egingo dugu: lan ta lan auzolan. Nafarroa Oinez buru-belarri prestatzen ari gara; Udalarekin

negoziatzen jarraitu behar dugu; Nafarroako Gobernuak gure errebin-dikazioak noizbait entzun beharko ditu; irakasleok kalitatea hobetze-ko 5-6 urteko proiektuan sartu gara: Kalitate Integrala Egitasmoa. Hasierako ilusioa, gogoia eta motibazioa mantentzen dugu. Biharko egunsentia eder antzematen da.

4. Denok oso harro sentitu behar dugu lortu dugunarengatik: ikastolako guraso, irakasle, ikasle eta historian zehar lagundu gaituzten hamaika lagunek. Ikastola da, ezbairik gabe, gure inguruan sortu den euskal lorarik xarmagarriena.

13. Iñigo Urzain Anduezaren olerkia

XXI. mendean Iñigok, Juan de Amenduxek bost mende lehenago egin zuen bezala, Tafallan, Tafallako ikastolan, olerki bat idatzi eta Nafarroako Gobernuak antolatzen duen literatur lehiaketan lehenengo saria irabazi zuen. Guk iazko ikasturtean argitaratu genuen literatur liburuxkan agertzen da beste ipuin, olerki eta narrazioekin batera.

Naufrago baten botila bateko mezua

Itsasoak bahituriko txalupa honetan,
bolaluma eta paper puskaz,
nire bizitzan, azkenekoz,
ardo botila baten hilketa izkiriatzera noa.

Bere haurtzaroak begiak itxi ditu.
Arraunen gidaritzapean itsasoetan naufrago,
bere kokapena ezagutzen duen naufrago.
Bere nerabezaroa akabatu dut.
Maitasunaren naufrago,
gizartearen naufrago,
gorroto eta atsekabearen naufrago,
biziminaren naufrago.
Bere gaztaroa zendu dut.

Nahiko nuke sentipen bat izatea,
nahiko nuke nire bihotzaren baitan ametsak esnatzea eta loratzea...
Amets loratuak,
amets ustelduak,
ez ordea amets lokartuak...
Bere heltzaroaren bihotza itzali egin dut.
Aments, ametsak amestea...
Sentitzea...
Nire arimak ez du hitz honen esanahia ezagutzen.
Bere zahartzaroa amaitu da.

Botila hutsaren barnean nire hilburukoa sortu,
uretara jaustera behartu,
bere hartzailearen zain,
nire bihotzeko ametsen giltza duenaren zain,
itsasoetan barrena naufrago dezan.
Arraunen gidaritzapean itsasoetan naufrago,
Bere kokapena ezagutzen duen naufrago...
Itsasoetan barrena naufrago izateari utz niezaioke,
Ez ordea sentimenduen naufrago izateari.

Eskerrik asko. Tafallan, 2011ko irailaren 30ean.



El euskera en Tafalla

ESPARZA ZABALEGI, Jose Mari
Editor

Celebramos el Nafarroa Oinez en Tafalla y parece obligado hacer un repaso de lo que conocemos sobre el euskera en nuestra ciudad y exponerlo con humildad a nuestros ilustres visitantes de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Además el tema del euskera en Tafalla siempre ha atraído la atención de los historiadores de nuestra lengua, por tratarse de una zona especial, de roce, donde la montaña comienza a deslizarse hacia la Ribera, muga del Ager y el Saltus Vasconun, marca superior disputada a los vascones por godos y árabes, donde se acaban los robles y todavía se mixturán topónimos de origen y climas tan diversos como Olibadia o Iratxeta.

Y hablar del euskera en Tafalla nos lleva también a recordar a nuestro Jose Mari Jimeno Jurío que tanto nos aportó para la historia de nuestra lengua.

Hasta hace algunos años, era creencia común que para el siglo XVI la lengua había desaparecido de Tafalla, villa abierta, y se había replegado hacia la Baldorba donde el Príncipe Bonaparte la cartografió por última vez, todavía altiva, en su famoso mapa lingüístico de 1836. La lectura de las actas municipales de los siglos XV y XVI muestra expresiones que dan a entender que los regidores conocían el euskera, como cuando se refieren a «Sarasa el **çamargin**» (zamargin: sastre de chaquetas) o dan cuenta de un vecino al que le dieron una cuchillada en el «carrillo **ezquerro**». Pero pese a topónimos euskéricos que aún se conservan (*Larrain, Atiain, Lezkal, Pozilun, Beratxa, Makotxa, Rekarte, Kandaraitz...*) se observa en Tafalla una

Euskera. 2011, 56, 1-2. 73-82. Bilbo
ISSN 0210-1564

toponimia muy prontamente romanceada, lo cual, unido al lugar de paso en el que se sitúa Tafalla, parece indicar una población que desde antiguo conocía el castellano, aunque podría también conocer el euskera.

Muchas veces se ha citado el famoso «Registro» de 1587 que estudió Manuel de Lekuona, en el cual se consideraba a Tafalla y Artajona como pueblos romanizados, erróneamente, como veremos, al menos en el caso de Artajona. Jimeno Jurío, prudente como sabio, participó de esa creencia común y a lo más admitía que algunas comunidades de criados y pastores venidos de la Montaña (y en Tafalla «la Montaña» se le llama a la Baldorba) pudieron mantener la lengua los siglos XVI y XVII. Incluso cuando el mismo Jimeno Jurío descubrió un documento de 1627, en el que se decía literalmente que «la mitad de la parroquia de San Pedro de la villa de Tafalla, y más, es de bascongados», aludió de nuevo a la posible presencia de forasteros, temeroso quizás de romper esa creencia común y traer el mapa del euskera a épocas mucho más cercanas y mugas mucho más septentrionales. Sin embargo, y los censos están ahí, nunca, ni siquiera ahora ha habido tamaña inmigración en el tradicional barrio de San Pedro. «Los bascongados de mi barrio de San Pedro -le decía yo a Jose Mari- que según dices eran mayoría, eran sin duda tafalleses, y sólo es cuestión de esperar a que nuevos datos lo ratifiquen».

Y esos datos han ido saliendo poco a poco aunque ya no tengamos a Jose Mari para disfrutar de ellos. Esta última década han surgido investigadores locales (Fernando Mayora, Ricardo Urrizola, Ángel Jiménez...) que se han deshojado leyendo procesos y todo tipo de legajos, consiguiendo una a una un buen zakuto de perlas documentales, que han puesto patas arriba todo cuanto creíamos hasta ahora y prueban que el Euskara gozó de buena salud mucho más tiempo y mucho más al sur de lo que se pensaba.

El prolijo siglo XVII

El caso es que ya hacía tiempo que se conocía que a mediados del siglo XVII el caballero Miguel de Iturbide había dejado escrito que «la lengua matriz deste Reyno... desde la ciudad de Tafalla hasta los Pirineos... es la

Bascónica o Bascongada... es la que oy se practica en toda gente ordinaria, con más platica que la lengua Castellana». Sin embargo, nunca ha faltado quien replicara que el «desde» quería decir «a partir de», ya que de Pueyo se sabía que «la lengoa natural y hordinaria es el bascuence» como se desprende de varios documentos de aquellos años.

También ha sido muy citado el relato *Relazione del Viaggio fatto da M.R.P. Arezzo*, del secretario Felipe de Florencia, que pasó por aquí en 1693, en cuya parte prima dice: «De Tafalla en la cual comienza la lengua bizcaína que es difícil de entender por ser distinta de la española...». Y de nuevo, no faltaron los asaz prudentes, que le dieron vuelta al testimonio diciendo que «comenzar» no suponía incluir a la ciudad.

Pero nuevos datos, como el citado de 1627, seguían apareciendo. Y Mayora nos descubre en este siglo a un matrimonio riñendo en euskara (1601) y vecinos declarando en la misma lengua (1605) y un religioso franciscano asegurando que en la villa «hay muchos bascongados, particularmente pastores, criados y criadas, y muchos de ellos he visto llegar al convento a confesarse con los frailes bascongados que suele haber ordinariamente».

Datos similares se suceden hasta fin de siglo. Como recoge Ricardo Urrizola, en 1690 se leyó en la iglesia de Santa María de Tafalla un edicto para anunciar la plaza de vicario que había dejado, después de 42 años, Juan de Zunzarren, euskalduna del valle de Arce. El encargado de leer este edicto, el día «21 de mayo de este año de mil seiscientos y noventa, día de la santísima trinidad (...) al tiempo del ofertorio de la misa popular», fue el tafallés don Manuel de Hualde, por aquel entonces «presbítero y cura interinario de la parroquial de Santa María». El dato curioso lo proporciona el notario eclesiástico que llegó a Tafalla para dar fe del correcto proceder en todo el proceso. En una de sus anotaciones, el notario dejó escrito que el cura Manuel de Hualde, edicto en mano y en plena misa mayor «dio a entender su contenimiento a todos los feligreses en lengua bulgar», apelativo que como es de sobra conocido era el habitual refiriéndose a la lengua vasca.

Nueve años más tarde encontramos un dato similar, también aportado por Ricardo Urrizola: en 1699 el vecino Francisco Mañano declara en un juicio de residencia que había solicitado al alcalde y regidores de la ciudad

«para que escusasen el nombrar por guarda de los campos a Bartholome Gurrea, representándoles que era recién benido y no entendía vien la lengua, ni conocía ni savia las eredades y sus dueños, ni tampoco los vecinos». La petición fue aceptada. Bartholomé había nacido en Marcilla y conocía, por supuesto, el castellano. La lengua de Tafalla que no entendía «bien» ¿cuál podía ser sino el vascuence?

La suma de todos estos datos e indicios parece inducirnos al dicho «si parece un pato, anda como un pato y dice cua-cua, es más probable que sea un pato que otra cosa». Esto es, que durante el siglo XVII el euskera seguía siendo la lengua de los nativos tafalenses o de buena parte de ellos. De eso hace alarde además el canónico tafallés Francisco de Eraso, que en 1682 publicó en Sevilla el libro *Discursos históricos sobre la población de España, en el que se prueba por la parte, que Tubal dio principio a la población y que la Ciudad de Tafalla es de las primeras que fundó*. Hay un ejemplar de esta rara obra en la biblioteca Nacional y otro, probablemente, en la biblioteca Azcona. Parece ser la primera historia de la ciudad, llena de fábulas tradicionales muy en boga en esta época. Afirma que Tubal, el nieto de Noé, llegó a Tafalla y trajo consigo la lengua cántabra o bascuence, una de las 72 que se habían hablado mientras la confusa construcción de la Torre de Babel. La lengua vasca se había mantenido en estas tierras por «la condición de sus naturales, los cuales con raro tesón y constancia en todos los tiempos han conservado sus costumbres, ritos y libertad, y la misma constancia y tesón han tenido en conservar su lengua primitiva...» Eraso se muestra como el primer tafallés defensor del euskera, diciendo que «algunos de los que no entienden Basquence han dicho que no es lengua perfecta» y eso, dice Eraso, «es hablar como cosa que no entienden, porque es lengua muy perfecta, y capaz de escribirse como todas, y más suave y fácil a la pronunciación que muchas».

El siglo XVIII a la mengua

Entramos ya en el siglo XVIII con una Tafalla o parte de ella euskaldun, y los investigadores locales nos siguen espigando datos. Por Mayora sabemos

que en 1714 Martín de Garate, nuncio o pregonero de la ciudad durante 40 años, hablaba bascuence e hizo en ocasiones de intérprete. Y en 1744 el Ayuntamiento tenía concedido el arriendo del tocino al vecino Juan de Orella, «persona de mucha justificación, bascongado y con mucho conocimiento en el país donde se crían los cerdos».

Con los datos derivados de los pleitos de los receptores de los tribunales, Ángel Irigaray dedujo que, en 1765, el límite meridional del vascuence tocaba la ciudad de Tafalla, en una línea que, «partiendo de la parte de Leire, entrando un poco en el valle de Romanzado y bajando hacia el valle de Aibar, abarcando los pueblos pequeños de la Vizcaya, pasase por el sur de la Valdorba y tocando Tafalla y Estella terminase al oeste, al norte del valle de Lana. Volvemos a las dudas anteriores, ¿qué significaba «tocando»?

Un último testimonio importante nos demuestra la existencia de grupos de bascongados en Tafalla. En noviembre de 1795, Juan Ángel de Inchauspé, párroco de Santa María, concedió certificado para ejercer su ministerio a Juan de Buruzain, natural de Hazparren, refugiado en Navarra durante el Terror. Había estado diez meses en Sunbilla y Legasa, antes de trasladarse a Tafalla. Instalado en Santa María, el párroco lo empleó también «en catequizar algunos chicos del idioma bascongado, para prepararlos para la primera comunión, a satisfacción mía». (AGN, *Nacionalizaciones*, L. 5, c. 7). Unos catecúmenos euskaldunes que, es lógico suponer, luego serían los últimos tafalleses ancianos que sabrían euskera ya bien entrado el siglo XIX. Ayer mismo.

El entorno comarcal: Olite

Los datos de Tafalla hay que situarlos como cabeza y centro de una comarca de la que ahora sabemos de la pujanza de la lengua. Ciérvide ya nos habló del vecino Michelco Olitena, que «en bascuence a mas dello dixo que era *echeco jaun principala*». (Fontes, 1997).

Hace pocos años el olitense Ángel Jiménez descubrió en el Archivo de Protocolos un documento de Olite, de 1574, que reforzó la idea de la pre-

sencia de merindanos euskaldunes con más asentamiento de lo que se suponía: «En al villa de Olite, a los doce días del mes de junio del año mil quinientos setenta y cuatro... un criado de don Pedro de Ezpeleta que guarda las yeguas que andan en el guazán, llamado Beltrán de Garriz, llegó a la plaza... (se subió a un tablado que había junto a la casa de Juan de Irigoyen y...) en bascuence pregonando dixo que todos los que tenían yeguas en el guazán... fuesen por ellas que estaban en el corral». El criado fue procesado por suplantar al pregonero municipal, pero en el archivo de protocolos navarro quedó la evidencia histórica no sólo de que en Olite había euskaldunes, sino que se utilizaba en la plaza pública.

En su libro *Navarra. Historia del euskera*, Jimeno Jurío sigue aportando datos del siglo siguiente: en 1623 el obispado concedió licencia al presbítero Melchor de Suspirón para confesar, dar los sacramentos y predicar a «los muchos vascongados que hay en la dicha villa, y pastores, que estaban muy desconsolados y marchaban a confesarse a otros lugares». Y en 1627 el franciscano fray Pedro de Pinedo afirma que se confiesan en su idioma muchos bascongados, y que la misma situación se da en Villafranca.

Pueyo, cabe Tafalla

Así llaman los documentos antiguos a este pueblo tan apegado a nuestra ciudad y tan hermanado a lo largo de la historia, que más parece, con perdón de los puyarras, el barrio norte de nuestra ciudad. En la documentación se le denomina Puiui y el gentilicio puyuarra aparece en los pueblos de alrededor. Por los trabajos de Mayora y Urrizola sabemos que lo que en Tafalla es *Siete Fuentes*, en Pueyo es *Zaxpiturrieta*; que la antigua ermita de Nuestra Señora del Río fue *Mariugalde* y que el actual Hostal del Maño siempre fue *Ostaleriazarra*.

Incluso hasta les oímos hablar, como cuando en 1556 «Juanes de Esparza herido le dezia al dicho Martin de Alórriz en basquence desta manera: **Eure bician estue trataçen faltçu queaietan bayce**, que quiere decir, en vuestra vida no tratais sino de falsedades y bio que el uno para el otro rancados sus puñales se pusieron cara a cara». (Mayora, *Euskera en la Valdorba*).

En todo el siglo XVII son continuos los testimonios de vecinos que no conocen el castellano. En 1627 el Licenciado Artariain, rector de la parroquia de Lumbier durante 42 años «ablaba y entendía muy bien la lengoa bascongada por ser natural del lugar del Pueyo, a donde la lengoa natural y hordinaria es el bascuençe».

Artajona, ayer mismo

Pero de todos los pueblos de la comarca el más sorprendente es Artajona, pueblo natal precisamente de nuestro Jimeno Jurío que estudió y nos sorprendió en su día publicando su rica toponimia. Hoy día, sin duda, el sorprendido sería el propio Josemari si conociera el gran trabajo realizado por su paisano Mayora, que no sólo ha ratificado lo que con cierta timidez apuntaba él, sino que ha doblado la cosecha de topónimos antiguos y ha mostrado la pervivencia de la lengua hasta fechas de insospechada cercanía.

Por no resultar prolijo, no voy a citar la gran cantidad de documentos con testimonios de bascongados artajoneses que necesitan de traducción al castellano entre los siglos XVI y XVIII. Los tenéis en el libro *Euskera en Artajona/Artaxonan Euskera*. Mucho más interesante es espigar entre las numerosas expresiones euskéricas que además de mostrar la viveza de la lengua nos ilustran de la variedad dialectal.

- 1561. Un tal Víctor Alegría le tiró a otro paisano una cuchillada, «diziendo en bascuençe **esquerr gayz duela eskasac**».
- 1562. Un tal Juan Lasterra, «alias **Joango e Frayre**» iba «deziendo **se-gui, segui** a los que iban con él».
- 1573. En una riña en el campo, uno pidió ayuda y gritó «**çatoz Martyn** que bueltas en romance quiere, dezir beni Martyn».
- 1602. El lenguaje bascongado... «que es el que en la dicha villa se abla comunmente».
- 1606. «dichos alcaldes y **buruçaguis**»

- 1607. «y el dicho Miguel Colomo alcalde disculpante le hablo en bascuenge a la dicha criada y le dijo desta manera **este saçula bana alonbra orie çe urtea beteric dagola çoas caynço çure nagusiari nic errandia yçudala**, y con estas palabras bascongadas que assi le hablo salio la dicha criada sin poner el dicho paño sobre la dicha sepultura ni ençendio los çirios que llevo...».
- 1742. Antonia de Sesma dice «que está en el corral Simón de Armen-dáriz y le dice me coja algunas brevas y la que declara le dijo **or compon**».
- 1762. Pasa de noche una Carricadanza dando relinchos «y entre otras palabras que oyo de mofa y burla que gritaban en la calle y las repitieron varias beces eran **ay ene choria** que en castellano quiere dezir ay mi pajaro, **gaysua** y otras palabras...»; «que me ha escapado dejando la cola, como también hay mi marido que otro como el no ha de haber en el mundo dirijiendose esto contra Juan Joseph Colomo rejidor actual de esta villa y Manuela de Buzunariz su mujer».
- 1763. «algunas vezes ha visto y oido que yendo por la calle –a Ermenegildo de Muez- varios niños le gritaban **larru** que es término Bascongado y quiere dezir pellejo».
- 1773. Riña de pedradas y de palabras entre vecinos, y «se fueron di-ziendo dejemoslo que ya está vien y esto en lengua Bascongada y al uso que se abla en este país».
- 1781. Otra riña entre vecinos Joaquín de Donamaria le decía a otro «**ordia** que en castellano quiere decir borracho».
- 1782. «decía **atorgona atorgona** que el testigo no sabe Bascuenze ni lo que quiere dezir».
«dicho hijo de sola empezó a gritar a su padre en lengua Bascongada **ayta, ayta...**»
- 1784. un testigo «hace recuerdo que dicho Munarriz hablo alguna cosa de **zenezaion** y aunque dio Lasterra alguna respuesta no le tiene presente pero si que a esa respuesta de Lasterra el repusso dicho Munarriz que el no había dado motivo para cerrar iglesias como dicho Lasterra».

- 1790. Hay una recogida de firmas en el pueblo, que a la sazón tenía 400 vecinos, y unas 1700 almas, que firman el alcalde, regidores, miembros de la veintena y clero y se quejan de que el escribano Real asignado por las leyes del reino no se puede atender bien a los vecinos «y por ello se ben precisados a valersen a distintos escribanos Reales de otros pueblos para el otorgamiento de escrituras y diligencias judiciales (...) y deseando ocurrir al remedio de estos teniendo consideración a que Rafael de Ororbia natural de esta referida villa escribano real (...) el enunciado Ororbia como natibo de esta referida villa, posee la lengua bascongada, que es la que comúnmente se usa en la misma: acuerdan unánimes y conformes el que a su nombre y al de dicho Rafael de Ororbia se haga representación y la mas humilde suplica a la Real persona de S. M. (Dios le guie) solicitando se digne conferirle su gracia y libertad a el mismo Ororbia, para que pueda pasar a residir a esta villa...»

- 1803. A comienzo de siglo siguen los pleitos en los que aparecen vecinos hablando en basquence. Este año riñeron un Mendioroz con un Arrazubi «y el motivo de tirar este la segunda garrotada fue de haverle injuriado en lengua bascongada con la expresión de **demoniarcodola** que en castellano quiere dezir sangre de diablo».

- 1815. se abren diligencias «por la camorra ocurrida en la villa de Mendigorria la tarde que se celebros la funcion de novillos», entre «las dos cuadrillas de Cirauqui y Artajona». La testigo «42 dize que estando en la casa junto al Calbario a la salida del pueblo observo que un tropel de jentes hiban corriendo hablando en Bascuen que por no entender el idioma no sabe lo que dezian y hacia dicho Calbario salieron barias jentes y se dezia que dichos sujetos que corrian eran de Artajona y que habían emprendido una camorra con los de Zirauqui».

Y da la lista de 31 nombres de los mozos de Artajona, con los mismos apellidos e incluso los nombres que hemos conocido hoy día: Ximeno, Oficialdegui, Buzunáriz, Ganuza, Villanueva, Armendáriz, Vital, Bai-gorrotegui. Mayora comprobó la fecha de defunción de estos mozos y el más viejo, Pablo Esparza, murió en 1876, a los 80 años. Tenía 19 cuando la camorra de Mendigorria. ¿Por qué vamos a suponer que estos

jóvenes que con 18-20 años hablaban euskara fueron los últimos en hacerlo? ¿No tendrían hermanos menores que también lo hablaran?

- 1891. En un cuaderno de la parroquia escribieron: «Hermita de Nuestra Señora de la Blanca dicha **Sanduzuria**. No tenemos noticia del principio de esta hermita, y solo la hallamos en los instrumentos más antiguos, nombrada con título de **Sanduzuria**, que es nombre Basconico que en romance quiere decir Santa Blanca...»

En definitiva, y con esto concluyo, el acceso a nuevos investigadores a los archivos y la lectura minuciosa de los legajos, nos está mostrando una Merindad con una euskaldunidad cada día más cercana en el tiempo. El mapa histórico del euskera está todavía por hacerse y al parecer tenemos que remontarnos muy pocas abuelas para encontrar euskaldunes en nuestro árbol genealógico. Ojalá ello sea un incentivo más para recuperar la que durante milenios fue nuestra lengua familiar.

Euskaltzaindia eta Nafarroa

INIGO, Andres

Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria

Nafarroaren eta euskararen arteko lotura adierazten duten lekukotasun interesgarriak azaldu dizkigute ageriko ekitaldi honetan. Batetik, Tafallerriaren euskalduntasuna historian zehar egiaztatzen duten aipu dokumental ugari eta argiak. Bertzetik, ikastolen mugimenduari esker, euskarak Nafarroako irakaskuntza arautuan gaurdaino izan duen garapena eta bereziki, Garcés de los Fayos ikastolaren eskutik, Tafallaren inguru zabalean izan duen eragina.

Euskaltzaindiak ere lotura berezia du hasiera-hasieratik Nafarroarekin, bertzeak bertze, Nafarroako Diputazioak ere, bertze hiru Foru Diputazioekin batera, 1918. urtean babestu zuelako Euskararen Akademiaren sorrera.

Orduz geroztik hainbat urrats egin dira eta, urteetan zehar egindako ibilbidearen ondorioz, lotura hori sendotzen joan da. Hortaz, azken urteotan Euskaltzaindia Nafarroan zertan ari den agerian jartzea da liburuxka honen xedea.

Helburua informazioa ematea denez gero, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da. Ikusten ahal den bezala, lau ataletan banatu da informazio hori:

- Lehenengoan azaltzen dira Euskaltzaindiak Nafarroan dituen harreman instituzionalak, hitzarmenen bidez gauzatuak:
- Nafarroako Gobernuarekin. Erran bezala, Diputazioa Euskaltzaindiaren sorrerako babesleetako bat izan zen eta Nafarroan, legez ere, Euskaltzaindia da euskara gaietan kontsultarako erakunde ofiziala. Bi erakundeen arteko harreman instituzionala urtez urte sinatzen den hitzarmenean gauzatzen da.

- Iruñeko Udalarekin. 1997az geroztik urtez urte berresten den hitzar-menaren bidez.
 - Euskalerrria Irratiarekin 2008an sinatutakoa. Helburu nagusia da Euskaltzaindiaren lana zabaltzea eta, batik bat, Iruñerrian euskararen normalizazioa gizarteratzea.
 - Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin 2009an sinatua, bi erakundeen arteko lankidetzaren areagotzeko asmoz.
- Bigarrenen Euskaltzaindiak Nafarroan duen presentzia, egiten dituen biltzar, bilera eta ekitaldien bidez:
- Euskaltzaindiak egin dituen 16 biltzarretatik 2 Nafarroan izan dira, azkenekoa 2008an Iruñeko Baluarte jauregian «Pirinioetako hizkuntzak» gaiaren inguruan.
 - Halaber, azkeneko urteetan Nafarroako hainbat herritan egin diren osoko bilkura, barne jardunaldi eta ekitaldien berri ematen da eta, horien artean, 2000az geroztik Ikastolen Elkarteak gonbidatuta, Nafarroa Oinez-en inguruan, gaur hemen Tafallan bezala, urtez urte izan duen presentzia.
- Hirugarrenean azaltzen da nafarren presentzia Euskaltzaindian bertan, Institutuzioaren barruan alegia. Izan diren eta gaur egun diren euskaltzain oso, ohorezko eta urgazle guztien zerrenda eskaintzen da, bakoitzaren izendapenaren urtea adieraziz.
- Laugarrenean Nafarroarekin lotura zuzena duten Euskaltzaindiaren argitalpenak aipatzen dira. Batetik, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean sortutako Mendaurren bilduman orain arte argitara emandakoak eta, bertzetik, Euskaltzaindiak bertze zenbait bildumatan argitara emandako gaiak, hala nola, soziolinguistika, dialektologia, onomastika, gramatika, literatura eta abar, Nafarroarekin zerikusi zuzena dutenak.

Horiekin batera, Euskaltzaindiaren webgunearen bidez kontsulta daitezkeenak.

Erran bezala, Euskaltzaindia Nafarroan zertan ari den ezagutzera ematea da liburuxka honen xedea eta, aldi berean, lanean segitzeko duen gogoia jakinaraztea, betiere eta ahal den neurrian, euskararen normalizaziorako urrats sendoagoak eta nabariagoak egiteko asmoarekin.

Euskaltzaindia y Navarra

IÑIGO, Andres

Delegado de Euskaltzaindia en Navarra

Tal como hemos podido ver, los testimonios expuestos por los ponentes que me han precedido evidencian una gran relación de Navarra con el euskera. Así lo reflejan, por una parte, los numerosos e interesantes testimonios históricos que refrendan la euskaldunidad de esta comarca de Tafalla y, por otra, el trabajo desarrollado por el movimiento de las ikastolas en la enseñanza reglada en Navarra y la incidencia especial que ha tenido en este entorno de Tafalla, merced a la Ikastola Garcés de los Fayos.

Euskaltzaindia también tiene una relación estrecha con Navarra desde los comienzos de su andadura como Academia de la Lengua Vasca. Efectivamente, allá en 1918, la Diputación Foral de Navarra, apoyó expresamente la iniciativa de crear la Academia de la Lengua Vasca, juntamente con las otras tres Diputaciones Forales.

Desde aquel entonces ha sido largo el camino recorrido y, aunque a veces dificultosos, han sido firmes los pasos que se han dado hasta la actualidad. La publicación que hoy presentamos en formato de folleto, titulado *Euskaltzaindia y Navarra*, tiene como objetivo dar a conocer en líneas generales el trabajo que la Academia viene realizando en Navarra, especialmente en estos últimos años.

Puesto que se trata de una información para el público en general, la edición es íntegramente bilingüe. La citada información está clasificada en cuatro apartados:

Euskera. 2011, 56, 1-2. 85-88. Bilbo
ISSN 0210-1564

- En el primero se exponen las relaciones institucionales de Euskaltzaindia en Navarra, relaciones que se plasman en los convenios firmados con las instituciones y que son los siguientes:
 - Con el Gobierno de Navarra. Tal como ha quedado dicho, la Diputación Foral apoyó desde un principio la existencia de la Academia de la Lengua Vasca. Además, Euskaltzaindia es por ley la institución consultiva oficial en materia de lengua vasca en Navarra. La relación de ambas instituciones viene recogida en el convenio que anualmente vienen firmando de común acuerdo.
 - Con el Ayuntamiento de Pamplona. Desde 1997 viene renovándose anualmente el convenio suscrito entre ambas instituciones.
 - Con Euskalerrria Irratia desde el año 2008. Su objetivo principal es dar a conocer, a través del citado medio de comunicación, la labor de la Academia, a fin de ir potenciando la normalización del uso social de la lengua vasca principalmente en el área metropolitana de Pamplona.
 - Con la Universidad Pública de Navarra, a través del convenio firmado en 2009, con el fin de fomentar la colaboración entre ambas instituciones.
- El segundo apartado trata de recoger la información referente a la presencia de Euskaltzaindia en la Comunidad Foral a través de la realización de congresos, reuniones, jornadas y actos académicos en general:
 - De los 16 congresos celebrados, 2 han tenido lugar en Navarra, el último el pasado año 2008 en el palacio de congresos Baluarte de Pamplona, en torno al tema «Las lenguas de los Pirineos».
 - También se referencian las reuniones celebradas en diversas localidades de Navarra en estos últimos años, con mención especial a la presencia ininterrumpida de Euskaltzaindia –respondiendo a la invitación expresa que la Federación de Ikastolas le viene realizando desde el año 2000–, allá donde se celebra la fiesta del Nafarroa Oinez, tal como este año en Tafalla.
- En el tercer apartado se expone la relación nominal de los académicos navarros de número, de honor y correspondientes, tanto los fallecidos

como los actuales, con indicación del año de nombramiento de cada uno de ellos.

- En el cuarto apartado se mencionan las publicaciones de Euskaltzaindia que tienen relación directa con Navarra. Comienza con la relación de todos los trabajos publicados en la colección Mendaur, que fue creada en el marco del convenio de la Academia con el Gobierno de Navarra, y prosigue con la relación de obras publicadas por Euskaltzaindia en otras colecciones, que contienen trabajos relacionados con Navarra, en los campos de la sociolingüística, dialectología, onomástica, gramática, literatura, etc.

Asimismo, se indica la página web de la Academia para consulta de otras obras.

Como se ha indicado al principio, el objetivo de esta publicación es dar a conocer la actividad que Euskaltzaindia viene realizando en Navarra. Sobre decir que la Academia desea proseguir en esta línea, fiel a sus principios fundacionales y a los cometidos que como tal Academia se le reconocen y encomiendan en favor de la normalización social del uso del euskera.



Azken hitzak

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Zinez ohargarriak izan dira gaur hemen entzun ditugunak. Beste behin ere, Nafarroako Ikastolak eta, oro har, Euskal Herriko Ikastolak eta Euskaltzaindia bat eginik ikustea pozgarria da, besteak beste, euskararen inguruko langintza adierazten dutelako bi-biek.

Euskararen Akademiak eskertu nahi ditu Tafallako herria eta udalkideak, Tafallako ikastolako arduradunak, irakasleak, ikasleak, gurasoak eta langileak eta Nafarroako erakundeak eta elkarteak, egin diguzuen harrera amultsuarengatik. Eskerrak, orobat, ekitaldi honetan hizlari eta entzule izan zaituztegun guztiontzat eta jakina, akademiaren gogo bizia, *Nafarroa oinez* aurten ere arrakastatsua izan dadila.

Horretan lan egingo dugu, horretan eta zer esanik ez, euskara aurrera eramaten eta aitzinatzen Nafarroan eta Euskal Herrian.

Mila esker



Agiriak

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindia. Batzar Agiriak

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Donostian, 2011ko urtarrilaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Azkarate, Miren,
Charritton, Pierre,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Irazu, Jose «B. Atxaga»,
Larre, Emile,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel

Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Erramun Osa, idazkariordea,
Mikel Gorrotxategi,

Patxi Galé,
Alfontso Mujika,
euskaltzain urgazleak
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak, ahala M. L. Oñederrari edo Jean-Baptiste Coyosi; Xarles Videgainek, ahala Jean Haritschelharri; Miren Lourdes Oñederrak, ahala A. Arkotxari; Beñat Oihartzabalek, ahala A. Arkotxari edo J. Haritschelharri; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,06etan hasi da Donostiako Diputazioaren Jauregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. A. Iñigok ohar batzuk egin ditu abenduko batzarraren aktaz, toponimo batzuen formaz, eta J.L. Lizundiak estilo-ohar batzuk helarazi dizkio ahoz. Idazkariak horiek kontuan hartu ditu. Horrela, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hasi aurrekoak.

2.1. Vahan Sarkisian-en heriotza.

Exonomastika batzordeko burua den J.L. Lizundiak Vahan Sarkisian armeniar euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri eman du. Idazkariak azaldu duenez, Arevik-ek, haren alabak, e-maila bidali du, hartan jakinaraziz Sarkisian jauna, 55 urte zituela aurtengo urtarrilaren 21ean hil zela, bihotzekoak jota. Euskaltzaindiak bere familiari doluminak bidali dizkio.

2.2. Hilberri-txostenak. A. Urrutia euskaltzainburuak azaldu duenez, gaur, ohiko batzarraren ondoren, eguerdiko 12etan egingo den ageriko bilkuran, Jorge Cortes Izal euskaltzain urgazlearen eta Xabier Lete Bergaretxe ohorezko euskaltzainaren hilberri-txostenak irakurriko dira. Lehena, Patxi Zabaleta euskaltzainak pres-tatua, Sagrario Aleman euskaltzainak irakurriko du. Bigarrena Jose Angel Irigarai ohorezko euskaltzainak irakurriko du.

3. Onomastika.

3.1. «Euskal Herriko ibaien izenak» Ebrora doazen euskal ibaiak. 4. zerren-da onartzea.

Andres Iñigok jaso eta komentatu ditu, oro har. Ondoren, Patxi Galék, horiek kontuan hartu eta behar diren kontsultak eginda, honako azalpen hauek eman ditu:

Urtxuria dela eta, dirudienez, **-a** gabea da.

Egurgi hidronimoaz, M. Azkarate, P. Xarritonek eta Iñaki Caminok egindako oharra ikusita, Aezkoan **Egurgio** (eta ez **Egurgoa**) delako ondoriora heldu da.

Sorogaingo erreka izenaren tokian **Erro** jarri da. Ontzat eman da. P. Salaberrik, forma ikusita, hidronimoa **Xuringo** ez baina **Xubingoa** ez ote den galdetu du. Bildu diren datuen arabera **Xuringoa** dela erantzun zaio.

Gurpegiko erreka izena dela eta, A. Iñigok, hangoen lekukotasuna jaso ondoren, forma hori berretsi du. P. Salaberrik oharra egin ditu **Egúrzanos** eta **Cerréncanos** moduko azken **-s** horiez.

P. Goenagak **la Foz de...** bezalakoen forma generiko horiek ere ez ote lirakeen euskaraz jarri behar galdetu du. Taldekoak oharraz konforme daude, baina lekukotasunik gabe, izenok aldatzera ez direla ausartu adierazi dute. Gai berari ekinez, P. Salaburuk galdera batzuk egin ditu **Foz de Benasa** bezalako generiko batzuk erdaraz mantentzeagatik. Patxi Salaberri, P. Salaburu, I. Sarasola eta A. Arejita

ere toponimo batzuen izen generiko horiek euskaratzearen alde agertu dira. P. Galék eta A. Iñigok gogorarazi dute euskal izenik erabili ez denetan, **Monte Perdidó** eta abarretan, ez itzultzea erabaki zela. P. Goenagak **Benasa** hutsa proposatu du, eta hola utzi da.

3.2. Euskal Herriko ibaien izenak (VII zerrenda aurkeztea) Argarainoko ibaiak. Taldekoek zalantzak ekarri dituzte, kasu batzuetan bilduriko informazio lokala gehiegizkoa izan da eta. Horrela, adibidez, **Bizkaia** izena inoiz nahasgarria gertatzen da, eta maiz agertzen da. P. Galék kasu ezberdinak azaldu ditu. Horrela, **Baluso** eta **Armillos** errekek inoiz **Bizkaia** izena hartzen dute. **Indusi/Induxi, Arizpeleta/Arizpildueta/Ezpeleta** zalantzak ere aipatu ditu. P. Salaberri **Valcerbera** eta **Indusi-z** (eta ez **Induxi**) mintzatu da. J.L. Lizundiak, aldiz, **Bizkaia** toponimoa dela eta, oharra egin du, hitzaren hedadura eta esangura zaharra azaltzeko. P. Galék badaki izen bereko beste eskualde hori non den, baina hortik urrun xamar gelditzen omen da. Leatxen ere bada izen bereko beste leku bat. Halakoetan «**Bizkai**»k «mendi edo bizkar» esan nahi izaten du. P. Salaburuk bere kezka azaldu du, euskal toponimo asko, premiarik gabe, ez ote ditugun erdal forma gordinegian onartzen salatuz. Bestetik, ohiko erabiltzaileen hizkuntzaren muga aipatu du P. Salaberrik. Oharrak otsailaren 14rako bidali beharko dira.

4. Exonomastika.

4.1. Exonomastika. «Ekialde hurbila (II). Georgiako exonimoak» zerrenda onartzea. J.L. Lizundiak, hitza hartu eta proposamenari ez zaiola oharrik egin azaldu du. Beraz, Georgiako letraldatzeta-aula eta exonimoak ontzat eman dira.

4.2. Exonomastika. «Ekialde hurbila (III). Armeniako exonimoak» zerrenda aurkeztea.

J.L. Lizundiak hitza Alfonso Mujikari eman dio, Armeniako alfabetoa eta berori euskarara letraldatzeko irizpideak azal ditzan. A. Mujikak, paperean aurkezturiko dokumentuak banatu ditu. Hor oinarriturik, armeniera idatzi klasiko eta modernoaren aldaki nagusien historia laburra egin du. Gaur egun bi armeniar dialekto mintzatzen dira, biak berdin idatzi arren. Bietako bat, mendebaldeko armeniera, Armeniako Errepublikatik kanpo erabiltzen da (Turkian, Israelen eta diasporan), eta gaur erabat galtzeko arriskuan aurkitzen da (50.000 hiztun inguru besterik ez). Horregatik, Erdi Aroko antzinako armeniera klasikoa liturgian besterik erabiltzen ez denez gero, Euskaltzaindira ekartzen den proposamena, armeniera modernoaren transkripzio sinplifikatua da, batez ere dibulgazioari begira, bertako geografia eta pertsonen izenak euskarara aldatu nahi direnean erabiltzekoa. Hor, J.L. Lizundiak

azpimarratu duenez, hiri nagusiak, leku historiko eta gatazkatsuak, zein pertsonaia famatuen izen-deiturak sartzen dira.

Oharra otsailaren 14rako bidali behar direla gogoratu du.

Duela bi hilabete, taldearen izenean, X. Kintanak Vahan Sarkisian euskaltzain ohorezkoari armenieratik euskarara izenak eta transkribatzeko proposamena helarazi zion, eta erantzunez igorri zuen ohar labur batean, oro har bere adostasuna eman zuen, testua astiroago aztertu ondoan, agian ohartxoren bat egingo zuela aginduz. Zoritzarrez, hori egin baino lehenago eraman du herioak.

5. Mintzola fundazioaz.

Euskaltzaindian argitalpen eta kultura taldeek egiten duten lana ezagutzeko bidean, Josune Zabala, Mintzola Fundazioaren zuzendaria, Akademiara etorri da, elkarte horren izaera eta lana azaltzeko.

Mintzola 2008ko udaberrian eratu zen, besteak beste, euskararen ahozko tradizioaren ikergunea izateko asmoz. Sortzaileen artean Gipuzkoako Kutxa, EHU, Bertsozale Elkarte eta Gipuzkoako Diputazioa aurkitzen dira. Euskaltzaindiarekin ere, elkarlanerako hitzarmen bat sinaturik daukatela gogorarazi du.

Mintzolaren helburua, oro har, gaurko euskal gizarteak hizkuntza eta kultura arloan dituen premia berriei erantzutea da. Horretarako oinarritzko ikerketa jorratzen du, tesi eta artikulugintzaren bitartez. Horrez gainera, ikerketa aplikatua ere badarabil, gizartearen beharrezanean begira.

Fundazioaren erabakigune nagusia Patronatua da. Lan egiteko, batzordetan baturik dago. Garrantzi handia eskaini dio dokumentazioari, eta ahozko generoak (bertso, kantua eta antzerkiak, adibidez) bildu, gorde eta ezagutarazi nahi lituzke.

Era berean, beste erakundeekin batera lan egiteko prest dago, eta ahalegin ezberdinen elkargune izan nahi luke, adibidez Euskaltzaindiarekin, udalekin eta beste zenbait erakunderekin ere bai. Orain arte jorratu dituzten arloak xeheki azaldu ditu Josune Zabalak: ahozkotasuna genero-ikuspegitik arakatu, Zumaian eta Azpeitian gazteen arteko hitanoaren erabilera aztertu, bai eta formazio-ikastaroak eman ere. Etorkizunari begira, aurrera segi eta ikerketetan sakontzea da Mintzolaren nahia. Ikerketa-bekak sortzeko proiektua ere badute.

Euskaltzainburuak Mintzolaren emaitza aipagarrien artean, irakaskuntza mundutik datozen ikasleak trebatzeko laguntza azpimarratu du, testuinguru formal eta informaletan egoki mintzatzeko. Bukaeran A. Urrutiak, Euskaltzaindiaren izenean, Josune Zabala andreari eskerrak eman dizkio.

6. Eskuarteakoak:

6.1. Aurrekontuen berri. Jose Luis Lizundia diruzainak hitza harturik, Euskaltzaindiaren aurrekontua, PP alderdiak egindako zuzenketaren ondorioz, 140.000 eurotan gehitu dela azaldu du. Horren ondorioz, Joseba Zabaleta kudeatzaileak azaldu duenez, proiektuetan lehenago aurreikusten zen % 30etik % 19ra jaitسي dira murrizketak.

6.2. Kultura Sailaren eskariari erantzunez. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Euskaltzaindiari eskari bat igorri dio, berari atxikita dagoen **Euskararen Aholku Batzordeko** atal bereziak diren **Terminologia** eta **Toponimia Batzorde**etarako ordezkari bana izenda ditzan. Euskaltzaindiak Terminologiarako Andoni Sagarna euskaltzaina eta Toponimiarako Mikel Gorrotxategi euskaltzain urgazlea izendatzea erabaki du.

6.3. Legebiltzarreko «Jalgi hadi plazara» erakusketa. Eusko Legebiltzarrak antolaturik, aurtengo **otsailaren 1ean**, Euskal Parlamentuaren **Gasteizko egoitzan, goizeko 10etan**, «Jalgi hadi plazara» izeneko erakusketari emango zaio hasiera, Legebiltzarreko burua den Arantza Quiroga andrearen eta parlamentari batzuen partaidetasunaz. Erakusketa hori antolatzeke laguntza teknikoak Euskaltzaindiari eskatu zaio, eta horretarako komisario gisa, X. Kintana idazkaria izendatu da, Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Biblioteka-buruaren laguntza izan duena. Erakusketan Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* izango da, Parisko Biblioteka Nazionalaren kortesiari esker erakustaldi honetarako bereziki ekarria, eta Joanes Leizarragaren 1571ko Testamentu Berria, Euskaltzaindiaren Bibliotekak utzia. Era berean, Pizkunde eta Protestantismo giroko euskal eta erdal liburu batzuk izango dira erakusgai, herri hizkuntzen literaturaren hasieran Bibliaren itzulpenak izandako garrantzia azpimarratuz. Erakusketak otsailaren hasieratik martxoa bukatu arte iraungo du, jende guztientzat irekirik.

6.4. Osoko batzarra Bilbon. Amaitzean, Euskaltzaindiaren otsaileko biltzarra, Bilbon izango dela gogorarazi da, otsailaren 25ean, ohi bezala, goizeko 10etan.

Batzarra 12etan amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2011ko urtarrilaren 28an

JORGE CORTES IZAL (Otsagabia, 1930; Iruña 2010) eta XABIER LETE (Oiartzun, 1944; Donostia, 2010) GOGOAN

Donostian, 2011ko urtarrilaren 28an, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak aurreko urtean hil diren Jorge Cortes Izal euskaltzain urgazlearen eta Xabier Lete ohorezko euskaltzainaren hilberri-txostenak irakurtzeko Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Jose «B. Atxaga» Irazu, Emile Larre, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Joseba Intxausti eta Koldo Artola

Euskaltzain urgazleak: M^a Pilar Lasarte, Jazinto Fernandorena eta Patri Urkizu.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindiko langileak: Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ekitaldiaren nondik-norakoa aurkeztu du. Era berean, aurreko urtean hil diren Jorge Cortes Izal eta Xabier Lete gogoan hartu ditu eta bakoitzak bere arloan egindako ekarpena nabarmendu du.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 95-174. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ondoren, Patxi Zabaletak bilkurara etortzerik izan ez duenez gero, Sagrario Alemanek Jorge Cortes Izal (1930-2010) euskaltzain urgazleri buruz Patxi Zabaletak eginiko hilberri-txostena irakurri du.

Jorge Cortes Izalen ibilbidea gogora ekarri du Patxi Zabaletak, Sagrario Alemanen ahotsaren bitartez. Nafarroan egindako lanaz hitz egin du, euskal kulturaren eta euskararen alde, eta ikastolen sorrera prozesuan buruturiko lanaz, hain zuzen.

Iruñean, 1963an egin zituzten Nafarroako lehenengo ikastola zabaltzeko ahaleginak, baina ekimenak ez zuen aurrera egin, eta handik bi urtera, 1965ean, Euskerriaren Adiskideen Elkarrekin, zeinen kide Jorge Cortes Izal zen, ikastola bat eratu zuen, eskusiboki bertako kideen seme-alabentzat. Hasieran Nuestra Señora de Ujué izena zeraman, baina gero Paz de Ziganda izatera pasa zen. Baina Elkarrekin zatitu egin zen, eta Jorge Cortesen gidaritzapean San Fermin ikastola sortzeari ekin zioten. Ikastola horren buru ere izan zen hainbat urtez, gurasoek hautatua eta ikastola honetako lehenbiziko ikasleetakoak izan ziren bere semeak. Laster zabaldu zuten ikastolen mugimendua Nafarroa osora.

Nafarroako Diputazioaren Príncipe de Viana erakundeko «Fomento del Vascuence» sailean parte zuzena izan zuen, euskararen sustatze lanetan eta erakundearen izena zeraman aldizkariaren euskarazko gehigarrian batik bat. Euskerria Irratiaren sortzaileetarikoa dugu.

1969ko azaroaren 28an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen.

Cortes «kanpionianoa» zela dio Zabaletak, «euskararekiko ikazgilearen atxikimendukoa, Otsagabia herria eta Zaraitzu harana beti gogoan eta kezkatzen zituena, Euskal Herria den gizartean nortasun agiriak –tituluak– Nafarroaren baitan ikusten zituena».

Azkenean, Alemanen ahotsez, hauxe aitortu du Zabaletak: «Lagun bat edo hurbileko bat hiltzen denean, maiz guregan sortzen den sentimendua izaten da: esan behar genizkion edo galdetu behar genizkion hainbeste eta hainbeste gauza, ezin izanen dizkiogula gehiago galdetu. Beranduegi egin zaigula». Hori dela eta, Sagrario Alemanek Zabaletaren beraren «Berandua beti beranduegi da» poema errezitatu du. Hauek dira azken bertsoak: «Beranduaren itzulezinak min dagit, min garratza deragit, joandako denborak etsipenaren arantza sartzen baitit, berandu da eta berandua berez da beti, beranduegi!».

Horren ostean, Xabier Lete (1944-2010) ohorezko euskaltzainari buruzko hilberri-txostena Jose Angel Irigarai ohorezko euskaltzainak irakurri du.

Xabier Lete idazle, poeta eta kantaria, *Ez Dok Amairu* taldeko kide izan zen. Bederatzi disko kaleratu zituen, eta zazpi olerki liburu, azkena *Egungentziaren Esku Izoztuak* izenekoa. Euskal kulturaren erreferente argia. Txostena irakurtzeaz gain, Jose Angel Irigarai Leteren poema batzuk irakurri ditu, Joxan Goikoetxearen musikak lagunduta.

Xabier Lete zena gogorarazteko, honela mintzatu da Jose Angel Irigarai: «Ezaguna da Xabier Leteren ibilbide oparoa, bai poesian bai kantagintzan; batean zein bestean nabarmendu zuen dohai berezia. Bakan da gauzatzen gure hizkuntzaren bizitasun osasungarria hain manera eraginkorrean. Baiki, Oiartzunen ongi errotua, ahozotasun eta herri kulturaren –eta hor, Lekuonatarren itzala aipatu behar da, bereziki Juan Marirena– eta, gisa berean, gogoa irekia, munduan kokatua –ingurukoa eta urrutikoa–, biak propioki uztartuz jardundakoa izan da bizitzan, sorkuntzan. Haren poema eta kantuetan momentu berean da herri hizkuntza bizia sentitzen eta hizkuntza jaso gozatzen, existentziaren drama eta ironia, euskaldunaren eta giza aberearen poz eta mina, patua, egunorokoari datzekionak eta arnasa handiko metaforak. Lurrari atxikia eta lau hai-zeatarat zabaldua, poetak inoiz ez du ikuspegia galtzen, non dagoen eta nondik duen kantatzen, bertatik bertara eta mundu guztian gaindi. Horrela dira haren kantu-poemak ekibegiko lurrean txertatzen, hemen eta unibertsal aireen oihartzunean».

Leteren kanta eta poemak ekarri ditu gogora –batean zein bestean nabarmendu zuen dohai berezia–. Leteren sentsibiltateaz hitz egin du, haren indarraz, zeukan umoreaz, erakusten zituen minez eta gudan sortzen zuen zirrarez... Azkenean honela amaitu du Irigarai: «Poesiak gure baitan legokeen hondo ilun batera garamatza, eta neretzat oso zaila izan da beti poesia argitsua eta baikorra idaztea... Beraz, poesia melankoliaren hizkerak dira, izpirituaren afekzioak...», dio Letek. Eta puska handi batean, halakoa da harena, baina, ene aburuz, herren gelditzen da baieztapena, ez bada kontuan hartzen haren sorkuntzan eta bizitzan umoreak duen munta; bere buruaz trufatzeko eta beste hainbat gai ironiz tratatzeko umore fin edota zirtolaria, bizigarria. Nago horrek osagarria den arnasa ekarri izan diola beti, poesian eta bizitzan. Irri ez bada, beraz, dugun gutienez kanta eta goza haren poesia eta kantuekin, dugun topa eginez jorra sorkuntzaren mentura, bizi-larrimina poesia, aterbe eta hats-iturri, bilaka dadin».

Bernado Atxagak ere parte hartu du omenaldian, testu bat irakurriz. Leteren *Otsoa eta Txanogorritxu* kanta ezaguna hartu, eta otsoaren figurarekin jolasean ibili da Atxaga, Oiartzungo poetaren omenez. Bernardo Atxagaren hitzen ostean, *Xalbadorren heriotza* kanta kantatu dute hurreratu diren guztiek, musikak lagundurik, une hunkigarria gertatuz.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da ageriko bilkura, eguerdiko 13:30ean, ekitaldian zehar gogora ekarritako pertsoneri egin dakiekeen gorazarrerik onena, omenaldirik ederrena euskararen eta euskal kulturaren zabalkundearekin jarraitzea dela azpimarratuz.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Bilbon, 2011ko otsailaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealдай, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
eta Zalbide, Mikel
Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Mikel Gorrotxategi,
Patxi Galé
eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazleak,
zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak, ahala X. Videgaini; Miren Azkaratek, ahala P. Salabururi; Jose Irazu «B. Atxaga»k, ahala A. Urrutiari; Joseba Lakarrak, ahala A. Urrutiari; Patxi Salaberrik, ahala A. Iñigori; Patxi Zabaletak ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabea ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

1. Aurreko akta onartzea. J.L. Lizundiak eta A. Iñigok ohar batzuk ahoz helarazi dituzte eta, idazkariak horiek kontuan harturik, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hasi aurrekoak.

2.1. Eguneko programa. Akademia gaitan sartu baino lehen, osoko Batzar arruntak goizeko 10:00etatik 11:55eta-

ra iraunen duela adierazi du euskaltzainburuak, eta arratsaldean ez duela segidarik ukanen.

Ondoren, behe solairuko aretoan, jendaurreko ekitaldian, Joseba Intxaustiren eta Mikel Zalbideren liburu argitaratu berriak aurkeztuko dira, eta, amaitzeko, Aizpea Goenagak eta Maria Jose Olaziregik Etxepare institutuaren aurkezpena egingen dute.

3. Onomastika.

3.1. «Ekialde Hurbila (III) Armenia Proposamena onartzea. Ez da oharrik etorri eta, beraz, besterik gabe, proposamena onartu da.

3.2. Arabieraren euskararako transkripzioa aurkeztea. X Kintanak arabieratik transkripzioen aurkezpen laburra egin eta behialako arabiera klasiko batutik gaur tokian tokiko arabiera mintzatu eta dialektaletara egoten diren aldaketa eta ebakera ezberdinak aipatu ditu, batez ere bokalei dagokienez. Horrez gainera, gogorarazi du kontuan hartzekoa dela arabiar herrialde horietan luzaro gainjarririko potentzia kolonialaren hizkuntza ofizial eta administratiboa zeintzuk izan diren (espainiera, frantsesa, italiara, turkiera, ingelesa...), eta ia beti mintzaira horietatik abiatuak moldatu izan direla, oraintsu arte, bertako leku-izenen nazioarteko transkribaketa bereziak.

Aipaturiko arrazoen ondorioz, Alfontso Mujikak, kasu eta ezberdintasun nabarmenak xehekiago azaldu ditu. Horregatik, arabiar alfabetoaren transkribatze-taula orientagarria eskaini arren, maiz, nazioarteko erabilera luze eta hedatua ere kontuan hartu behar izan da, guregana heldu diren toponimo batzuk erabat ez desitxuratzeko. Oharrak martxoaren 15erako bidali beharko dira.

3.3. Siriako eta Libanoko toponimia aurkeztea. Siriako eta Libanoko toponimoen zerrenda aurkeztu da. J.L. Lizundiak eskualde horretako Estatu ezberdinen egoera bereziak azaldu ditu, gaurkoz, Frantziaren mandatu eta eraginpean 1920tik egondakoenak, toponimoak gaur eskuarki arabieraz mintzo diren herrietan kokaturik egon arren, izen horietako batzuk jada denbora biblikoetan aipatuak direla gogorarazi du, eta beren forma zaharretan eskuarki grezierazko izen klasikoekin agertzen zirela bertako hiri eta leku garrantzitsu ez gutxi. A. Mujikak toponimo horiek hautatzeko irizpideak azaldu ditu: historia, kultura, erlijio, merkataritza edo demografia aldeko garrantzia. Aurrekoan bezala, oharrak bidaltzeko epea: martxoaren 15a.

4. Onomastika

4.1. Euskal Herriko ibaien izenak (VII) zerrenda onartzea.

P. Galék 7. mapa komentatu du, helduriko oharren arabera. Batetik *Oibar* onartu da (gastelaniaz *Aibar*). *Bizkaia* sin. *Armillos*. Lergatik pasatzen den ibaiaren izena:

Urretako erreka, *Indusi* kenduz. Bestetik, *Arizpildueta* (Barasoain ingurukoa). Proposamen hauek ontzat eman dira.

4.2. Euskal Herriko ibaien izenak (VIII) zerrenda aurkeztea. A. Iñigok 8. mapa aurkeztu du, eta P. Galék hor ageri diren zailtasunak, dokumentaziorik eza, susmoak, aieruak eta zalantzak azaldu ditu xeheki. Oharrak martxoaren 15erako bidali beharko direla gogoratu du.

5. Lexikoaren behatokia. Egitasmoaren aurkezpena. A. Sagarnarekin batera,

Miriam Urkia, Antton Gurrutxaga eta Xabier Artola jaun-andreak etorri dira. Hitza harturik, A. Sagarnak Lexikoaren behatokiaren historia eta horrako materialak biltzeko prozedura azaldu du. Gero hitza lagunei eman die.

M. Urkiak UZEIn egiten duten lana azaldu du: testu bilketa eta katalogazioa. Horretarako darabilten irizpidea ere argitu du, lehentasuna eta eskuragarritasuna kontuan harturik, Euskaltzaindiarekin sinaturiko hitzarmenaren arabera.

Fitxak nola betetzen dituzten eta bilduriko datuak nolakoak diren ere azaldu du. Azkenean arlo ezberdinen sailkapena erakutsi du.

Elhuyar-en lana Antton Gurrutxagak aurkeztu du eta jardueraren fase ezberdinek banan-banan eta elkarrekiko loturan azaldu: katalogoa corpusgile tresna kargatu, formatu bihurtzea, egiturak etiketatzea, aurreprozesamendu linguistikoa, lexikoi osagarria prestatzea, aldaerak normalizatzea, akats ortografikoak zuzentzea eta euskarazkoak ez diren pasarteak markatzea. Kostuez ere mintzatu da.

Xabier Artolak, Ixa taldekoak, aldiz, LB proiektuaren etiketatze linguistikoa azaldu du, berak proiektuaren diseinu-koordinazioetan, Corpusaren prozesatze linguistikoa automatikoan parte hartzen du eta. Eman beharreko pausoak aipatu eta xeheki argitu ditu: tokenizazioa, segmentazio morfoloikoa, tratamendu morfosintaktikoa eta anotazio linguistikoa. 2011rako egitekoak ere azaldu dira.

Bukatzean euskaltzainburuak parte-hartzaile guztiei eskerrak eman dizkie.

6. Esku artekoak.

6.1. Euskaltzaindiaren XVII. Barne Jardunaldiak.

Euskaltzaindiak aurten Donostian egingo dituen Barne Jardunaldietan Zuzendaritzak plan estrategikoa bat proposatuko duela iragarri du A. Urrutiak eta, horretarako, euskaltzain guztien oharrak jasoko direla.

Asmo horrekin, euskaltzainak Kursaaen bilduko dira martxoaren 25ean, goizeko 10etan, eskura banatu den programaren arabera.

Goizeko saioan, Osokoen bilkuraren ondoan, 11:45etik 12:15era Euskaltzaindiaren XVII. Barne Jardunaldien aurkezpena izango da. Horren hurrengo, 12:15etik 14:00 arte, Plan Estrategikoaren 1. zatia aztertuko da.

Bazkalondoan, 15:30etik 18:00etara Plan Estrategikoaren 2. zatia ikertuko da, horren ondoren Jardunaldien itxiera egiteko. Hori amaituta, 19:00tik 20:15era arte Korrikak Euskaltzaindiari omenaldia eskainiko dio.

6.2. Eusko Jaurlaritza, Euskararen Aholku-Batzordea.

Lau azpibatzerde edukiko ditu Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak: Toponimia, Terminologia, Euskara 21 eta IKT. Aurreko batean, lehenbiziko bi azpibatzerdeetarako, Euskaltzaindiaren ordezkariak izendatu ziren, baina garrantzizkoa da, halaber, beste bi batzerdeetan ere Euskaltzaindiak ordezkari bana izatea. Horiek horrela:

- IKT Batzerde-atal berezirako, Andoni Sagarna, Iker sailburua, proposatu da.
- Euskara 21 Batzerde-atal berezirako, Andres Iñigo, Jagon sailburua, proposatu da.

6.3. Euskararen Erakunde publikoa.

Euskararen Erakunde Publikoko Aholku Batzerdean Euskaltzaindiaren ordezkaria Jean-Baptiste Coyos euskaltzain osoa proposatu da.

7. Azken ordukoak

7.1. Henri Duhauren eskaria.

Henri Duhau jaunak, Corpus batzerdeko eta Euskalkien batzerdeko partaide denak, Euskaltzaindiari gutun bat igorri dio, batzerde horietako kide izatetik osasun arrazoiengatik aholkulari izatera igarotzeko eskatuz. Eskaria onartu egin da.

Batzarra 11,55etan amaitu da, ondoren ageriko bilkurara joateko.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2011ko otsailaren 25ean

Bilbon, 2011ko otsailaren hogeita bostean, egoitzan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain Osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Jean-Baptiste Coyos, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealдай, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzaina: Joseba Intxausti

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Euskaltzainburuak hitza hartu du ekitaldiaren nondik-norakoa azalduz. Horren ostean, hitza eman dio Joseba Intxausti euskaltzain oso eta Euskararen Historia Soziala egitasmoaren buru denari. Honek, *Euskararen Historia Soziala (EHS)*. *Argibide bibliografikoak* izenburua daraman liburua aurkeztu du.

Jakina denez, Liburua Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak paratu du, eta Etxeberrri bilduma berriaren lehen zenbakia da. Etxeberrri bilduman (EHS) euskararen historia soziolinguistikoki buruzko lanak –agiriak eta ikerlanak, idazlan berriak eta lehendik sakabanatuta daudenak– biltzen dira. Euskaltzaindia Euskararen Historia Soziala (EHS) egiten ari da, eta horretarako sortua du Mikel Zalbide eus-

kaltzainak zuzentzen duen Joanes Etxeberri egitasmoa. Hala bada, *Euskararen Historia Soziala* (EHS). *Argibide bibliografikoak* argitalpenaren helburu nagusia EHS ezagutu ahal izateko eskura dauden argitalpenak aurkeztea izan da, liburuak eta artikulatuak bilduz.

Orotara, 4.440 erreferentzia jasotzen ditu liburuak, eta hizkuntzaren historia sozial orokorrera hurbiltzeko bibliografia hautatua eskaintzen du: 1.657 liburu, 1.955 artikulatu eta 828 hitzaldi edo liburu-kapitulatu. Euskararen iragan soziala jakin eta arakatu nahi dutenentzat pentsaturik dago argitalpena, eta bereziki ikertzaile eta ikertzaile-gaiontzat egin da bilketa hau. Batez ere, ikertzaile gazteak izan ditu gogoan Euskaltzaindiak. Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola Euskaltzaindiko teknikariek ere lan egin dute liburu honetan.

Jobesa Intxaustiren aurkezpenaren ondoren, euskaltzainburuak hitza eman dio Mikel Zalbide euskaltzainari. Honek, *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen saioa* liburua aurkeztu du. Liburu hau, Jagon bildumaren barruan argitaratu da, bilduma honen hamaikagarrena izanez.

Liburu honen abiapuntua 2007an Euskaltzaindiak egin zituen Jagon Jardunaldietan dago. Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarri Legea 25 urte betetzen zituenez, legeak mende-laurdenean izandako bilakaeraz gogoeta-saioa egin zen aipatu jardunaldi horietan. Alde askotatik jorratu zen gaia: administrazioa, kulturgintza, komunikabideak... Mikel Zalbide euskaltzain osoak parte hartu zuen jardunaldietan, eta hezkuntza alorreko bilakaeraz balioespen tekniko egin zuen. Liburu hau da ordukoaren emaitza.

Liburua perspektiba soziolinguistikotik idatzia dago, baina beste hainbat alor ere hartzen ditu kontuan: jurilinguistika, hezkuntza elebiduna, demolinguistika eta, ororen gainetik, euskara indarberritzeko saioan hezkuntza alorreko aplikazio-neurrien ekarpena. Gizarte giroa –1982koa, 2007-08koa–, A, B eta D ereduak ordutik hona izandako bilakaera, emaitzak, erronkak... hori guztia aztertzen da. Bestalde, hauek bezalako galderekin liburuan dute erantzuna: Ondo egin al dira gauzak eskola-munduan? Betetzen al da legea? Zertan asmatu da? Lana azken gogoeta-saioak amaitzen da.

Ageriko bilkurari segida eman zaio Etxepare Institutuaren aurkezpenarekin. Aurkezpenean, Aizpea Goenaga zuzendari nagusiak eta Mari Jose Olaziregi Euskararen Sustapen eta Hedakuntzarako Zuzendariak parte hartu dute. Mahaian, Jose Luis Lizundia diruzaina eta Etxepare Institutuko zuzendaritzako kidea ere egon da.

Institutuaren nortasuna eta zereginak azaldu dizkiete bertaratutakoei Goenagak eta Olaziregik. Horiek horrela, munduan euskal kulturari leihoak zabaltzea da Etxepareren helburua; beraz, dituzten asmoak, izenpetu dituzten hitzarmenak, eta abar azaldu dituzte.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da ageriko bilkura, ekitaldian zehar esku-hartu duten guztien aurkezpenak eskertu eta gero, eguerdiko 13:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Donostian, Kursaal, 2011ko martxoaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, buruordea
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealдай, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Videgain, Xarles
Joseba Zabaleta, kudeatzailea eta
Erramun Osa, idazkariordea.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita, ahala Jose Luis Lizundiari; Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori; Mikel Zalbidek, ahala Andres Urrutiari.

Akademiaren XVII. Barne Jardunaldiak goizeko 12,35ean hasi dira Donostiako Kursaal Jauregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak bilduriko akademiako guztiak agurtu ondoren, batzarrari hasiera eman zaio.

Aurkezpena, Andres Urrutiak, euskaltzainburuak.

Euskaltzainburuak aurkezpena egin du. Hasteko, Euskaltzaindiaren aginduz 2009an SIADECOK egindako Inkesta Soziologikoa kontuan izanda, haren ondorioak gogoratu ditu: Akademiaren barneko baliabideak optimizatu, finantzaketa-bide berriak lortu, barne-komunikazioa hobetu, Euskaltzaindiaren

lana gizarteratu, erakundearen presentzia gizartean areagotu, jarduera arau-emailea eraginkorragoa egin, erakunde eta profesionalei zerbitzu-eskaintza hobea ziurtatu, ahozko hizkera-moldeak landu eta hizkuntza mintzatuaren erregistroak kontuan hartu, euskararen erabilera sustatu, euskalgintzako eragile eta profesionalek Akademiari eskaturiko egitasmoen lehentasuna eman beharra nabarmendu dira.

Ondorioz eta horren datuen argitan, Zuzendaritzak plan estrategiko bat prestatu du, Euskaltzaindia euskararen munduan erreferentziazko erakunde ofiziala izan dadin, nortasun osokoa eta iritzi ezberdinen biltzaile, euskararen herrialde guztietan sustraitua eta, euskararen normalizazioan jardun dezan, beti ere bikaintasunaren bidean abiatu, XXI. mendeko teknika eta lanabesak baliatuz. Prestatu duen Plan Estrategiko horren hezurdura gaur euskaltzainei aurkezten zaie. Horren helburua, 2011-2012 epealdian gaurko baliabideen erabileran Euskaltzaindiaren funtzionamendua hobetzea da.

Kontuan hartzeko balioak: euskara arautu eta ikertzea, hizkuntza gizartean zabaldu eta zaintzea, gizartearen zerbitzuan egotea, gizarteko agintari eta euskalgintzako kideekin harreman onean egotea, darabiltzan baliabideak egokiro kudeatzea, emaitzak gaur egungo parametro estandarretan eskaintzea eta erakundearen arlo eta pertsona partaide guztien arteko harremanak era orekatuan mantentzea.

Ondoren, ildo estrategikoak azaldu ditu A. Urrutiak: Akademiaren ikertze eta arautze-lana sendotu, gizartearen premien araberakoa eta ezagunagoa izan dadin, teknologia berrien laguntzaz eta finantzabide egonkorak izateko. Prozesua garatzeko metodologia eta kronograma ere proposatu ditu euskaltzainburuak, bi azpibatzorderen bidez gidatzekoak. Izkribuz xehatu eta azaldu diren ildo nagusien xehetasunak argitu eta eztabaidatzeko aukera egon da eta, apiril-maiatzetan euskaltzainek testua astiro irakur eta kontsideratu ondoren, ildo nagusiei buruz beren oharrak eta zuzenketak bidal ditzakete, maiatzeko batzarrean, hala balegokio, testua berresteko. Uztaileko osoko Bilkuran plan estrategikoaren ildo nagusiez gainera, azpi-ildoak eta garatze-fitxen kontu emango du zuzendaritzak, azkenean, irailaren batetik plana indarrean jar dadin.

Plan estrategikoaren ildo estrategikoak azaldu dira; hona hemen:

1. ildo estrategikoa: Ikerketa eta aragintza indartzea eta sustatzea, horren azpi-ildoak eta ardatzak xehatuz, hots, euskararen ikergunea martxan jarri, batzordeen, egitasmoen eta zerbitzuen etekin akademikoak koordinatzeko bideak ikertu, euskararen erreferentzia Corpusaren proiektua zehaztea eta aragintza arloetan aurrera segitzea batzorde ahaldunduen bitartez.

2. ildo estrategikoa: Euskaltzaindiaren lana gizarteratzea eta gizartearekiko harremanak sendotzea litzateke. Hemen bi azpi-ildo aurreikusten dira: a) euskararen erabilera sustatzeko egitasmoetan parte-hartze handiagoa izan gizarteko beste arloetako partaideekin, eta b) hizkuntzaren corpusari buruzko aholku eta kontsulta zerbitzuetan erakunde eta profesionalei zerbitzu-eskaintza hobea ziurtatzeko urratsak egitea.

Ardatzak hiru lirateke: 1) hizkuntzaren kalitatearen behatokia sortzea, 2) Beste erakundeekin koordinatu eta haiekiko hitzarmenak egitea, eta 3) ongi egindako lanaren aitormenak egitea: Euskaltzaindiaren sariak eta Erlea sariak alegia.

3. ildo estrategikoa: Euskaltzaindiaren lana are ikusgarriago egitea, zerbitzuen bitartez eta teknologia berrien erabilera bultzatuz, horrela Euskaltzaindiaren lana era egokian proiektatzeko. Horretarako ardatzak: Prentsa eta komunikazio zerbitzua eta informatika zerbitzua bizkortu; Azkue Biblioteka biziberritu; argitalpen eta zabalkunde zerbitzuak uztartu eta bizkortu; onomastika zerbitzuari laguntza eman, kontsulta-kudeaketa eta aholkularitza hobetzeko; instituzioei, onomastikarekin duten arduran lagundu; ziurtagiri eta irizpenak prestatu, onomastika-gaien artxibo eguneratua izan eta onomastika gaiak gizarteratzeko planifikatu. Azkenik, egoitzan zein ordezkartizetan erabiltzaileekiko harremanak eta harrera ona zaintzea.

4. ildo estrategikoa: Erakundearen barruko lana eraginkorrago bilakaraztea. Giza baliabideak, ekonomikoak, tekniko eta materialak eraginkorrago bihurtu; Egiturako organoak osatzeko irizpideen, antolaketaren, lan-prozesuen prozeduren eta egitasmoen kudeaketa nahiz jarraipenaren gaineko azterketa egin, efizientzia adierazleak hobetzeko helburuaz. Erakundearen antolaketaren berrikuste-lana, eta bezeroen eskari eta premiekin bat ote datorren ikustea.

Ardatzak honako hauek lirateke: 1) Zerbitzuen prozedurak definitu eta prozesuak kudeatzea; 2) Kontratu-programa kudeatzea, ikuspegi akademiko nahiz ekonomikotik; 3) Giza baliabideak kudeatzea; 4) Aurrekontua kudeatzea.

5. ildo estrategikoa: Finantzabide berriak lortu, diru iturriak dibertsifikatu eta erakundearen finantza egoera egonkortzea.

Azpi-ildoak: 1) Egitasmoetarako babesleak lortu, banakoen eta enpresen sostengua izaten ahaleginduz; 2) Administrazio publikoaren finantzaketaz gainera, aparteko diru-iturri berriak lortu.

Ardatzak, berriz, honako hauek lirateke: 1) Diru iturri berriak eskuratzea; 2) Euskaltzaindiak dituen edo eman ditzakeen zerbitzuen ustiaketa ekonomikoa areagotzea.

Ondoren, A. Sagarna Iker sailburuak aurkeztu du bere txostena: **Euskaltzaindia gizarteari entzunez, etorkizunari begira**. Sarreraren ondoan, lanaren xedea ere azaldu du. Diagramen bidez Euskaltzaindiaren eginkizunak erakutsi ditu, prozesu estrategiko, prozesu ardatzen eta prozesu lagungarrien bidez.

Aurrera segitu baino lehen, Euskaltzaindiak oso argi eduki behar du norantz joan nahi duen. Bestalde, noraezekoa da gizarteak Euskaltzaindiaren erakunde-identitateari buruz dituen iritzi nagusiak kontsideratzea, bai alderdi positiboak: behar-beharrezkoa da eta itzal handikoa, izaera zientifikoa du; eta hobetu beharrezkoak ere bai: errealitate soziolinguistikotik gertu egoteko zailtasunak ditu, hurbilago eta errazago behar luke, eta modernoago eta dinamikoago ere bai.

Iritzi horiek eta Euskaltzaindiaren funtzionamenduari buruzko usteak (ikerketa, gramatika, lexikografia eta neologia, onomastika (honi zabalkunde handiagoa eskainiz), literatura, Atlasa, aholkularitza, zerbitzu eta webguneari buruzkoak bana-banako apartatuetan islatu ditu. Aurrera segituz, azterketa bera erakutsi du Azkue Bibliotekaz (ordutegia, digitalizazioa eta sarean jartzea, biblioteka ezagutaraztea, giza baliabide eta baliabide ekonomiko gehiago esleitzea). Jagoneti dagokionez, Euskaltzainditik kanpora zerbitzu hau erazagutzeko, sustapenen ahalgina egin beharko litzateke. Gauza bera eskatzen zaio, halaber, Onomastika zerbitzuari ere.

Prentsa eta komunikazio zerbitzuari dagokionez, erabiltzaileetako % 4k ez deritza egoki, % 35k nahikoa egokia, %9ren ustez oso egokia eta % 53k ez dute baloraziorik egiten. Interesgarriak dira, halaber, Euskaltzaindiaren araugintzari doazkion iritziak, gehienek beharrezko eta egoki baiteritzete arauai.

Erabileraren sustapenaz gehienik azpimarratzen dutena euskalgintzako erakundeekin elkarlanean jardutea da. Era berean, beharrezkotzat jotzen dute dibulgazio eta komunikazioan estrategia zehaztu eta horren arabera ekintza-plana abian jartzea. Ondorioz, Euskaltzaindiak lanean jarraitzean on luke erabiltzaileen ohar, kexa, eskari eta aholku horiek kontuan bederen hartzea.

Ondoren, Euskaltzaindia gizarteari entzunez etorkizunari begira, inkestan jasoriko erantzunetatik gure erakundeak, zuzen edo oker, jendeagan islatzen duen itxura antz eman daiteke, horko kritiketatik atera daitezkeen ondorioekin.

Iker sailburuaren aurkezpenaren ostean, **bost ildo estrategikoak, azpi-ildoak eta ardatzak aurkeztu dira**. Horrezaz gain, ildo estrategiko bakoitzeko fitxa bana, eta planifikazio fitxa bana ere aurkeztu da, egin nahi den plan estrategikoa irudikatuz.

Barne erregelak eguneratzearen aurkezpena, Andres Urrutiak (euskaltzainburua), Xabier Kintanak (Idazkaria) eta Jose Luis Lizundiak (Diruzaina) aurkeztuak, aldaketen arrazoiak argituz,

Denbora iragan ahala, Euskaltzaindiaren barne erregela batzuk desfasaturik, urriegi edo zehaztasunik gabe gelditu direlako, Zuzendaritzak horietako batzuk zuzendu, aldatu edo kentzea proposatu nahi du. Horretarako, bakoitzaren testua banatu da, aldamenean hautabidezko testua erantsirik, horretarako arrazoiak emanez, gero euskaltzainek beren iritzia eman dezaten, aldaketa onetsi edo gaitzesteko.

Aldakizunak hauek dira:

1. art. Nortasun juridikoa eta xedeak (gehitu): 1.13.
2. artikulua. Oinarri antolatzaileak (testu berria): 2.2. eta 2.3.
14. art. Zuzendaritzaren egitekoak (testu berria) 14.16.
25. art. (testu berria) 25.1.
32. art. Idazkariordearen ahalak eta egitekoak. Moldatu eta xedapen berriak:
32.4. eguneratu, 32.5 eta 32.6 gehitu
34. art. Kudeatzailearen ahalak eta egitekoak. Moldatu eta xedapen berriak:
34.2., 34.3., 34.4., 34.5., 34.6., 34.7.
34. bis art. Batareazintasunak (artikulu berria)
- 34.ter art. (artikulu berria): 34.ter.1., 34.ter.2., 34.ter.3., 34.ter.4., 34.ter.5., 34.ter.6.,
34. quater art. (artikulu berria): 34 quater 1., 34 quater 2., 34 quater 3., 34 quater 4., 34 quater 5.
- 39 art. Ordez kariaren egitekoak (gehitzeko): 39.3.
- 45.art. Testu berria eransteko.
55. art. Testua ordeztzeko.
- II.4 puntua, Atalaren izena osatzeko: II.4. Egitasmoak eta ikerguneak (gehitzeko).
57. art. Egitasmo bereziak (gehitzeko)
60. art. Egitasmoen langileak (gehitzeko)
62. art. Euskaltzaindiaren zerbitzuak (gehitzeko)
63. art. Zerbitzuen araubideak (gehitzeko)
69. art. Ondarearekiko xehetasunak (gehitzeko): 69.12
81. art. Kudeatzailearen izendapena (azken lerrokada ezabatzeko)
94. art. Bibliotekako langileen zuzendaritza (gehitzeko)
103. art. Argitalpenen aurkezpena eta zabalkundea (testua gehitu)
122. art. Webgunearen ibilbidea (testua aldatu eta gehitu): 122.3 eta 122.4.

Aurkezpenaren ondoan, proposatu diren puntuei buruzko elkarriketa izan da. Tx. Peillenek galdetu du: diru-laguntzak jasotzeko orduan ez da inoiz Europa aipatzen. Zergatik?

J.L. Lizundiak azaldu du Bruselaren aurrean egindako gestio gehienak alferrik izan direla, eta esperientzia kaxkarrak. Hobeak 3 Diputazioekin, Nafar Gobernu edo Jaurilaritzaren bidez egindakoak.

M. Azkaratek, Europara joateko indar handia behar dela esan du. Ez du ikusten Euskaltzaindiak berak bakarrik egin dezakeenik, ezin baititu baldintza horiek bete.

Edonola ere, katalogoan sartzeko proposamena idatziz egitea eskatu dio Urrutiak Peilleni.

Zer egin dezake Euskaltzaindiak Etxepare institutuarekin? A. Urrutiak esan du, lehen pausoak egin direla.

J. Haritschelharrek: esperientziaren arabera, Akitaniarekin zerbait egiteko pape-
reria ugari erabili behar da, ondorioz deus gutxi lortzeko. J.L. Lizundiak: horiekin
elkarkidetzan zerbait lor daiteke, baina haiengandik zuzenean dirurik ez.

A. Arkotxak: Akitaniarekin zerbait lor daiteke, Bordeleko Kontseilu Erregiona-
leko Patrice Brun-en bidez, Nafarroarekin zerbait ere egin litekeela aipatu du.

Euskaltzainen eskuetan 3 txosten ezberdin geratu dira:

1. Euskaltzaindiaren plan estrategikoa 2011-2012.
2. Euskaltzaindia gizarteari erantzunez etorkizunari begira.
3. Barne-erregelak eguneratzea. Aldaketa proposamenak.

Iruzkinak, oharrak eta zuzenketak aurkeztu ahal izateko epea zehaztu da: maia-
tzaren hamarra.

Amaieran, Idazkariordeak, Barne Jardunaldien ondoan AEK-Korrikak Euskal-
tzaindiari eginen dion omenaldirako ezaugarriak eta programa azaldu ditu.

Batzarra 17,35ean amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Donostian, 2011ko martxoaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, buruordea
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Videgain, Xarles
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,

Erramun Osa, idazkariordea,
Mikel Gorrotxategi,
Patxi Galé,
Alfontso Mujika,
euskaltzain urgazleak
zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejitak, ahala Jose Luis Lizundiari; Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutia-ri; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñi-gori; Mikel Zalbidek, ahala Andres Urrutia-ri.

Batzarra goizeko 10,06etan hasi da Donostiako Kursaal Jauregian, ezkerreko zutabea ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak bilduriko akademi-ko guztiak agurtu ondoren, batzarrari hasiera eman zaio.

1. Aurreko akta onartzea. Oharrik ez da heldu eta, beraz, aurreko batzarra-ren akta ontzat eman da.

2. Onomastika.

2.1. Euskal Herriko ibaien izenak (VIII), zerrenda onartzea.

A. Iñigok esan du jarritako epean oharrak ez dela aurkeztu. P. Galek eta M. Gorrotxategik zalantza batzuei buruzko oharrak egin dituzte. Obanos-ko *Aguasalada* dela eta, M. Gorrotxategik esan du *Gezala* moduko datuak agertzen direla baina ez dagoela lekukotasun nahikorik. P. Galek, berriz, *Sansoain/Sausaïne* izenetan diren zalantzak azpimarratu ditu. *Duiderra* ibai izena, aldiz, onartu da.

2.2. Euskal Herriko ibaien izenak (IX), zerrenda aurkeztea. P. Galek azaldu du, zerrenda honetako izen gehienak erdaraz ageri direla. Oharrak egiteko epea apirilaren 14a, maiatzeko bileran aurkeztu ahal izateko. *Keiles/Kailes* aldaera dela eta, J.L. Lizundiak galdera egin du, Aragoiko dokumentazioaz hori ebatz litekeela uste du eta.

3. Exonomastika.

3.1. «Arabieratik euskararako transkripzioa onartzea». J.L. Lizundiak azaldu du M.L. Oñederraren ebakerari buruzko oharra jaso dela, eta ontzat hartu da. A. Mujikak, horren gainean, arabierazko transkripzioaren kasuistika korapilatsua azaldu du. Transkripzio-aula, oharraren arabera egokitua, ontzat eman da.

3.2. Siriako eta Libanoko toponimia onartzea. Frantziaren behialako agindupeko geografi eremu horietako kasuistika J.L. Lizundiak azaldu du. Toponimoak, halaber, onartu dira.

3.3. Irak, Jordania eta Egipto. Toponimia aurkeztea. Ingelesaren agindupeko herrialdeetako izen historiko zaharrekina batera, oraingo toponimoak ere sartu dira, Israel eta Palestinakoak, ordea, hurrengorako utzirik. Oharrak apirilaren 30erako bidali beharko dira. P. Salaburuk kh digrafoaren erabileraz argitasunak eskatu ditu, eta, nazioarteko erabilera zabalaren arabera jokatu dela azaldu zaio, horrekin [x] fonema adierazteko.

4. Hiztegi Batuko bigarren itzuliko k-z tarteko sarrerak aurkeztea. A. Sagarnak aurkeztua. Oharrak izan dituzten hitzak zerrenda batean ekarri ditu, erabaki-proposamenarekin. P. Goenagari erantzunez, I. Sarasolak esan duenez, zerrenda informatiboa da. Patxi Uribarrenek ere ohar berbera egin du, informaziozkoa dela azpimarratzeko. Euskaltzainen oharrak, dena den, apirilaren amaierarako etor daitezke.

5. Eskuartekoak:

5.1. BBK eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena sinatu da. Kudeatzaileak argitu du, horri esker, 175.000 euro gehiago lortu direla, egitasmoetan aplikatzekoak.

5.2. Fernando Mendizabal euskaltzain urgazlea hil da. Albistea *Plaza Berri*-n jaso da. Eskela atzoko *Berria*-n jarri zitzaion. Hilberri txostena egiteko, Joseba Intxausti proposatu du Zuzendaritzak eta osoko bilkurak onetsi du. Osoko Bilkurak familiari doluminak adieraztea erabaki du.

5.3. Euskaltzaindiko langileek eta Zuzendaritzak bidaliriko oharrez. Azken asteotan, alde batetik Euskaltzaindiko langileek eta, bestetik, Zuzendaritzak euskaltzainei bidaliriko oharra direla eta, A. Urrutiak argi utzi nahi izan du arazoaren testuingurua, alegia, lan-hitzarmenaren negoziaketa. Lehenik eta behin, horretarako negoziaketa zein den gogoarazi du, hau da, Batzorde Parekidea, eta hortxe biltzen direla langileen bi ordezkariak eta Zuzendaritzaren beste biak, hots, Iker sailburua eta kudeatzailea.

A. Urrutiak Euskaltzaindiak negoziatzen segitzen duela esan du eta dagoeneko, oporren gaia, gatazkatsuen izan daitekeena, langileekin adostua dagoela 2011. urterako. Dena den, egoera argitzeko, egokiena lan-baldintzak zertan diren azaltzea dela uste du. Andoni Sagarnak horien historia egin du. Hasierako partaideak A. Sagarna eta A. Iñigo izan ziren, baina geroago, A. Iñigoren ordezkari, kudeatzailea jarri zen.

Langileen aburuz, baldintza horietatik lanordu-kopurua eta soldadak ukiezinak dira. Honetaz, Jauraritzak soldatetan % 5 jaitsi arren, Euskaltzaindiak bere langileei ez diela ezer eraitsi nabarmendu da. Oporrak, egun libreak etab. aztertu ondoren, argi ageri da protesta-gutunaren sustraiak zeintzuk diren. Opor egunei dagoeneko, oinarritzat horiek abuztuan hartu beharko dira, lehenago ere adosturik zegoenez.

M. Azkaratek, gauzak argitze aldera, Lakuan goiz eta arratsalde egiten dela lan esan du, eta, halere, problemak egoten zirela opor eta egun-libreen erabileran.

J. L. Lizundiak, goiz-arratsaldeetako ordutegiaz, ekipazioaren garaiko argitasunak aipatu ditu. Era berean atezainaren ordutegiaren problema berezia ere ukitu du, postak eta beste zeregin batzuek dakarzkieten denbora-gorabeherekin.

P. Goenagak Bibliotekako arratsaldeko ordutegiaren arazoa gogoratu du, baina uste du, hori, teknologia berriekin konpon litekeela.

P. Uribarrenek, bere esperientziaz baliatuz, gogoratu du, Bizkaiko Diputazioko administrazioan, dedikazio arrunteko eta dedikazio bereziko postuak bereizten direla, eta agian Euskaltzaindian ere antzeko zerbait egin litekeela.

6. Azken ordukoak:

6.1. Koldo Mitxelena Sariak. Apirilaren 4an, goizeko 11etan, Euskaltzaindiaren Egoitzan, Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak *Koldo Mitxelena Sariak* emango dituzte.

6.2. Elgoibarko ahozko euskara. Aurreko ekitaldiaren ondoren, halaber, Euskaltzaindiaren Iker saileko 25. tomoa, *Elgoibarko ahozko euskara* deritzona, Jesus Mari Makatzagaren doktore-tesia, aurkeztuko da egun eta leku berean.

6.3. Lino Akesolori omenaldia Diman. Apirilaren 15ean, Lino Akesolo karmeldarra zenari omenaldia egingo zaio Diman, bere jaioterrian, eta bertan, goizean, **Corpus Batzordea eta Onomastika Batzordea** bilduko dira. Arratsaldean Udaletxeko Areto Nagusian, ageriko bilkuraz, Ekitaldi irekia izango da, L. Akesolori buruzko omenezko hitzaldiekin. Hark itzuliriko salmoen berrargitalpena ere aurkeztuko da, Euskaltzaindiarekin partaidetasunez plazaratua. Bai ekitaldietarako, eta bai bertan bazkaltzeko ere, gonbitak igorri dizkiete Alkateak eta Lorea Bilbaok euskaltzainei.

6.4. Sarako liburu azokarako 4 liburuak: Apirilaren 25ean, Saran antolatutako den Liburu Azokan, Euskaltzaindiak honako lau liburuok aurkeztuko ditu: *Egiategiren filosofo hüskaldunen ekheia* (bigarren liburukia); paratzailea: Txomin Peillen. *Gratien Adema «Zaldubi»: Alegiak eta bertze neurtitzak*. Henri Duhau-ren edizioa. *Kadet eta Bettirriño*. Manuel Padilla-ren edizioa. *Gramatika Emendakinak*. *Zuberoako euskaraz*. **Jüje Etxebarne.**

6.5. Hizkuntz Atlasaren III. tomoa jada inprimatua dela azaldu zaie euskaltzainei. Donostian eta Iruñean aurkezteko asmoa dago, eta, ahal bada, Baionan ere bai. Data oraindik erabakitzeke da.

6.6. Hurrengo osoko batzarrak. Apirilean ez dela osoko bilkurarik egingo jakinarazi da. Hortaz, Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra, Bilbon edo Donostian egingo da, hots, maiatzaren 27ean, ohi bezala, goizeko 10etan.

Ekaineko batzarra, aldiz, Maulen izanen da, eta bertan Jean Baptiste Coyosek bere sarrera-hitzaldia egingen du.

Osoko batzarra amaitzean, Idazkariordeak, arratsean, Barne Jardunaldien ondoan, AEK-Korrikak Euskaltzaindiari omenaldia egingo diola gogorarazi du.

Batzarra 12etan amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Diman, 2011ko apirilaren 15ean

LINO AKESOLOREN MENDEURRENA (1911-2011)

Diman, 2011ko apirilaren hamabostean, udaletxean, Lino Akesoloren jaiotzaren mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Adolfo Arejita, Patxi Goenaga eta Patxi Uribarren.

Ohorezko euskaltzainak: Gorka Aulestia eta Luis Baraiazarra.

Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Pruden Gartzia, Xabier Mendiguren, Pasqual Rekalde, Dorleta Alberdi, Jesus Mari Makazaga, Pello Esnal, Juan Luis Goikoetxea eta Rikardo Badiola.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindiak Dimako Udalarekin batera Lino Akesolo euskaltzain osoaren jaiotzaren mendeurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu. Egunean zehar, Akademiaren Gramatika batzordea, Onomastika batzordea eta Corpus batzordea bildu dira. Arratsaldeko 18:30ean, berriz, udaletxearen aurreko Plazan, aureskua dantzatu da, eta herriko abesbatzak kanta bat eskaini du. Gainera, Lino Akesoloren omenezko plaka bat ere erakutsi dute Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jose Ramon Garai Dimako alkateak. Ondoren, Ageriko bilkura eskaini da Udaletxeko bilkura aretoan.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 95-174. Bilbo
ISSN 0210-1564

Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman dio Ageriko bilkurari, ekitaldiaren nondik-norakoa azalduz eta Lino Akesolok euskararen alde egindako ahaleginak eta hartutako nekeak azpimarratuz. Segidan, Julen Urkiza *Karmel* aldizkariaren zuzendari eta historialariari eman dio hitza. Honek, «Lino Akesoloren izaera dela eta» hitzalditxoa eman du.

Julen Urkizak ondo ezagutu zuen Lino Akesolo, batez ere *Karmel* aldizkariari esker -Akesolo ere aldizkariaren zuzendaria izan baitzen- eta baita Idazlan guztiak prestatzen aritu izan zenean ere. Gizon egiazale eta apala zela azpimarratzen du Urkizak, eskuzabala eta beti laguntzeko prest zegoena: «Bere jakintza besteen zerbitzuan jartzen eban apaltasunez, hainbat pertsonari lagunduz... Zenbat lan anonimo egin ete eban bere bizitzan, baita komentuan be...! Umoretsu, ironiko, kritikozorrotza ere bazen, eta bere iritzia emateko askatasuna erakusten zuen. Honen haritik, honako anekdota du gogoan Urkizak: «Jakintsu batzuk be euren bildurtxoa eukuen Linoren iritzien aurrean: adibidez behin, Luis Mitxelenak, hitzaldi baten aurretik isilean Linori esan eutson: «mesedez, zuk ez egin komentariorik, esatekotan, gero neuri esan».

Egiaren aldekoa beti, Julen Urkizaren berbetan. «Eztabaida eta auzi-mauzietan sartzen zanean, ustez behintzat, egiaren alde egitearren sartzen zan; batzuetan idazlan laburretan egingo dau egiaren alde eta arinkeriaz idatzitako idazlanen aurka, umore-tanta batzuk be isuriz; beste batzuetan euskal literaturako balioak aurkituz eta aurkeztuz joango da, edota santu barriak ezagutzero emonaz».

Horren ostean, Luis Baraiazarra euskaltzain ohorezkoak «Lino Akesolo eta euskaltzale lagunak» izenburua duen testuaren irakurraldiari ekin dio. Euskaltzaleekin izan zituen harremanez mintzatu da Luis Baraiazarra, eta izen batzuk izan ditu gogoan: Iratzeder, adibidez, harekin harreman «estu-estua» izan zuelako. Hala, lapurterazko *Salmoak* bizkaierara egokitzen ibili zenean, Iratzeder sarri etortzen zitzaion bisitan, Begoñara. Baraiazarraren gogoan, «afaltzen gurekin izaten zan eta bihar-munean Aita Linok eta biak ordu luzeak igarotzen zituen elkarrekin Salmoen bizkaierazko bertsioa eratzen, egokitzen, orrazten».

Bertsolaritza ere asko maite zuen Akesolok, eta hainbat bertsolarirekin sarri egoten zen. Baraiazarrak gogoan duenez, urte haietan Elizaren babespera jo behar zuten bertsolariek, eta Markina-Xemeingo Karmeldarretan ospatzen zen urtero «Bertsolari eguna» urriaren 12an. Lino Akesolo ere urtero joaten zen, Basilio Pujana Zeanuriko bertsolaria lagun zuela. Donostiako Karmeldarren Priore izan zenean, euskaltzale eta idazle askorekin izan zituen harremanak, eta Nemesio Etxa-

nizekin ia egunero izaten zen, «honek, Karmeldarretako kapera baten meza emon ondoren, euskal kulturako mundutxua Aita Linorekin polito astindu barik ez eban handik alde egiten-eta».

Jesus Gaztañaga, Jokin Zaitegi, beneditar euskaldunak -batez ere Lazkaokoak- Mikel Zarate, Karmelo Etxenagusia edota Joan Mari Lekuona izen ziren Lino Akesoloren lagunak.

L. Baraiazarraren saioa amaitzean, Patxi Uribarren euskaltzain osoari hitza eman dio euskaltzainburuak. Honek, «Lino Akesolo, irakurle aseezina, ikertzaile sakona, hiztegitze zorrotza» izenburua daraman hitzaldia eskaini du.

Lino Akesolo irakurle aseezina izan zen, beti esku artean liburu bat zuela, eta Patxi Uribarrenen esanetan, «jakingura aseezin hori izan zan, izan bere, bizitza osoan zehar barru-barrutik jakituria bila bultzatzen eban ezten zorrotza».

Ikertzaile sakona zela azpimarratzeko, Julen Urkizak Idazlan guztiak lanean jaso zuen klasifikazioa du gogoan Aramaioko euskaltzainak. Ikerketa-lan zabal hori burutzeko, biblioteca eta artxiboetan eten barik lan egin zuen Akesolok eta horrek, Uribarrenen ustez, mesede handia ekarri die gaur egungo ikertzaileei. Hiztegitze zehatza ere izan zen Lino Akesolo, eta, Uribarrenen iritziz, «Aita Linok urteetan zehar euskararen alde egindako lanik handiena hiztegitze gintzan egindakoa dogu». Hori dela eta, eskari zuzena egin nahi du P. Uribarrenek: «Beharbada, Lino Akesolori egin deikion omenaldirik ederrena, bere lanak digitalizatu eta saretik eskaintzea litzake».

Miren Dobaran Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Sustatzeko zuzendari nagusiaren hitzak etorri dira segidan. Lino Akesoloren ekarriaz, euskararen indarberritzeak dituen erronkez, herritarren atxikimenduak daukan garrantziaz jardun du zuzendariak. Amaitzeko, Jose Ramon Garai Dimako alkatearen hitzak etorri dira. Dimako herritar entzutetsuaren ereduaz eta ekitaldiaren esanahiaz jardun du laburki, herritarrak haien hizkerari eusteko eta nonahi baliatzeko duten eginbeharraz, egin dezaketen ekarpena azpimarratuz.

Hitzaldiak eta amaitu ostean, bertaratu diren guztiei Lino Akesolok bizkaieraz paratutako *Salmoak* liburua oparitu eta aho-gozagarria eskaini zaie.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Donostian, 2011ko maiatzaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren ,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oihartzabal, Beñat,
Peillen, Txomin,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Torrealдай, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Videgain, Xarles eta

Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Erramun Osa, idazkariordea,
Mikel Gorrotxategi,
Patxi Galé,

Alfontso Mujika,
euskaltzain urgazleak
zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arko-
txak, ahala Miren Lourdes Oñederra
edo Xarles Videgaini; Bernardo Atxa-
gak, ahala A. Urrutiari; Miren Lourdes
Oñederrak, ahala Aurelia Arkotxa edo
Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik,
ahala Andres Iñigori; Ana Toledok,
ahala Mikel Zalbideri; Patxi Zabaletak,
ahala Andres Iñigori; Mikel Zalbidek,
ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 9,14an hasi da Gipuz-
koako Diputazioaren Jauregian, ezke-
rreko zutabearen ageri diren euskaltzai-
nak bertan direla.

0.1. Agurra eta hasierako oharra:
Euskaltzainburuak, bilduak agurtu on-
doren, jasoriko ahalak adierazi ditu.

0.2. Aurretiko ohar gisa, biltzarra
goizeko 11,30ak arte izanen dela gogo-
ratu du euskaltzainburuak. Gero, *Hiz-*

kuntza Atlasaren III. tomoaren aurkezpena egiteko, euskaltzain guztiak Victoria Eugenia Antzokiko Club aretora joanen dira. Ondoren Bazkaria izango da, Okendo jatetxean.

0.3. Zorionak hautatuei: A. Urrutiak, halaber, Miren Azkarate eta Patxi Zabaleta euskaltzainei zorionak eman dizkie, azken hauteskundeetan batak Donostian eta besteak Nafarroan lortu dituzten emaitzengatik; kasu bietan, segur da hautapen horiek euskararen aldeko aurrerapausoak izanen direla.

1. Aurreko akta (2011-03-25) onartzea. Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da. J. L. Lizundiak, ordea, aita Lino Akesolo karmeldar eta euskaltzain urgazlearen omenez Diman, apirilaren 15ean, arratsaldean egin zen Ageriko bilkuraren akta ere aurkeztu beharra gogoratu du.

2. XVII. Barne Jardunaldietako (2011-03-25) akta onartzea, hala erabakiko balitz. Ez da oharrik jaso eta, beraz, akta ontzat eman da.

3. Onomastika.

3.1. Euskal Herriko ibaien izenak (IX) zerrenda onartzea.

A. Iñigok hitza hartu eta zerrenda horri buruz ez dela oharrik heldu azaldu du. Beraz, Euskal Herriko ibaien IX. zerrenda onartu da.

3.2. Iparraldeko erreka izenak (III) zerrenda aurkeztea. Ondoren, A. Iñigok hitza Patxi Galéri eman dio, beronek «Iparraldeko erreka izenak III.» zerrenda aurkeztu dezan. Ibai-erreken mapa eta izen bakoitzari buruz bilduriko dokumentazioa azaldu du, kasu batzuetako ohar eta berezitasunekin.

Izen horien erabilera dela eta, Patxi Uribarrenek esan du, kanpora begira, ibai handienak mapa nagusietan agertzeko direnez gero, horien izenak bereziki markatu beharko lirakeela, erabiltzaileen mesedetan. P. Galék eskaria kontuan hartuko duela erantzun dio, nahiz eta, bere ustez, zein ibai den nagusi eta zein ez erabakitzea batzordeari ez dagokion, hori beste batzuen egitekoa baita.

Gai berari buruz, J.L. Lizundiak ondokoa azpimarratu du, batzordeak ibaien zerrendak modu konbentzionalean egiten dituela, gero, gizartearen erabileran izen bakoitzak, berez edo erabilera bereziagatik, modu konbentzionalean izan dezakeen garrantzia kontuan hartu gabe. Bestetik, X. Videgainek, Jacques Cazabonek egin dako lana eskertu, eta kasu batzuetan izandako zalantzak aipatu ditu.

Zerrenda honi buruzko oharrak ekainaren 20rako bidali behar direla gogoratu du A. Iñigok.

4. Exonomastika.

4.1. Irak, Jordania eta Egiptoko toponimia onartzea. J.L. Lizundiak adierazi duenaren arabera, martxoko bileran aurkezturiko zerrendari ez zaio oharririk egin, eta beraz, Irak, Jordania eta Egiptoko toponimoez aurkezturiko izen-zerrenda ontzat eman da.

4.2. Ipar Afrikako Toponimia: Libia, Tunisia eta Aljeriako toponimia. Araugaia aurkeztea. J.L. Lizundiak hitza A. Mujikari pasatu dio, Ipar Afrikaren erdialdeko toponimoak aurkezteko. Beronek azaldu duenez, horko geografi izen nagusiak hautatzeko, geografiaz gainera, gure aspaldiko bizimoduan garrantzi berezia izan duten beste ezaugarri batzuk ere hartu dira kontuan, hala nola historia, ekonomia, turismoa, gizarte- eta gerra-gorabeherak etab. Jakina, bertako hiriburu, hiri nagusi eta ezaugarri geografiko nabarmenenak ahortzi gabe. Izenok biltzeko iturritzat, ohiko bideez gainera, *Herria* astekaria, iparraldeko aldizkariak eta bertako idazleen idazlanak aipatu ditu, J.L. Davant eta Tx. Peillenen izkribuak bereziki. Oharrak ekainaren 20rako bidali beharko direla gogoratu da.

5. Hiztegi Batuko bigarren itzuliko k-z tarteko sarrerak, egindako ekarpenak aztertu eta erabaki. A. Sagarnak azaldu du zerrenda horretako zalantzazko hitz batzuetan erabili den prozedura, ahalik eta bikoiztasun kasu gutxien uzteko. Jokabidea, oro har, munduko gainerako hiztegi arau-emaileena bezalakoa izan da. Ohargileengandik 39 proposamen jaso dira, eta horietatik 12 kontuan hartu izan dira: *kaisar*, *kartier* (Beh. marka kendurik), *kaseta*, *kuka*, *kutx* ala *pil*, *laburbide* (g. er. marka kendurik), *lurruntz*, *lurtadura*, *pleit* eta *ugazalaba* onartuz. Beste batzuk hurrengo itzulian aztertuko dira.

X. Kintanak ohar bat egin du, bere proposamenez *Notonecta* generoko intsektu bati jarri zitzaion izenari buruz, *urakar* delakoaz. Izan ere, horren barne-forma *uraker* da («uretako akerra» alegia, intsektuak igerian egiteko dituen bi hanka luzeak akerraren adar luzeekin konparatzen direlako) eta horrela deitzen zaion tokiko euskara berezian, Nabarnizen, Gernika aldean, bertan euskara orokorreko «akerra»ri *akarra* esaten zaiolako. Proposaturiko aldaketa onartu da.

J.B. Coyosek galdetu du ea ez ote litzatekeen halaxe utzi behar. B.Oihartzabalek azaldu dio, era horretako kasu gardenetan, euskara batura iragatean, ohikoa izaten dela hitz dialektalek «batasunerako bide-saria» delakoa ordaindu beharra, homologatze eta arautzearen onerako. Salbuespenak, noski, deiturak eta toponimoak lirateke.

A. Sagarnak, hitz batuen zerrenda osatze-bidean, batzordea jada o letraraino heldua dela azaldu du. I. Sarasolak, informazioa osatzeko, ondokoa gaineratu du:

prestatzen ari dena hiztegi arauemailea den aldetik, definizioetan ez dela gehiago *hobe* gisakorik jarriko, eta berba bakoitza beste batekin definituko dela.

A. Urrutiak, bestalde, Euskaltzaindiak bitariko hiztegi-lanak egiten dituela gogorazi du, hots, euskalki guztietako ondarea biltzen duten hiztegi orokorrak eta hizkuntza atlasak, batetik, eta forma estandar eta batuak finkatzera lagundu nahi duten hiztegi arau-emaileak, bestetik. Hortaz, esandako aldaketekin, osoko bilkuran aurkeztu den zerrenda onartu da.

6. XVII. Barne Jardunaldiak.

6.1. Plan estrategikoaren ildo nagusiak berretsi. Ez da aldatzeko oharrik heldu eta, beraz, Plan estrategikoaren ildo nagusiak berretsi egin dira.

6.2. Barne-erregelak onartzea. Era berean, barne-erregelai buruz, ez da oharrik heldu eta, horretara, barne-erregelen aldaketa-proposamena ere onartu da.

7. Esku artekoak

7.1. Xabier Gereño eta Jose Antonio Arana Martijaren heriotzaz.

Euskaltzain bi hauen heriotza dela eta, Euskaltzaindiak honako erabakiok hartu ditu:

- a) Xabier Gereñoren hilberri txostena J.L. Lizundiak, Euskaltzaindiko diruzainak (X. Gereñok Euskaltzaindian egin duen ekarpenaz) eta X. Kintanak (diskogintzan eta literaturan egindakoaz) prestatzea.
- b) Jose Antonio Arana Martijaren hilberri txostena J.L. Lizundiak (J.A. Aranak Euskaltzaindian egindako ekarpenaz), Joan Mari Torrealdaik (bibliografian egindakoaz) eta Begoña Aranak (musika arloa egindakoaz) prestatzea.
- c) Jose Antonio Aranaren alargunaren eta Fernando Mendizabalen senideen eskerrak jaso ditu Euskaltzaindiak.

7.2. Euskaltzaindiko Bibliotekari berriaz

Arautegiaren 14. artikulua dioena betetzeko, hots, Euskaltzaindiko Bibliotekaria Azkue Bibliotekako batzordearen buru izango delakoa, Zuzendaritzak Joan Mari Torrealdaik proposatu du eta proposamena onartu egin da.

7.3. Argitalpen batzorderako euskaltzain bat proposatzea

Argitalpen batzordeko bi euskaltzainetatik bat, J.A. Arana Martija, hil denez gero, zuzendaritzak, horren orde, beste bat proposatu du, Miren Azkarate Villar. Osoko batzarrak holaxe onartu du.

7.4.- Espainiako sari ezberdinetarako epaimahaikideak proposatzea.

Lehenik, mahaikideak izendatzeko oinarrizko arauetako bat aldatua dela jakin-arazi da, gizonezkoek eta andrazkoek kopuru berbera izan dezaten. Horretara, honako lagunak proposatu ditu Euskaltzaindiak, Literatura Batzordearen iritzia kontuan izanda:

- Premin Nacional de las Letras Españolas: Miren Azkarate eta Xabier Kintana.
- Premio Nacional de Literatura: Jon Kortazar eta Amaia Iturbide.
- Premio Nacional de Poesía Joven «Miguel Hernández»: Angel Erro eta Franziska Arregi.
- Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil: Javier Rojo eta Itziar Zubizarreta.
- Premio Nacional de Literatura (Narrativa): Sebas García eta Mari Jose Olaziregi.
- Premio Nacional de Literatura (Ensayo): Patri Urkizu eta Rosa Miren Pagola.
- Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática): Karlos del Olmo eta Aizpea Goenaga.
- Premio Nacional a la Mejor Traducción y Premio Nacional a la Obra de un Traductor: M. Lourdes Oñederra eta Patxi Goenaga
- Premio Nacional de Periodismo Cultural: Arantxa Urretabizkaia eta Antton Aranburu

7.5. Diruzaintza

7.5.1. BBK: izenpetutako hitzarmenari esker jasotako baliabideekin, ikerketan dabiltzan teknikarien soldatak egokitu dira, 2010ean ordaindutako kopuruetara iritsiz.

7.5.2. TOLARE: A. Sagarnak obren egoeraz informazio laburra eman du.

7.5.3. EAEko hitzarmenaz. Herri-aginteeekin Euskaltzaindiak daukan hitzarmenaren jarraipen batzordearen berri eman du J.L.Lizundiak.

7.6. Etxepare Institutuarekiko hitzarmena. Horren bitartez, Institutuak eta Akademiak beren ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote elkarri, eta baterako argitalpenak sustatzeko eta beren biblioteketako euskal funtsak baliatzeko prozedurak ezarriko dituzte. Era berean erakunde biak euskara Euskal Herritik kan-

pora bultzatu, sustatu eta ikertzeko lanetan arituko dira elkarrekin eta jardunaldiak eta ikastaroak antolatuko dituzte. Elkarrentzat interesgarri gerta daitezkeen lanak eskurarazten ere ahaleginduko dira. Bi erakundeak lankidetzako politika bultzatuko dute, elkarrekin ikastaroak eta eraginez. Halaber, Etxepare Institutuak Euskaltzaindiaren arauak, izendegiak eta erabakiak indexatu eta bere jarduera-esparruan ezagutarazteko ahaleginak egingo ditu.

7.7. Leioako udalarekiko hitzarmena. Euskaltzaindiko Onomastika Batzordearen gidaritzapean landu duen eta 259 orrialde inguru dauzkan *Leioako leku-izenak* deritzon liburua argitaratzea da hitzarmen honen helburua. Leioako udalak, horretarako, 10.920 euroko ekarpena egingo dio Euskaltzaindiari. Liburua 2011. urtearen barruan argitaratuko da.

7.8. Bilboko udalarekiko hitzarmena. Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu du Bilboko udalarekin. Akademiak bere Egoitzako zerbitzuak eta azpiegiturak eskainiko ditu kultur hedapeneko era guztietako ekintza, ikastaro, hitzaldi, erakusketak, liburu-aurkezpenak, prentsaurrekoak etab. bideratzeko. Era berean, Bilbon 1953-1982 artean argitaratu zen *Anaitasuna* aldizkaria, bilaketak errazteko, digitalizaturiko testuei funtzionalitate gehiago erantsiko dizkie Akademiak. Bide beretik, 2011 urteko Bilboko Liburu Azokan, *Euskera* agerkariaren 90. urteurrenari buruzko erakusketa prestatuko du Euskaltzaindiak Bilboko Udalarekin elkarlanean. Ekintzotarako Udalak 20.500 euroko laguntza emango dio Euskaltzaindiari.

7.9. Ahoskera lantalde suntsikorra sortzea. Eusko Jaurlaritzako EIMAtik Ahoskera izeneko txostena etorri da, idatzia aztertu eta irizpen proposamena prestatzeko. Horretarako ahoskera lantalde suntsikorra eratu da. Lantalde suntsikor hau sortzea Plan estrtegikoan jaso da. Horren osakidetzat pertsona hauek proposatu dira: Burua: Miren Lourdes Oñederra. Idazkaria: Oroitz Jauregi. Kideak: Agurtzane Elordui; Irantzu Epelde, Pilartxo Etxeberria; Jason Salaberria. Lantalde suntsikorra eratzea eta kideak onartu dira.

7.10. Kudeatzailearekiko lan-harremanak. Bera kontratatu zenetik jada urtebete iragan delarik eta bere betekizunak espero zenez konplitu dituen gero, Joseba Zabaletaren, Euskaltzaindiko kudeatzailearen, lan-harremanak finkatu eta 2012ko abendura arte luzatzea erabaki du Zuzendaritzak, hots, bere agintaldia amaitu arte.

8. Azken ordukoak.

8.1. Atlasaren aurkezpena eta bazkaria. Buruak hitza idazkariordeari emanda, Osak gogorarazi du, batzar honen ondoren, euskaltzainek Victoria Eugenia Antzo-

kiko Club aretora joan beharko dutela, Hizkuntza Atlasaren III. tomo argitaratuaren aurkezpenerako.

8.2. Datorren Batzarraz. Ekainean ez da osoko bilkurarik egingo. Halere, ekainaren 25ean, Maulen, han euskararen eguna ospatzen den egun berean J.B. Coyosen sarrera hitzaldia izango da herriko zineman, goizeko 10:30ean. Ondoren, bazkaria izanen da Altzürükün.

Biltzarra 11,10ean amaitu da

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Maulen, 2011ko ekainaren 25ean

JEAN-BAPTISTE «BATTITTU» COYOS EUSKALTZAIN OSOAREN SARRERA-HITZALDIA

Maulen, 2011ko ekainaren 25ean, egin da Jean-Baptiste «Battittu» Coyos euskaltzain osoaren Sarrera-hitzaldia, Arautegiaren 36. artikulua araberak, Mauleko «Maule Baitha» zinemagelaren eguerdiko 10:30ean. Coyos, 2010eko azaroaren 26an izendatu zuen euskaltzain oso Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain Osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Joan Mari Torrealda, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute: Miren Azkaratek eta Patxi Salaberrik.

Euskaltzain Ohorezkoak: Erramun Baxok eta Junes Casenave-Harigile.

Euskaltzain urgazleak: Gexan Alfaro, Kepa Altonaga, Xipri Arbelbide, Gidor Bilbao, Jon Casenave, Pruden Gartzia, Jazinto Iturbe, Daniel Landart eta Manex Pagola.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Batzordekideak: Irantzu Epelde, Santi Larrazabal eta Jasone Salaberria.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 95-174. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza, Annie Etxeberri eta Amaia Okariz.

Idazkariak ekitaldi akademikoari hasiera eman dio ekitaldiaren nondik-norakoa argituz eta barne-erregelen 64.8 artikulua dioena irakurriz. Ostean, Michel Etchebest auzapezak ongi etorria eman die bertan zirenei, eta jarraian Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza, biek Ipar Euskal Herrian euskararen ofizialtasuna aldarrikatu dutelarik.

Ondoren, Jean-Louis Davant eta Xarles Videgain euskaltzainek lagunduta, batzar aretoan sartu da Jean-Baptiste «Battittu» Coyos «Eüskararen bi dikotomia» izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Erantzuna Txomin Peillen euskaltzainak eman dio, «Mintzo haren ohoreagatik» hitzaldiarekin.

Zuberoako euskararen iragana, oraina eta geroa izan dituzte hizpide bai Coyo-sek eta baita Peillenek ere, gaur Maulen bildutakoei zuzendutako hitzaldietan. Hari horri tiraka, Battittu Coyos euskaltzain oso berriak euskara eta euskaldunek bizi dituzten dikotomia bi -batetik, euskaldun berria eta euskaldün zaharra, beste-tik, euskalkia eta euskara batua- bere lurraldera eraman ditu, gaur egungo «eüs-kararen ikusteko moldea egitüratzen beitüe». Bere esanetan, euskaldun berri/eus-kaldun zahar eta euskalkia/batua kontzeptu ustez kontrajarriek, «alkarreki joaten diren bi nozioak oposatzen beitütügü, pare hori moldatzen düen bi geiak, ene ustez bakotxa sos baten bi aldeak bezala ikusi behar dütügu. Alde bat bestea gabe deüs izatez, batak bestearreki kontzeptü hori bere osotarzünean entelegatzen lagüntzen gütü».

Desberdintzea, gainera, ez da guztiz ortodoxotzat hartu behar, hizkuntzaren bi-lakaerak testuinguru berriak dakartza eta; transmisioaren zuloa, neurri batean, gau eskolek eta ikastolek bete dute eta, berak esan bezala, euskaldun kategoria berri bat sortu da, «eüs-kara eskolan ikasi düen gazteak, etxen errezebitü ez düena. Kategoria horrek ere molde batez eüs-kaldün berria / eüs-kaldün zaharra dikotomia eztabadan jarten dü».

Euskaldun zahar zein berrien atsekabeak ekarri ditu gogora, eta sufrimenduaz mintzatu da, sentimendu horren bi aldeak aipatu dituelarik, lotsa eta gabezia, batzuentzat lehena, besteentzat bigarrena. Hala, bada, euskaldun zaharrak sufritu du «bere mintzajea baliorik gabe zela ikusten züelarik», eta euskaldun berria, aldiz «ez da seküla eüs-kaldün zaharra izanen». Zuberoan ere gurasoek seme-alabei euskara eman ez izanaren arrazoiak ikertu behar da. Eta honela azaldu du: «Ama mintzajea haurrei ez ematea eüs-kaldün berri / eüs-kaldün zahar dikotomia horri güiz lotürrik

da. Ama mintzajearen transmisioeak ala transmisioe eskasak dikotomiaren egi-lea da. Fenomeno horren arrazuen entelegatzea zinez inportanta da, ene ustez, euskararen geroa segürtatü nahi balin badügü. Konprenitzen balin badügü ontsa zertako gure aitetametarik haboroxeak ez düen beren ama-mintzajea eman, eüska-ra transmititzeko ordüan zoin balintzak, zoin alteko testüngürüa indarrean eman beharko düttügüla aisago, argiago dateke».

Noski, transmisio eten hori Euskal Herri osoan gertatu da, baina Ipar Euskal Herrian Frantziako estatuaren idiosinkrasiari lotzen zaio: «Badakigü Frantziako herrialde ezbardinetan bigarren mündüko gerlatik landako urteetan gaüzatü dela, molde ezbardinetan bada ere. Britainian ber fenomeno, erran nahi beita mintzaje propioaren ez emaita, hots bretua, ezagütü da ere eta ber denboran apür edo hanitx, bigarren mündüko gerlatik landa, bietan hogeita hamargerren urteetan. Ordüan, Frantziako ordüko gizarte, ekonomia eta politika-balintzei lotürük zela erran dezakegü».

Horiek horrela, ikerketa baten beharra ikusten du Coyosek: «Ikergai inportanta badügu konprenitzeko nola Frantzian esküaldeetako mintzajeak ordüan eta ez lehenago edo berantago ützirik izan zirela. Erran gabe doa lan talde zabal bat izan behar lizateala, soziolinguistikan, psikolinguistikan bena bai ere ekonomian, soziologian jakintsüak üztartü behar lütükeana. Ikerketa hori beharrezko da orai kontrako bidea hartu nahi beittügü, eskolan xiberotarraren eta eüskararen ikasteaz gain familian mintzajea emanik izan dadin nahi beittügü, transmisioearen arrapiztea hots».

Bigarren dikotomiaz, euskalkia eta batuaren arteko dikotomiaz, berriz, Coyosek ideia argia eman du, eta batuaren beharraz mintzatu da: «Tresna bat da alkar konprenitzeko, euskaldünek moldatzen düena beren euskalkiaren arabera bat balin badüe, solaskidearen, testüngüraren arabera. Haütüa sinple da, euskara batua ala eüskararik ez».

Zuberoan, diglosian baino, triglosian ikusten du Coyosek, zubererari lehenik frantsesera gainjarri baitzaio, orain batua ari baita sendotzen bertako hizkeren ondotik. «Berri txarra dea hori? Ene ustez, ez, frantsesak hartü züan leküa hartzen beittü apür edo hanitx, eta hari esker beste euskaldünekin eüskaraz elesta gaiteke».

Kontuak kontu, «mauletar, xiberotar eta euskaldun gisa» mintzatu den Coyosen aburuz, Zuberoan badira euskaltzaleak, euskal elkarteak, ikastolak, gau eskolak, irratia... eta «xiberotarren geroa gure esküetan eta hobe ahoetan da. Nik lüzez biko dela sinesten dü, zinez».

J. B. Coyosen hitzaldiaren segidan Txomin Peillenen erantzuna etorri da. T. Peillenek gogoan izan du hark egindako lana zubereraren alde, Zuberoako euskararen lekukotza historikoak izan ditu aipagai, lehenik eta behin, XIV. mendeaz geroztik bertako hizkera ikerketa- edota literatura-lanetan bildu dutenak gogora ekarri eta, bide batez, Coyosen lana ere tradizio horretan kokatuz. Bere esanetan, «ordüan eta orain bi arrenküra handi üken dütü eüskara bizi dadin, hortarako Euskaltzaindian aitzinetik eüskara defendatzen düan Sustapen Batzordean dago; bestalte gure mintzajea linguistikan barnetik ezagütüa eta jarraikia izan dadin nahi izan dü. Bai mündü orotan dioie mintzaje ederra dügüla, bena jente eder hanitx bezala mintzaje ezinago ederrak lürpean dira, guri zaikü bizirik egonaraztea».

Hortaz, Peillen-ek euskaltzain berriak liburuetan bildutako ikergaia izan du hizpide, Xiberotarra zuberera, le dialecte basque souletin bereziki, J. B Coyos-ek berak gaur aldarrikatu duen ideia indartzeko. Izan ere Txomin Peillenen esanetan, «Jean-Baptiste Coyosek erakusten deikü dialektoa eta euskara batua ez direla etsai bena bakotxak badüala bere eremü berhezia, Euskara batua hon beita eskolako libürü zombaiten egiteko eta zuberotar ez direnekin aisago entelegatzeko ez beikira denak mintzaje jakile».

Irakaskuntzan, kulturen, administrazioan edota hezkuntza euskarak duen presentzia apal baina esanguratsua jorratu du Peillen, esparru bakoitzeko argi-ilunak erakutsiz. Berak ere arduraz ikusten du transmisioaren etena, jende gaztearen erdalduntzea.

Horren guztiaren gainetik, baikor agertu nahi izan du: «Hemeretzigarren mendean Onésime Reclusek zion eüskarak ez züala hogeigerren mente azkena ikusiko, eta Julien Vinsonek hogeigerrenean 300.000 mintzazaletarat jaitisiko zela. Ehün urte irabazi dütügü eta gure mintzajea jente zombaiten gisa bizi da, zahar eta ezin hilez, gazte eta ezin biziz, bena Egiategik idatzi bezala mintzajearen ohorea ahal bezain lüzaz etxeki behar dügü eta horretarako eginahalak egin. Halabiz».

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak, Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina eta diploma eman dizkio Jean-Baptiste Coyosi. Gainerako euskaltzainek eskua eman eta besarkatu dute, ondoren J. B. Coyos.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat emanez, opari eta oroigarrien unea heldu da. Hala, Michel Etchebest Mauleko aüzapezak Gonzalo Etxebarria artistaren koadro bat eman dio, Herriko Etxearen izenean. Maddi Oihenart kantariak abesti bat kan-

tatu du. Robert Laborde biarnesak Jean-Marie Grangé biarnes apezaren «Estanguet a casa» testuaren irakurketa egin du (1945ean idatzia, Lapurdin). Eta Ibai Capot-Thornary eta Joha ne Sarraillet Zuberoako bi koblakari gazteek bina bertso eskaini dituzte.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da Ageriko bilkura, 12:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Bilbon, 2011ko uztailaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Aurelia Arkotxa, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Charritton, Pierre,
Davant, Jean-Louis,
Haritschelhar, Jean,
Irazu, Jose «B. Atxaga»
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel
Erramun Osa, idazkariordea,

Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Alfontso Mujika, euskaltzain
urgazlea, zegozkien gaitan.
Ezin etorriak eta ahalak:

Miren Azkarate; Patxi Goenagak, aha-
la Jean Haritschelharri; Patxi Salabe-
rrik, ahala A. Iñigori; Pello Salaburuk,
ahala J. Haritschelharri; Joan Mari To-
rrealdaik, ahala A. Sagarnari.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da
Euskaltzaindiaren Bilboko Egoitzan, ez-
kerreko zutabearen ageri diren euskal-
tzainak bertan direla.

0. Agurra eta hasierako oharra:
Euskaltzainburuak, bilduak agurtu on-
doren, jasoriko ahalak adierazi ditu.

1. Aurreko Batzarraren Akta
(2011/05/27) onartzea. Andres Iñigok
eta Miren Lourdes Oñederrak zuzenke-
ta txiki batzuk egin dituzte. Horiek
kontuan harturik, aurreko batzarraren
akta ontzat eman da.

2. Exonomastika.

2.1. Ipar Afrikako toponimia: Libia, Tunisia eta Aljeriako toponimiaren araugaia onatzea. Euskaltzainburuak J.L. Lizundiari hitza eman dio eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazleari aretora sartzeko eskatu zaio. Beronek azaldu duenez, aurreko zerrendari dagokionez, ez da oharrik izan, eta, beraz, zerrenda ontzat eman da. Halere, Exonomastika batzordeak berak autozuzenketa bat proposatu du, Aljeriako toponimiaren araugaiari **Oranerria** toponimoa eransteko. Hori ere onetsi da.

2.2. Marokoko eta Mendebaldeko Saharako toponimia araugaia aurkeztea. J.L. Lizundiak zerrenda hau aurkeztean, horrekin exonomastika-batzordeak Ipar Afrikako izenen zerrenda amaitzen duela gogoratu du. Ondoren, A. Mujikak izen horien xehetasun batzuk aipatu ditu, arabierazko izenen letraldatze hutsak, bertan izandako Estatu kolonialen grafiengatik sortu diren tradizioak gogoratuz, batzuetan ezin saihestuzkoak. Bestaldetik, lurralde horietako toponimoak inoiz euskal literaturan ere aurki daitezkeelako, euskal iturriak ere kontsultatu izan dira (*Herria*, *Argia*, Tx. Peillenek eta Aljeriako eta Marokori buruz egindako artikulua eta liburuak...), baina, halere, ez da material gehiegi aurkitu. J.L. Lizundiak *Alhucemas*, uharteen eta hiriaren kasua gogoratu du. Bestalde, I. Sarasolak *Urteko Fedearen Propagationea* obra ere gogoan hartzeko eskatu du, hor alde horretako izen batzuk aurkitzen direlako. Kontuan hartuko da.

P. Xarrittonen ustez ez da ahanztekoa, halaber, erromatarren eragina, eta *Hippona* toponimo zaharra gogorarazi du. Hangoxea zen San Agustin, *Aitorkizunak* obraren egilea, eta ama-hizkuntza punikoa, hots, feniziera omen zuen. P. Xarrittonek, halaber, hegoaldeko euskaldunok ipar Afrikako toponimo batzuk (*Tanger*) gaizki ahoskatzen ditugula esan du. Gogoratu izan zaio erabakiak ez direla hegoaldeko euskaldunek hartuak, Euskaltzaindiak berak baizik, eta J.L. Lizundiak gaineratu du, garai Klasikoetako izenak ere kontuan hartu izan direla. Dena den, oharrak idatzirik bidali beharko dira aurtengo irailaren 16rako.

2.3. Afrikako Estatu berriaren izenaz.

A. Mujikak ohar bat egin du: Afrikan Sudan zeritzon estatua orain dela gutxi bi estatutan banatu da, eta hegoaldean eratu den estatuaren izena jada emana da espainolez eta frantsesez. Azaldu duenez, Exonomastika batzordeak, arazoa ikertu eta gainerako hizkuntzetan izandako aldakiak ikusita, honako hitzok proposatu ditu Estatu, hiriburu eta bertako herritarrak euskaraz izendatzeko: **Hego Sudan, Hego Sudango Errepublikak, hegotsudandar, Juba, jubatar.**

Tx. Peillenek *Juba*-ren hasierako fonema frantsesez (*Jean, jeudi*) edo Bizkaiko kostaldean bezala (*mendija, jan...*) ahoskatu beharko litzatekeela esan du. Halere, I. Sarasolak ez du hori beharrezkoa ikusten, eta J. Haritschelharrek ere hobeki deritzo gure ohiko *j*-ren antzera (hots, espainol edo frantsesezko *y* bezala) ebakitzeari. Gauza bera esan du M. L. Oñederrak ere.

P. Zabaletak Sudango hizkuntza nazionalak ere aipatu beharko liratekeela gaineratu du, baina I. Sarasolak eta J.L. Lizundiak azaldu dute zail eta luzeegia litzatekeela hango mintzaira guztiak banan-banan aipatzea. Segur aski jorubera eta swahili dira erabilienak, baina beste asko ere badira. A. Mujikak gogoratu du, gainera, bertakoek ere, ofizialtzat ingelesa besterik ez dutela aipatu, gainerakoak, oraingoz behintzat, zeintzuk diren xehatu gabe. Ondorioz, euskaltzainek Exonomastika batzordearen proposamena onartu dute, hots, Hego Sudango estatu berriaren eta hiriburuaren izenak, bai eta bertako herritar-hiritarrenak ere. P. Xarrittonen kontrako botoa eman du eta halaxe jasoko da bilera-agirian, berak eskatuta.

2.4. Iparraldeko ibai-izenen III. zerrendari buruzko oharrak.

A. Iñigok azaldu duenez, ibai horiei buruz jasoriko ohar batzuen inguruan eskatutako azalpen argigarri batzuk ez dira garaiz iritsi eta, beraz, guztiak elkarrekin, iraileko batzarrera ekarriko ditu, orduan eztabaidatu eta erabakitzeko.

3. Hiztegi Batuko bigarren itzuliko A-J tarteko sarrerak aurkeztu.

A. Sagarnak, euskaltzainen artean banaturiko A-J zerrenda aurkeztu eta azaldu du, testu idatziez lagundurik, orain arteko zalantza eta bikoiztasunen artean aukera bakarra eginez. Euskaltzainek zerrendako hitzei buruz oharrak egin ditzaten, fitxa eredu bat ere erakutsi du pantailan, horko datuak betez biltzaileen lana errazten delako.

I. Sarasolak ohar orokorrak eta ñabardurak bereizi ditu, eta oraingoan *hobe* eta *erabil* markak ahalik eta gehien kentzen ahaleginduko direla esan du, Euskaltzaindikoa munduko ohiko hiztegiekin homologatzeko. L. Oñederrak, bestetik, irakurle-erabiltzaileei jarraibide argiak eskaini behar zaizkiela adierazi du. Bere aldetik, A. Sagarnak azaldu du, bere ustez, argibideez gainera, kasu batzuetan ikastaro batzuk ere eskaini beharko liratekeela, jendeari hiztegia probetxu osoaz nola erabili irakasteko. Oharrak Idazkariordeari bidali beharko zaizkio irailaren 16rako.

I. Sarasolak azaldu du, hiztegi aruemailearen ereduazko formez gainera, badirela beste hitz eta aldaki batzuk, arautuak ez izan arren, inoiz idazle eta sortaileentzat erabat baliagarri gerta daitezkeenak, eta B. Atxagaren aspaldiko kezka gogorarazi du, hots, hitz bakoitzaren nortasuna eta kolorea errespetatzeko. Oharra aintzat hartu da.

4. Plan estrategikoa garatzeko hurrengo urratsak aurkeztu eta berretsi.

E. Osa idazkariordeak «Ildo estrategikoa garatzeko hurrengo urratsak» izenburua daukan dokumentua aurkeztu du. Horiek horrela, irailaren bigarren astean, zuzendaritzak behin-behineko planak aztertuko ditu eta jardueren diagrama erabakiko du. Iraileko Osoko bilkuran, berriz, Akademiaren 2012ko planak, behin-behineko aurrekontuak eta jardueren diagrama berritua aurkeztu eta berretsiko da. Azaroan egingo den Osoko bilkuran 2012ko planak eta behin betiko aurrekontuak onartuko dira. «Ildo estrategikoa garatzeko hurrengo urratsak» berretsi ditu Osoko bilkurak.

5. Esku artekoak.

5.1. Barne erregelak. Behin betiko testua banatu da, aurkezpena hobetzeko, tankera eta idazkera zertxobait ukitua.

5.2. Euskadiko Literatura Sarirako epaimahaikidea. Eusko Jaurlaritzatik helduriko eskariari erantzunez, Euskaltzaindiko Literatura Batzordeak Xabier Mendiguren Bereziartu euskaltzain urgazlearen izena proposatu du Euskadiko Literatura Sarirako mahaikidetzat, Zuzendaritzak 2011-06-17an aztertu eta berretsia.

5.3. Espainiako Kultura Ministerioaren eskaria. Espainiako hizkuntzen arteko argitalpenen edizioa eta itzulpena sustatzeko balorazio-batzorderako egindako eskariari erantzunez, Beatriz Zabalondo eta Joseba Erkizia proposatu ditu Zuzendaritzak (2011-06-17).

5.4. Jabetza Erregistratzaileen Elkargoarekiko hitzarmena. Euskaltzaindiak elkargo horrekin hitzarmen bat izenpetu du egoitzan 2011-06-22an. Euskaltzainburuak horren zergatia azaldu du, onomastika-ikerketak egitean sor litezkeen isilpe-kotasun-arazoak bideratzeko, hain zuzen.

5.5. Kutxa Fundazioak Tolare baserrirako laguntza. A. Sagarnak azaldu duenez, Euskaltzaindiko Gipuzkoako ordezkariak Akademiaren izenean Kutxa Fundazioaren Elkarlanerako Zuzendari den Mikel Mendarteri egindako laguntza-eskaerak baiezko erantzuna izan du. Horren arabera, Tolare baserriko ikerketa gunerako, Kutxa Fundaziotik 150.000 euroko laguntza jasoko du Euskaltzaindiak, hiru zatitan banaturik: hitzarmena izenpetzean 50.000 euro, 2012ko lehen hiruhilekoan 50.000 euro, eta 2013ko lehen hiruhilekoan beste 50.000 euro.

5.6. Errioxako Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Euskaltzaindiak eta Errioxako Unibertsitateak hitzarmen bat sinatu dute, *Euskera*

agerkariaren prestigio eta ikusgarritasuna areagotzeko. Hitzarmenaren ondorioz, Errioxako Unibertsitateak kudeatzen duen DIALNET atari bibliografikoan Akademiaren agerkari ofizialaren presentzia laster indartuko da mundu zabalean. Izan ere, horixe da hispaniar munduan sarrera libre eta doanekoa eskaintzen duen atari bibliografiko garrantzitsuenetako bat, eta, Internet-en, gizarte-zientzien alorreko literatura zientifikoari ikusgarritasun handiena ematea dauka helburu.

5.7. Euskaltzainei banatu zaizkien liburuak

Euskaltzainen artean honako liburuok banatu dira:

- *Escritores euskéricos contemporáneos*. Euskaltzainak bildumako 15. zenbakia. Gorka Aulestia.
- *Perpetua Saragueta: Eskutitzak eta hiztegia*. Mendaurre bildumako 9. zenbakia. Andres Iñigo.
- *Euskal Herriko Udalen Izendegia*. Izenak bilduma berriaren lehenbiziko alea. Onomastika batzordeak.
- *Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra: Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*. Iker bildumako 26. zenbakia. IKER 26, CD formatua
- *Euskera 2010, 1* eta *Euskera 2010, 2* liburukiak.

5.8. Hurrengo batzarrek.

Euskaltzaindiak urte bukaerako pentsaturik dauzkan bilkurak honako hauek dira:

- Irailak 30: Nafarroan Osoko Batzarra Tafallako udaletxean (ordutegia 9:30-12:00). Arratsaldean, Ageriko bilkura Tafallako Kultura Etxean.
- Urriak 28: Donostian, Osoko eta Ageriko Bilkura, Tolare-ren inaugurazioa.
- Azaroak 25: Bilbon, Osoko bilkura.
- Abenduak 16: Baionan, Ageriko bilkura, A. Xahoren II. mendeurrena.

6. Azken ordukoak

6.1. 2010. urteko Ageriko bilkuretako bilera-agiriak

Ondoko ageriko batzarren aktak banatu dira:

- **Atarrabikoa**, 2010/9/24an urte bereko «Nafarroa oinez» dela eta, bertako ikastolan egina.
- **Baionakoa**, 2010/10/30an Xarles Bidegain euskaltzain osoaren sarrera hitzaldia, Baionako Herriko Etxean egina.

- **Bilboko**a, 2010/11/26an *Hiztegi Batu*aren paperezko edizioa eta *Gasteizko Ubar-
rundia* egitasmoa aurkezteko ekitaldiena.
- **Zarautzen**, 2010/12/17an Frantziskotarren Zarauzko Komentuaren 400. ur-
teurrena ospatzeko burutua.

Guztiok aurtengo irailaren 30ean onartzekoak dira, euskaltzainen ohar-zuzen-
ketak jaso eta aztertu eta gero (irailaren 16a da ekarpenak egiteko azkeneko egu-
na), ondoren, Euskera agerkarian argitara emateko.

Aurten urtarril-uztail bitartean eginiko ageriko billkuren aktak, aldiz, iraileko
Osoko Batzarrean aurkeztuko dira, azarokoan onartzeko.

Eta besterik ez dela, Batzarra 12etan amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2011ko uztailaren 22an

Bilbo, 2011ko uztailaren hogeita bian, egoitzan, Euskararen Akademiaren webgune berria aurkezteko eta Euskararen Hiztegi Etimologikoaren berri emateko, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain Osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Jean Haritschelhar, Jose Irazu (Bernardo Atxaga), Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Jose Mari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Pruden Gartzia, Dorleta Alberdi, Pello Esnal eta Rikardo Badiola.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindik langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza eta Amaia Okariz.

Euskaltzainburuak hitza hartu du ekitaldiaren nondik-norakoa azaltzeko. Izan ere, Euskaltzaindiak webgunea eraberritu du, itxuraz aldatuz, eta eduki berriak gehituz, beraz, garrantzi handikoa da egindako urratsa. Era berean, Euskararen Hiztegi Etimologikoa egitasmoari buruzko argibideak ere emango dira Ageriko bilkuran.

Euskaltzainburuak idazkariordeari hitza eman dio, eta honek, webgune berrituari buruzko azalpenak eskaini ditu.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 95-174. Bilbo
ISSN 0210-1564

Akademiaren Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) batzordearen gidaritzapean burutu dira webgunea eguneratzeko lanak. Batzorde hori 2007an eratu zen, eta hasieratik jarri zuen arreta berezia Akademiaren webgunean. Hala, bada, 2008an webgunea edukietan erabat berritu zen, eta Web 2.0 teknologiarako egokitu. Orain, 2011n, prozesu horren urrats berria egin da.

Webguneak beti eman duen informazioa eskaintzen du: batetik, erakundeari buruzko informazio zabala, eta bestetik, Euskaltzaindiaren Arauak, Hiztegi Batua, Izendegiak, Corpora edota Azkue Bibliotekaren eta Argitalpen Katalogoak ere. Horrez gainera, badira, bi eduki berri: Orotariko Euskal Hiztegiaren bertsio berria eta *Auspoa* bildumaren artxiboa; azken bilduma horren liburuak bere webgunean eskaini ahal izateko, Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena eta laguntza izan ditu.

Orotariko Euskal Hiztegiaren atala aipatu den unean, Ibon Sarasola euskaltzainari hitza eman dio euskaltzainburuak. Honek, OEHren bertsio berrituari buruzko argibideak azaldu ditu. Euskaltzaindiaren webgune berrian agertzen den OEHren bertsioa ez da orain arte webgune zaharrean zegoena, paperezko bertsioaren sareratze hutsa zena. Izan ere, Bertsio berriak bi aldaketa nagusi ditu. Lehen aldaketa lehenengo bost liburukien formatuari dagokio. Bigarren aldaketa, ostera, paperezko bertsioa kaleratu ondoren OEH aberasteko gehitu diren material berriei dagokie.

Jakina denez, OEHren lehen liburukiak ez daude geroago erabili den sistema berberean eginak. Arazo nagusia hau zen: lehenengo liburukien sistema jarraituz OEHk 24 liburuki izango zituen, eta hainbat urtez atzeratuko zen lana amaitzea. Horiek horrela, Euskaltzaindiak ondoko erabakia hartu zuen: OEH 16 liburukitan eman behar zen. Erabaki horren ildotik 6. liburukitik aurrera hiztegi materialak emateko sistema aldatu zen. Hortaz, bigarren bertsio honetan batasuna eman zaio OEHri, lehen bost liburukiak irizpide berrien haritik zuzenduz, osatuz eta trinkotuz. Horrez gainera, urteetan zehar bildutako ohar, era guztietako zuzenketa eta beharrezko gehikuntzak hiztegiratu dira 16 liburukietan. Orotarikoaren lehen bertsioan 12.5276 sarrera eta 41.839 azpi-sarrera zegoen; bigarren bertsioan 140.464 sarrera eta 52.243 azpi-sarrera.

Bigarren aldaketari dagokionez, OEHren bertsio honek azken urteotan agertu diren materialak bereganatu ditu. Horien artean garrantzizkoena, bistan da, Lazaragaren eskuizkribua da. Eskuizkribu honetako alde lexikografikoa osorik hiztegiratu da. Horretaz gain Duhaldek idatziriko Birginia testua, Euskaltzaindiak publi-

katu berri duena eta Larramendiren hiztegiaren eragina Iparraldean erakusteko ezinbestekoa dena, osorik hustu da OEHRa. Besterik ere sartu da, Hegoaldeko XVI. eta XVII. mendeetako testu guztiak hiztegiratzeko falta ziren dokumentuak, besteak beste.

Ibon Sarasolaren azalpenen ondoren, Jose Mari Iriondo ohorezko euskaltzainak hartu du hitza. Honek, Pello Esnal eta Xabier Kaltzakortarekin batera *Auspoa* bildumaren ardura du, Antonio Zavala zenak hala erabakita. Haiekin batera, Joakin Berasategi Sendoa argitaletxeko editorea ere Bilbon izan da, aurkezpenean parte hartuz.

Jakina denez, *Auspoa* bilduma Antonio Zavala (1928-2009) euskaltzain osoak sortu eta gidatutako liburu-bilduma da. Hasieran, izen bera zuten argitaletxeak eta bildumak. Baina 1994tik 2003ra Sendoak hartu zuen *Auspoa* bildumako liburuak argitaratzeko ardura eta, azken data horretatik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiak. Esan bezala, bilduma horren liburuak bere webgunean eskaini ahal izateko, Euskaltzaindiak erakunde horren baimen eta laguntza izan ditu.

Auspoa bilduman hiru sail bereiz daitezke. Lehena eta ugariena, *Auspoa* liburutegia deitua; arrunki *Auspoa* bildumarekin identifikatzen da, eta 2006ra arte 302 zenbaki argitaratu zituen. Horrez gainera, bada beste bilduma laburrago bat: *Auspoa* liburutegi nagusia deitua, 12 zenbaki atera dituen. Eta, azkenik, hirugarren saila: izenik eta zenbakirik gabea, zortzi liburuz osatua. Antonio Zavalaren gidaritzak ematen die liburu guztiei batasuna.

Jose Mari Iriondoren hitzen ondoren Erramun Osa idazkariordeak hartu du hitza, webgunearen itxura, atalak eta edukiak labur-labur azaltzeko.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da webgunearen aurkezpena, hedabideen aurrean ere egin dena. Atsedena hartzeko tarte labur bat egon da. Tarte honen ostean, Joseba Andoni Lakarra euskaltzainak, Euskal Hiztegi Etimologikoa aurkeztu du. Aurkezpenean Julen Manterola eta Iñaki Segurola teknikarien laguntza izan du.

EHE-aren helburua zen 2012aren amaierarako euskal hiztegi etimologiko baten oinarrizko prototipoa izatea; hots, 1000 bat hitz hautatuko bilduma bat eta eskuliburu bat, egindakoa azaldu eta hiztegi etimologiko estandar bat (6000-7000 hitz) ondoren idazteko oinarriak jarriko zituena. Horiek horrela, egitasmoan orain arte aurreratutakoa (adibideak eta guzti), beste hizkuntza batzuetan landutako hiztegiak, egindako alderaketak, eta abar, azaldu dira. Halaber, 2012ko

abenduaz geroz baino ezingo litzateke egin ezinbestekotzat jotako EHE-ren ingelesezko bertsioa.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da Ageriko bilkura, 13:20 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Tafallan, 2011ko irailaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi

Erramun Osa, idazkariordea, eta Joseba Zabaleta, kudeatzailea, Patxi Galé eta Mikel Gorrotxategi euskaltzain urgazleak zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari; Jose Irazu-Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari;

Beñat Oihartzabalek, ahala A. Arkotxari edo Jean Haritschelharri; Patxi Salaberri, ahala A. Iñigori; Joan Mari Torrealdaik, ahala A. Sagarnari; Xarles Videgainek, ahala J. Haritschelharri; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 9,45ean hasi da Tafallako Udaletxeko Batzar aretoan ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Agurra eta hasierako oharrak. Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, jasoriko ahalak adierazi ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, hitza idazkariordeari eman dio, beronek eguneko programa azal dezan.

2. Aurreko Osoko Batzarraren Akta (2011/07/22) onartzea.

J. L. Lizundiak ohar bat egin du *Oranesado* erdal izen berriaren ordezkarak *Oranerria* jar dadin, eta ontzat eman da. Ez da beste oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

3. Ageriko bilkuretako aktak onartzea.

E. Osa idazkariordeak 2010-09-24an, 2010-10-30ean, 2010-11-26an eta 2010-12-17an eginiko ageriko bilkuretako aktei buruz oharrrik ba ote dagoen galdetu du, Jose Luis Lizundiak eta Xarles Videgainek egin dituzten oharrak txertatuz. Horiek horrela, bilera-agiriak onartu dira.

4. Onomastika.

4.1. Iparraldeko ibaien izenak (III. zerrenda) onartzea.

Andres Iñigok hitza eman die Patxi Galé eta Mikel Gorrotxategi batzordekideei eta pantailan mapa proiektatuz, **Baigorri**, **Aldude** eta **Urepele** izenak aztertu dira. J. Harischelharrek gogorarazi du, halere, *Baigorri* zaharragoa dela *Urepel* baino eta izen horri lehentasuna ematea nahiko luke. Eztabaidatu ondoan, eta Patxi Galék esan duenaren bidetik, hots, aurreko erabakiaren aurka ez joateko, forma biak, **Al-dudeko Errobi** zein **Urepeleko Errobi** sinonimotzat onartu dira. Era berean **Arriugran** hobetsi da, frantseseko *-d* kenduta. Bestetik, **Lauhiraze** izeneko erreka bi daude, **Lauhiraze Biduze** eta **Lauhiraze Ühaitza**. **Lauzeta**-ren ordez, **Auzet** onartu da, B. Coyosek jakin duenez, hasierako *l*- hori frantses artikulua delako. **Suhihandia** izena dela eta, Patxi Salaberrik egindako oharraren arabera, toponimo zaharra, berez, **Zuhihandia** da, eta **zuihi- zuihi**-ren ohiko aldaera izaten dela onarturik ere, ez da *-b*-dun aldaera dokumentaturik aurkitu eta, beraz, holaxe onartu da.

Zuberoako **Laserre/Zerra/Laserra** dela eta, Tx. Peillenek gogorarazi du inguru horretan «mendi» esateko **serra** hitza arrunta izaten dela. **Zerrako erreka** utzi da.

4.2. Euskal Herriko ibaien izenak: lehendik onarturiko zerrendei oharrak.

Lehenagoko bederatzi zerrendak onartu badira ere, Onomastika batzordeak zenbait zuzenketa edo gomendio egin nahi ditu, A. Iñigok aurkeztuak, aurreko proposamena hobetzeko.

Horrela, **Rio Mayor**, **Agüera** ibaiaren alonimo gisa, **Riomayor** idaztea proposatzen da, Nafarroako beste zenbait izenen antzera (**Riosalado**, **Barrancogrande**...).

Bigarren zerrendan Eratsun eta Ezkurra herrien arteko ibai bat gehitzea proposatzen da:

Basakaitz izeneko.

Bigarren zerrendan, Saldias eta Eratsun arteko ibaia ere eranstea proposatu da: **Urtzuriko erreka**, beronen sinonimoarekin batera, hots, **Aizkolegiko erreka**.

Bigarren zerrendako erreka baten izena *Zeberia* gisa proposatu zen, baina, kasua azterturik, mugatzailerik gabea dela aurkitu da, eta beraz *Zeberiko erreka* gisa uztea proposatzen du batzordeak.

Proposamen berriek aurrekoekin inolako arazorik sortzen ez dituztenez gero, guztiak onartu dira.

5. Exonomastika, Ekialde hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia.

Euskaltzainburuak aretoa utzi behar izan du eta, tarte horretan, Aurelia Arkotxa buruordeak hartu du batzarraren gidaritza. Horrela, J. L. Lizundiari hitza eman dio.

5.1. Marokoko eta Mendebaldeko Saharako toponimia araugaia onartzea.

J. L. Lizundiak gogoratu du, Espainia eta Frantziako kolonia izandako toki horietan euskaldun ugari soldadu ibiliak direla, eta kasu batzuetan izan dela nolabaiteko euskal tradizioarik. Era berean, horko toponimoen arabiar grafia eta ebakera gainera, izenek espainieraz, frantsesez, ingelesez, italieraz eta alemanez duten transkribaketari ere begiratu zaiola, datu horiekin proposamen orekatua egiteko.

Edonola ere, ez da oharririk jaso eta, beraz, Marokoko eta Mendebaldeko Saharako toponimia araugaia onartu da.

5.2. Palestina eta Israelgo toponimia araugaia aurkeztea. Ondoren, J. L. Lizundiak Palestina eta Israelgo toponimo nagusien zerrenda aurkeztu du, azkenetako utzia zena. Hitza X. Kintanari eman dio. Beronek azaldu duenez, Exonomastika azpibatzaordeak bai hebreerazko eta bai arabierazko alfabetoak euskarara letraldatzeko taulak ezarriak eta onartuak ditu. Taulok egokiak dira hizkuntza horietako hitz arruntak eta bertako pertsona zein leku-izenak jatorrizko hizkuntzan nolakoak diren jakiteko, bai eta maiztasun handia ez duten izenak transkribatzeko ere. Harene, eskualde horietako beste izen askok Biblian eta literaturan aspaldiko erabilera historikoa izan dute, eta jatorrizko hizkuntzetatik euskarara letraldatze mekaniko hutsa egiteak ulertu ezinezko egokitzen pitxiak leharke (*Jerusalajim*, *Jerikho*, *Akko*, *Tzijon* edo «*Aza*, adibidez, ohiko *Jerusalem*, *Jeriko*, *Akre*, *Sion* edo *Gaza* ezagunagoen lekuan).

Hori dela eta, hor ere, azpibatzaordeak maiz nahiago izan du orain arteko tradizio biblikoa eta inguruko kultur hizkuntzak eredu hartzea. Besterik dira, ordea, gaurko toponimo berri zein zahar egokituak (*Tel Aviv*, *Beerxeva*, *Netanya*, *Jaffa*...), kasu batzuetan bai euskal tradiziozko era zaharra (*Kafarnaum*, *Genesaret*) eta bai oraingo izen ofizial berria (*Kfar Nahum*, *Kinneret*) eskainiz, beste hizkuntzetan egin ohi denez.

Oharra bidaltzeko azken epea: 2011ko urriaren 20rako.

6. Hiztegi Batuko bigarren itzuliko A-J tarteko sarrerak, onartzea.

Hitza A. Sagarnak hartu eta A-J zerrendari eginiko oharra azaldu ditu xeheki. Alde batetik, J.L. Lizundiak *arabazozo*, *armagizon* eta *ezkerralde* hitzei zuzendurikoak, eta, bestetik, X. Videgainek *alababixi*, *alportxa*, *anda*, *arreske*, *balentzia*, *bentosa*, *endaitz*, *gaizkata*, *gatzarri*, *harpa*, *hartz*, *hikaurtze*, *gatzigar* eta *hidoi* berbei buruzkoak.

Proposamenak, banan-banan ikusi eta aztertu ondoren, Euskaltzaindiak aurretik jada erabakiaren aurka ez zihoazen neurrian, ontzat eman dira.

Era berean, dokumentuak jaso eta gero, euskaltzain osoek eginiko proposamenak ikusita, *biribilgune*, *enbalditu* eta *etxepe* hitzetan ukitu batzuk egin dira, hitz horiek zehatzago definitzeko.

Esandakoari buruz euskaltzainen iritzia zein den galdetuta, A. Sagarnak Batzordetik ekarritako proposamena onartu da. Edonola ere, J. Haritschelharrek adierazi nahi izan du, X. Videgainek egindako ohar ia-denak onartu ez direnez gero, ez dakiela zein den haren iritzia, eta, beraz, haren ordezkari iritzirik agertuko.

7. Plan Estrategikoa: 2012ko planak, behin behineko aurrekontuak eta jardueren diagrama berria aurkeztu eta berrestea.

Erramun Osak aurkeztua. Idazkariordeak Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko 2010.eko programa-kontratua hizpide izan du. Era berean, 2012ko plana egitean, hamaika erronka aipatu ditu, Euskaltzaindiak 2011ko maiatzaren finkaturiko bost ildo estrategikoetan oinarrituak.

Ondoren, 2012ko urterako ardatz nagusiak berrikusi ditu: Ikerketa eta araugintza indartu eta sustatzea, Euskaltzaindiaren lana gizarteratzea eta gizartearekiko harremanak sendotzea, Akademiaren lana are nabarmenago agertzea, erakundearen barruko lana eraginkorrago bilakatzea, finantzaketa-bide berriak lortu eta, azkenik, lan ildoak eta ardatzak garatzeko eskema eta kronograma. Horren hurrengo, Euskaltzaindiaren batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen 2012 urteko plangintza aritu da.

Batzorde, lantalde eta egitasmoen emaitzak zein kontu emateak direla eta, errendapenak zehazkiago egitea beharrezkoa dela esan du idazkariordeak, maiz, orokorregiak direlako, ez baita erraza jakitea aldi bakoitzean aurrerapena zertan eta norainokoa izan den. A. Urrutiak 13. orrialdean falta den titulua oharra egin du, *Euskera* agerkaria aurkibidean txertatzea falta baita.

Ondoren Joseba Zabaleta kudeatzaileak aurrekontuez hitz egin du, eta oraingo egoeraren berri orokorra eman. Bere kezka ere adierazi du, Euskaltzaindiak urtez urte pairatzen duen eta metatzen ari zaizkion murrizketengatik. J.L. Lizundiak begi onez ikusi du kudeatzailearen aurrekontua, murrizketei ondoko hilabeteetan aurpegia emateko.

P. Zabaletak bulegoak abuztuan irekirik mantentzeko komenientzia aipatu du, baina horretarako zailtasunak azaldu zaizkio, Akademiaren funtzionamendu egokirako langileen oporrak bateratu eta koordinatu behar direlako. Halere, opor-hilabete horretan Bilboko egoitzan beti gelditzen dela norbait argitu zaio.

8. Eskuartekoak.

8.1. Euskaltzaindiaren hiztegia. Euskaltzaindiak bereziki izendaturiko bi batzorde ahaldunduetako baten lanaldia jada iraungirik dago, eta bestearena, aldiz, urte honen amaieran bukatuko da. Dena den, 2012. urterako aurreikusitako lanak direla eta, beren lanaldia datorren urtea amaitu arte luzatzea proposatzen du Zuzendaritzak. Proposamena Osoko bilkuran hobetsi du.

8.2. Ageriko bilkuretako bilera-agiriak: gaur 2011. urteko urtarril-uztaila arteko Ageriko bilkuretako bilera-agiriak aurkeztu dira (2011-01-28, 2011-02-25, 2011-04-15, 2011-06-25 eta 2011-07-22), hurrengo Osoko bilkuran onartzeko. Iruzkina edo oharra egiteko epea: 2011ko urriaren 20rako.

8.3. Donostiako Ikergunea. Euskaltzainburuak azaldu du Donostian, Euskaltzaindiaren premietarako egokitu berri den Tolare basetxea jada prest dagoela. Horri *Luis Villasante euskararen ikergunea* izena ematea proposatu du, eta euskaltzainek horrelaxe onartu dute aho batez. Bertako aretoa eta gelak ere beste izen banarekin izendatzea proposatu da, baina, ideia onartuta, hori zehaztea hurrengo bilera baterako utzi da.

8.4. Espainiako sari nazionalak. Euskaltzaindiak, Espainiako literatura sari nazionalak emateko, proposaturiko epaimahaikoen zerrendarekin bere hautua egin du Kultura Ministerioak, eta Akademiari pertsona aukeratu horien izenak bidali dizkio. Jasoriko karta horretako zerrenda irakurri du Andres Urrutiak.

8.5. Iruñeko udalaren literatura-saria idazle berrientzat. Iruñeko udalak bi urterik behin egin ohi duen sariketarako bere ordezkaria izendatzeko eskatu dio Euskaltzaindiari. Zuzendaritzak, eskari hori jasota, 2011-09-26ko bileran Patziku Perurena jauna izendatzea erabaki zuela jakinarazi du euskaltzainburuak.

8.6. Madrileko jardunaldiak. Andres Urrutiak, halaber, jakinarazi du Euskaltzaindiak Etxepare Institutuarekin eta RSBAPEkin batera aurten Madrilen egiteko zituen jardunaldiak atzeratu egingo direla, eta, dirudienez datorren urteko otsailean edo martxoan burutuko dira.

8.7. Banatzeko liburuak.

Euskaltzainburuak gaur Tafallako ikastolan liburu hau aurkeztuko dela azaldu du: *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha* (Jagon-13), Euskaltzaindiak ikastolekiko lankidetzan prestatua. Era berean, *Euskaltzaindia eta Nafarroa / Euskaltzaindia y Navarra* obraren 2. argitaraldia banatuko da.

9. Azken ordukoak:

9.1. Urriko 28ko osoko batzarra. Amaitzeko, Andres Urrutiak gogoratu du Euskaltzaindiaren urriko Osoko batzarra Donostian izango dela, goizeko 9,30ean Gipuzkoako Foru Aldundian.

9.2. Ageriko bilkura. Osoko batzarraren ondoan, euskaltzainak, autobusean, Euskaltzaindiaren ikergunera abiatuko dira, hots, Tolarera. Bertan Ageriko bilkura egingen da, ikergunearen inaugurazio ekitaldian. Horren ostean, berriz ere autobusean, hiriaren erdialdera itzuliko dira euskaltzainak.

Eta besterik ez dela, Osoko batzarra 12etan amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Tafallan, 2011ko irailaren 30ean

Tafallan, 2011ko irailaren 30ean, arratsaldeko 17:30ean, herriko Kultura Etxean, Nafarroa Oinez 2011 dela eta, antolatutako ekitaldien barruan Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita eta Patxi Uribarren.

Erramun Osa idazkariordea.

Patxi Juaristi Sustapen batzordeko kidea.

Gema Insausti Euskaltzaindiko langilea.

Bilkurari hasiera emateko, Rexu Urrutia ikastolako zuzendariak hartu du hitza; haren agurraren eta eskerroneko hitzen ostean, Anjel Iriso «Zaki» irakasleak «Garcés de los Fayos ikastolaren historia» izeneko mintzaldia eman du.

Hitzaldi horren bitartez, ikastola sortu zenetik gaur egun arte egindako urratsak, bizi izandako uneak, gatazkak, erronkak, lorpenak... horiek guztiak aipatu ditu Iri-sok. Besteak beste, Jorge Cortes Izal izan zena gogoan izan du, baita hasierako umeak, irakasleak, gurasoak eta era guztietako bultzatzaileak ere. Izan ere, «haien laguntza paregabea izan zuten eta, garai haietan ikastola sortzeko, Nafarroako beste ikastolek bezala». Gurasoei buruz, aldiz, hauxe esan du: «Haiek frogatu dute bazela, eta badela posible eskola bat zuzenean kudeatzea eta, horrexegatik, bete-betean inplikatzeko». Irakasleei dagokienez, besteak beste, beti erakutsi duten lan egi-

teko grina azpimarratu du: «Guk beti argi izan dugu nor garen eta non gauden: gure norabidea gauzak ongi egitea izan da eta ikastola anitza dela erakustea».

Era berean, Ikastolaren eredu pedagogikoa goraipatu du, eta honela laburbildu: «Ikastolak ezberdinak dira, berrikuntza asko ekarri dituzte eta beren ikasmoldea eredu bihurtu da askorentzat. Eleaniztasuna, ikasleekiko hurbiltasuna, gurasoekiko elkarlana, laizismoa (ikastola anitzetan, behintzat), oztopoak gainditzeko kemena, altruismoa, irakasleen motibazioa, proiektu berrietan parte hartzeko beldur eza, hobetzen jarraitzeko gogo... presente egon dira eta daude gure eguneroko jardunean». Eta gaur egungo egoeraz mintzatu denean ere harro agertu da entzuleen aurrean: «Denok oso harro sentitu behar dugu lortu dugunarengatik: ikastolako guraso, irakasle, guraso ohi, ikasle ohi eta historian zehar lagundu gaituzten hamai-ka lagunak. Ikastola da, ezbairik gabe, gure inguruan sortu den euskal lorerik xarmagarriena».

Horren ostean, Jose Mari Espartza «Euskara Tafallaldean» gaiaz mintzatu da. Hasteko, Jose Mari Jimeno Jurio ekarri du gogora –«gure hizkuntzaren historia osatzeko lan handia egin zuen»– eta jarraian azken urteotan historialariek bildutako datu berriak baliatu ditu, XVI. menderako Tafallan euskara galdua zegoen usteari aurre eginez. «Bertako ikertzaileek egindako azken aurkikuntzek adierazten digute-nez, XVII. mendean, Tafallako herritar askok euskara zuten eguneroko hizkuntza».

Tafallan ez ezik, Erriberriko eskualde osora ere zabaldu ditu datuak, antzeko ondorioak azaleratuz. Erriberri bertan, Puiun, Artaxoan, XVI. eta XVIII. mendeen arteko herritar asko eta asko, euskaldunak zirela frogatzen duten dokumentuak ugariak dira.

Horiek horrela, Espartzak ondorio garbia atera du: «Orain gutxira arte ezezagu-na genuen dokumentazioari esker, badakigu Merindadea euskalduna zela orain ez dela asko. Euskararen mapa historikoa egiteke dago.»

Ondoren Andres Iñigo Jagon sailburu eta Nafarroako Euskaltzaindiko ordezkariak, hitza hartu du. Honek, *Euskaltzaindia eta Nafarroa* liburuxkaren 2. argitalaldiaren aurkezpena egin du. Argitalpen honetan Euskaltzaindiak Nafarroan egin duen ibilbidea, Nafarroarekin lotura duten argitalpenak, euskaltzainak eta abar jasotzen dira. Ekitaldiaren ostean aleak banatu zaizkie bertaratu diren guztiei.

Amaitzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak azken hitzak esan ditu. Egunean zehar Akademiak Tafallan egin duen lana azpimarratu du. Izan ere, goizean Osoko bilkura egin da Tafallako Udaletxean; eguerdian, aldiz, Tafallako Garcés de los

Fayos ikastola bisitatu dute euskaltzainek. Era berean, *El movimiento de las Ikastolas*, Euskaltzaindiak eta Ikastolen Konfederazioak paratutako liburua aurkeztu da eguerdian Ikastolan, eta Nafarroa Oinez ekitaldian bilduko den diruaz, Tafallako Ikastola indartzeko eskuartean duten egitasmoaren berri ere jaso du Akademiak. Ikastolako aitzindariantzat, gurasoentzat, ikasleentzat eta irakasleentzat esker oneko hitzak izan ditu euskaltzainburuak, euskara hedatzeko egiten ari diren lana azpimarratuz eta eskertuz.

Ikastolako umeek abesturiko kanta batekin amaiera eman zaio ekitaldiari arratsaldeko 19:15 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Donostian, 2011ko urriaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Charritton, Pierre,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Erramun Osa, idazkariordea,

Mikel Gorrotxategi,
Patxi Galé
euskaltzain urgazleak
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Irazuk
ahala Andres Urrutiari; Pello Salabu-
ruk ahala Patxi Goenagari; Mikel Zal-
bidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 09:45ean hasi da Do-
nostiako Diputazioaren Jauregian, ez-
kerreko zutabeen ageri diren euskal-
tzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko
euskaltzain guztiak agurtu ditu, eta ba-
tzarrari hasiera eman zaio.

1. Aurreko Osoko Bilkurako akta onartzea.

2011ko irailaren 30eko akta dela, Piri-
nioez bestaldeko ibai eta erreken III.
zerrendari dagokionez, Jean Ha-
ritschelharrek Urepeleko Errobi izenari
lehentasuna ematea eskatu du, denbo-
ran Aldudeko Errobi baino lehenago-

koa delako. Aurreko bilkuran Urepeleko Errobi izenari lehentasuna ematea eta Aldudeko Errobi sinonimotzat jartzea erabaki zela argitu du Andres Iñigok. Bileragirian ere hala konstaraztea erabaki da.

2. Ageriko Bilkuretako bilera-agiriak onartzea. Jendaurrean 2011-01-28, 2011-02-25, 2011-04-15, 2011-06-25 eta 20-07-22an eginiko ageriko bilkuren aktak direla eta, ez da horiei buruzko oharrik jaso, J.L. Lizundiak aurretik eginak eta jada testuan sartuak baino, eta beraz holaxe onartu dira.

3. Onomastika

3.1. Onarturiko zenbait ibai izenen erabileraz oharra:

A. Iñigok gaia aurkeztu eta P. Galéri eman dio hitza. **-a** seinalea duten ibai izen batzuei buruzko oharrik egin ditzan, orain artean onarturiko izenen informazioa biribiltzeko.

A. Arejitak eta J.L. Lizundiak nork bere iritzia azaldu dute, herri-usadiozko berezitasun eta salbuespenekin. P. Goenagak ere bere kezka agertu ditu, kasu batzuk salbuespenezkotzat joaz.

A. Iñigok argitu du orain arte erabilitako irizpideak aplikatuz aurkeztu dela gaurko zerrenda eta irizpide horiei eustea proposatu du.

M. L. Oñederrak holako salbuespenak errespetatzeko eskatu du. P. Zabaletak *La Bizkaia*-ren kasua aipatu du. P. Uribarrenek, P. Galék eta M. Gorrotxategik orain arteko irizpideari eustea. I. Sarasolak hirugarren mailako arazotzat jo ditu, A. Arejitak, berriz, herri-usuarioari kasu egiteko eskatu du, A. Sagarnak izen-etiketen kontua aipatu du, J.L. Lizundiaren ustez, gai hori sakona da, eta bilera monografikoan tratatzekoa. P. Goenagak mezu batzuen erdal bidea salatu du (*Gora Euskal Herria askatuta*, adibidez), eta B. Oihartabalek kasuistika luzeegia eta arriskugarria datekeela uste du. A. Iñigok, ordea, araua orain arteko irizpideekin egin eta argitaratzea proposatu du. Ontzat eman da.

Ondoren onartutako **Larhunttikiko erreka** dela eta, ohar bat egin du Onomastika batzordearen izenean A. Iñigok. Mendi horren izena hegoaldean dauden Nafarroako herrietan, oro har, **Larun** ahoskatu eta idazten da, iparraldekoek, berriz, **rr**-rekin idazten dute, Hor segur asko frantsesaren eraginagatik **r/rr** arteko bereizketa iluna dela aipatu da, **guraso/burraso**, **oroitu/orroitu** hitzetan bezala. Batzordeak irtenbidetzat, errekarako hartutako erabakia aplikatuz, **Larhun** idaztea proposatu du, hots, muga dagoen **Orhi** mendi izenarekin egin zen bezala, baina ez da adostasunik izan eta mendiaren izena aztertzen denerako utzi da. Nolanahi ere, erreka izena aurreko bilkuran araututako eran utzi da.

4. Exonomastika, Ekialde hurbileko eta ipar Afrikako toponimia.

4.1. Palestina eta Israelgo toponimia araugaia onartzea.

Aurreko bileran banatu zen zerrendari ez zaio oharrik egin, eta beraz, onartu egin da.

4.2. Arabia eta Sudango toponimia araugaia aurkeztea. Arabiar penintsulako toponimo garrantzizkoenen zerrenda banatu dute, Exonomastika azpibatzordeak prestatua. Aurkezpena J.L. Lizundiak egin du, eta gero hitza X. Kintanari eman dio, izenak hautatzeko, kontuan izandako irizpideak azal ditzan. Aurrekoan egin bezala, oinarritz arabierazko transliterazio-taula erabili bada ere, maiztasun handiko eta nazioarteko forma aski ezaguna eta finkatua duten izenen kasuan, hori ere kontuan izan da, irizpide eklektikoa erabiliz. Oharrak azaroaren 20rako. P. Xarritonek bere amazig adiskideez hitz egin du, agian, toponimo batzuen formak argitzeko, lagun-garri izan litezkeelako, baina zerrenda honetan tamazig hizkuntzatiko izenik ez dela azaldu zaio.

5. Plan estrategikoa: 2012ko planak, jasotako ekarpenak.

E. Osa idazkariordeak Tafallan aurreko batzarrean aurkeztu zuen 2012ko planari ekarpen bakarra egin zaio, J.L. Lizundiak bidalia. Ekarpina onartu da.

6. Eskuartekoak.

6.1. Piarres Charritonek 90 urte. Piarres Charritton euskaltzainak laurogeita hamar urte bete berriak dituela eta, Euskaltzainburuak, Akademia osoaren izenean, zorionak eman dizkio, hemendik aurrera ere euskararen onerako anitz urtetan lanean segi dezala opatuz.

6.2. Patxi Salaberriren eskaria. Patxi Salaberri nafar euskaltzainak gutun bat igorri dio zuzendaritzari unibertsitateko eta bestelako lanen metaketagatik, Onomastika batzordea eta Hiztegiaren Batzorde ahaldundua utzi nahi dituela eta. Eskaria ontzat eman da.

6.3. Eusko Ikaskuntza. Manuel Lekuona saria. Eusko Ikaskuntzak antolatzen duen Manuel Lekuona sarirako, Euskaltzaindiari bere ustezko pertsona egokien izenak proposatzea eskatu dio. Zuzendaritzak bere azken bileran **Joxe Azurmendi** eta **Ana Etxaide** ohorezko euskaltzainen izenak proposatzea hobetsi zuen eta horietatik ekarri ditu euskaltzainen kontsideraziorako. Bien izenak aztertuta eta Eusko Ikaskuntzari pertsona baten izena proposatu behar denez gero, Ana Maria Etxaide proposatzea onetsi du Osoko bilkurak.

6.4. Kutxarekiko hitzarmena.

Aste honetan, asteazkenean, Kutxarekin hiru urtetarako hitzarmena izenpetu da. Horren arabera, urteko 50.000 euroko ekarpena egingo dio Kutxak Akademia-ri, hitzarmenak irauten duen bitartean.

6.5. Liburu errepikatuak banatzea.

Inoiz aurreko aldi batzuetan egin den bezala, oraingoan ere, Azkue bibliotekako zuzendariak zerrenda bat prestatu eta euskaltzainen artean banatu da, Euskaltzaindiak bikoizturik dauzkan liburuen izenburuekin, horietan interesa duten euskaltzainek eska ditzaten. Emaizak, eskariak heltzen diren ordenan egingo dira, eta posta-kostuak urritzeko, Euskaltzaindiaren egoitzan edota ordezkartzetan jaso beharko dira.

6.6. J. A. Arana Martijari buruzko liburua argitaratu du Eusko Ikaskuntzak.

Manuel Lekuona saria dela eta, Jose Antonio Arana Martijari buruzko liburu-txoa argitaratu du Eusko Ikaskuntzak. Liburu hau Pruden Gartzia eta Josune Ola-barriak paratu dute. Liburu hau euskaltzainen artean banatuko da.

6.7. 2012. urterako behin-behineko aurrekontuen berri.

Une honetan herri-aginteetatik jasotzen ari garen informazioa kontuan hartuta, Jose Luis Lizundia diruzainak hitza hartu du, egoera zaila datorrela adieraziz. Hainbat erakundeetatik datuak jasotzea falta da, baina mezuak ez dira baikorrak.

Joseba Zabaleta kudeatzaileak hitza hartu du ondoren, eta pantailan agertu ditu aurreikuspenak, erakundeen doiketak eta murrizketak. Datu gehigarriak eduki ahala, prozesu bat jarri beharko da Euskaltzaindian murrizketei aurre nola egin erabakitzeko.

7. Azken ordukoak

Hurrengo Osoko bilkura Bilbon egingo da goizeko 10:00etan hasita. Horren ondoren Ageriko bilkura egingo da *EGLU-VII* lana aurkezteko.

Eta besterik ez dela bilkura 11:00etan amaitu da.

Idazkariordeak Diputazioaren jauregitik **Luis Villasante euskararen ikergunea** kokatua den TOLARE baserrira autobusez joan eta bertan biltzeko azken oharrak eman ditu.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2011ko urriaren 28an

LUIS VILLASANTE EUSKARAREN IKERGUNEAREN INAUGURAZIO-EKITALDIA DELA ETA

Donostian, 2011ko urriaren 28an, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, goizeko 11:30ean, Euskaltzaindiak Luis Villasante izena daraman ikergunearen inaugurazio ekitaldia dela eta, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Frantziska Arregi, Koldo Artola, Gorka Aulestia, Joseba Intxausti, Jose Mari Iriondo eta Karnele Rotaetxe.

Euskaltzain urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Xabier Artola, Agnes Dufau, Pello Esnal, Jesus Mari Etxezarreta, Patxi Galé, Ramuntxo Kanblong, Elixabete Perez Gaztelu, Paskual Rekalde, Miriam Urkia, Patri Urkizu eta Arantza Urretabizkaia.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Batzordekideak: Antton Gurrutxaga eta Luis Mari Zaldua.

Euskaltzaindiko langileak: Maixa Goikoetxea, Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 95-174. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ezin etorriak: Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Pello Salaburu eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak; Joxe Azurmendi eta Ana Maria Etxaide euskaltzain ohorezkoak; Dorleta Alberdi, Luis Alberto Aranberri, Rikardo Badiola, Jose Mari Etxebarria, Jose Ramon Etxebarria, Iñaki Irazabalbeitia, Alan King, Laura Mintegi, Rosa Miren Pagola, Manu Ruiz Urrestarazu eta Iñaki Segurola, euskaltzain urgazleak; Jasone Salaberria batzordekidea.

Luis Villasante Euskararen Ikergunea izena bistaratzea izan da, hain zuzen ere, Ageriko bilkurari hasiera eman dion unea. Euskaltzainak, herri-aginteeko ordezkariak, Luis Villasanteren senitartekoak eta Arantzazuko Frantziskotarren ordezkariak bertan zirela, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Miriam Villasante Villasanteren ilobak eta Joxe Mari Arregi Frantziskotarren goardia-nak «Luis Villasante Euskararen Ikergunea» izena daraman plakari estalkia kendu diote. Plaka altzairuzkoa da, Villasanteren aurpegiaren irudia dauka, eta Ikergunearen izena, lau hizkuntzatan idatzita: euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez.

Esan bezala, Villasanteren senitartekoak eta Arantzazuko Frantziskotarrak gonbidatuak izan dira Ageriko bilkura honetara. Eurekin batera, herri-aginteen ordezkari hauek izan dira: Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusia, Juan Carlos Izagirre Donostiako alkatea, Carmen Gutierrez Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirola saileko zuzendari nagusia, Miren Dobaran Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara sustatzeko zuzendari nagusia, Frantxua Maitia Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea, Maximino Gómez Nafarroako Gobernuako Euskarabidearen zuzendari-kudeatzailea eta Lourdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Horiek guztiok, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, hitza hartu dute gaurko Ageriko bilkuran.

Poza, elkarlana, euskararen ikerkuntza, laguntza eta etorkizuna izan dira Andres Urrutia euskaltzainburuak ekitaldiari hasiera ematerakoan erabili dituen hitzak, ondorengo mintzaldietan ere gehien entzun direnak. Hala, erakunde guztietako ordezkariak Euskaltzaindiarekin daukaten harreman sendoa azpimarratu nahi izan dute, baita etorkizunean hala izan dadin asmo garbia adierazi ere.

Martin Garitanok, orain arte Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak elkarrekin egin duten bidea etorkizunean ere norabide beretik joan dadin bere nahia adierazi du. XXI. mendean barrena Euskaltzaindiak zeregin handia izango duela gaineratu du, eta Euskararen Akademiak Gipuzkoako Foru Aldundia asmo horietan laguntzaile, eta beti alboan izango duela azpimarratu du.

Ikergunea kokatzen den baserria sagarrak bildu eta sagardoa egiteko erabiltzen zen dolarea izanik, hizlari gehienek hitz-jokoa eginez, Euskaltzaindiak, Ikergune berrian, euskarari zukua atera behar diola esan dute. Juan Carlos Izagirre alkateak ere hala egin du, honakoa gaineratuz: «Ohorea da Euskaltzaindiaren egoitza berri honen inaugurazioan egotea, besteak beste, Donostia euskararen hiria bilakatu nahi dugulako».

Carmen Gutierrezek ere, hemen euskarari zukua aterako zaiola esan du, eta Arabako Foru Aldundiaren izenean Akademiari eskerrak eman dizkio egiten duen lanagatik.

Miren Dobaranek eta Lourdes Auzmendik ere aipatu hitz-jokoa egin dute. Horrez gainera, Dobaranen esanetan, «Euskaltzaindiak Gipuzkoan duen presentzia indartu eta sendotu egingo da». Gainera, «Euskararen Ikerguneak Luis Villasante Bizkaiko seme kuttunaren izena eramatea guretzat, bizkaitarrontzat, ohore handia da».

Lourdes Auzmendik esan duenez, «gaur egun handia da euskaraz bizi nahi eta maite dugun guztiontzat. Seguru gaude etxe hau euskararen zutabe bihurtuko dela, eta ez bakarrik Gipuzkoan, baizik eta Euskal Herri osoan».

Maximino Gomezek Nafarroako Gobernuaren eta Akademiaren arteko elkarlana goraipatu du eta Luis Villasante Euskararen Ikerguneak «ikertzaileen lana hobetzen lagundu duela» iragarri du.

Frantxua Maitiak ere gogora ekarri du EEP eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana, eta aukeraz baliatu da Ipar Euskal Herrian euskararen ofizialtasunaren nahia aldarrikatzeko.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, besteren artean, hauxe adierazi du: «Gaur Euskaltzaindiak euskararen ikergunea abiarazten du, bertara biltzen dituela Donostia hirian zehar sakabanaturik dituen ikertzaile-taldeak eta norbanakoak. Hortaz, Akademiak asmo eta amets zaharra egia bihurtu eta indartu ere egin du bere lana, betidanik Bilboko egoitzan eta ordezkaritzetan ondu duena, Euskal Herriaren lurraldeetan zehar. Hona, bada, ikerkuntza eta gizarte zabalkuntza, euskararen bidez uztartuak eta estekatuak».

Donostiako hiriari eskaintza egin dio: «Jakizue Euskaltzaindiaren izenean, gure eskaintza orokorrarekin batera, bereizia ere baduzuela Donostia Kultura hiriburua egitasmorako. Ziur gaude etxe honek zerbitzu baliotsuak eman ditzakeela horretan eta, oro har, donostiarren eskuetan jartzeko kultura azpiegitura berri hau», eta azkenean, Luis Villasante gogora ekarri du. Honela esan du: «Izanak izena dakar, hala

esan ohi da euskaraz. Horrexegatik, izendatu du euskararen Akademiak ikergune berria Luis Villasante izenarekin eta hala onetsi du Tafallan egin duen azken Oso-ko bilkuran. Hartara, euskaltzainburu ohiaren gomuta ohoratzen dugu, bera izan baitzen euskara batua eta ikerkuntza zereginak bultzatu zituen Akademiaren barruan. Gisa horretan, haren izenak aldamenean ditu, bateko, Carlos Santamaria ohorezko euskaltzainarena, horren izena eman baitio Euskal Herriko Unibertsitateak biblioteca berriari eta, besteko, Koldo Mitxelena euskaltzain osoarena, egunero barreiatzen dena Donostian haren izena daraman gunean garatzen diren ekin-tzen bidez. Aurrerantzean, bistan da, batera izango dira hirurok gure oroimenean, euskara eta euskal kulturaren inguruan».

Amaitzeko, Ikergunearen aurrealdean ikusgai dagoen plakaren erreplika bana, Euskaltzaindiaren izena, ikurra, gaurko data jasotzen dituen, banatu dizkiete Akademiako Zuzendaritzako kideek Villasanteren sendiari, herri-aginteei eta Arantzazuko Frantziskotarrei.

Eta besterik ez dela, bukatutzat eman da Ageriko bilkura eguerdiko ordu bata denean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Bilbon, 2011ko azaroaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Aurelia Arkotxa, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Charritton, Pierre,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oiharzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel

Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,

Ezin etorriak eta ahalak:

Jose Irazu «B. Atxaga»k, ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik, ahala Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 9,15ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko Egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Agurra eta hasierako oharra:
Euskaltzainburuak, bilduriko euskaltzainak agurtu ondoren, jasoriko ahalak jakinarazi ditu.

Egin duen oharren arabera, abenduan ageriko bilkura izanen da Baionan, baina ez da eginen Osoko Batzarrik.

1.1. Aurreko Batzarraren Akta (2011/10/28) onartzea. Ez da oharrik jaso eta, hortaz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Exonomastika. Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia

2.1. Arabia eta Sudango toponimia araugaia onartzea. J. L. Lizundiak azaldu duenez, inork ez du oharrik bidali eta, ondorioz, Arabia eta Sudango toponimoen zerrenda onartu egin da.

3. Euskaltzaindiaren hiztegia K-Z letren arteko hitzak aurkeztea.

A. Sagarnak presentatu ditu, eta Euskaltzaindiaren Hiztegia eratzeko, Hiztegi Batuko zerrendako K-Z multzoko hitzak eta A-J ataleko beste zenbait osagarri nola eta zergatik ezarri diren azaldu du. Orain arte erabiliriko marka batzuk (h. eta e.) kentzearen arrazoiak ere argitu ditu.

Era berean, bizidunen taxonetan, hitzen definizioetan, agertzeko eran edo koherentzian hutsen bat berridatzi dira, kasu bakoitza azalduz. Gauza bera konposatu kimiko batzuen kasuan ere. Amaitzeko, zuzenketa-aldaketak nola egin ere xeheki erakutsi du, bai eta egin zaizkion galderak erantzun ere.

Oharrak eta zuzenketa-proposamenak egiteko azken data: 2012ko urtarrilaren 16ra arte.

4. Plan estrategikoa eta 2012. urterako aurrekontuak.

Euskaltzainburuak hitza Erramun Osa idazkariordeari eman dio, beroriek aurkez ditzan. Hasieran, aurreko testuarekin alderatuta, oraingoan nolako aldaketak izan diren azaldu du. Gramatika batzordearen plana falta zen, baina jada aurkeztua da. Ahoskera lantalde suntsikorraren berri ere eman du, M. L. Oñederrak aurkeztua, orain Zuzendaritzak aztertzeko dagoena. Corpus batzordeak, ordea, ez du berea aurkeztu. Euskaltzainburuak urtarrilean aurkeztuko duela argitu du.

4.1. Egoera ekonomikoari buruzko informazioa. Euskaltzaindiak eta, oro har, gizarte osoak aspaldion pairatzen duen egoera ekonomiko larriaz kontsiderazio batzuk egin ditu A. Urrutiak, horien berri Euskaltzaindiaren osakide eta langile guztiei emateko premia nahitaezkoa dela adieraziz. Horretarako, beharrezkoa dakusa Bilboko egoitzan eta Donostia, Iruñea eta Baionako ordezkari-tzetan lehenbailehen bilera informatiboak antolatzea, bertan Akademiaren partaideak biltzeko, guztiak egoera ekonomikoaren larritasunaz jabe daitezen.

4.1.1. Langileen ordezkariak dokumentu bat irakurri. Hasierako azalpenak eman ondoren, etengaldi bat egin eta langileen ordezkari diren Iñaki Kareaga eta Marisa Goikoetxea jaun-andreei Batzargelara sartzeko esan zaie, berek aurretik eskatu bezala, Euskaltzaindiari helarazi nahi dioten dokumentua pertsonalki ekartzeko. Mezua M. Goikoetxeak irakurri du, eta testua eguneko gainerako izkribuekin

batera gorde da. Beren iritzi eta ekarpena eskertu eta ordezkariak aretotik joan ondoren, Euskaltzaindiaren batzarrak aurrera segitu du.

4.1.2. Etorkizunari begira hartu beharreko neurriak. Kudeatzaileak adierazi ditu neurriak. Neurri horiek dira zuzendaritzak hilaren 24an onetsitakoak eta Oso-ko Bilkurara ekartzen direnak. Euskaltzainburuak argi utzi du ezinbestekoa dela, honen inguruan, erabaki bat hartzea, kontuan izanik, gainera, Euskaltzaindiaren kudeaketan zor ekonomikoak sortuko balira, horien ondorioak Euskaltzaindiaren kideengana ere iritsi daitezkeela.

Osoko Bilkurak, dagozkion argibideak jaso ondoren, berretsi ditu proposatutako neurriak – lan harremanen eta aurrekontuen gainekoak barne – eta orobat, horien gainean zuzendaritzak lana egiten segi dezala, eta neurri horiek exekuta ditzala, aldian-aldiko bilkuretarako utziz gerora gerta daitezkeen gastuen zehaztapenak.

4.2. Euskal Gramatika 7. liburuaren aurkezpenerako etena. Aurretik iragarrita zegoen bezala, Gramatika Batzordearen *Euskal Gramatika 7* liburua aurkezteko ekitaldira joateko, Euskaltzaindiak Batzar Aretoan egiten ziharduen batzarra 11,45ean eten du eta euskaltzainak beheko solairuko aretora jaitsi dira. Aurkezpenaren ondoren, 12,20etan berriro lotu zaio aurreko zereginari.

5. Eskuartekoak.

5.1. Euskaltzaindia eta Caja Vital Kutxa Fundazioaren arteko hitzarmena. Euskaltzainburuak jakinarazi duenez, Akademiak eta Caja Vital Kutxa Fundazioak elkarren artean bi urterako hitzarmena (2011 eta 2012) izenpetu dute. Horren bitartez, Kutxak 60.000 euroko ekarpena egingo dio Euskaltzaindiari, bakoitzean 30.000 euro.

5.2. Euskaltzainei banatu zaizkien liburuak.

Euskaltzainen artean honako liburuok banatu dira:

Euskera 2010, 3 liburukia.

Narrazioak eta olerkiak 2010.

Euskaltzaindia eta Araba liburuxka.

Euskal Gramatika 7. Lehen Urratsak VII. Perpaus jokatu gabeak.

Manuel Lekuona Saria: Jose Antonio Arana.

2011ko argitalpenekin atera den orritxoak ere banatu da.

5.3. Azkue Sariak. 2011ko R.M. Azkue sarietarako epaimahaiko kideak, Literatura Batzordeak proposatuak onartu eta jakinarazi ditu Zuzendaritzak:

A mailako saria: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.

B mailako saria: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Mayi Iza.

5.4. Espainiako Sari Nazionalen inguruan.

5.4.1. Aizpea Goenagaren protestako gutuna. Etxepare Institutuaren Zuzendaria den Aizpea Goenaga andreak Euskaltzaindira bere protesta helarazi du, Espainiako Sari Nazionaletarako partaidetzaren berri eman ez zaiolako. Idazkariordeak jakinarazi duenez, bere garaian Espainiako Kultura Ministerioari Etxepare Institutuaren Buruaren izena eta helbidea bidali zizkion Euskaltzaindiak, baina bertako langile batek, oker, lehenagotik zeukan beste helbide batetara bidali zion mezua Aizpea andreari. Jada berandu izan bada ere, gaizki ulertuan Euskaltzaindiak ez duela errurik argi gelditu da.

5.4.2. Euskaltzaindiko en proposamenak. Arantza Urretabizkaia «Premio de Periodismo Cultural» sarira Juan Luis Zabalaen kandidatura helarazi du.

Patxi Goenagak, aldiz, «Premio a la obra de un Traductor» sarirako Joxe Austin Arrieta euskaltzain urgazlea aurkeztu du, *Denbora galduaren bila* Proust-en itzulpenegatik (Alberdania-Elkar, 2010).

M. Azkaratek, aldiz, «Premio Nacional de las Letras Españolas» sarirako Ramon Saizarbitoria euskaltzain urgazlea aurkeztu du.

Proposamen guztiak ontzat eman dira.

5.5. A. Arkotxak Euskadi Sariak azpimarratzen ditu. A. Arkotxak, euskaltzainburuordeak, aurtengo Euskadi Literatura Saridunen artean Miren Agur Meabe, Ur Apalategi eta Joseba Sarrionaindia jaun-andreak daudela eta, Euskaltzaindiaren aktan urgazle horien izenak aipatzea proposatu du. Halaxe onartu da.

5.6. Kepa Mallearen heriotza. Kepa Mallea euskaltzale eta euskal irakaslearen bat-bateko hilketa tamalgarriaren berri eman du A. Urrutiak, atzeritar ero batenegatik Bilboko Santutxu auzotegian azaroaren 14an gertatua. Zuzendaritzak haren senideei Euskaltzaindiaren doluminak bidaltzea proposatu eta halaxe onartu da.

6. Azken ordukoak

6.1. Euskaltzaindiaren 2012ko batzar egutegia.

Euskaltzainburuak hitza Erramun Osa idazkariordeari eman dio, datorren urteko egutegia aurkez dezan. Hori antolatzeke irizpideak ondokoak izan dira:

- Bilera kopurua eta funtzionamendua egokitzea, aurrekontuetan egin diren aldaketen arabera.
- Euskararen herrialde guztietan presentzia ziurtatzea.

– Euskaltzaindiaren lana gizarteratu eta are ikusgarriago egitea. Akademiaren aitzindaritza erakustea.

Horren arabera, hauek dirateke 2012. urtean aurreikusten diren batzarrak:

Urtarrilaren 27an, Bilbon.

Osoko batzarra eta Ageriko bilkura, Vahan Sarkisian, Fernando Mendizabal, Xabier Gereño eta Jose Antono Arana Martija euskaltzainen hilberri txostekinekin.

Otsailaren 24an, Donostian.

Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Ageriko bilkura:
«Hitz ordena erabilera estrategikoa» Jardunaldiak, Corpus batzordearen eskutik.

Martxoaren 13, 14 eta 15ean, Madrilén.

Jardunaldiak: Etxepare/Euskaltzaindia/RSBAP.

Martxoaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundian

Osoko batzarra.

Apirilaren 27an, Bizkaian.

Ageriko bilkura.

Maiatzaren 25ean, Bilbon.

Osoko batzarra eta Ageriko bilkura.
Onomastikaren eremuan egiten den lana jendaurrean azaltzeko saioa.

Ekainaren 29an, Donostian.

Ageriko bilkura. *Erlea* aldizkariaren aurkezpena.

Uztailaren 20an, Gasteizen.

Osoko batzarra, HLC aita Zabalen liburua eta EHS (liburua) aurkeztea.

Irailaren 28an, Iruñean.

Ageriko bilkura/Sustapena/ zuzendaritza.
EHHA IV. liburukiaren aurkezpena.

Urriaren 19an, Bilbon.

Osoko Batzarra. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren aurkezpena eta Hiztegegintzari buruzko jardunaldiak

Azaroaren 16an, Iruñean/Donostian.

Ageriko bilkura: XVII. Jagon Jardunaldiak
(Sustapen batzordeak antolatuak).

Abenduaren 14an, Bilbon.

Osoko Batzarra. Euskaltzaindia sariak.

Oraindik zehaztu gabeko egun batean, Baionan: Jon Miranderi buruzko jardunaldiak

(Literatura Ikerketa Batzordeak antolatuak)

6.2. Erlea aldizkariaren 5. zenbakia. Euskaltzainburuak azaldu duenez, Jose Irazu «*Bernardo Atxaga*» euskaltzainaren zuzendaritzapeko *Erlea* aldizkariaren 5. zenbakia azaroaren 29an goizean, aurkeztuko zaie hedabideei Akademiaren Bilbo-ko egoitzan. Arratsaldean, aldiz, jendaurreko agerraldi antzetzua izanen da BBK-ren Gran Via-ko kultura-aretoan.

6.3. Bernart Etxepareren edizio berriaren aurkezpena Gasteizko Legebiltzarrean.

Abenduaren 2an, goizeko 9etan, Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzari esker, Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburua-
ren azken edizioaren aurkezpena egingen da Parlamentuaren egoitzan, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan. Euskarazko jatorrizko testuaren faksimilaz eta grafia eguneratuaren egokitzapenez gainera, horren itzulpenak ere azalduko dira espainiera, ingeles, frantses, aleman eta italieraz. Legebiltzarreko lehendakariak, Arantza Quiroga andreak, eta Andres Urrutia Euskaltzainburuak egin dizkiote aitzinsolasak. Sarrera Xabier Kintanak prestatua da.

6.4. A. Xahori buruzko jardunaldia Baionan. J. Haritschelharrek Literatura batzordearen buruak adierazi duenez, abenduaren 16an goizean Baionan «*Agosti Chaho eta erromantizismoa Euskal Herrian*» izenburuko jardunaldiak egingen dira, Literatura ikerketa Batzordeak antolaturik. Era berean, arratsaldean Ageriko bilkura izanen da J. Haritschelhar euskaltzainaren eta P. Urkizu euskaltzain urgazlearen mintzaldiekin. Aurkezle X. Kintana idazkaria izanen da, euskaltzainburuaren orde.

6.5. APORLOC erakundearen sorrera ekitaldia Bordelen. APORLOC (*Association de Préfiguration de l'Organisme de Régulation de la Lenga d'Òc*) Okzitaniar hizkuntzaren aldeko elkartearen eratze eta aurkezte publiko ofiziala abenduaren 16an izanen da Bordelen. Euskaltzaindiak ekitaldi horretarako gonbita jaso du eta hara A. Urrutia, A. Arkotxa eta X. Videgain euskaltzainak joango dira.

6.6.-Urgazle berrien izendapena. J. Lakarrak galdetu du ea urgazle berriak izendatzeko epea noiz irekiko den. Datorren urtean izango dela erantzun zaio, baina, horien data eta garaia hurrengo batean zehaztuko dira.

Besterik gabe, batzarra 13:30ean amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2011ko azaroaren 25ean

EUSKAL GRAMATIKA, LEHEN URRATSAK VII (PERPAUS JOKATUGABEAK) LIBURUAREN AURKEZPENA DELA ETA

Bilbon, 2011ko azaroaren 25ean, egoitzan, eguerdiko 11:45ean, Euskaltzaindiak *Euskal gramatika, lehen urratsak VII (perpaus jokatugabeak)* liburua aurkezteko Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealдай, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Karmele Rotaetxe.

Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Patxi Galé, Sebas Gartzia Trujillo, Pruden Gartzia, Jazinto Iturbe, Jabier Kaltzakorta, Jesus Mari Makatzaga, Jose Antonio Mujika, Paskual Rekalde eta Manu Ruiz Urrestarazu.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindik langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza eta Amaia Okariz.

Ezin etorriak: Jean-Luis Davant eta Emile Larre euskaltzain osoak; Jose Mari Iriondo euskaltzain ohorezkoa; Rikardo Badiola, Manu Etxebarria, Rosa Miren Pagona, Elixabete Perez Gaztelu eta Arantza Urretabizkaia euskaltzain urgazleak.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 95-174. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzainburuak ongi etorria eman die Ageriko bilkurara hurreratu diren guztiei, bereziki lan horretan buru-belarri jardun duten Gramatika batzordeko kideei. Berri pozgarritzat jo du Andres Urrutiak EGLU bilduma amaitu izana: «Euskaltzaindiari dagozkion lanen artean, hasieratik, Gramatika nabarmentzen da, Hiztegi-gigintza, Onomastika eta Literaturarekin batera. Orain Euskaltzaindiak aldi oso bati amaiera ematen dio, gramatika arloan, eta hori pozgarria da». Aurreko liburu-ki guztiak Akademiaren webgunean kontsulta daitezkeela ere gogoratu nahi izan du. «Bilduma honen aurreko liburukiak Euskaltzaindiaren webgunean daude; bez-raz, osotasun batean ari gara».

Andoni Sagarna Iker sailburuak azpimarratu duenez, «Euskaltzaindiaren asmo handietako bat Euskal Gramatika lantzea izan da Akademiaren sortzetik beretik». EGLU gramatikaz haxe esan du: «Gramatika deskribatzaile aberatsa da, euskara-ren gramatikak inoiz izan duen deskribapenik osatuena. Corpusetan bilatu behar da hizkuntza egokieraren eredia eta hori da EGLU gramatikaren oinarria: hiztegi-gigintzarako erabiltzen diren corpus berberak baliatzen dira gramatikarako ere». Amaitzeko, Akademiak gramatika arauemailea egin behar duela ere aldarrikatu du.

Pello Salaburu Gramatika batzordeburuak gogoan izan duenez, «Euskal Gramatika. Lehen Urratsak» izeneko bilduma 1984ko irailean aurkeztu zen, Euskaltzaindiak Iruñean egin zuen X. Biltzarrean: «Urte luzeetako eta jende askoren lana da hau, hortaz».

Bildumaren lehenbiziko bi liburukietan izen-sintagma (EGLU I, 1985) eta aditz-sintagma (EGLU II, 1987) aztertu zituen Gramatika batzordeak; EGLU III-an (1990) diskurtso edo testu mailako loturak izan zituen aztergai; EGLU IV-an (1994), juntagailuak; azkeneko bi liburukietan (EGLU V, 1999 eta EGLU VI, 2005) mendeko perpaus jokatuak aztertu dituzte. Oraingo liburukian, ostera, perpaus jokatugabeak aztertzen dira.

Batzordeak menderakuntzari eskaini dizkion hiru liburuetatik azkena da EGLU VII liburuki hau. Bertan aztertutako perpaus jokatugabeak (denborazkoak, kausazkoak eta helburuzkoak, baldintzazkoak, kontzesiozkoak, moduzkoak, erlatiboak, osagarriak) zehaztasunez deskribatu dira.

Gramatika batzordeko kide guztien izenak gogora ekarri ditu Pello Salaburuk, hasieratik gaur arte, egin duten lan eskerga azpimarratuz. Era berean, ondorengo hitzekin amaitu du bere mintzaldia: «EGLU VII honekin amaitzen du Gramatika batzordeak ziklo bat, aurrerantzean lanean segitzeko asmoa baldin badu ere. Asko aldatu dira gauzak azkeneko hogeita hamar urte honetan: gehiago dakigu gramati-

kaz, datu gehiago ditugu hizkuntzaz, euskara gehiago erabiltzen da, eta filologo eta hizkuntzalari asko sortu dira unibertsitateek egin duten lanari esker. Bestetik, lanabesak ere askoz ere handiagoak ditugu orain, eta askoz ere informazio gehiago dugu eskura. Aurrerantzean, berriz ere EGLU guztietako material hori aztertu, berrantolatu, behar denean berriatz... beharko dugu. Orain, azkeneko argazkiaren antzeko zerbait badugula, garaia iritsi da guztia berriz ere beste begi batzuekin birformulatzeko. Hurrengo urteetan horixe ekiteko asmoa dugu.»

Bukatzeko euskaltzainburuak zorionak eta eskerrak eman dizkie liburua paratzen aritu direnei, bai eta aurreko lanak egin dituztenei ere, bilkurari amaiera emanaz, eguerdiko 12:15 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Baionan, 2011ko abenduaren 16an

AGOSTI XAHOREN BIGARREN MENDEURRENA DELA ETA

Baionan, 2011ko abenduaren 16an, IKER zentroan, arratsaldeko 17:00ean, Euskaltzaindiak Agosti Xahoren bigarren mendeurrena gogora ekartzeko asmoz, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Xabier Kintana idazkaria, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Euskaltzain urgazleak: Patri Urkizu.

Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindik langileak: Annie Etxeberri.

Ezin etorria: Andres Urrutia –euskaltzainburua–, Aurelia Arkotxa –buruordea– eta Xarles Videgain euskaltzain osoak.

Xabier Kintana idazkariak sarrera-hitzak esan ditu. «Izan ere, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Aurelia Arkotxa buruordea Bordelen daude, okzitaniar hizkuntza jagoteko sortzekoa den APORLOC izeneko elkartearen sortze-ekitaldian».

Euskaltzaindiaren idazkari akademikoak Agosti Xahoren bizitzari buruz zenbait jakingarri azaldu ditu. Era berean, haren ekarpenak eta haren garaikideek euskarari buruz zuten kezka ere izan ditu mintzagai.

Horren ostean, Jean Haritschelhar euskaltzainari hitza eman dio. Honek, «Euskal Herria Chahoren begietan» izenburua daraman hitzaldia irakurri du. Mintzal-

dian zehar Agosti Xahok euskararekin izandako lotura, garai hartako Euskal Herriari buruz zuen ikuspegia eta haren ekarpenak jorratu ditu xehetasun handiz.

Haren ondoren, Patri Urkizu euskaltzain urgazleak eta Literatura Ikerketa batzordeko kideak hartu du hitza, «Agosti Chahoren obraz eta bere eraginaz» hitzaldia emanez. Bere mintzaldian zehar hainbat testu eta irudi baliatu ditu, besteak beste, Agosti Xahoren obra eta izandako eragina erakusteko.

Amaitzeko Xabier Kintanak gogora ekarri du Jean Haritschelharrek eta Patri Urkizuk eman dituzten hitzaldiak Akademiaren *Euskera* barne-agerkariaren ikerketa zenbakian argitaratuko direla, 2012ko uda aldean.

Eta besterik ez dela, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko zazpiak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Euskaltzaindiaren *arauak*

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindiak 2011. urtean onartutako arauak

Euskaltzaindiak 2011. urtean zehar bost arau onartu ditu. Arauak Exonomastikari (lau arau) eta Onomastikari buruzkoak dira, Euskaltzaindiaren webgunean daude guzti guztiak, <http://www.euskaltzaindia.net/arauak> helbidean.

Xehetasunak, hona hemen:

Exonomastikari buruzko arauak

Exonomastika batzordeak landutako eta proposatutako lau arau argitaratu ditu Euskaltzaindiak 2011n, lauak ere kanpoko leku-izenei buruzkoak.

2010ean Europako toponimia fisiko-politikoa aski modu xehean arautu ondoren, Europatik kanpoko toponimiari lantzea ekin zion Exonomastika batzordeak 2011n. Hauek dira emaitzak:

162. araua: Anatoliako eta Hego Kaukasoko toponimia

Gaur egungo Turkia, Azerbaijan, Georgia eta Armenia estatuetako leku-izen nagusiak jasotzen ditu arauak; guztira, 57 leku-izen. Euskarazko grafia arautua emateaz gainera, jatorrizko grafia, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko grafia ere eskaintzen da.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 177-182. Bilbo
ISSN 0210-1564

Turkiera nahiz azerbaijanera hizkuntzetako grafema batzuekin zenbait gorabehera gertatzen dira. Horregatik, toponimo-zerrendarekin batera, eta haren osagarri, azalpen bat erantsi zaio arauari, irizpideak zehaztearren.

Onarpen-datak: 2010eko abenduaren 17an, Zarautzen (Turkiako eta Azerbaijango toponimia). 2011ko urtarrilaren 28an, Donostian (Georgiako toponimia). 2011ko otsailaren 25ean, Bilbon (Armeniako toponimia).

163 araua: Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak

Hego Kaukasoko toponimia aztertzean (162. araua) heldu behar izan zion Euskaltzaindiak georgieraren eta armenieraren transkripzioaren gaiari. Gaiaren azterketa zabala eta xehea eginda, bi alfabeto horietan idatzitako izenak euskarara aldatzeko sistemak finkatu ziren, eta sistema horietako irizpideak aplikatu ziren arau hartan, ohiko irizpideez gainera, Armeniako eta Georgiako leku-izenen euskarazko ordainak emateko. Transkripzio-sistemok, dena den, ez dira leku-izenetarako bakarrik. Berdin-berdin erabil daitezke, adibidez, pertsona-izenetan ere. Horiek horrela, Euskaltzaindiak egoki iritzi dio egindako azterketa-lana eta hartutako irizpideak aparteko arau batean argitaratzeari, toponimia-arauan agertzen ez diren Georgiako eta Armeniako gainerako leku-izenak, baita bi estatu horietako pertsona-izenak ere, euskarara nola transkribatu behar diren zehazteko.

Transkripzio-proposamena lantzeko, Exonomastika batzordeak Natela Sturua georgiar euskaltzain urgazlearen eta Vahan Sarkisian armeniar oho-rezko euskaltzainaren laguntza izan zuen.

Arauak, bi hizkuntzen alfabetoak erakustez eta grafema bakoitzaren ahoskeraren berri ematez gainera, bi hizkuntza horien erromanizazioari buruzko informazio xehea ematen du. Nazioarteko transliterazioak eta erdara nagusietako transkripzio praktikoa eskaintzen ditu, eta euskararako transkripzio praktikoa ematen du, euskararen sistema grafiko-fonologikoa kontuan hartuta eginda. Hainbat adibide ere ematen dira, transkripzioaren aplikazioa erakustearren.

Onarpen-datak: 2011ko urtarrilaren 28an, Donostian. 2011ko otsailaren 25ean, Bilbon.

164. araua: Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia

Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrika osoko leku-izen geografiko, politiko eta historiko nagusien euskarazko ordainak ematen ditu arauak. Guztira, 320 leku-izen biltzen ditu, estatu eta lurralde hauetakoak: Aljeria, Arabiar Emirerri Batuak, Bahrain, Egipto, Irak, Israel, Jordania, Kuwait, Libano, Libia, Maroko, Mendebaldeko Sahara, Oman, Palestina (gaur egungoa nahiz historikoa), Qatar, Saudi Arabia, Siria, Sudan, Tunisia eta Yemen. Bakoitzean, euskarazko izenaz gainera, jatorrizko izena (eta, arabieraren kasuan, transliterazio akademikoa), gaztelaniazko izena, frantsesezko izena eta ingelesezko izena ematen dira.

Onarpen-datak: 2011ko martxoaren 25ean, Donostia (Siriako eta Libanoko toponimia). 2011ko maiatzaren 27an, Donostia (Irak, Jordania eta Egiptoko toponimia). 2011ko uztailaren 22an, Bilbon (Libia, Tunisia eta Aljeriako toponimia). 2011ko irailaren 30ean, Bilbon (Marokoko eta Mendebaldeko Saharako toponimia). 2011ko urriaren 28an, Donostia (Palestinako eta Israelgo toponimia). 2011ko azaroaren 25ean, Bilbon (Arabiako eta Sudango toponimia).

165 araua: Arabieraren alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema

Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia aztertzean (164. araua) heldu behar izan zion Euskaltzaindiak arabieraren transkripzioaren gaiari. Gaiaren azterketa zabala eta xehea eginda, alfabeto horretan idatzitako izenak euskarara aldatzeko sistema finkatzeko. Transkripzio-sistema, dena den, ez da leku-izenetarako bakarrik. Berdin-berdin erabil liteke, adibidez, pertsona-izenetan ere. Horiek horrela, Euskaltzaindiak egoki iritzi zion egindako azterketa-lana eta hartutako irizpideak aparteko arau batean argitaratzeari, leku-izenen arauan (164. araua) agertzen ez diren arabieraren eremuko gainerako leku-izenak, baita lurralde horietako pertsona-izenak ere, euskarara nola transkribatu behar diren zehazteko.

Transkripzio-proposamena lantzeko, Exonomastika batzordeak Miren Lourdes Oñederra fonologian aditu eta euskaltzain osoari eta Zeinab

Shawky Sayed Mohammed EHUKo arabierazko irakaslearen laguntza izan zuen.

Arabiera hizkuntzaren eta arabiar alfabetoaren hainbat jakingarri emateaz gainera, arauak arabieraren grafema bakoitzaren ahoskera erakusten eta erromanizazioari buruzko informazio xehea ematen du. Nazioarteko transliterazioak eta gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana eta katalanaren transkripzio praktikoak eskaintzen ditu, eta euskararako transkripzio praktikoa ematen du, euskararen sistema grafiko-fonologikoa kontuan hartuta eginda.

Onarpen-data: 2011ko maiatzaren 27an, Donostian.

Onomastikari Buruzko Araua

166. araua: Euskal Herriko ibaiak

Euskal Herriko banaketa administratiboari dagozkion zenbait leku-izen nagusi arautu ondoren, beste izen geografiko batzuk arautzeari ekin dio Euskaltzaindiak, oraingo honetan ibai izenei. Izan ere, zenbait erabiltzaile estrategikorengandik benetako premia dagoela ikusita, gizarte eskaera horri erantzun nahi izan dio Akademiak arau honekin.

Lehenik eta behin, kartografia modernoan laguntzaz, ibai nagusien hautespén lana egin behar izan da eta jarraian historian zehar izan dituzten izenak eta gaur egungo erabileran ematen zaizkienak ere aztertu eta finkatu dira. Euskaraz zer-nolako erabilera izan behar duten erabakitzea da Euskaltzaindiaren egitekoa, ahaztu gabe azken xedea araututako izen horiek mapetan, aldizkarietan, liburuetan eta hedabide guztietan pixkaka-pixkaka islatzearekin batera, izenen eredu jasoak gizarteratzea dela.

Gai honek duen izaera bereziagatik zerrenda hutsak ematea aski ez delakoan, aurkezteko modua ere egokitu nahi izan da arau honetan. Aztertze lanak modu ordenatuan egin ahal izateko, ibaiak bederatzi zerrenda nahiz mapatan sailkatu ziren eta emaitzan ere, zerrenda alfabetikoaz gain, aipaturako sailkapen hori eta zerrenda bakoitzari dagokion mapa eskematikoa ere

eskaintzen dira. Antolatzeko irizpidea geografikoa izan da gehienbat, ahal izan den neurrian arrazoibide politiko-administratiboak alde batera utziz. Honako hauek dira, sailkapeneko zerrendak eta mapak:

1. Bizkaiko kostaldean itsasoratzen diren ibaiak (denera 38).
2. Gipuzkoako kostaldean itsasoratzen direnak (59 ibai).
3. Lapurdiko kostaldean itsasoratzen direnak (91 ibai).
4. Logroño baino gorago Ebron isurtzen diren ibaiak (40).
5. Logroñotik behera Ebron isurtzen diren ibaiak Egaraino (36).
6. Aragoi ibaiaren goiko arroa Onsellaraino (45 ibai).
7. Aragoi ibaiaren beheko arroa, Arga salbu (36 ibai).
8. Arga ibaiaren arroa (56 ibai).
9. Aragoi ibaia baino beherago Ebron isurtzen direnak (13 ibai).

Azkenik, inguruko hizkuntzetan izaten ahal duen erabilera eta aplikazioa kontuan hartuz, euskaraz gain, gaztelaniaz eta frantsesez ere eskaini da 166. arau hau Euskaltzaindiaren webgunean.

Onarpen datak: 2011ko irailaren 30ean, Tafallan.



Onomastika

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Irizpenak eta txostenak

- A) *Galipentzuberri, Berazkuren, Irabia, Orbaizetako ola /
Fábrica de Orbaizeta, Zia, Eltzaurdia, Ontsoño,
Kanpanzar, Otobarren, Matauku, Lizoainibar-Arriasoiti,
Arkauti, Leatxe, Erriberri, Gamarra, Mendixur, Arrizala*



Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca y secretario de su Comisión de Onomástica:

EXPONE:

Que la Comisión de Onomástica en la reunión celebrada en la localidad de Alsasua el día 19 de enero de 2011, incluyó en el punto 4.2.2. de su orden del día la solicitud remitida por Euskarabidea del Gobierno de Navarra acerca del nombre en euskera del poblado navarro denominado oficialmente *Gallipienzo Nuevo*.

Martxoaren 24an, Jose Ramon Etxebarria ingeniari eta euskaltzain urgazleak CAF-Elhuyarren Merezimendu saria jaso zuen, «euskarazko zientzia eta teknologiaren kulturen egindako lanarengatik». Etxebarriak Eustakio Arrojeria Elhuyar Fundazioko buruordearen eskutik jaso zuen saria, Usurbilen egin zen ekitaldian. CAF-Elhuyar sariaren antolatzaileek esan zutenez, sari honekin omenaldi bat eskaini nahi izan zaio Jose Ramon Etxebarriari, «40 urteetan zientzia eta teknologiaren arloan euskarari eta euskal gizarteari egindako ekarpen oparoagatik».

Ekainaren 22an, Juan Garmendia Larrañaga etnografo, historialari eta ohorezko euskaltzainak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Saria jaso zuen, Foru Aldundian eginiko ekitaldian, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusi ohiaren eskutik. Bere «lan eskergagatik, egindako lanean autodidakta izateagatik, eta bere eskuzabaltasunagatik» eman zioten saria. Horrez gain, «desagertzeaz zegoen mundu bat jaso eta etorkizuneko belau-naldiei erakusteko izan duen ikuspegi aurrerakoia» ere baloratu zuen epai-mahaiak

Irailean, hilaren 9an, hasi ziren New Yorken Bernardo Atxaga katedra inauguratzeko ekitaldiak. Euskal letrei buruzko Bernardo Atxaga katedra Etxepare Institutuak bultzatu zuen, eta CUNY (City University Of New York) New York Hiriko Unibertsitateko Graduatu Zentroak hartzen du. Katedra horren xede nagusia hauxe da: euskal literatura eta hizkuntzalari-tzaren inguruan ikerketa, ikasketa eta ezagutza sustatzea. Katedraren inau-gurazio ofiziala irailaren 16an egin bazen ere, hilaren 9tik 16ra bitarte, hain-bat ekitaldi egin ziren Unibertsitatean. Besteak beste, Atxagak berak mintegi bat zuzendu zuen.

2011ko irailaren 24an eta 25ean, Korsikako Bastia hirian egin zen *Linguimondi* Europako hizkuntzen jardunaldietan, Aurelia Arkotxa Euskaltzaindiaren buruordea izan zen. Arkotxak bi mahai-ingurutan hartu zuen parte, batean Euskaltzaindiaren buruorde gisa eta bestean idazle bezala.

Irailean ere, Miren Lourdes Oñederra euskaltzaina izendatu zuten Societas Linguistica Europaea (SLE) erakundearen «Executive Committee»ko kide. Hil horretan burutu zuen SLE erakundeak bere urteko 44. biltzarra, eta bertan izendapen berriak egin zituen. Euskaltzaina 2014ra arte izango da batzorde betearazle horren kide. Societas Linguistica Europaeak (SLE) mundu osoko eskola ezberdinetako hizkuntzalariak batzen ditu.

Institut d'Estudis Catalans (IEC), eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera, Euskaltzaindia Madrileko Liber Azokan izan zen. Azoka urriaren 5etik 7ra egin zen, bertan liburuarekin zerikusia duten profesional ugarik parte hartu zutelarik. Aipatu hiru erakundeak erakustoki berean izan ziren, eta hortxe aurkeztu zituen Akademiak bere azken lan eta argitalpe-nak. Horretaz gain, helburua, Katalunian eta Galizian Akademiaren pareko

lana egiten ari diren erakundeekin harremanak sakondu, eta egiten ari den lana erakustea izan zen.

Euskaltzaindiaren ordezkariak hauek izan ziren: Erramun Osa idazkariordea, Ricardo Badiola Argitalpen eragilea eta Jon Artza Argitalpen banaketaren arduraduna.

Euskadi Literatura Sarietako 2011ko edizioan, Ur Apalategi eta Miren Agur Meabe idazle eta euskaltzain urgazleek sari bana jaso zutela jakinarazi zen urrian. Ur Apalategiren *Fikzioaren iterrak* ipuin bildumak euskarazko narratibako saria jaso zuen; Miren Agur Meabe, aldiz, euskarazko haur eta gazte literaturaren atalean saritu zuten, *Errepidea* lanagatik.

Azaroaren 3an, Adolfo Arejitak «Ahozko corpusak esparru elebiduntan» jardunaldian parte hartu zuen, eta Euskaltzaindiaren Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusaren (ATHC) nondik norakoa azaldu. Jardunaldia Eusko Ikaskuntzak antolatu zuen, Deustuko Unibertsitatearen laguntzarekin, eta Bilbon egin zen.

Azaroaren 11n, Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak antolatuak, «Arabatik Arabara euskaraz» XVI. Jagon Jardunaldiak egin zituen Akademiak, Arabako elkarte eta erakundeekin batera, eta Foru Aldundiaren laguntzarekin, Gasteizko Artium Museoan.

Egun osoan zehar hitzaldiak eta komunikazioak eman zituzten hainbat adituk, eta baita Araban euskararen sustapenean lanean diharduten zenbait kolektibotako kideek. Jardunaldiari amaiera emanez, Henrike Knörr zena omendu zuen Euskaltzaindiak. Omenezko hitz batzuk esan ostean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eskultura bat eman zion Txari Santiago alarguari. Familiaren kide batzuk, seme-alabak barne, izan ziren omenaldian.

Azaroan ere, Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioan, Euskaltzaindia ikerkuntzarako entitate gisa inskribatu zen. Akademia sorreratik bertatik ikerkuntza lanetan dabil buru-belarri, baina azken urteotan areagotu egin du arlo horretan egiten duen ahalegina. Hala bada, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. *Adierak eta adibideak*, *Euskal Hiztegi Etimologikoa*, *Euskararen Historia Soziala* edota *Ahozko tradizioa biltzeko* egitasmoak dira, besteak beste, ikerkuntza mailan Euskaltzaindiak abian jarri dituen proiektuetako batzuk.

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunaren haritik, Jose Luis Lizundia euskaltzainak Abadiñoko herriari egin zion dohaintzaren berri eman zuen Udalak. Izan ere, Lizundiak 674 liburu eman zizkion Abadiñoko Bibliotekari. Sailkatu eta katalogatu ostean, liburuak Errota Kultur Etxean gorde dira, jende guztiaren eskura.

Bestalde, urtero bezala, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan izan zen Euskaltzaindia. Abenduaren 4tik 8ra bitartean egin zen Azoka, eta Akademiak urte osoan argitaratutako liburuak izan zituen salgai. 2011n, Real Academia Galegaren argitalpen batzuk Akademiaren erakustoki berean egon ziren. Izan ere, Azokaren 46. edizioaren gonbidatu nagusia Galiziako kultura izan zen, eta aukera hori aprobetxatuz, Euskararen Akademiak lekua egin zion Galiziako Akademiari bere mahaian.

Euskaltzaindia eta Bizkaia Irratia elkarlanean dabilta, eta euskal toponimia zabaltze aldera, hainbat irratsaio grabatu zuten. Hala, Bizkaia Irratiak astelehenetik ostiralera emititu zuen *Goizeko izarretan* izeneko irratsaioan, euskal leku-izenak aztertzen eta zabaltu zituzten, lehiaketa baten bitartez. Saioaren gidariak Alfre Elgezabal eta Udane Goikoetxea kazetariak ziren, eta Euskaltzaindiaren izenean, Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkariak hartzen zuen parte. Hauxe izan zen formatu hau erabiltzen zuten bigarren urtea. 2010ean pertsonen izenekin egin zuten saioa, eta euskal ponte-izen asko ikusi zuten. 2010eko urtarrilean, Euskaltzaindiak eta Bizkaia Irratiak bigarren lankidetz-hitzarmena sinatu zuten.

Omenaldiak

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



2011n omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

2010eko abenduan jakinarazi zen Jose Antonio Arana Martija euskaltzain emerituak jasoko zuela 2010eko Manuel Lekuona Saria, «mende erdi luzean zehar izandako euskal kulturarekiko konpromiso eta lanaren onarpen gisa». Sari hau Eusko Ikaskuntzak ematen du, eta bizi osoan pertsona batek euskal kulturaren alde egindako lana aitortzen du.

Ohi bezala, saria –Remigio Mendiburu eskultorearen brontzeko obra bat– ekitaldi publiko batean ematen da. Kasu honetan, aipatu ekitaldi hori urriaren 14an egin zen, Bizkaiko Foru Aldundian, saritua hil ostean, Jose Antonio Arana Martixa apirilean hil baitzen. Hala bada, haren senitarte-koek jaso zuten saria. Guztien izenean, Maiteder Bareño haren alargunak hartu zuen Remigio Mendiburu eskultorearen obra. Ekitaldi horretan, besteak beste, Juan Mari Aburto Lehendakariitzako foru diputatua eta Juan Maria Muñoa Eusko Ikaskuntzako presidentea izan ziren. Bestalde, Maiteder Arana saridunaren alabak eskerrak eman zituen.

Sariaz gain, Jose Antonio Arana Martixaren bio-bibliografia argitaratu zuen Eusko Ikaskuntzak, egileak Pruden Gartzia eta Josune Olabarria Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako langileak direlarik. Ekitaldian, Pruden Gartzia euskaltzain urgazle eta Bibliotekako zuzendariak hitz egin zuen Arana Martixaren lanaz eta bizitzaz.

* * *

Otsailaren 12an, Donostian, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» hizkuntzalari, idazle, politikari eta euskaltzain urgazlea omendu zuen Euskal Herrian Euskaraz-ek. Omenaldia «Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe!» lelopean burutu zen manifestazioaren amaieran izan zen, eta Txillardegi euskararen alde egin duen lana aitortzea izan zuen helburu.

Dantzarien eta bersolarien agurra jaso ostean, honako opariak eman zizkieten Txillardegi: Euskal Herrian Euskaraz-en logoa josita duen txapela, Aitor Amorek landutako euskal makila eta Arantza Arratibelek eginiko Txillardegiaren erretratua. Bestalde, Joxe Austin Arrietak Txillardegiaren ibilbidea goraiatu zuen.

Jose Luis Alvarez Enparantza 2012ko urtarrilean hil zen.

* * *

Martxoaren 9an, 30 urte bete ziren Telesforo Monzon politikari abertzale, idazle eta euskaltzain urgazlea hil zela. Hori dela eta, Bergaran, bere sorterrian, haren omenezko hainbat ekitaldi egin ziren. Hala, martxoaren 9an, plaka bat jarri zuten bere izena daraman plazan. Bestalde, Bergarako Udalak eta Dorre Olaso Sorrerakundeak antolaturik, Koldo Izagirrek, Ludger Meesek eta Iñaki Egañak hitzaldi bana eman zuten.

Irailean, «Telesforo Monzon (1904-1981): bergararra, politikaria, kultura-gizona» izeneko erakusketa ikusgai egon zen Bergaran, Udalaren Pleno aretoan. Erakusketa Bergarako Udalak antolatu zuen, Olaso Dorrea Sorrerakundearen laguntzarekin, eta Monzonen ibilbidea izan zuen hizpide. Erakusketak hiru atal zituen –Monzon bergararra, politikaria, eta kultura sortzailea– eta objektu original ugari erakutsi zituen, Olaso Dorrea Sorrerakundeak utzitakoak.

Baionan ere, Anai Artea elkarteak Monzon omentzeko ekitaldia burutu zuen, apirilean.

Bestalde, 2011n, *Telesforo Monzon* pastoralara eman zuten Larrainen (Zuberoa), abuztuaren 7an eta 13an. Testua Jean Bordaxar kantari zuberota-

rrak idatzi du. Eta irailaren 17an, Monzon pastoralara antzeztu zen berriro, oraingo honetan Bergaran.

* * *

Apirilaren 15ean, Diman (Bizkaia), Aita Lino Akesolo karmeldarraren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko, Euskaltzaindia Diman izan zen, eta Udalarekin batera hainbat ekitaldi burutu. Hala, Udaletxe aurreko Plazan, aurrekua dantzatu zen, eta herriko abesbatzak kanta bat eskaini zuen. Gainera, Lino Akesoloren omenezko plaka bat zabaldu zen.

Horren ostean, Udaletxeko Pleno aretoan ageriko bilkura egin zen, egitarau honen arabera:

- Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzak
- Julen Urkiza, historialari eta *Karmel* aldizkariaren zuzendaria: «Lino Akesoloren izaera dela eta»
- Luis Baraiazarra, euskaltzain ohorezkoa: «Lino Akesolo eta euskaltzale lagunak»
- Patxi Uribarren, euskaltzain osoa: «Lino Akesolo, irakurle aseezina, ikertzaile sakona, hiztegitale zorrotza»
- Miren Dobaran Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Sustatzeko zuzendari nagusiaren hitzak
- Jose Ramon Garai Dimako alkatearen hitzak

Ekitaldia amaitu ostean, bertaratu zirenei Lino Akesolok bizkaieraz jarritako *Salmoak* liburua oparitu zitzaion.

* * *

Pierre Duny Pétré 1914an jaio zen, Donibane Garazin, eta 2005ean hil zen. Euskaltzain urgazlea, 1963an izendatua, idazlea –poeta, batez ere, bai-na ipuin eta artikulua asko ere idatzi zituen–, eta kazetaria izan zen. Etnologia eta folklorea sakonki aztertu zituen. Bere bizitza zinez interesgarria izan zen, pasadizoz beterik.

Uztailean, Arnaud Duny-Pétre bere semeak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekari hiru helbide elektroniko helarazi zizkion, «Pierre Duny-Pétre-k idatzi liburu agortu edo ezezagunak» eskaintzen zituztelarik. Hauek dira:

- <http://xirula-mirula-duny-petre.over-blog.fr/>
- <http://ahozko-euskal-literatura.over-blog.com/article-21-68155907.html>
- <http://piarreshegitoarenolerkiak.over-blog.com/>

Bestalde, Jean-Louis Davantek eta Jean Haritschelharrek idatzitako artikuluek ere ematen dute Duny-Petren berri.

* * *

Uztailaren 31n, Etxalarko Altxata kultura elkarteak bere 20. urteurrena ospatu zuen eta ospakizun horretan Pello Apezetxea bertako erretorea eta euskaltzain ohorezkoa omendu zuen. Apezetxea euskaltzain ohorezkoa da eta aspaldiko urteetan Etxalarko erretorea da. Euskararen babeste eta sustatze lanetan etengabeko parte-hartzea izan du herrian bertan, eta Bortzirietako alfabetatze lanetan, Euskara Mankomunitatean, *Ttipi-ttapa* aldizkari eta telebistaren sorreran ere esku hartu zuen. Zenbait egunkari eta aldizkaritan argitara ematen dituen euskararen inguruko artikuluen idazle ezaguna da, eta Etxalarko historiaren eta onomastikaren inguruko ikertzailea ere bada.

Omenaldian hauek hartu zuten parte: baserritarren ordezkariak, txistulari eta dantzariak, *Usoa* nekazari kooperatibak, eskola publikoko gurasoak, gau eskolek, Etxalarko euskara batzordeak eta Bortzirietako euskara mankomunitateak, *Ttipi-ttapa* aldizkariak. Horietaz gain, ehiztarien elkartekoak, Etxalarko kantariak, eta Udalaren izenean alkatea, han izan ziren. Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak ere parte hartu zuen ekitaldian.

* * *

Abenduan, Andolin Eguzkitza zena gogoan izan zuten Santurtzin, jaio zen herrian, eta zabaldu zen zentro kultural berrian, hots, Mamariga Kulturgunean, leku bat eskaini diote, Andolin Eguzkitzaren omenezko panel bat ikusgai jarri baitute. Eguzkitza (Santurtzi, 1953 - Bilbo, 2004) idazle eta

euskaltzain osoa izan zen, orain arte Ibaizabalen itsasadarraren ezker aldean Euskaltzaindiak izan duen kide bakarra. Bere omenez erakusten den panel horretan bere bizitzaren zertzelada batzuk gogoratzeaz gain, hark idatzitako liburuak ere ekarri dituzte gogora.

Bestalde, *Euskera* agerkariari buruzko erakusketa zabaldu zen, eta urtarilaren 9ra arte zabalik egon zen.



Hil berriak

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Jose Antonio Arana (1931-2011) eta Euskaltzaindia

LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis
Euskaltzain osoa

Batzuetan uste da «herri-gizon» hitza politikoei edota herri hautetsiei bakarrik dagokiela. Ez da hori horrela, zeren eta badira gizon edo emakume batzuk, herritarren artean gailenduak edota merezimenduz ezaguera publiko bat dutenak. Horietako bat izan da Jose Antonio Arana Martixa.

Jose Antonio Gernikan jaio zen II. Errepublikaren sortu baino hilabete lehenago, hain zuzen, 1931ko martxoaren 10ean eta, hiri berean zendu, pasa den apirilaren 27an. Gure egungo xedea, ordea, ez da haren biografia edo bibliografia zehaztea, lan bi horiek Pruden Gartzia euskaltzain urgazle eta Azkue Bibliotekako zuzendariak eta Josune Olabarria biblioteka bereko teknikaria eta urte askotan Jose Antonioren idazkari zuzena izandakoak orain-tsu trebeki burutu baitute, Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona sariaren emankizun ospakizuna zela eta. Gure helburua, Jose Antonio Arana Martixak Euskaltzaindiari egin zion ekarpenaz jardutea da.

Euskaltzaindian, hasteko, Bibliotekan

Euskaltzaindiak bazeukan biblioteka eta artxibo akademiko aberats bat, gehienbat Resurreccion Maria Azkuek utzitakoa, baina beste hizkuntz Akademiak ez bezala, ez zuen benetako bibliotekaririk (Real Academia Galegan, bibliotekaria, automatikoki, numeroko akademiko izateaz gain, erakundearen zuzendaritzako kideetarik bat da). Sasoi batez, Lino Akesolo ere aritu zen, tarte libreetan Erribera kalera joanda liburuzain gisa eta, baita,

Euskera. 2011, 56, 1-2. 427-434. Bilbo
ISSN 0210-1564

geroago, 70. hamarkadan hasieran, Nikolas Alzola Gerediaga, Anai Berriotxo lasalletarra, ordena honetako Deustuko ikastetxean irakasle izan zen garaian eta, ni neu, egoitza zahar hartan idazkariorde lanetan. Azken hau dakart gogora, zeren eta Nikolas ene adiskide eta senitarteko mina, berriz Irungo Lasalle ikastetxe famatura destinatu zutenean adierazi baitzidan, bere ustez, Akademiak, ahalegin berezi bat egin behar zukeela, bere langilegoan, bibliotekari bat, dedikazio eta profesionaltasun osoz hitzartuz. Eta, ez bera bezalako «afizionadutxu» bat, tarte libreetan, astean ordu gutxi batzuk artxibo-bibliotekara joanda.

Ondorioz, azaldu nien orduko zuzendaritza kargudunei: L. Villasante, J. Haritschelhar, J. San Martin eta E. Erkiagari, Anai Berriotxoaren iradokizuna eta begi onez ikusi zuten. Kasualitatez enteratu nintzen Jose Antonio lan arazoekin zebilela, besteak beste, berak inbertsio-agente bezala lan egingen zuen banku-konpainiak porrot egin zuelako.

Euskaltzaindiaren bibliotekari ardura proposatu, Zuzendaritzak onartu –ia denek ezagutzen bai zuten– eta laster hasi zen lanean, 1978 urtean, hain zuzen. Eta hasi, ekin eta erakundetu ere! Bataiatu ere egin zuen: AZKUE BIBLIOTEKA. Gaur egun, Azkue Biblioteka ia denek identifikatzen dute Euskaltzaindiaren biblioteka eta artxibo akademikoarekin.

Buru belarri sartzen da beraren eginkizun berrian, Erriberako egoitza zaharrean eta laguntzaile bakar batekin, ordura arte, Idazkariordetza lanean genuen Nere Altunarekin. Orduantxe, F. Amorrortu Durangoko alkate eta Bizkaiko Diputazioaren lehendakariari esker behin-behingo bulego batzuk lortu genituen jauregiaren osteko Arbieto kalean, modu horretara Erriberako egoitza artxibo-bibliotekarako libratuz. Jose Antoniok eta Nerek, lehendabizi eta, geroago, Josune Olabarriak osatzen zuten biblioteka akademiko zerbitzuaren plantilla. Hurbiletik ezagutu eta lagundu nuen. Andere trebe biok, eta azkenaldian, Kristi Aranak ere, idatzi behar lukete Azkue Bibliotekaren hasiera, garapena eta hedapen aberatsa. Ez bakarrik Euskaltzaindiarentzat, Euskal Herriko biblioteken historia orokorrerako ere onuragarria suertatuko litzatekeena.

1991n, Azkue Biblioteka Erribera kaletik Plaza Barriko egoitza akademiko berrira pasatu zen. Baina, ordurako, biblioteka arduradunak, Arana Marti-

xak erakundearen Zuzendaritzari plangintza zehatza aurkeztua zuen, beronek onartua eta martxan jarria. Hain zuzen, 1981ean, Loiolan egindako II. Barne Jardunaldietan, erakundearen organigrama berria onartu zen, zeinetan agertzen den Azkue Biblioteka batzordea jaun hauek osatua: A. Irigoien, buru; J.A. Arana, idazkari; kideak: E. Erkiaga, J. San Martin, X. Kintana eta Ekonomi batzordeko bat: X. Gereño, J.J. Zearreta edota ni, joaten ginen. Eta Jardunaldion ondorioz, Azkue Bibliotekaren Erregela Bereziak onartu ziren urte berean, oraindik ere, ildo estrategikoa markatzen dutenak.

Erriberan hasitako hazkundera, ez bakarrik liburu, aldizkari eta abarren ugaritze aberatsez, baizik eta katalogatze lanak izan ziren lanik nabarmenenak. Hortaz landa, zenbait dohaintza eta lagatako garrantzitsuenak aipatzearren: Juan Carlos Guerraren artxiboa eta biblioteka, Euskadiko Kutxak lagatua; Norbert Tauer euskaltzale txekiarraren funtsa; Jokin Zaitegi eta Odon Apraiz euskaltzain ohorezkoen artxibo eta bibliotekak; Jon Bilbao bibliografoaren zati hautatu bat; Pierre Broussain euskaltzain lapurtarraren funtsa eta abar aberats bat.

1978 geroztik jasoak, hots, erosketa, dohaintza, lagatze edota trukaketaren bidez, katalogatze moderno eta euskaldun bat eskatzen zuten. Ez zegoen, ez bata, ez bestea. Hutsetik hasi behar izan zen Euskaltzaindian eta, hori lortu zen Jose Antonio Aranaren gidaritzape argian. Azkue Bibliotekaren Katalogoa ez da izan erreminta ezinbestekoa erakunde akademikoarentzat, baita ere euskal katalogatze lanetarako eredu orokor bat bihurtu da herri-biblioteka askorentzat, horrek balio erantsi bat eman diolarik, Jose Antonio eta bere ekiopari esker.

Jose Antoniok bibliotekaren zuzendari izateari, lanetik jubilatu zenean, 1996an, utzi bazion ere, Azkue Bibliotekako batzorde buru gisa gaixotu arte jarraitu izan du. Era batera edo bestera, gaur egun, 64.000 ale ditu biblioteka akademikoak, hainbeste urtetako benetan uzta aberatsa.

Euskaltzain gisa erakunde akademikoan

Lanean hasi eta urte betera, 1979an, euskaltzain urgazle izendatzen zuten Arana Martixa beste euskalgintzako lagun andana batekin batera, hain zuzen, Jose Antoniok hainbeste miresten zuen Sebero Altuberen mendeurrenkari, honen jaioterrian, Arrasaten, Akademiak egin zuen bere IX. Biltzarren amaieran: D. Landart, J. B. Etcharren. J. Casenave, J. Apezetxea, P. Ondarra, F. Barrenengoa, P. Sancristoval, P. Pujana, K. Rotaetxe, E. Etxezareta, J.I. Telletxea Idigoras, J. Garmendia, P. Goenaga eta J.A. Mujikarekin batera. Guztiak, bakoitza bere alorrean, aski ezagunak, Jose Antonio eta beste bost zenduak dira jadanik: Ondarra, Barrenengoa, Pujana, Telletxea eta Garmendia. Euskalgintzako bere merezimenduez gain, erakundearen orduko politika ere bazen, hots, Euskaltzaindiaren kide izatea –euskaltzain urgazle maila apalekoa izatea bederen– onuragarria zela biblioteca zuzendari arduradunarentzat.

Euskaltzain urgazle legez, berehala sartu zen beste eginkizun akademiakoetan, hala nola, 1980ko Nazioarteko Euskalarien Jardunaldietako batzorde suntsikorrean, zeinetan, berak, idazkaritza ardura eraman zuen eta, nik, azpiegiturarena. Jardunaldi hauek, benetako kongresu maila izan zuten, zeren eta mundu guztiko euskalarien topaketa izan baitzen, gaztelaniaz, «Encuentros Internacionales de vascólogos» eta, frantsesez, «Rencontres Internationales de bascologues» izenekin hedatuak izan zirelako. Hor, Jose Antoniok bere trebezia erakutsi zuen. Jardunaldi horien jarraipenez, «Euskalariekin Harremanak» izeneko batzordea sortu zen, Loiolan, 1981ean, egindako II. Barne Jardunaldietan, bertan, J. San Martinen buruzagitza-pean, idazkari ardura hartu zuelarik Jose Antoniok. Loiolan, baita ere, *Euskera* eta Argitalpen Batzordeko kide gisa izendatu zen. 80. hamarkadan, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketak Euskaltzaindiak antolatzen zituenean, Jose Antonio beste taldekide batzuekin batera, eraketa lanetan euskal eskualdez eskualde, aritu zen. Hamarkada bukaeran, Batzorde Juridikoko kide ere izan zen, geroago, diruzain izendatu ondoren, Lege-ekonomi batzorde bihurtu zelarik, partaide izaten jarraitu zuen.

Arana Martixak, euskaltzain urgazle legez, beste eginkizun ugaritan ere parte hartu zuen, batzuk garrantzitsuak, beste batzuk xumeagoak, baina,

horren garapena, bere biografia osoago baterako utziko dugu. Bat aipatzearren, *Euskaltzaindiaren historia laburra* (1984) izan zen emaitza interesgarria.

1988 urteko urriaren 28ko batzarrean, D. Juan Gorostiaga euskaltzain oso zendu berriaren aulkirako hautatua izan zen. Bi hautagai aurkeztu zituzten, X. Kintana eta Jose Antonio. Sarrera hitzaldia, hurrengo urteko uztailaren 28an, Gernikan egin zuen, gaitzat, «Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat» hartuta. Txosten hori, erreferentzia baliozkoa suertatu da erakundearen historiarako, sorreratik izan diren akademikoen zertzelada eta xehetasun kronologikoz ondo hornitua.

Euskaltzain oso bezala eta, alde batera utzita hurrengo kapituluan gartuko dudan zuzendaritza karguarena, eginkizun ugaritan parte hartzea tokatu zitzaion. Hainbat ikerketa lan eta txosten instituzional aurkeztu zituen, eten gabe, bere osasuna azken urteotan ahuldu arte. Luze joko luke gaika eta kronologikoki zerrendatzea. Gehienbat *Euskera* agerkarian argitaratuak.

Euskaltzaindiaren diruzain karguan

Euskaltzain oso hautatu eta bi hilabetera, Zuzendaritza kargu berritzea egokitu zen eta, ia inoiz gertatu ez dena, sarrera protokolarioa egin baino lehen, diruzain izendatua izan zen, Jean Haritschelhar, buru; Juan San Martin, idazkari eta Jose Maria Satrustegi, idazkarirekin batera, erakundearen gobernamenduaz arduratzeko.

Urte berean, Oñatiko Unibertsitatean, Euskaltzaindiak sinatu zuen lehendabiziko hitzarmen ekonomiko-instituzionala Hego Euskal Herriko bost Herri Aginte nagusiekin: Eusko Jaurlaritza; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin eta, era berean, Nafarroako Foru Aldundi eta Gobernu denarekin. Ardantza lehendakaria eta beste lau foru erakundeetako ordezkari nagusiekin batera sinatzen du Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, hurbil dituelarik beste hiru zuzendaritza kideak, noski, gure diruzaina. Ondotxo dakit hitzarmen historiko horretan Jose Antoniok egindako ahalginak, eskuz esku aritu bai ginen «sukaldaritza» lanetan. 1995 eta 2000

urteetan berriztatu zenean Hitzarmena, han zegoen lehen lerroan. Hitzarmenarekin zer ikusia duen zerbait aipatu beharra dut, hain zuzen, Herri Aginteen aginduz, lehen auditoria bat egin beharra izan zuen Euskaltzaindiak, M. Karmen Garmendiaren inizatibaz, baina baita ere, Bizkaia, Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako agintarien baitaz. Auditoria hori Price Waterhouse enpresa famatuak egin zigun, baldintzetariko bat, langileen lanpostuen balorazio eta mailakatze bat zegoen, Jauralaritzarenak erreferentziatzat hartuta. Euskaltzainburuaren proposamenez, Zuzendaritzaren negoziaketa ordezkari, orduko diruzaina, hots, Jose Antonio Arana izendatu zen, Price Waterhousekoekin bilera ugari egin ondoren, zuzendaritzak onartu zuena eta Jarraipen Batzordeak (Herri Aginte eta Euskaltzaindia) birretsi zuena. 1992 urtean izan zen eta balorazio eta mailakatze horiek harrez gero iraun dute.

Hamabostero ohikoa egin zen prozedura kontatu beharra dut. Oraindik Jose Antonio bibliotekari bezala Erribera kalean eta, gu, bulego orokorrekook Elkano kalean, etortzen zen nire despatxu aurreko salatxora eta, hirurok, bera, diruzain karguaz; ni, idazkariorde-kudeatzaile legez eta, Juanjo Zearreta, ekonomi eragile gisa biltzen ginen eta zer diru sarrera geneukan eta zer ordainkizun aztertzen genuen, honetarako, faktura-zerrendari diruzain bezala, oniritzia ematen ziolarik. Hor ikusten zitzaion bere ekonomiketako ikasketen sena, baita, zuzendaritzako kide legez, zentzu instituzionala ere. Aurrekontuen kudeaketa ez zitzaigun beti erraza suertatzen.

Lakuan egiten ziren Herri Aginteen Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bilerak. Batzar neketsuak, dirua eskatzen joan behar duenarentzat ongi prestatu beharrezkoak, ez horrenbeste, agintari kontu hartzaileentzat. Jose Antoniok estimatzen zuen Diruzaintzako lankidetzat, baita Jean Haritschelharrek ere, zeinek, liberalki eta arautegiaren arabera eskuduntzak errespetatu zizkion. Baita, une batez, 1995ean, Euskaltzaindiak krisi ekonomiko larria jasan zuenean ere, biak, euskaltzainburuak eta diruzainak, Jarraipen Batzordearen akta, ez baitzuten, ez onartu, ez eta sinatu.

2003ko irailean Atharratzen egin zen osoko bilkuran agertu zuen, hitzez, Jose Antonio Aranak diruzaintza kargua uzteko gogoia, daborduko osasunez

ez zebilelako ondo. Hala ere, ez zitzaion onartu, abenduaren 19koan, dimisio ezeztazina aurkeztu arte. 2004 urtearen hasieran, hile batzuk lehenago euskaltzain oso izendatua nintzelako eta, bere ustez, zamadun kargu horretarako egokia, harek nerau aurkeztu. Hamabost urteko kargu eta «karga»-batez ere diru eske eta diru eskas ibiltzen den era honetako erakunde batean- eraman zuen Jose Antonio Arana Martijak.

Amaitzeko, ekintza, ikerketa, nahiz saio; kulturgintza, euskalgintza nahiz herrigintza izan ziren Jose Antonioren goiburu eta helburu, kasu honetan, Euskal Akademian. Behinola, Juan San Martin hilberrian «euskal land roverra» neritxona, gaztelaniaz «todo terreno» bat zelako euskal kulturaren. XXI. mendearen hasiera geroztik joan zaizkigunetatik, marka edota maila horretako XX. mendeko euskaltzain hauek, behintzat, joan zaizkigu: Luis Villasante, Jose Maria Satrustegi, Juan San Martin eta, joan den urtean, Xabier Gereño eta... Jose Antonio Arana Martixa.

* * *

P.D. Hau idatzi eta gero, Txillardegiren heriotza gertatu da, baina, aurtengo partean. Gehi, beraz, Jose Luis Alvarez Enparantza, 2011 osteko zerrendan.



Jose Antonio Arana (1931-2011)

bibliografoa

TORREALDAI, Joan Mari
Euskaltzain osoa

Atarikoa

Jose Antonio Arana garai bateko humanista haietakoa izan zela, nik baino lehenago esanda dago. Nik baino gehiago ezagutzen duen batek esanda, Jose Antonio aita intelektualtzat daukan batek hain zuzen ere. Eta guztiz bat nator dioenean Jose Antoniok Ernazimenduaren eta humanismoaren ezaugarriarik ederrenak zituela, hala nola, antzinatearen miresmena, historiarena, mitologiarena, mundua ulertzeko era hori islatzen dutela bere lanek eta gizakia bera eta gizakiaren balioak goraipatzen zituela.

Liburuaren iraultzarekin bat egiten du Ernazimenduak. Liburuzalea da Ernazimendua, Jose Antonio zen bezala.

Jose Antonioren zaletasun eta maitasunen artean seguru liburua ez dela azkena. Bere hitzak literalki hartuz gero, liburua ez da sartzen lehen hiruretan. Baina nago hautu batek bestea ez duela ezabatzen, eta Jose Antonioren bihotz handian denak kabitzen direla erraz.

Zein da Jose Antonio? Bere burua definitzeko eskatuta, hala erantzuten dio kazetariari:

«Borondate handiko gizona, gauza asko egin nahi dituen baina denetara heldu ezinda dabilena. Euskara eta musika ez ezik, beste amodio handi bat dauka: familia. Horixe da nire maitasunik handiena: familia». (Jakin, 161, 2007)

Euskera. 2011, 56, 1-2. 435-444. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hiru maitasun horietatik oso urruti ez da egongo liburua. Liburu artean igaro baita bere bizitza eta libururik gabe nekez irudika baitezakegu gizona. Oraintxe bertan ere, dagoen lekuan dagoela, bere zerua liburu artean legoke. Izan ere, Jose Antoniok modu grinatsuan maite eta miretsi du liburua, ez soilki jakituriaren transmisore den heinean bakarrik, objektu gisa fisikoki ere bai. Maitasun osoa.

Berriz diot Jose Antonio humanista peto-petoa izan dela (matematikari, ekonomialari ere bai), kultura zabalekoa, interesgune askotarikoa, bilatzaile amorratua izan dela. Baina nik alderditxo bat landuko dut. Hobe esan, landu bainoago hainbat zertzelada eman, Jose Antonioren liburuzaletasunari buruz.

Badakit kontzeptu zabala dela liburuzaletasuna, oso zabala. Nola koka Jose Antonio horren barruan? Irakurle aspergabea izateaz gainera zer besterik da?: bibliofiloa?, bibliologoa?, bibliografoa?, bibliotekaria? Horiek guztiak kabitzen dira Jose Antonioren liburuzaletasunean.

Gauza jakina da bibliotekaria izan dela, profesionalki 1978 ondoren. Baina nork uka bibliofiloa edo bibliografoa izan denik? Berak, Jon Bilbao lagunaren ondoan jarrita, bere burua bibliografotzat zeukan.

«Hark zioenez (Jon Bilbaok, alegia) bereiztu beharra dago bibliotekaria eta bibliografoa. Ni are gehiago naiz bibliografoa bibliotekaria baino. Bibliotekaria izateko, badut taldea egin beharrekoa moldatzeko. Bibliografoa izatea besterik da. Bibliotekaria izan naizen arren, gehiago estimatzen dut, neure buruarentzat, bibliografo titulua. Hala esaten zuen Jon Bilbaok ere, bera bibliografoa zela». (Jakin, 161, 2007)

Beste leku batean ere berriz dio bibliografoa dela bera. Are zehatzago: bibliografoa ez eze bio-bibliografoa dela. 1992an Iker sailean Luis Villasante bere herrikideaz lan bati titulu horixe eman zion: «Luis Villasanteren bio-bibliografia». Espresuki aitortu gabe ere azterlan asko eta asko ditu estimu handitan zeuzkan pertsonaien esandakoaz bio-bibliografia direnak. Aipagarrienen artean, esandakoaz gainera, Jose Ignacio Arana, Seber Altube, Angel Allendesalazar, edo Louis-Lucien Bonaparte, Resurrección María Azkue, Bonifazio Irigarai, Julio Urkixo, Aita Donostia.

Sarrera hitz hauen ondoren ikus ditzagun Jose Antonio bibliotekari eta bibliografoaren jarduera eta jarrera batzuk.

Liburuzaletasun goiztiarra

Gaztetxo zelarik hasi zen biblioteka lanetan, 14-15 urterekin jada bibliotekari laguntzaile, Euskaltzaindian profesionalki hasi baino 33 urte lehenago.

Hamalau urterekin Arteako seminarioko biblioteka muntatzen laguntzen dio Andres Ibañez apaizari. Handik Gasteizko seminariora doalarik, hamabost urterekin Andres Mañarikua irakasle eta maisuari laguntzen dio biblioteka lanetan. Bide emankorraren abiapuntua izan ziren hasiera haiek: «Beraz, biblioteka eta liburu mundu hori hamahiru, hamalau urtetik hona ezagutzen dut. Orduz gero ibili naiz liburuekin, bibliotekak antolatzen, katalogatzen...» (Jakin, 161, 2007).



Goiz hasi zen bibliotekari lanetan, eta goiz egin zuen topo zentsurarekin, liburu eta zentsura garai haietan txanpon beraren bi aurpegi baitziren maiz. Zentsura eklesiastikoa, eta zentsura administratibo politikoa, askotan eskuatik hartuta. Seminarioko biblioteka hartan ere baziren debekaturiko liburuak, irakurle arruntaren eskuetan utzi ezin zitezkeenak. Jose Antoniok bazuen asmorik haietara iristeko. Eta berak kontatzen du Danteren eta Unamunoren lan debekatuak nola hartu eta ohe azpian gorde ohi zituen, esaterako. Jose Antoniorekin jakinminak ez baitzuen debekurik onartzen, ez eta ulertzen ahal liburu «gaiztorik» egon zitezkeenik.

Garai haietan, baina, liburu gaiztoak ez ziren bat edo bi. Asko ziren.

Bitan banatzen ziren liburuak: onak eta txarrak. Onak eta txarrak Indexaren ikuspegitik, ez balio literarioengatik. Erromako Index orokor hura bertakotu egin ziguten bi jesuita euskaldunek, Ladron de Guevarak (Novelistas buenos y malos) eta A. Garmendia de Otaolak (Lecturas buenas y malas a la luz del dogma y la moral). Danteren Divina Comedia ez dakit baina jakina da Unamunoren obra batzuk kondenagarritzat emanak zirela.

Azkue Bibliotekan 33 urte

Jose Antonio Arana 33 urtez egon da Euskararen Akademiako Bibliotekari lotuta.

1978an hasi zen profesionalki bibliotekan lanean, 47 urte zituela.

Hasi, Alfontso Irigoien bibliotekari akademikoaren laguntzaile moduan hasi zen, kontratupeko lehen liburuzaina bera delarik, eta handik gutxira Azkue Bibliotekako Idazkari izendatu zuten, eta 1993an bibliotekari akademiko.

Lanak lan eta karguak kargu, Jose Antonio Arana da Azkue Bibliotekaren sortzaile nagusia. Izenetik hasita izanera. Izenaren proposamena berea izan zen. 2.500 erregistrorekin aurkitu zuen liburutegi hura 64.000 liburutara eraman zuen.

Txikia zen orduan Akademiaren liburutegia. Txikia, eta okerrago dena, eskasa: balioko alerik ez liburuetan, taxuzko aldizkaririk ere ez, bildumak osatzeke, Jose Antoniori sinestera.

Bere hitzak dira:

«Hura desastre izugarria zen. Nondik heldu ez zegoen han, baina apurka-apurka zer edo zer egin genuen. (...) Taxuzko liburutegia egiten hasi nintzen. Euskarazkoak eta, beste zenbait hizkuntzatan egonagatik, Euskal Herriari buruzko liburuak bilduma egiten hasi nintzen» (Jakin, 161, 2007).

Euskararen Akademia batek behar zuen biblioteka hornitu eta aberaste-ko asmoz, plangintza sistematikoa antolatu zuen 80ko hamarkadan, liburuak, aldizkariak, artxibo funtsak inguratzeko. Hamalau bat funts inportante eskuratu zituen, harremanez eta albo informazioez baliatuz. Horietakoak dira, adibidez, Juan Carlos Guerraren biblioteka eta artxiboa, Jon Bilbaoren biblioteka zati aukeratu bat, Zaitegiren artxibo eta biblioteka, Odon Apraiz, Tauer edo Broussainenak.

Liburu ale, bilduma eta aldizkarien bila nola hasi zen harrotasun puntuarekin kontatzen zuen, nola argitaletxeen katalogoak astintzen, liburu dendak arakatzen, zokoak miatzen, komentuak bisitatzen.

Lorturiko emaitzekin pozik eta harro azaltzen zen 1992an, eta gerora ere ez zuen ezkutatzen satisfakzioa. Bi argudio nagusi aurkeztu ohi zituen: bata ondarea, hots, artxibo funtsak eta 64.000 item biltzen zuen biblioteka. Eta bi: Azkue Bibliotekaren katalogoa, lehen euskal katalogoa.

Ereduaren azpimarra berezia ezartzen zion katalogoari:

«Gure bibliotekaren katalogoa euskaraz eginda dago. Gure asmoa, Euskal Herriko biblioteka guztietarako balioko duen eredu bat egitea zen, euskaraz katalogatzeko sistema, euskaraz egina eta Euskaltzaindiaren onespena izango zuena» (Jakin, 161, 2007).

«Ez da harrokeria, baina lan asko egin dut nik hor», zioen Jose Antoniok.

Biblioteca Nazionale

Aipatu berriak ditugu bere hitzak: «Euskal Herriari buruzko liburuen bilduma egiten hasi nintzen».

Azkue Bibliotekaren asmoa, Jose Antonioren baitan, biblioteka akademiko arrunt batetik harago doalakoan nago. Euskal Herriak urte haietan pairatzen zuen biblioteka munduko panorama negargarria erremediatu nahi zuen eta bereziki Biblioteca Nazionalearen gabezia.

Jose Antonio Arana, izan ere, Biblioteca Nazionalearen aldekoa zen, leku fisikoa behar zuen Biblioteca Nazionale baten aldekoa. 80ko hamarkadaren bukaera eta 90eko lehen aldia behintzat, gaurkotasun handiko gaia zen. Aldarria, eta gabeziaren kezka, Eusko Legebiltzarreraino iritsi zen. 1989an hainbat liburutegiri eskatzen zaio txosten bat egitea. Talde horrek, «Grupo de Biblioteca Vasca» izenekoa, 1992ko txostenean, Biblioteca Vasca delakoaren sortzea proposatzen du, baina Nazionale deitura gabe. Proposamen horrek berak ere ez du biderik egiten orduan. Lortzen dena Katalogo kolektiboa egitea da.

Jose Antonio talde horretan zegoen abiapuntuan, baina utzi egin zuen, hain zuzen ere BNren ikuspegirik ez zelako lantzen. Honela kontatzen du berak:

«Orduantxe hasi ginen pentsatzen liburutegi nazionala behar genuela. Horretarako, lehenengo pausoa, herrietako bibliotekak ondo

antolatu eta katalogatzea izan behar duela erabaki genuen. Katalogo kolektibo bat egin behar zen, Euskal Herri osokoa. Bilerak egiten hasi ginen: Deustuko liburuzaina, Antso Jakitunakoa, Donostiako udal liburutegiko arduraduna, besteren bat eta ni neu... Betikoa: nork bere iritzia zuen baina besterena kontuan hartzeko asmorik ez. Ez zen akordiorik izan. Orduan ere protagonismoa nahi zuten batzuek, “Gure biblioteka” gora eta “Gure biblioteka” behera. Hortaz, nik dena jaso, artxibatu, eta kito! Beste bide bat saiatu nuen, nik asmoarekin segitzen nuen eta. Biblioteka kolektiboa ez ezik, liburutegi nazionala nuen gogoan». (Jakin, 161, 2007).

Katalogo kolektiboa ez zen Jose Antoniorentzat aski, eta berak Biblioteka Nazionalea nahi zuen. Euskaltzaindiak ezin zuen hutsune hori osorik bete, baina bai bere esparruan. Eta esparru hori, Jose Antoniorene baitan, ez da linguistika, filologia, euskara, hizkuntza, baizik eta askoz zabalagoa: Euskal Herria, humanitateak, historia, antropologia, musika, zuzenbidea, folklorea, erlijioa... Jose Antoniok proposaturiko eta mamituriko eredu horretakoa da gaurko Azkue Biblioteka.

Gutenbergzale

Nire Euskaltzaindiko sarrerakoan, bere erantzunean, liburuaren hegaldi luzea egin zuen: Alexandriatik digitalizaziora. Liburuaren ibilaldi luze horretatik Jose Antoniok gehien maiten duena Gutenberg aroa da, inprimategia, paper euskarriko liburua.

Digitalaren iraultza berandu agertzen dela bere biografian, esan dezakegu. Eta, ematen duenez, Jose Antoniok ez zion konfiantza handiegirik egin. Hala iruditzen zait bere bi testigantza irakurrita. Bata 1994koa, hain zuzen ere Euskal Herriko inprimategien historia idatzi zueneko. Liburu elektronikoen pantaila hotzari liburu klasikoaren berotasuna kontrajartzen dio: papera ukitzea, paperaren eta tintaren usaina, inprimaketaren eta koadernaketaren dotorezia:

«Bostehun urte iraun dute paperak eta inprentak gure garaia heldu arte. Baina Zibernetikaren bidetik (1948) zabaltzen ari den informatika munduak, zalantzak jartzen dizkie zientzia gizabanakoei liburuaren

iraupenaz. Aurtengo uztailaren 5ean bildu ziren Bartzelonan munduko hainbat argitaldari, eta informatikaren aurrean liburuak izango duen arriskua aztertu zuten. Pantaila batean ikus daiteke edozein testu, irudi edo ilustrazio, CD-ROM edo disko optikoaren bidez. Baina Inge Feltrinelli italiarrak esan zuenez, pentsa ere ezin daitekeen gauza da, hondartzan ordenagailuaren pantailan Passoliniren olerki bat irakurtzea. Bostehun urtetan irabazi dugun ohitura, hots, papera ukitzea, liburuaren edertasuna –ondo eginda dagoenean– gozatzea, papera eta tinta usaintzea, eta abar, ezin da pantaila hotzaren emaitzaz trukatu. Artisauen eta horiinprimaketa dotoreak eta koadernaketa ikusgarri eta ukigarriak, edukinaz aparte, ezin daitezke pantaila baten emaitzarekin konparatu. Edertasun eta gozamen hori mantentzearen, zenbait liburu zaharren faksimilak egiten direnean, paper-mota eta usaina ere birsortzen dute oraingo argitaldarien. Teknikari eta zientziari dagozkien ikerketa eta txostenak disketetan emango zaizkigu; baina kultura arloko gaiak liburuetan jasotzen jarraituko dugu».

Hamabost urte beranduago ere, lehengo lepotik du burua Jose Antoniok, nahiz eta ordurako edizio digitalak sekulako aurrerapenak eginak zituen.

2009an, nire sarrera hitzaldiko erantzunean, liburu digitalaren aurrean mesfidati defentsiban agertu zen:

«Katalogoetatik aparte, badaude Bibliotekonomian aztertu eta iker-tu behar diren beste gai interesgarriak: bibliografia bera, bibliomania, liburuak jakina, letra tipoak, zentsurak, inprimategiak, ilustrazioak eta azken batean bibliotekak. Eta une honetan, denen gainetik eta denak ezabatzeko gogoz informatikako “autopista” nondik dabiltzan azkar eta liskarzale hainbat programa. Alexandria Bibliotekatik, Gutenbergen gainetik, digitalizazio mundura heldu gara. Eta badirudi orain arte egindako guztiak ez duela ezertarako balio. Baina liburuaren eta argital-penen munduan bizi garenok ez gaude mundu berri horren beldurrez kikildurik. Aurrerapen guztiak onartu behar dira eta pozik onartu ere. Baina jada mundu zaharreko diren liburuak, paperezkoak esan nahi dut, badituzte beraien bertuteak, eta ez dira berehala desagertuko, etsaia liluragarria izan arren. Ez dut zalantzarik sortu nahi hemen».

Gutenbergzale hil zen Jose Antonio, paperezko liburuaren maitale eta miresle.

Bio-bibliografiak aztergai

- Jose Antonio Aranak asko idatzi zuen, eta gai askori buruz. Baina bere burua bio-bibliografotzat jotzen duenean, ez dabil ahoberokeriatan, ez. Biografiak zein bibliografiak oso gogoko zituen. Bietatik idatzi du asko. Jose Antonioren ekoizpenean hirutik bat baino gehiago izango da tankera honetako idazlana. *Brisas guerniquesas* aldizkari lokalean idatzi zituena kontabilizatu gabe, lan bio-bibliografikoen pisua % 40tik gorakoa da. Are handiagoa da pisu hori testu masan, lan bio-bibliografikoak besteak baino sakonagoak eta luzeagoak baitira.

Bio-bibliografiaren sailean lanik sakonenak Jose Antonioren helduaroak dira, Jose Antonioren sasoi betekoak, 80ko hamarkadan hasita. Lan arinagoetan entrenatua zegoen, 60ko hamarkadan, *Brisas guerniquesas* aldizkarian, baina bere hoberena 80tik aurrera eta ematen du, bai liburutan, bai hitzaurre ugaritan eta aldizkaritan, bereziki *Euskera* agerkarian.

- Urte horietan guztietan Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren buru zen Jose Antonio, bere irudi eta eredura egindako biblioteka. Zer talaia hoberik lan horietan sakontzeko? Jose Antonio bio-bibliografoari lana erraztuko zion Jose Antonio bibliotekariak. Bibliotekak berak eta bertako taldeak. Horregatik Jose Antonioren lanetan bereiztu behar dira bere-bereak diren lanak eta taldearen laguntzarekin osaturikoak. Nahiz eta bietan Jose Antonioren eragina bete-betea izan.
- «Gustuko aldapan nekerik ez», esan ohi da. Baina ez da guztiz egia. «Labor penosa pero gratificante» idatzita utzi zuen berak, oker ez banago Bonaparteren bibliografiaren aurkezpenean.

Ohiko esaldia da, izan, idazle orori egokitzen zaiona, nahi bada. Baina egiagoa da Jose Antonioren kasuan. Zergatik? Jose Antonioren lana, txikia izan, handia izan, ikerlana da beti, zehatza, artean argitaragabea eta ezezaguna maiz, dokumentatu beharrekoa. Jose Antonioren lanek ezaugarri propioak dituzte: informazio biografiko edo bibliografikoaren exhaustibotasuna, informazioaren zehaztasuna, informazio iturrien ugaritasuna, albo informazioen kontrastea, istorio edo mikrohistorien

hornidura, oinarri dokumental sendoa artxibo, agiri, gutun eta liburu edo aldizkarietako irakurketa muturreanugarietatik bildua. Inprobisazioaren kontrako muturrean kokatzen da Jose Antonio.

Jose Antoniok berak esana du bera ez dela literatoa: «Ni ez naiz nobela bat idazteko gai. Are gehiago naiz bibliografo eta biobibliografo, literaturgile baino». Bere baimenarekin harago noake: ez dela saiolari klasikoa ere, ez eta kazetaria, baizik eta ikerlaria. Are: ikerlari dibulgatzailea. Jose Antoniok ez du ikertzen aurkiturikoa ezagutzera emateko ez bada, sekula ez ezkutuan gordetzeko. Jarrera berbera izan du, ikerlari izan, bibliotekari izan: zabala, dokumentuak jendearen eskura uztekoa, ikerlariari besteei segida eman ziezaioten, belaunaldi berrietako ikerlariari ikerlana erraztekoan egin du berea aurrelana bailitzan.

Jose Antonioren bio-bibliografiarako beste ezaugarri bat seinatu gabe ezin dut itxi aurkezpen hau. Enpatia azpimarratu nahi dut. Gertutasun handiz hurbiltzen zaio biografiatuari, ez hotz, ez urrutiko, ez aseptiko, baina sekula adulazioan, apologetikan edo panegirikoan erori gabe. Biografiatuaren balio positiboak, ekarpenak, ahaleginak lehenesten ditu etengabe, hori bai.



Jose Antonio Arana Martijaren (1931-2011) omenez...

ARANA, Begoña
Jose Antonio Aranaren arreba

Egun-on.

Lehenik eta behin, atseginez, beste batzuen artean Jose Antonio Arana Martijari eskaintzen zaion omenaldi honetan parte hartzeko Euskaltzaindiaren gonbidapena eskertu nahi nuke.

Bestalde, bere berezitasunagatik hain hunkigarria den ekitaldi honetara bertaraturako guztiak agurtu nahi zaituztet.

Jose Antonio, besteak beste, musikologo, folklore eta bertsolaritzaren ikertzaile izendatzen dute. Langile nekaezina, aita Barandiareren eta Resurreccion Maria de Azkueren jarraitzaile leiala....baina guztien gain, bere lanaz maitemindua, BETI.

Jose Antoniok, musikari profesionala izan gabe, etxean entzun eta egiten genuenari esker, umetatik bere irakasleek irakatsiari eta geroago seminarioan ikasi eta dastatu zuenari esker, estetikoki musika baloratzen zekien.

Dudarik gabe, gure musikari garrantzitsuenen kantutegi handiak landu zituen. Euskal opera, euskal musika profano zein erlijiosoa, egungo konposatzaile handiak, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, Rafael de Castro, Joakin Pildain, Francisco Escudero...besteak beste, beti ikasteko asmoarekin eta seguruenik, gainontzekoei asko irakatsiaz

Seminaria joan aurretik jada Gernikako parrokiako koruan tiple zen eta piano eta organo eskolak jasotzen zituen, Juan Ojanguren organo-jotzai-

Euskera. 2011, 56, 1-2. 445-450. Bilbo
ISSN 0210-1564

le ezagunaren eskutik. Juan izan zen koruan polifonia sartu eta gregorianoa kantatzen irakatsi ziona.

Tiple modura, oso gazte izanik, gregoriano mezak abesten zituen.

Seminarioan, garai hartan bere ikasketetan sakontzeko leku aparta, armonia ikasten hasi zen.

1947an, etxera bueltan, neba-arreba guztiok miresten genuen.

Nire neba zaharrrena ezagutzen hasi nintzen. Artetsua zen denetarako. Gogoan ditut, gabonetan, ibai eta zubiak barne muntatzen zizkigun jaiotzak. Etxean pianoa jo eta abestu egiten zen. Chopin entzuten dudak bakoitzean nire haurtzaroz oroitzen naiz. Nik, melodiakin imitatu nahi nituen neba-arreba nagusiagoak eta teklatu gainean nota egokiak ez nituenez topatzen haserretu egiten nintzen.

Ziur nengoen, handia egitean pianoa jotzen ikasiko nuela.

Etxera itzultzean, ezin izan zuen batxilergo titulua balioztatu eta zuzenean errebalidara aurkeztuz lortu zuen.

Unibertsitate aurreko kurtsoa prestatu eta Valladolideko unibertsitatean aurkeztu zen. Ohorezko matrikula ematen zioten eta beka Deustuko unibertsitatean ikasten jarraitzeko.

Oraindik Muxikan bizi ginen eta gogoan dut Gernikara joan ahal izateko oparitu zioten bizikleta. Bizikleta harekin ikasi genuen txikiok erorketa guzti haietako kolpeak jasotzen. Mutilentzako bizikleta zen, baina garai hartan ezer ez zen arazo. Erabiltzen ikasi genuen...Geroago, nesken bizikleta izan genuen baita.

Parrokiko korura itzuli zen eta tenore gisa abesten zuen. Pixkana-pixkana, berak esaten zidan modura, musika gustatzen hasi zitzaion.

Askotan musikari buruz izaten genituen ondorengo gure berriketetan, gauza bat argi genuen biok: zerbait gustuko duzunean eta gainontzekoek atsegin dutela nabaritzen duzunean, ez dago ez ordurik ez egunik. Sortzen dizun plazerra da haren ordaina.

1950eko urtarrilaren 5ean, Gernikara itzuli ginen, baina txikiok, ezusteko latza izan genuen 6an...erregeek ez zekiten non bizi ginen eta idatzi bat utzi ziguten, sentitzen zutela esanaz, baina gure gurasoek kontutan izango zutela...eta hala izan zen, 7an baguenen jostailutxoren bat, nire kasuan panpinatxo bat.

Hurrengo urteko erregeak askoz eskuzabalagoak izan ziren eta etxean Meltxor, Gaspar eta Baltasarren bisita ere izan genuen! Brandy kopatxo bat hartzera gonbidatu genituen. A zer poza! Errege Magoak etxean!!! Kabalgata goizaldera ospatzen zen eta pentsatzekoa den bezala, gure neba eta lagunak ziren errege magoak.

Nire neba Eduardo Portugaleteko Santa Maria ikastetxera bidali zuten batxilergoa egitera, eta bertan triple bakarlari modura hautatu zuten koruan.

Gu Beatriz Gomeza anderearekin musika ikasten hasi ginen. Niretzat, klase haietan orduak konturatzeke igarotzen ziren. Gogoan dut nola errepi-katzen nuen: zer polita den hori Doña Beatriz, berriro jo ezazu. Klasearen ondoren entzutera gelditzen nintzen. Etxe hura, niretzat, «eden»a zen, bere alaba Belenek, aingeruen modura jotzen zuelako pianoa.

Denbora aurrera, nire irakaslearen etxean hainbeste ordu igarotzen nituenez, bere ikasle gaztetxoenei klaseren bat emateko baimena izaten nuen.

Garai haietan, pianoko azken kurtsoetan nenbilen.

58ko gabonetan, Gernikan koru lehiaketa antolatu zen. Antolatzaileen artean Jose Antonio zegoen.

Bi deialdi zeuden, bata helduentzat eta bestea haurrentzat. Helduen artean Gernikako zein beste herrietako taldeak aurkeztu ziren.

Berdin gertatu zen haurren koruen kasuan ere. Txikien artean, baldintza ondorengoa zen: gehienez 10 urte izatea partaide zaharrenak eta taldea 10 kidetik ez pasatzea.

Beatrizek, bere ikasleen artean taldea osatzera animatu ninduen. Taldekietako bat 8 urte zituen Amaia gure ahizpa txikia zen. Dudarik ez, nire irakaslea eta neba nagusiak lagundu zidatela. Gogoan dut txikien behartutako lana ADESTE FIDELIS zela.

Lehiaketaren emaitza ondorengo izan zen:

Helduen mailan:

1. saria. Jose Antonio Aranak zuzendutako korua
2. saria. Javier Aranak zuzendutako korua

...

Haurren mailan:

1. saria. Begoña Aranak zuzendutako korua

Garai haietan Trapp familia deitzen ziguten.

Hainbeste neba-arreba izanik...mutiletakoren batek kalean urrutira ikusiz gero...Beethovenen «Para Elisa» melidoa txistukatzen ziguten agur gisa.

Gaur egun nire neba Kikek agurrarekin jarraitzen du. Gernikan banabil eta «Para Elisa» entzuten badut badakit bera gertu dabilela.

Irribarre eragiten didan beste gogorapen bat...59ko abenduan, Jose Antoniok Iruñara bidaia egin beharra zuen katedraleko kapera maisu zen Aurelio Sagasetarekin konturen batzuk zehazteko. Jose Antonio eta emaztegaiak bidaia batera egin nahi zuten, baina oraindik ezkongai zirenez, ez zegoen baimendua bakarrik joatea...Zeinek lagunduko zien bidaia batera egin zezaten baimena lortzeko????...Begok.

Iruñara iritsi eta Castillo plazan utzi ninduten bueltatxo bat eman nezan. Ez dut sekula halako hotzik sentitu, hotzak nindoan kalean barna, ez nekien non sartu, taberna batean? emakumezkoa bakarrik, atrebitu samar, lotsagabe suertatzen zen...zer egin???Liburu bat erosi, eliza batera sartu nintzen, eta beirate baten azpian irakurtzeari ekin nion...

80ko hamarkadan, Francisco Escudero maisua bere *Gernika* opera lan-tzen ari den garaian, ni, bere konposaketa klaseetara joaten nintzen Donostiara. Nik, Jose Antonio eta maisuaren arteko mezulari lana betetzen nuen. Beti zuen mezuren bat.

Joan etorri hauetako batean, Francisco jaunak gutun bat bidali zion Jose Antoniori, Gernikako elizako ezkilen grabazioa eskatuz. Ondorengo eskolara, Jose Antoniok grabatutako cassettearekin agertu nintzen.

Geroago, 1987an Arriagan estreinatu zen operan entzungo ziren kanpaia haiek.

Hau zen Jose Antonio. Beti, herrian ospatzen zen guztian parte hartuz.

Lizeoan antzezlanea antolatzen zela? han izango zen Jose Antonio

Zartzuela? han izango zen Jose antonio

Korua zuzentzen? han izango zen Jose Antonio

Koruak zetoze? han izango zen Jose Antonio

Gotzaina zetorrela sendotzak ospatzera? han izango zen Jose Antonio

Aparteko liturgiak ospatzen zirela? han izango zen Jose Antonio

Adoracion nocturna egiten zela? han izango zen Jose Antonio

Marijeseak zirela? han izango zen Jose Antonio

Guardia Zibilen hainbaten atxilotxe eta espetxeratzeak? ba orduan ere han zen Jose Antonio...

Familian, oso kolpe gogorra izan zen. Gertaera haren ondorioz, gure aitak hemiplejia sufritu zuen eta gure bizitzek erabateko aldaketa izan zuten.

Basauriko kartzelan, denbora gutxian egon arren, errepresaliatuekin korua osatzen saiatu zen, baina zorionez kasu honetan ez zen posible izan. Bere nahiak betetzeko denborarik ez zioten eman. Gehixeago eduki izan balute...guztiekin abesten amaituko zuten kartzelan.

Jose Antonio, kantaria, konposatzailea, ikertzailea, editorea...izan zen... hori dena...urte latz haietan!

Amaitzeko. Jose Antoniori agur maitekor bat helarazteko bide egokiena, musika momentu batekin gozaraziaz dela iruditu zait. Horretarako atseginez eskeini diren lagun eta familiartekoak daude gurekin. Eskerrik asko.



Vahan Sarkisian (1954-2011) armeniar hizkuntzalariaren oroitzapenez

KINTANA, Xabier
Euskaltzaindiko idazkaria

Jaun-andreok, agur guztioi. Hasi baino lehen, aitortu behar dut, Vahan Sarkisian jauna pertsonalki ezagutu arren, tamalez, ez nintzela harekin maiz egon eta, horregatik, ez genuela elkarrekin luzaro mintzatzeko aukera handirik. Ordea, baziren gure artean berarekin harreman askoz estuagoak izandako euskaltzainak, adibidez, Henrike Knörr, eta, oso bereziki, Jose Mari Satrustegi jauna, bata eta bestea gure Akademiaren idazkariak izandakoak. Zoritxarrez, biak gure artetik joanak dira eta, neroni eskaini didate Sarkisian irakaslearen hilberria emateko zeregina. Eta ohore hori, uste dut nola-baiteko hurbiltasun kontuagatik heldu zaidala. Ni ez naiz inoiz Armenian izan, baina horren auzo-herrian, ordea, bai: Georgian hain zuzen, bertan laurogeien hamarkadan urte erdi bat eman nuen eta. Halere, aipaturiko euskaltzainen faltan, nekez bete nezakeen nik gaurko egiteko hau, baldin Vahanen alabak, Arevik Sarkisianek, bere aitaren biografiaren datu, argibide eta jakingarri asko eman ez balizkit begikotasun handiz. Beraz, bidezkoa denez, aitor diezaiodan hemendik, neure esker ona.

Goraxego, Vahan Sarkisianen bizitzaz mintzatzea enetzat ohorea dela esan dut, eta hor ez dut inolako azaleko kortesiarik ezkutatu nahi. Gure herria, bistan denez, ez geografia, ez demografia, ez kultura edo ekonomia aldetik, ez da munduko herri handienetako bat. Halere, geure txikitasunean, bertoko seme-alabok ere badakigu bihotzetik eskerrak ematen. Eta are gehiago, Armeniatik, Europa-Asia arteko muga urrunetik, gutaz, gure hizkuntzaz eta kulturaz, luzaro hain interes eta ardura handia erakutsi duen hizkuntzalari bati gure azken agurra egiterakoan.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 451-462. Bilbo
ISSN 0210-1564

Vahán (izena) **Gerasím** (patronimikoa) **Sarkisián** (deitura) jauna Filologi Zientzietan Doktorea zen, Unibertsitateko irakasle katedraduna, armenologoa, idazlea, itzultzailea, euskalaria eta hispanista ere bai. Merezimendu horiek guztiak izanda, ez da harrigarria, geroxeago ikusiko dugunez, kultur elkarte ospetsu askotako kidea ere izendatua izatea.

Izatez, Erevan-en jaioa zen, Armeniako Errepublikaren hiriburuan, 1954ko martxoaren 12an. Lehen ikasketak bere jaioterrian egin eta 1978an graduazioa Erevango Estatu-Unibertsitateko Filologia Fakultatean burutu zuen, Filologia Erromanikoan, Frantses Hizkuntza eta Literatura berezitasunean. Unibertsitate berean 2003an bere doktorego tesia aurkeztu zuen, «Armeniar-euskal hizkuntzalaritza-korrelazioen problema» izenekoa. Urte berean unibertsitate hartako Filologia Erromanikoaren Katedraren Buru hautatu zuten.

1982an Soná Sarkisian andrearekin ezkondu zen, eta bi haur, Arevik, alaba, eta Nerses, semea, izan zituzten. Hizkuntza ugaritan zekien mintzatzen, idazten eta irakurtzen: armenieraz, errusieraz, frantsesez, italieraz, euskaraz, espainolez, ingelesez, portugaleraz... Horiez gainera, antzinako armeniera (*grabar*) eta latina ere sakonki ikasiak zituen.

Curriculum-az kanpoko zaletasunei dagokienez, Vahan Sarkisian xake jokoa, poesia, gizarte zientziak eta politika-ikasketak ere gogoko zituen. Euskal Herria bere bigarren sorterritzat zeukan.

Gogorapen bereziak gordetzen zituen, adibidez, Isabako herriaz. Euskal Herriarengana sentitzen zuen atxikimendu, zaletasun eta oniritzi nabari hori, gainera, bere etxeko guztiengan jakin zuen txertatzen.

Unibertsitateko ikasturteen ondoren Vahanek lanean jardun zuen, bai Armenian eta bai atzerrian ere: 1979an Moskun, 1984 eta 1987 artean Kuban, adibidez. Itzultzaile, laguntzaile eta espezialista lanez gainera, garrantzi publikoko ardurak ukan zituen, batez ere gazteriari eta zientziari buruzko erakunde eta antolakuntzetan, batzuk Estatuarenak eta sozialak, eta beste batzuk gobernutik kanpokoak.

Armeniar eta euskal zibilizazioen arteko korrelazioez eginiko lehen argitalpena «*Armeniar-euskal problematika euskalaritzaren iturrietan*» deritzona

izan zen, 1989an *Garún* aldizkarian argitaratua. Geroxeago, 1992. urtetik aurrera *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian idazten hasi zen.

Erevango Estatu-Unibertsitatean *Araxes* izeneko nazioarteko aldizkari armeniar-euskalduna fundatu zuen 1993an, bertako idazkaritza-kontseiluan Jose Mari Satrustegi eta Jose Antonio Arana-Martija zirela.

1994. urtetik aurrera, erakunde eta Estatuaren erakunde zientifiko, publiko, eta Espainia-Frantzietako zientzia eta kulturarako fundazio prestigio-tsu batzuen laguntzaz, Vahan Sarkisianek ikerketa, estudio eta itzulpen batzuk bultzatu zituen, armenologia eta euskalaritzari buruzko zientzi gaiak landu, interes bereziko azterketa zabalak egin eta askotariko estudioetan jardun zuen: euskal hizkuntza eta literatura, armeniera eta euskararen arteko paralelismoak eta konparaketak, literaturaren eta historiografiaren idazlan nagusien itzulpenak, etimologiak (kanpo-erkaketak eta barne-eraikuntzak) Urartu armeniar erresuma zaharraren ikerkuntzarako oinarritzko problemak (armenieraren, euskararen eta Urartuko hizkuntzaren arteko erkaketak, esaterako...)

Vahan Sarkisian, halaber, teoria eta metodologia zientifikoaren berezilari gisa ere nabarmendu zen, eta metodo zientifiko oso interesgarri eta eragileak prestatu zituen; alde horretatik, bai hizkuntzalaritzan, bai armenologian eta bai euskalaritzan ere ibilbide erabat berriak proposatu zituen, zenbait jakintsuren aldetik onespina lortu eta oihartzun handia eskuratu dutenak. Haren iritzi batzuek, ordea, armenieraren ustezko jatorri indoeuroparra zalantzan jartzen dutenek, adibidez, ez dute onspen berbera izan.

1993 eta 1999 artean Vahan Sarkisianek barne eraikuntzaren bidezko etimologiak aurkitzeko metodo berri bat landu eta garatu zuen, hizkuntza batzuen datu multzo batean oinarriturik: Metodo horren aplikazioaren eta egiaztapenaren lehen faseko ondorioak *Errusieraren Hiztegi etimologikoa, barne-eraikuntzan oinarritua* deritzonaren bi liburukietan aztertu eta laburbildu zituen, errusieraz 1998an argitaratuak. Geroxeago, 2008an, *Lincom Europa* izeneko Europar Elkarte Linguistiko nagusiaren eskariari erantzunez, V. Sarkisian jaunak *Euskal etimologiarako sarrera: Barne eraikuntza* deritzon monografia eman zuen argitara (München, Lincom, 2009).

Vahan Sarkisianen interesen eta gai azterketen emaitza hirurogeita hamar artikulu zientifiko, monografia, itzulpen eta elkarrizketa baino gehiagotan ikertu, azaldu eta xeheki eskaini dira, Errusia, Frantzia, Espainia eta Argentinako aldizkari, material-bilduma, eta entziklopedietan argitaratuak.

Aipaturiko argitalpen horien artean azpimarragarrienak ondoko hauek dira:

- *Euskal gramatika laburra*, Erevan, 2000 (armenieraz),
- *Urartuko zibilizazioa eta Euskaldunen Lehen Sorterri Historikoaren problema*, Erevan, 1998 (armenieraz),
- *Vascos y Armenios: Documentos y materiales*, T. I eta II, Erevan - Donostia, 2006-2007. (espainieraz), etab.

Hizkuntzalaritza eta Filologian Vahan Sarkisianek eginiko emaitza handiak ez dira soilik akademi arloan, hitzaldietan, ikastaro berezietan etab. islatzen, baizik eta atzerriko zientzia elkarte ugarirekin izandako harremanetan eta partaidetasun zabalean ere.

Horretara, Vahan Sarkisian gure Akademiak Ohorezko Euskaltzain izendatu zuen 2002ko azaroaren 29an. Era berean Hispanisten Nazioarteko Elkartearen eta Euskalarien Nazioarteko Elkartearen Ohorezko kidea ere bazen.

Era berean, Vahan Sarkisian nazioarteko hitzaldi, kongresu eta foroetako partaide, idazkari eta koordinatzaile izana zen:

- Hispanisten Nazioarteko Batzarra (Espainia, Granada, 1998)
- Hispanisten Nazioarteko Konferentzia (Mosku, 1999)
- Hispanisten Nazioarteko Batzarra (Estatu Batuak, New York, 2001)
- Euskalarien Nazioarteko Batzarra (Euskal Herria, Donostia 2002)
- Armenologoen Nazioarteko Konferentzia (Frantzia, Aix-en-Provence, 2003)
- Armenologoen Nazioarteko Batzarra, Idazkari zientifikoa (Erevan, 2004)
- «Teatroa eta Hizkuntza» Nazioarteko Konferentzia (Iran, Teheran, 2007)

Vahan Sarkisianen ahalegin eta talentuari zor zaio, besteak beste, Armeniako errealiterako hain balio handia izan duten itzulpen segida handia, espainiar, frantses eta euskal literatura, hizkuntzalaritza eta historiografiako egiazko maisu-lan direnak:

Bernard Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*.

Francisco Quevedo y Villegas, *La vida de Buscón, Sueños*.

Miguel de Cervantes, *Novelas Ejemplares, Vida del Ingenioso Hidalgo Don Quijote de la Mancha*.

Joseph Agustín Chaho, *Tradiciones populares vascas, La Leyenda de Aitor*.

José María Satrustegui, *Morfología del tiempo*.

Poetas navarros actuales, etc.

Vahan Sarkisianen ekimeneko itzulpenekin batera, eta unibertsitateko irakasle eta ikasleen partaidetasunaz, elkarraldiak, mintegiak, eztabaidak eta analisiak egin dira atzerriko espezialistekin.

Haren eraginari esker prestatu eta argitaratu da ‘Armenieraren hiztegi etimologikoa’, G. Jahukian armeniar hizkuntzalari eta akademikoaren lana, armeniar linguistikarako balio nabarmena daukana.

Vahan Sarkisian dugu, halaber, armeniera-espainiera hiztegi mardularen lehen autorea, 40.000 sarreraz eta 20.000 perpaus eta esaeraz hornituarena. Aitzindaria gertatu zen, armeniar gizartean euskal hizkuntza eta kulturarekiko kezka agertzen, euskal-armeniar paralelismoak eta euskara-armeniera hiztegiak aurkeztean.

Vahan Sarkisianek irakaskuntzan, pedagogian eta zientzian zerabilen misioari erakutsiriko atxikimendua bereziki balioetsi dute haren ikaskide, ikasle eta zientzilariek, bai Armenian eta bai atzerrian ere.

Haren heriotza iaz, 2011ko urtarrilaren 21ean gertatu zen bat-batean, bihotzekoak jota, 57 urte betetzeko, bi hilabete falta zituenean, etxeko, senide eta adiskide guztiengan dolu-samintasuna utzirik. Hil baino egun batzuk lehenago, Euskaltzaindiko Exonomastika-batzordearen izenean idatzi nion, armenierazko geografia izenen transkripzioarako argitasun batzuk eskatzeko, horren arabera bertako izen geografikoak transkribatzeko. Gogoan dut Vahan Sarkisian jaunak berehala eta egokiro erantzun zigula, bai eta gure zalantzak argitu ere. Eskertzekoa izan genuen..

Bego, hortaz, haren oroitzapena, Euskal Herriarengana beti erakutsi zuen ardura eta interesarekin batera, euskaldunon gogo-bihotzetan.

* * *

Haren paregabeko nortasunaren beste ezaugarri sotilago batzuk iragar-
tzeko, adibide gisa, hona hemen hark espainieraz idatziriko poema hauek

Sanfermines

Parece que todo el temperamento del planeta
se ha acumulado en Pamplona.
Por el camino rojo
corren todos,
toros y hombres,
hombres y toros,
hermanos inseparables, como Abel y Caín.
Y corren hasta las puertas de la muerte.
Allí el toro entra y el hombre para.
Claro, no es el guardián de su hermano.

Santimamiñe

Eres un hueco en el tiempo y el espacio,
un hueco cavado por la eternidad,
mucho antes de la creación del tiempo.
Por eso, nadie sabe los nombres
de tus pintores y tus arquitectos.
Te adoran todos, las fortalezas celtas,
La acrópolis y los templos sumerios.
Todos temen al tiempo
y el tiempo teme de las pirámides.
Pero las pirámides temen de ti,
de su bisabuelo.

Al gentil vasco

Eras un ser mitológico
y tenías siete efes, eras
feo,
feroz,
firme

fuerte,
famoso,
fantástico.
Pero, antes que nada,
Eras un gran
filósofo,
porque tratando con hombres,
conocías el valor de callar.

Urumea

Nadie sabe lo que estás haciendo.
A veces bajas en el mar,
a veces subes a las montañas.
Pero siempre corres,
subes y bajas sin cesar.
Parece que no eres río
sino una sangre inquieta
que circula en las venas el país.
Esopo era loco:
nadie puede beber un río,
tampoco la sangre de un país.

Vahan Sarkisian

Euskalaritzari buruzko bibliografia (1989-2007)

1. V. Sarkisian, «Armeniar-euskal problematika euskalaritzaren iturrietan». *Garun* aldizkaria, 3. zenb., 1989 (armenieraz).
2. V. Sarkisian, «El elemento armenio del origen vasco». *Historia*, Buenos Aires, Argentina, 8. zenb., 1990 (espainieraz).
3. V. Sarkisian, «Euskaldunak Ararat mendiaren isurialdeetan». *Garun*, 2. zenb., 1990 (armenieraz).
4. V. Sarkisian, «Lehenbiziko errotaren euskal tradizioaren armeniar aldakia». *Araxes* aldizkaria, 1. zenb., 1993 (armenieraz eta espainieraz).

5. V. Sarkisian, «Edward Spencer Dodgson-en armeniar euskal zerrenda». *Araxes* 1. zenb., 1993, (armenieraz).
6. Jose Miguel de Barandiaran, «Euskal Herriko hilarriak». V. Sarkisianen itzulpen laburtua, *Araxes*, 1. zenb., 1993 (armenieraz).
7. V. Sarkisian, «Algunos aspectos mitológicos de la teoría vasco-armenia». *Fontes Linguae Vasconum*, 1992 (espainieraz).
8. V. Sarkisian, «Antonio Tovar-en oinordekotza euskalaritzan». *Araxes*, 1. zenb., 1994 (armenieraz).
9. V. Sarkisian, «Euskaldunen izenaren lehenbiziko aipamena armeniar historiografian». *Araxes*, 1. zenb., 1994 (armenieraz).
10. Isaac Lopez Mendizabal, «Euskal Herriaren historia laburra (atalak)». Itzulpena, sarrera eta oharra: V. Sarkisian. *Araxes*, 1. zenb., 1994, (armenieraz).
11. Angel de Gorostidi, «Armeniar apezpiku bat Gipuzkoan XV. Mendean». Itzulpena eta oharra: V. Sarkisian. *Araxes*, 1. zenb., 1994, (armenieraz).
12. Jose Maria Satrustegi, «Denboraren morfologia». V. Sarkisianen itzulpena. *Araxes*, 2. zenb., 1994 (armenieraz).
13. V. Sarkisian, Armeniar-euskal ahaidetasuna toponimiako datuen argitan. *Araxes*, 2. zenb., 1994 (armenieraz).
14. V. Sarkisian, Euskaldunen izen etnikoak. *Araxes*, 1, zenb. 1995 (armenieraz).
15. V. Sarkisian, «Bedros Polsetziren euskal-armeniar ekuazioak» *Araxes*, 2. zenb., zenb. , 1995 (armenieraz).
16. V. Sarkisian, «Hrachia Adjarian-en oinordekotza euskalaritzan». *Araxes*, 1. zenb., 1996 (armenieraz).
17. V. Sarkisian, «Van-go idazkien –tu (-du) atzizkiaren isla». *Araxes*, 1. zenb., 1996 (armenieraz).
18. V. Sarkisian, «Joseph Karst-en euskal-armeniar ekuazio lexikalak». *Araxes*, 1. zenb., 1996, (armenieraz).
19. V. Sarkisian, «Introducción a la problemática armenio-vasca». *Araxes*, 2. zenb., 1996 (armenieraz).
20. Jose María Satrustegi, *Euskal Herri-tradizioak*. V. Sarkisianen itzulpena. J.M. Satrustegiren hitzaurrea. 132 orr. (armenieraz)

21. V. Sarkisian, «*Mushegh* armeniar antroponimoari buruz (euskal-armeniar azterketa)» *Erevango Estatu-Unibertsitatearen Urtekariak*, 3. zenb., 1996 (armenieraz).
22. V. Sarkisian, «*Artzax* armeniar toponimoa: armeniar-euskal azterketa». *Erevango Estatu-Unibertsitatearen Urtekariak*, 2 zenb., 1996 (armenieraz).
23. V. Sarkisian, «Joseph Karst armenologo handiaren euskal-armeniar oinordekotza». *Erevango Estatu-Unibertsitatearen Aldizkaria*, núm. 3, 1996 (armenieraz).
24. V. Sarkisian, «Los numerales y algunas ideas numéricas en el vascuence (etimología interna sistematizada)». *Fontes Linguae Vasconum*, 1997 (espainieraz).
25. V. Sarkisian, «La etimología de *vasc. bukatu* ‘terminar’». *Fontes Linguae Vasconum*, 1997, (espainieraz).
26. V. Sarkisian, «Espainieraren latin aurreko sustratua eta armeniera». *Araxes*, 2 zenb., 1997 (armenieraz).
27. Angel Urrutia, «Poesiak». V. Sarkisianen itzulpena eta hitzaurrea. *Araxes*, 2 zenb., 1997 (armenieraz).
28. V. Sarkisian, «Noticiario vascológico de Armenia». *Fontes Linguae Vasconum*, 1997, (espainieraz).
29. V. Sarkisian, «Nikolas Marr-en armeniar-euskal erkaketak». *Araxes*, 2 zenb., 1997 (armenieraz).
30. V. Sarkisian, *Urartuko zibilizazioa eta euskaldunen aitzinako sorlekuaren problema* (monografia). Erevan, 1998, 165 orr., (armenieraz).
31. V. Sarkisian, «Euskal atsotitzen bilduma: edizio elebiduna». *Araxes*, 1. zenb., 1998 (euskaraz eta armenieraz).
32. V. Sarkisian, «Euskal-armeniar paralelismoen hiztegia». *Araxes*, 2 zenb., 1998 (euskaraz eta armenieraz).
33. V. Sarkisian, «Estudios toponímicos vascos». *Fontes Linguae Vasconum* aldizkaria, 1998, (espainieraz).
34. V. Sarkisian, *Errusiar hiztegi etimologikoa (euskal lege fonetikoaren oinarrian)*. T. 1, 2. lib. Erevan, 1998 (errusieraz).

35. V. Sarkisian, *Djavaxkh toponimoaren jatorriaz*, Erevan, 1999, (armenieraz).
36. V. Sarkisian, *Armeniar idazkeraren jatorriak (euskal-armeniar lexiko erkaketa askorekin)*. Erevan, 1999, 335 orr. (armenieraz).
37. José Maria Satrustegi, *Heriotzaren aurpegi ezkutua*. V. Sarkisianen itzulpena eta hitzaurrea, Erevan, 1999, 62 orr. (armenieraz).
38. V. Sarkisian, «Arm. enkoiz - eusk. intxaur hitzen genealogi zuhaitza» . *Rubikon* aldizkaria, 1 zenb., 1999 (armenieraz).
39. V. Sarkisian, «La Ideología heterodoxa de Joseph Karst», *Fontes Linguae Vasconum*, 1999 (espainieraz).
40. V. Sarkisian, «Elementos vascos en la obra de Hrachia Adjarian». *Fontes Linguae Vasconum*, 1999, (espainieraz).
41. V. Sarkisian, «Euskaldunak eta armeniarak. Europako zibilizazioaren orri ezkutuak». *Armiansky Vestnik* aldizkaria, 1-2. zenb., Mosku, 2000 (errusieraz).
42. V. Sarkisian, *Euskaldunen jatorriaren enigma eta Armeniako Goilautada* (monografia). Erevan, 2000, 163 orr. (armenieraz).
43. *Nafarroako gaurregungo poetak*. Vahan Sarkisianen itzulpena, Erevan, 2000, 151 orr. (armenieraz).
44. V. Sarkisian, «. Erevan, 2000, 256. orr. (armenieraz).
45. V. Sarkisian, «Contribución a los estudios aquitano-vascos». *Fontes Linguae Vasconum*, 2000 (espainieraz).
46. V. Sarkisian, «(eusk. buru - arm. poyr/pur «buru») euskal-armeniar paralelismo baten inguruan». *Araxes*, zenb., 2000 (armenieraz).
47. Gabriel Aresti, «Olerkiak». V. Sarkisianek euskaratik armenierara eginiko itzulpena, *Araxes*, 11 zenb., 2000 (armenieraz).
48. V. Sarkisian, «Problemas de traducción al armenio de la literatura vasca» (XV Congreso Internacional de Estudios Vascos-era aurkezturiko txostena, Donostia 2001eko hazilaren 28-30etan).
49. V. Sarkisian, «Edward Spencer Dodgson y la problemática vasco-armenia». *Fontes Linguae Vasconum*, 2001, (espainieraz).
50. V. Sarkisian, *Euskera-armeniera hiztegia*. Erevan, 2001, 331 orr.

51. V. Sarkisian, «El ergativismo del euskera: intento de una reconstrucción interna», *Fontes Linguae Vasconum*, 1998 (espainieraz).
52. Bernard Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*. Vahan Sarkisianen itzulpena eta sarrera, Erevan, 2001, 91 orr. (edizio elebiduna).
53. V. Sarkisian, «Les Basques et les Arméniens: le défi d'une théorie oubliée». Revista *France-Arménie*, 23 zenb., 2002 (frantsesez).
54. V. Sarkisian, «La etimología de *vasc. ezker* 'izquierdo'». *Fontes Linguae Vasconum*, 2002 (espainieraz).
55. V. Sarkisian, A. Madoyan, *Itinerarios (los peregrinos armenios en Europa Occidental)*, Erevan, 2001, 50 orr. (armenieraz eta espainieraz).
56. Juan Antonio Mogel, *Peru Abarka*. V. Sarkisianen itzulpena, Erevan, 2002, 114 orr. (armenieraz).
57. V. Sarkisian, «La formación del infinitivo en el euskera». *Fontes Linguae Vasconum*, 2003 (espainieraz).
58. V. Sarkisian, *Les Basques et les Arméniens: l'héritage ethno-linguistique des Arméniens en Europe Occidentale*. Colección «Armeniaca», Aix-en Provence, 2004 (frantsesez).
59. V. Sarkisian, *Euskal Herriko armeniar etnotoponimoak*. *Armeniako Goilautada eta munduko zibilizazioko problemak*, Bilduma, Erevan, 2004 (armenieraz).
60. V. Sarkisian, Urartuko euskal toponimiako elementuak «Armeniar kultura: iragana eta oraina» *Nazioarteko Kongresurako Materialak*, Erevan, 2005 (armenieraz).
61. V. Sarkisian, «Золото басков» (= Zoloto baskov 'Euskaldunen urrea'). *Erevan* ald. 4. zenb., 2006 (errusieraz).
62. V. Sarkisian, *Vascos y Armenios: Documentos y materiales*, t. I. Erevan-Donostia, 2006, 260 orr. (espainieraz).
63. Gabriel Aresti, *Harri eta Herri, traducción del euskera e introducción de V. Sarkisian*, Erevan, 2006, 175 orr. (edizio elebiduna – edición bilingüe).
64. V. Sarkisian, *Vascos y Armenios: Documentos y materiales*, t. II, Erevan-Donostia, 2007, 254 orr., (espainieraz).
65. Joseph Augustin Chaho, *La legende de Aitor* (frantsesetik itzulia, sarrera eta oharra V. Sarkisian-enak), Erevan, 2007, 80 orr.



Xabier Gereño (1924-2011) eta Euskaltzaindia

LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis
Euskaltzain osoa

Xabier Gereño, oro har, euskal kulturan eta bereziki euskalgintzan nor izan bada, Euskaltzaindiaren barruan ere izan zen zerbait. Hori da, gaur eta hemen, labur bilduz, jorratuko ditugun zertzelada zenbait.

1965eko irailaren 25ean izan zen euskaltzain urgazle izendatua, hain zuzen, Jose Maria Lojendio euskaltzainburu zen garaian. Jadanik, Xabier, frankismo garai gogorak izan arren, kultura arlo askotan mugitzen zen, hala nola, txistulari bezala, euskal kantu munduan, antzerkian, literaturan eta abar.

1968ko ekainaren 28, 29 eta 30ean, Juan San Martinek, Gerediaga Durango Merindadeko Adiskideen elkarteari eskatu zion, Durangalde barruan, Hego Euskal Herriko euskal idazleen jardunaldiak antolatzea, konturatzen bai zen Gipuzkoan ezin zitezkeela egin, probintzia «salbuespen egoeran» zegoelako. Muga mugako Ermuko eskola profesionalean antolatu genituen, txostenetariko bat hau zelarik: «Idazleen alkartasun bat sortzea». San Martinek aurkeztu zuen, eta bera eta gure Xabier Gereño, orduan euskaltzain urgazlea, gelditu ziren behar izan urratsak emateko. Bien ahaleginak ez ziren nahikoa izan, egoera politikoak ez zuelako aukerarik ematen. Hori bai, 1980 hamarkadaren hasieran, Euskal Idazleen Elkartea gauzatu zen, orduan ere Euskaltzaindiaren eskutik, partaide izan zirelarik, besteak beste, Xabier Gereño eta Jose Antonio Arana, Juan San Martinek, Jagon sailburu legez eraman zuen ardura akademikoa.

1980an, hain zuzen, maiatzaren 30ean egindako hileroko batzar-agiriak dioenez, honako erabakia onartu zen, hots: «GOIZEKO BILKURAREN

BERRI. Euskaltzain osoen bilkuran **Xabier Gereño** egun erdiko lanerako diruzaintzan sartzea erabaki da. Beraren ardura, kontuak eramatea izango da». Zuzendaritzak, behar beharrezkotzat jo zuen, Juan Jose Zearreta, ekonomia eragileak laguntzaile bat izatea, zehazkiago, kontulari bat, zeren eta Juanjo-ren lana diru bila kudeaketara lerratu behar zela uste zuelako. Premia hori betetzeko Xabierrengana jo genuen, zeren eta bagenekielako, berak lan egingen zuen enpresa, Erandioko «La Areonáutica, S.A», atea ixteko zorian zegoela eta nor bera baino, euskaltzain urgazlea, gainera, trebeagoa!. Ez zuen, ordea, egun osoko jarduna hartzea nahi izan, arratsaldetan, bere idazle lanetan aritzea nahiago zuelako eta Euskaltzaindiari karga gehiegi ez ematearren. Akademiaren kontabilitatea antolatzeaz gainera, euskaraz prestatu zuen, berak sortutako ereduia Euskaltzainditik kanpo ere, askorentzat balio handia izan zelarik. 1988an, jubilatutako arte, gure erakunde honetan lan egin zuen, ohi zuen trebezia eta dedikazioaz.

Henrike Knörr hautatu zuten Diruzain, euskaltzain osoek, 1984ko azaroaren 30ean eta, handik gutxira, Baztanen, Pello Salabururen sarrera hitzaldiaz batera, egin ziren IV. Barne Jardunaldietan, hain zuzen 1985eko apirilean, diruzainaren proposamenez sortu zen Ekonomia Batzordeko kide izendatu zuen Euskaltzaindiak. Urte berean, irailaren 26an, erakunde honek duen eraikuntza ondare bakarra, hots, Etxebarri herriko gordailua inauguratu zuen Argitalpen Batzordeak, bilkura hartan, Xabier Gereñok, Rosa Mari Artza argitalpen banaketa eta gordailu arduradunaren laguntzaz, Euskaltzaindiaren argitalpenen inbentario zehatza aurkeztu zuen, titulu, ale kopuru eta diru balio eta guzti. Knörr beraren proposamenez ere, Ekonomia Batzordearen aholkularitza atala sortu zen, zeinetan, kideez gain: diruzaina, J. J. Zearreta, J.M. Vélez de Mendizabal, **X. Gereño** bera eta ni neu, aholkulari hauek izendatu ziren: Federico González, abokatua; Alberto Garate, ekonomialaria eta Miguel Angel Redondo, ekonomialaria. Azken hori, Lantarongo enpresa garrantzitsu baten, General Química Españolan, pertsonal buru zen eta Arabako Batzar Nagusietako ahaldu edo prokuradore jeltzalea. Redondo, sortzez deustuarra, Xabier bezala, azpibatzerde baten partaide izan zen, Euskaltzaindiaren langilego guztien lanpostu baloraketa bat prestatzeko eta lehendabiziko hitzarmen bat bideratuz. Aldundietariko bat edo Jaurlaritza erreferentziatzat har zitekeen eztabaidatu zen eta aipatutakoaren

harremani esker, besteak beste, Jaurlearitzako Enplegu zuzendariarengana jo eta administrazio amankomuna hartu zen eredutzat. Lan horretan, A. Garate eta J.J. Zearretaz gain, deustuar biak aritu ziren, Redondo eta Gereño. Are gehiago, gure artxiboetara jo eta ziurtatu dut, Xabier Gereño izan zela, beste langile batekin batera, lehen Batzorde Parekidetako langileen ordezkarietarikoa bat, alegia, kasu bietan, lan ona egin zuelarik, erakundearen mesedetan.

H. Knörren diruzaintzaren ondoren, Juan San Martinenean ere jarraitu zuen Gereñok, bien eta Juanjo Zearretaren artean egindako kudeaketa onuragarriak banan banan zehaztea luze joko lukeelarik, argitalpen alorrean, bereziki.

Argitalpenetan, hain zuzen, urte askotan, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, Xabierrek bere anaia Josebarekin zeukan Cinsa argitaletxearen stand, Euskaltzaindiaren standaren (lehen, 1965etik, Gerediaga Elkartearen erabakiz eta Leopoldo Zugaza elkarteko lehen idazkariaren proposamenez) alboan jartzen zuen eta bien ardura ekonomikoa eramaten zuen. Gerediaga elkarteko zuzendaritza kide izan, lehen hamar urtetan, nahiz, 1969tik Euskaltzaindiko idazkariorde izan, beste ardura batzuetan. Lasai ibiltzeko aukera genuen stand bien ardura Xabierrek ondo eramaten bai zuen.

Xabier, kontulariz langintza hartu baino lehenago edo geroago, eginkizun akademiko ugaritan parte hartu zuen, hala nola, 1972an, *Filateli Hiztegia*, 1972ko urtarileko batzarrean, Euskaltzaindiari proposatua; Euskalarien Harremanak batzorde suntsikorrean; 1968an, Arantzazun eta, 1978an, Bergaran egindako bi biltzar famatuetan ere izan zen partaide; 1980an eta hurrengo urtean; Loiolan, 1981ean, egindako Euskaltzaindiaren II. Barne Jardunaldietan; Bizkai Aurrezki Kutxaren babespeko, Toribio Alzaga sariko epai mahai zereginetan; oker ez banago, Euskaltzaindiaren aginduz Xabier Kintanak prestatutako *Merkatalgo Izendegian* lagundu zuen, 1982-84an; hilberri txosten hauek ere idatzi zituen: Xabier Peña, euskaltzain urgazlea (1981), Julita Berrojalbiz, ohorezko euskaltzaina (1999).

Une batez, Bizkaiko Aurrezki Kutxak, bere Kontseiluan leku bat eman zion Euskaltzaindiari. 1980ko azaroaren 28ko osoko bilkuraren batzar-agi-

riak dioenez, Xabier Gereño izendatu zen instituzio akademikoaren ordezkari legez.

Beste maila apalagoko ordezkaritza eta nabarmendu bako kudeaketa franko zehazterik ez dugu, gaurkoz. Mereziko luke ordeza, Xabier gizon apa-
la eta isila baitzen.

Bururatzeko, Arautegiaren 39. artikulua dioena betez, hots, «*Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako laguna*» zelako, Euskaltzaindiak, 1998ko apirilaren 24an euskaltzain ohorezko izendatu zuen.

Iazko apirilaren 8an hil zitzaigun Xabier Gereño, hainbeste lanetan lan-
kide; kudeaketa zereginetan, laguntzaile; herrigintza arloetan, burkide; Eus-
kaltzaindian etxe etxeko. Iasmina Gorroño eta biok, gure Hizkuntza Aka-
demiaren Historiarako hari elkarriketa luze bat egitea programatua genuen,
baina, tamalez, ez ginen, garaiz iritsi. Izango zuen zer konta. Horixe berori
esan zion Iasmina lankideari Iñaki Beobide euskaltzain urgazleak, beroni
egindako elkarriketaren transkribaketak dioenez: «... eta, *Jose Luisi esanda-
koa, niri Argizaiola emango* didate (egun horretan, abenduaren 4an, ilun-
tzean, Gerediaga Elkartean, 46. Euskal Liburu eta Disko Azokaren ospaki-
zunez, «Argizaiola Saria» eman bai zion), *Xabier Gereño saririk gabe gelditu
delarik. Eta berak mugitu zituen bazter guzti guzti guztiak...*»

Xabier Gereño Arrarte (1924-2011): euskaltzalea, ekintzailea, adiskidea. *In memoriam*

KINTANA, Xabier
Euskaltzaindiko idazkaria

Xabier Gereñoren anaia-arrebak, seme biok, euskaltzainok, adiskideok, agur guztioi. Oraingoan ere gertatu zait lagun eta adiskide izandako euskaltzain baten hilberri-txostena prestatu beharra. Eta horrek aukera eskaini dit, harekin eta haren inguruan bizi izandako pasadizo eta oroitzapen gazi-gozaok gogoratzeko, ahanzturaren tuneletik aterata.

Xabier Gereño Arrarte, Bilbon 1924ko abuztuaren 12an jaioa, iazko apirilaren 8an zendu zen, 87 urte betetzeko hiru hilabete falta zituenean. Jada urtetan aurreratua zen eta, alde horretatik, haren heriotzak ez gintuen erabateko ustekabeen harrapatu, baina halere, zertarako uka, berriak min eman zigun, geure bizitzatik norbait baliotsu galdu genuelako nahigabeaz.

Xabier txikitan Bilbon bizi eta Bizkaiko hiriburuan egin zituen lehen ikasketak. Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz, haren aita – nik neuk nerabegarotik ezagutzeko ohorea izan nuen abertzale eta euskaltzale fina bera – lantokitik kanporatu zuten eta bere etxeko guztiekin Kanarietara joan behar izan zuen, Las Palmasera, bizimodu bila. Xabierrek bertako Merkataritza eskolan egin zituen goi mailako ikasketak. Aitak ez zekien euskaraz ongi, baina seme-alaba guztiek amarengandik jaso zuten gure herriko hizkuntza. Kanarietakoa ez zen, ekonomia aldetik, lan txarra, baina aita laster konturatu zen uharte urrun haiek, bertako klima eta bizimodu onak gorabehera, ez zirela euskal familia bat hazi eta hezteko leku aproposenak. Horregatik Bilbora itzuli ziren. Aitak, bere aurretikoekin, ez zuen Bilbon lanik aurkitu eta, etxekoak bertan utzita, bera Cadizera joan

Euskera. 2011, 56, 1-2. 467-474. Bilbo
ISSN 0210-1564

zen lanera, hamabostean behin edo, etxera itzuliz. Xabierrek Bilbon Merkataritzako Intendente ikasketak burutu zituen, bai eta, gainera, solfeo eta pianoarenak ere.

Behin, aita Cadiztik etxera itzulia zen asteburu horietako batean, ohiturarik ezagatik edo, Gereño zaharrak bere emazteari zerbait esan omen zion... erdaraz! Bai eta laster damutu ere, semeetako batek hura entzutean jarri zuen aurpegia ikusi eta amari esan ziona entzutean: «-Ama, aitak erdaraz egin du. Ez daki euskaraz ala?». Handik aurrera, haurrekin zegoenean, esaldi labur eta errazak baziren ere, beti euskaraz mintzatu zen. Andreari esan beharreko gauza serio edota zailagoak, ezinbestean erdarazkoak, behin haurrak oheratu eta gero esaten zizkion bakarrik gelditzen zirenean.

Orduko buruzagi euskaldun eta abertzale askorentzat seme-alabei gure hizkuntza nazionala irakastea hain «beharrezko» eta «nahitaezkoa» ez zen garai hartan, bereziki azpimarratzekoa da Gereñotarren etxeko giro euskaltzalea. Hortik datorke, noski, Bizkaian esan ohi den bezala, «umearen zentzuna, etxean entzuna». Eta Gereñotar guztiek beren eginetan ederki erakutsi dute gurasoengandik lezioa ongi ikasi zutela.

Geroago, Xabierrek *La Aeronáutica S.A.* izeneko enpresan lanean hasi eta hor 33 urtetan zehar kontularitzaren ardura eramane zuen bere gain. Bertako lankide batekin, Manuel Landaluze-rekin, txistua jotzen ikasi zuen eta dantza taldeen ekintzak eta bidaiak antolatzeari ekin zion. 1955ean Txistularien Elkartek berriz indarra hartu zuenean, hor buru-belarri aritu zen lanean. 1957an Txistularien Udal Akademiaren sorrera bultzatu zuen, Bilbon, eta Euskal Herriko Txistularien Elkarteko sortzaile izan genuen. Era berean, San Anton orfeoia sortu zuen taldeko partaidea ere izan zen. *Dantzari* deritzon aldizkaria ere berak sortu zuen.

1950eko hamarkadan Biarritzeko eta Baionako udalekin batera, hainbat jaialdi antolatu zuen Ipar Euskal Herrian ere.

Ni neu, egia, esan, ez naiz ondo gogoratzen lehen aldiz non ikusi eta nola ezagutu nuen Xabier Gereño. Baina, oro har, haren bizitzaren ibilbidea go-goan izanda, egingo nuke hamabost bat urte inguru nituenean, hirurogeiko hamarkaden hasieran. Gaztetxo orduan ni! Halere, Frankismoaren garai

beltza zen arren, Xabier Gereñok eta bere anaia-arrebek, iluntasunean argi bat nolabait egin nahirik, kultura ekitaldiren bat antolatzen ziharduten jada, diktaduraren kartzelatik irtenbide bat zulatzen saiatzen denaren adorearekin. Ordukoxea da gure elkar-ezagutza.

Xabier Gereño Begoña Bilbao-rekin ezkondu zen, euskalgintzan beti lagun eta adore emaille izan zuena. Elkarrekin bi seme hazi eta hezi zituzten: Jon eta Iñaki, biak euskaldun zintzoak.

Bilboko eta Euskal Herri osoko folklore, jaialdi, kultura, euskararen batasunaz eta eguneroko albiste jakingarriez artikulu asko idatzi zituen Txistulari, Karmel, Zeruko Argia, Dantzari, Anaitasuna, Aizu!, Bilbao eta El Mundo agerkarietan, adibidez. Hitzaldietan ere parte hartzen zuen. Esaterako, Deustuko Unibertsitateak 1971an antolaturiko Nazioarteko Euskal Antropologia Asteko jardunaldietan parte hartu zuen, K. Mitxelena, P. Altuna, J.M. Mokoroa eta beste batzuen artean. Berak euskara batuak zer nolako abantaila ekonomikoak ekarriko zizkion euskal testugintzari erakutsi zuen bereziki, euskalkiz egindako edizio ugari bezain garestien gainetik, edizio batu handiago eta merkeagoak bideratzean.

Urte batzuk lehenago, 1965ean Ermuko bileran izan zen, Euskal Idazleen Elkartea sortzeko ekitaldian.

Garai hartako irratiek (Herri-irratiek bereziki) euskarari uzten zioten zirikietuz baliatuz, Xabier Gereñok euskal kulturari buruzko lanak irratizatzen zituen, Jose Luis Bengoa Zubizarreta kazetari euskaltzale eta musikazalearen laguntzaz.

CINSA liburu eta disko argitaletxearen zuzendaria izan zen ere, eta horren bidez 42 disko plazaratu zituen, gehienak euskal kanteekin, eta batzuk haurrentzako euskal ipuinekin ere. Gogoan dut, horietako batean, Txano Gorritxorenean, Gabriel Arestiri eskatu ziola laguntza, bere boza eman zezan. Gabrielelek «Baina nik oso boz txarra dut» erantzun zigun, eta «Horrexegatik, otsoarena egiteko, hain zuzen!» azaldu zitzaion. Disko hura arrakastatsua izan zen, Xabierren ustez, Gabrielen boz beldurgarri hura Otsoaren pertsonaiarako oso egokia izan zelako, haurrei ipuinarekin beldurra sentitzea gustatzen zitzaien eta. *Cinsa* etxeak, halaber, euskal liburu batzuk eman zituen argitara

G. Arestik bihotzez miresten zituen Xabier eta berorren anaia-arrebak. Xabierri «inurria» zeritzon, txikia baina beti lanean, edozein oztopo, ekinaren ekinaz, bidetik kentzeko ahalmenaz.

1963. urtean Joan XXIII. aita santuak *Pacem in Terris* entziklika argitaratu zuenean, Estatu propiorik gabeko herrien hizkuntza eta kultura eskubideen arazoa atera zen plazara. Handik bi urtetara, 1965eko urtarilaren 1ean Jose Antonio Retolazak eta Don Klaudio Gallastegi apaizek San Antongo elizan meza euskaraz eskaintzea erabaki zuten. Horren inguruan, eta Don Klaudio-ren sermoi ederrak bezain ausartak entzutearren, Bilboko eta inguruetako jende asko elkartzen zen igandero, meza ondoan zazpi kaleetatik euskal giro ederra sortuz. Hortxe biltzen zinen adibidez, Gereñotarrak, G. Aresti, Alfonso Irigoien, Sabin Zubiri, Boni txistularia, eta beste euskaltzale eta abertzale asko ere. Gaurko begiokin begiraturik, euskarazko meza bat Bilbon antolatzeari huskeriatzat jo daiteke, baina katakunba giro hartan bizi beharra izan genuenok ekintza hari egiazko aurrerapauso generitzon, dudarik gabe.

1968. urtean, Xabier Gereño espetxeratu zuten. Julen Lekuonaren «Ez, ez dut nahi» kantak behar zuen baimena ez zuen eskuratu, eta X. Gereñok, argitaratzaileak, delitu larri horregatik 15 egun eman zituen kartzelan. Hau izan zen bere bizitzan atxilotu zuten bigarren aldia, hoguei urte lehenago ere giltzaperatua izan baitzen, 1948an, orduan euskara irakasteko ikastegi bat sortu nahi izan zuelako.

Gertatu hauen argitan, ez dute oroimen onik erakusten denbora hartan Francok eta haren erregimenak euskal hizkuntza eta kultura ez zituztela zapaltzen eta haren bizialdi eta egintzez panegiriko goxoak aldizka predikatzen diguten azken orduko istoriolari errebisionistek.

Egia da orduko aurrerazale eta ezkertiar batzuek folklorzalekeria hutsa zeritzotela herri tradizioko musika eta dantza ekitaldi horietan jarduteari, baina garai hartako debeku-giroan, haiek noraezekoak izan ziren euskal giro erabat zapaldua birpizteko, eta frankisten erasoek berek ederki adierazten zuten «folkloreria» horien garrantzia.

1965. urtean euskal abesti berrien txapelketa eratu zuen Bilbon, baina agintariek debekatu egin zuten. Txapelketa horretan Benito Lertxundik eta Lourdes Iriondok hartu zuten parte, besteak beste.

Xabier Gereñok aparteko begi zorrotza izaten zuen gure hizkuntzaren funtsezko premiez konturatzen. Horregatik, gaztelaniaz ongi estaliriko arlo batzuk euskaraz gutxi landurik edo oraindik erabat landu gabetik zeudela oharturik, zeregin horretan saiatu zen. Euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez zutenentzat, testu eta irakurgai errazak prestatzen zituen, horien bidez alfabetatu gabeko euskaldun zaharrek eta esperientzia laburreko berriek lehen pausoak eman zituzten. Izan ere, batzuen eginkizunen dibisa «nahi dudana egitea» baldin zen, Xabierrek oso bestelako iritzia zuen: jendea, «eskatzen ziona» ematea, hasi-masietatik abiatuz. Alde horretatik, esan genezake gaurko idazle handien obrak irakurtzeko zaletasuna, neurri handiz, Xabier Gereñok idatziriko irakurgai erraz haietan oinarritu zela, jende euskalduna irakurtzera bultzatzen jakin zuelako.

Eta liburu horiek, Ramon Saizarbitoria gure eleberrigile handiak berak inoiz seinalatu duenez, arrakasta eta estima handiz jasotzen zituzten irakurle hasi berriek. Euskal ikasleen premiak ase nahirik halaber, espainolez, frantsesez eta ingelesez euskara ikasteko metodoak ere eman zituen argitara, *Metodo fácil para aprender euskera básico* (1983) adibidez, oinarritzko lexiko eta hiztegi praktikoak aherentzi gabe.

Eleberri eta teatro lan ugari idatzi zituen Xabierrek, gaurko munduan girotuak: polizi gaiak, espioitza eta era horretako argudioekin. Pertsonaia historikoen biografiak ere bai. Nobela beltza bereziki landu zuen. Horien artean honako hauek aipa nitzake, geroagoko zerrenda osoagoaren aurrekari gisa:

- Arantza artean
- Nora naramazue
- Kikili eta Kokolo Txile-n
- Kikili eta Kokolo espioitzan
- Kuwait-en harrapatuak
- Gerra ezkutua
- Drogen munduan
- Antonello Euskal Herrian
- Napoleon
- Jomeini-ren paradisuak

- Afrika beltzean
- Zumalakarregi, euskal buruzagi
- Euskal espioiak nazien aurka
- Jurgi kapitaina Hong-Kong-en
- Andre Catalina eta Arabiako emir-a
- Gadafi hiltzeko aginduarazi nobela laburra

Guztira 70 obra baino gehiago eman zituen argitara.

Azpimarratzekoak dira, ene ustez, bere nobeletan sorturiko pertsonaiak eta protagonistak, hurrengo liburuetan ere errepikatuak, *Jurgi kapitaina*, adibidez, orduan jaio berria zen ene seme nagusiaren izenaz baliatuz halaxe bataiatua, edo *Antonello*, *Kikili eta Kololo* umorezko pertsonaiak, bai eta, albisteen arabera, egunerokotasunean txertaturiko pertsonaia eta leku errealak erabiltzea: *Khomeini*, *Gadafi*, *Drogen mundua*, *Kuwait*...

Behin bere emaztea 1990. urtean hil eta gero, hurrengo urtean Bilboko *Reina de la Paz* adinekoen egoitzara joan zen bizitzera. Hor kultura eta animazio batzordeko arduraduna izan zen hasiera-hasieratik, eta maiz adiskideoi eskatzen zigun hara hitzaldiak ematera joan gintezen. Behin, bi urte lehenago emandako hitzaldia berriz emateko eskatu zidan, erleei buruzkoa, hain zuzen, eta nik erantzun nion ez zitzaidala egoki iruditzen gai berbera errepikatzea. Honela erantzun zidan, etsipenez: «Ai Xabier! hau zaharren-tzako erresidentzia da, eta hemengoak ia urtero aldatzen dira, asko eta asko beste mundura joanda!». Bestalde, bertan ostaturiko pertsona ia guztiak erdaldunak ziren, eta Xabierrek haien eskariei men eginez, zenbait idazlan erdaraz ere argitaratu zuen: *Carta fatal* espioitza-nobela (1994), *Residencia Rochester* (1994) eta *Huyendo del pasado* (1995), adibidez.

Euskararen alde egindako lan ugariengatik Euskaltzaindiak 1965eko irailaren 24an izendatua zuen euskaltzain urgazle. Gainera. 1980tik 1988 arte Euskaltzaindian lan egin zuen, erakunde honetako kontabilitatea euskaraz antolatuz. Haren bizitzako pasarte hau, ordea, J.L. Lizundia euskaltzainak azalduko du xehekiago.

Euskal Irrati Telebista 1983 aldean antolatu zenean, Xabier Gereño haren lehen Administrazio-Kontseiluko kide izan zen. Urte batzuk geroago, 1998ko apirilaren 24an euskaltzain ohorezko izendatu zuen Akademiak.

2011ko apirilaren 4an hil zen, Bilbon, eta azken ordura arte euskal hizkuntza eta kulturaren alde ibili zen, neka ezinik. Haren etengabeko lanari esker ereindakoak, ordea, hor segitzen du, fruitu ugari ematen. Eskaini digun lanik onena, ordea, ene ustez behintzat, haren izpiritu geldiezia izan da, edozer, ezina badirudi ere, ekinaren ekinaz lor daitekeelako esperantza.

Eta amaitzeko, dolu-hitik ez, poz eta harrotasunezkoak baino.

Haren seme Jon eta Iñaki, haren anaia Joseba eta Sabin, haren arreba Miren Eli eta Eztibalitz: pozik eta harro egon zaitezke, dolu-giroan ere, hain aita on eta zintzo, hain anaia eta neba prestu, euskaltzale eta imitagarria izan duzelako. Eskerrik asko.



Fernando Mendizabal Mujika (1934-2011)

INTXAUSTI, Joseba
Onorezko euskaltzaina

Fernando Mendizabal Mujika Euskaltzaindiko urgazlea¹ Zaldibian jaio zen, 1934ko abenduaren 15ean², eta Donostian hil 2011ko martxoaren 22an, hainbat urtetako gaixoaldi baten ondorioz. Zaldibiako Martin-arotzaeneko (gaurko Zubiondon) Mendizabal-Mujika sendiko umea zen Fernando; baina berau jaio eta laster, 1936ko udaberrian, Ordiziara aldatu ziren guraso eta haurrak. Geroztik han bizi izan zen Fernando, hamaika urte zituela Arantzazurako bidea hartu zuen arte (1946).

Bizitzako zertzeladak

Fernando Mendizabalen gurasoak Zaldibian jaioak ziren, Jose Luis Mendizabal Etxeberria aita (1898-1988) Arrue baserrian, eta ama, Juana Antonia Mujika Aierbe (1908-1994), Azpikoetxeko baserrian. Zaldibian bertan ezkondu ziren, 1928ko urriaren 22an. Aitak Beasaingo Fabrika Handian (CAF) egin zuen lan, eta amak nahikoa lanik izan zuen hamalau

